

Hizkuntza Leonard Bloomfield

Leonard Bloomfielden liburuaren euskal itzulpenari hitzaurrea egiteko Klasikoak-ek luzatzen didan gomitaz baliatu nahi dut joan den mendeko gramatikaren historia eta hizkuntza estudioei begiratu bat emateko, zeinen zuintzat, arrazoi bikainekin, hartzen den Language New York 1933 [gaztelaniazko itzulp. Bloomfield (1964); frantsesezkoa, Bloomfield (1970)], liburu hori.

Orain arte ez dut horrelakorik egiteko irrikarik sentitu: alde batetik, azken une hauetan guztiotan zuzenean gramatika egiten besterik gabe sarturik ibiltzeak (hau da, egiteko horrek ez du niretzat hizkuntzen gramatika eta mintzairarena oro har aurkitzea beste zentzurik) ez zidan gogo handirik uzten neure estudioen gogoeta historikoarekin barreiatzeko; eta, bestetik, hainbeste liburu eta artikulua aurkitzen nituen Hizkuntzalaritza Garaikidearen Historia egitera emanak, non bururatu ere ez baitzitzaidan egiten neure jakite urriarekin gai horretan ekarpena egiterik.

Baina bazegoen nire erresistentzia horretan, irakurleentzat interesgarria izan litekeen besterik ere: eta zera da, zenbait urte direla, hain zuzen ere sentiturik neukan “mendearen eritasuntzat” egiten ziharduten edozertaz berehalaxe historia egiteko presio edo joera, estudio hori estudio garaikideen ibilian egokiaraztekoa, halako moldez, non ziurtasuna izango nuen “aldiekin batera ibiltzekoa”, “egunero egotekoa”. Eta horrela, gramatika estudioetan, korrante edo eskola estrukturalista, generatibista, funtzionalistari... nagusiki egiten zitzairen arretak gramatikari kalte handia egin ziolakoan nengoen, argi eta garbi dagoelarik gramatikalari baten formulazioa, guztiz axolagabea delarik Panini edo Kirparskyren izenean agertzea, gutxi-asko jator, egiazko eta fidela (hizkuntzaren beraren gramatikarekiko) edo gutxi-asko arre edo pedanteskoa soilik izan baitaiteke.

Eta halaber, gramatikaren progresuan sinesteak, zeinak ezinbestez eratorria behar zuen, gramatika zientziazat hartzen zen unetik, zientziaren progresuarekiko sineste orokorretik, nire iritzian, gure artean mende horren hasieran gertatu ziren eta, adibidez, Trubetzkoyren liburu postumoa, Grundzüge... Praha 1939, nire eskuetan erortzean gaztaroa argitu zidaten aurkikuntza leinargietako asko baliogabetu eta galbide aski antzutan barrena eraman zituen.

Erremintak eta ezaguerak metatzen ari bailiran, biharko egunean, lengoaiaren behin betiko ulerkuntza edo teoriara iristeko!, lengoaia bete, ahapean esaten ari denaz zerbait argiro, oraintxe bertan, esateko ahalegina egin beharrean.

Hori zeragatik ere badiot, irakurleak, liburu honetan, edo berezikiago, Bloomfieldengan (1939), gure hizkuntzalariak ideia horiei dien atxikimendua neurtu eta kontratatatu ahal izan dezan, konprometiturik baitzegoen noski, bere aldi eta aldean ia ezinbestekoa zenez, hizkuntzalaritza zientzia gisa ikustearekin, nahiz eta horretaz gero zenbait zehaztapen egingo dugun.

Eta, guztiarekin ere, ezin izan dut Bloomfielden eta Trubetzkoyren liburutik honakoan, argitaratu izan den hainbat gauza multzoan errefusatu, baizik eta hartatik egunean-egunean elikatu eta jagon eta handinahikerien artean, lengoaiaren eremu edo mekanismo batzuei buruz eskuratzen zizkidaten susmo berriak eskertu egin behar izan

ditut; bestetik, ez deritzot hain baliogabe, gomita hau hartzean, 1933-1994 urte horietan zehar gertaturiko hizkuntza estudioen gorabeheraz gogoeta egiteari, aurkikuntza gramatikalaren eta berorri kontrajartzen zaizkion eragozpenen arteko borroka preziatzeko hain zuzen ere, eta interesgune gisa, Bloomfield liburua zertan ari zen, agertu zenean, eta zertan ari den gaur gure artean, neure buruari galdetzeko.

Zaila da, hori dela-eta, ez ematea garrantzien bat gramatikariaren bizitzako leku eta datei, bere ikasketa-prozesuan izan zituen hautespen eta mugapenei buruz zerbait argitzeko.

Horrela, Bloomfield AEBetan jaio zen (1887), baina berriki erroteriko familia judu aleman batetik, familian erabiltzen zuten hizkuntza artean alemana zelarik. Ezinbestekoa gertatzen da Edward Sapir, bere garaietako amerikar hizkuntzalaritzako beste izen handiarekin parekatzea (biek germanistika ikasi eta hartan lortzen dute doktoregoa, hortik hizkuntzalaritza orokorrera eta hizkuntza indiar amerikarrei buruzko estudioetara pasatzeko, Franz Boasen irakaskuntzaren arabera; biek Language izenburua duen laburbildumazko liburu bana argitaratzen dute, Sapirrena 1921ean; biek Mendeurren Kongresu bana ospatzen dute, 1984 eta 1987an), zeina bera ere familia judu eta alemanarekin mutikotan AEBetara iritsi zen; eta hori biei kontrajarri izan zitzaizen guztia gorabehera [ikus, adibidez, Cowan eta besteengan (1986)], Sapir “indibidualistago” eta “artistago”, Bloomfield 1 lehorrago eta psikologia indibidualarekiko uzkurrago.

Baina, gertakari eta baldintza horietatik, Bloomfielden (eta Sapirren) gramatika estudioetatik hartuko zuten forman eraginen bat izan zuela agian pentsa litekeen gauza bakarra da mendearen hasieran gertatu izanik (eta ez tradiziozko gramatika eskolarretik abiatutik, baizik eta hizkuntzalaritza indoeuroparretik, bere izaera historikoaren gaitortze gisa) hizkuntzaren elementu abstraktuen aitortze bat errealitate fisikoez apartekotzat aitortze hori F. de Saussureren Cours-en, eta zeina argi eta garbi geratzen den Trubetzkoyren urteak arte, hau da, 2. Mundu Gerratearen hasierakoetara arte, kontua da, adina eta Amerikan errotzearen aipaturiko zirkunstantziengatik, eta berandu, 20, urteen azkenetan soilik, European bertan hedapena eta erabilera izan zutelako Saussureren obrak eta beste batzuek, K. Bühlerren Sprachtheorie, Jena 1924, bezain deskubritzaileak ziren beste batzuk (L. Tesnière-ren lanak ez aipatzearen, zeinaren Esquisse d'une syntaxe structurale 1953ra arte ez baitzen agertu), nekez pentsa dezakegu Bloomfieldek (ezta Sapirrek ere) Ameriketako hizkuntzalari izateko beren prestakuntza eta ikasketa urteetan horretatik guztitik ezer hartu izan zutenik. Halere hemen aipatzekoa da nola Bloomfieldek berak, aski isolatuki nik uste, ongiatorria egin ziola Saussureren Cours-aren agerpenari erreseina labur batekin, Bloomfield (1924).

Bereizkuntza edo décalage horren erakustale bat da halaber “estruturalismo” izengoitia Atlantikoz honaindi erabiltzen zeneko modua, elkarren artean zerikusi handirik ez zuten gauzak aipatuz. Alde batetik, “estrutura” hitzak sistema, Saussureren asoziazio-erlazioen eremua aipatzeko joera izan du, eta bestetik, estrutura sintagmatikoak, ekoizpenaren “lerroan”.

Nik neuk ezin dut neure burua erabat libratu bereizte eta urruntze horrek, hizkuntzako gertakarien izaera bereziari buruzko aurkikuntza agian erabakigarrienak azaltzen ari ziren urteetan hain zuzen ere, ez bakarrik Bloomfieldek (eta Sapirrek) beren hizkuntzalaritza eta gramatika estudioak zuzenduko zituzteneko formarekin zerikusia

baduten susmotik, baizik eta, areago oraindik, geroko hizkuntzalaritza eskolak Iparramerikan garatuko zireneko formarekin ere.

Ez da pentsatu behar horrenbestez hizkuntzaren ikertzaile iparramerikarrek alor horietan European egiten ari zirena multzoan ahaztu zutenik, edota ia gehienek gaizki ulertu zutenik ere: hor dauzkagu, besteak beste, kontrako adibide on modura, Ch. F. Hockettena, zeinak hainbat alditan berreditaturiko Course-n, Hockett (1958) [ikus halaber hizkuntzalaritzaren ikuspenari buruzko aldaketak Hockett (1968) eta Hockett (1987) obretan], ikuspen besarkatzaile eta ulerkorra zuela aditzera eman baitzuen. Berorri, hain zuzen ere, zor diogu segur aski Bloomfielden obraren preziazio eta erabilera proposamen hobea bere Antologia-n, Hockett (1970), eta algonkierari buruzko bere estudioen aipamenean, Hockett (1948) obran.

Are gutxiago esan nahi dut horrenbestez Bloomfield bera aurkikuntza nagusienetako batzuekiko sentibera izan ez zenik, irakurleak liburu honen V. kapitulutik ikus dezakeenez, non Trubetzkoyrenarekin alderatuta askozaz aurrekoagoa izaki, behar bezala jasota dauden “fonema” nozio abstraktua eta fonetikoaren bereizpena.

Eta gehiago: gramatikaren beste alor batean, Bloomfieldek bere kide amerikar eta europarrei aurrea hartu ziela ere esan dezaket gramatika eskolarreko perpausaren atalean erabilera auzitan jartzeari dagokionez, edozein hizkuntzatarako (puntu horretan geroko Amerikar Eskolak oso urrun gelditu dira berorri jarraitzetik), liburu honetan ikus daitekeenez, adibidez, 1.8-9 eta 16.4 pasarteetan, baita ilokeraren bere deskribapenari aplikatuz ere, Bloomfield (1942), Householder-en (1972) berrargitaratua, non “Perpausaren Atalak” alde batera uzten dituen eta, aztertu erregularrez, “open” eta “object” expressions eta, hitzetarako, “pronouns”, “full words” eta “particles” esamoldeez ordeztu dituen.

Baina horrenbestez zera zioen, European mendearen hasieran eta gerra bitartean izandako aurkikuntzetan zegoenetik garrantzizkoenaren ulerkuntza urri batek (eta hori ez da amerikarrek soilik duten zerbait), batez ere “hizkuntza zeinuaz” eta hizkuntza gertakariak errealitatearekiko dutenaz bestelakoa, zientziak estudiatzen dituenek (“iraultzaile” terminoa gehiegi merkatu dute egunero Zientzian eta Arteetan iraultzak ikusten dituztenek), neurri handi batean argitu egiten dute Bloomfielden ondoren Iparrameriketara (eta ondorioz, munduan) gramatika-estudioek hartuko zuten forma, batez ere eskola bihurtzaile edo sortzaileetan, eta baita berorien muga eta desbideratze bereziak ere: hori, jakina, gramatika eskolarrarekiko (Hizkuntzaren Lehen eta Bigarren Hezkuntzetakoez ari naiz) tradizio eta nozioekiko gehiegizko fideltasunarekin batera, zeinak eskola amerikarretan luzaroago eta askozaz indar handiagoarekin iraunarazi behar izan baitzitzairen europar eskoletan baino (Frantziakoak 2. Gerratera arte kenduz gero agian), zeinetatik zetozen tradizio horiek.

Bloomfieldek berak korrante horiekiko zituen erlazioei dagokienez, batez ere geroko sortzaile edo bihurtzaileekikoez, pixka batean gelditu eta gogoeta egitea komeni da: zeren, alde batetik, nabaria da (eta uste dut horixe esaten dela gehienbat bat normalean) korrante horietan badagoela haustura-une bat Bloomfielden jarrerarekiko, halako “mekanizismo” eta baita “konduktismo” bati berari ere (zeinak Bloomfieldengan bere estudioen erdigune eta ardatzarekiko apeta akzesorioak diren, baita halako “materialismo” bat ere agian) “mentalismo” edo N. Chomsky eta bere jarraitzaileengan bere burua “cartesianismotzat” daukan bati kontrajarriko omen litzaiokeen zentzuan;

baina, beste alde batetik, filosofiaren azalkeriak alde batera utzirik (Bloomfielden bera ere alde batera uzten ahalegintzen zenez) Bloomfielden teknika eta ideien ondare ukaezina dago geroko korrante horietan, bere ikasle izan zuen Z.S. Harrisen obraren bitartez nagusiki pasaraziak [ikus Harris (1960) eta Harris (1946)], zeinak ondorioz bapikatu eta batzuetan praktikara eraman zituen maisuaren proposamen tekniko zenbaitetan hoberenak ez ziren batzuk (irakurleak hemen XII-XIV. kapituluetan aurkituko ditu batik bat), hizketaren ekoizpen “lerrozkoan” unitateak eta elementuen arteko erlazioak aurki daitezkeeneko moduz.

Ondare horretatik, hain zuzen ere, etorriko da gero “egitura sakona” “lerroan” areago kontzebitzea, eta horrela arau eta arau-mota neketsuak sortaraziz beraien bitartez “azaleko egitura” harekin erlazioa dadin; hori, jakina, analisi zorrotz askoren artean, zeinak metodo horiek gorabehera egin diren, gramatikalariaren erregelak (eta teoriaren justifikazioa) hizkuntzen gramatika bertan eraentzaile diren arauen aurkikuntza tartekatzea etorri ez direnean.

Baina honenbestez L. Bloomfielden lana eta liburu hau mende honetako hizkuntzalaritza eta gramatikaren gorabeheretan apur bat kokatzen lagundu dudalarik (eta zalantzarik gabe ausardia gehiegizkoarekin), uste dut eskertzekoagoa izango dela liburu honen irakurleentzat (Klasikoak-ek ongi egiten du noski euskal adituentzat argitaratzean: zeren oraindik ere datu ongi ordenatuen eta preziazio zentzuzkoen iturri aberatsa baita lengoaiaren auzi askori buruz) liburu hau irakurtzen zertxobait mesedegarri izatea, bertatik atera daitekeen etekina ateratzen, baita bere irakurketan sor litezkeen nahasmendu batzuetatik ihes egiten ere.

Beraz, kapituluz kapitulu birpasatzeari ekingo diot hemen, egokientzat jotzen ditudan zenbait ohar eginez.

Bere lehen kapitulan, Bloomfieldek hizkuntzalaritzaren historia datutan aski aberatsa eta oro har preziaziotan doia egiten du, mendearen azkenetatik honantz ekarri gabe eta lehen aipatu dudan “gramatikaren iraultza” unetan sartu gabe. Garrantzizkoa da 1.8an H. Paulen obrari buruzkoan gelditzea, zeren oso nabarmen uzten baitu agerian lengoai gertakarien “adierazpen psikologikoari” dion arbuioa; Bloomfieldek berak zuen jarreraren arabera izango zen (baita errebotez, errebelaturik ere ibiliko zen “psikologia” terminoak berak duen adieraniztasunagatik) neurri handi batean arbuio hori.

Behar bada, edozein kasutan ere, hutsune bat sumatzen da, hizkuntza estudioetarako “filosofia” den guztiaren bidezko arbuioarengatik, Antzinateko eta Erdi Aroko logikariek, eta G. Frege eta B. Russelenganainokoek pixka bat lehenago edo R. Carnapenganainokoek [ikus Carnap (1937), zeina Bloomfieldengan (1939) erabiltzen den] edo W.V. Quine eta A. Tarskyrengainokoek liburu honen urteen ondotoan erlazio sintaktikoen eta hizkuntzaren sistemaren antolakuntzaren aurkikuntzari egin dizkioten ekarpenei jaramon handiagorik ez egitearena. Izan ere, “Logika” eta “Gramatika” bereiztea aldean daramagun faltsukeria bat da, eta Logika ezin daiteke Gramatika orokorrak bestelako zerbait izan.

Hitz batean, 1.9an hizkuntza behar bezala deskribatzeko ezagutza historikoaren gabezia aditzera ematen denean, ongi gehi lekioko hizkuntzak bere aurreko egoerei buruzko oroimenik hain zuzen ere ezin eduki duelako gertatzen dela hori.

2.1ean arrazoiz erasotzen zaio idazkuntza eta hizkuntzaren arteko nahasteari eta hizkuntza bizi bat deskribatzeko literacy-rik ez dela beharrezko erakusten da, horixe baita Bloomfieldek hizkuntza amerindiarrekiko bere esperientziatik atera zuen fruituetariko bat; eta bigarren mailan uzten da “zuzen/oker” auzia hizkuntzalaritzarentzat [Ikus honi buruz Bloomfield (1927) ere]. Irakurleak aurrera jo dezake, hortik herriaren jakitearen eta bera ikertzeko bitartekoen lekua non dagoen galdezka.

2.2an eta hurrengoetan, lengoaia Jack & Jill eta sagar-alearen ipuin sonatuarekin eta “lan banaketarekin” egiten duen erlazionatzea barregarri eta desbideratu samarrak gertatzen dira; agian ez delako kontuan hartzen (baina ez Bloomfieldengan, orokorrean baizik) lengoaia baliagarri zaiela gizakien egintzei, baina, bestalde, lengoaiaren egintza bat dela, bereizpen hori argi eta garbi ikusten delarik bata eta bestea bereizten diren kasuetan, adibidez norbaitek dioenean “Pasako al didazu azukrea?”, non hiztunak horrenbestez nahi duena (eta lortuko duena), dena delakoa izango da, baina esaldia berez zerbait egiten ari da, galdetzen hain zuzen ere.

Badu erlazorik horrekin, 2.5ean, trial and error, arrakastak eta porrotak metatzearen bitartez apendizaiak esplikatzearen ahaleginak esaldigintzan (eta fonemagintzan); eta halaber, 2.8an, “mentalismo idealista” eta “materialismo zientifikoaren” arteko kontrajartze lauso eta nekatuak, zeinak bere aldetik zerikusia duen jadanik aipaturiko Bloomfield, eta bere jarraitzaileak, preso gelditzearekin gramatika zientziazat kontsideratzearen, eta ondorioz ikerketa zientifikoaren metodoak aplikatzearen ahaleginean, behar bada kontuan hartu ez zuelako zientzia, bere aldetik, lengoai kasu bat dela.

Ez naiz geldituko kanpo hizkuntzalaritza edo hizkuntza soziologiako auzietan, idiomak, argotak, dialektoak, elebitasuna eta abar bezalakoetan, izan ere hurrengo urteetan asko landu eta argitaratu den arren, Bloomfielden agerpen laburbildua sarrera egokia baita oraindik ere.

Hizkuntzalaritza konparatiboaren tradizio sendoaren ordezkari fidel eta aditu gisa ageri da – izan ere hartatik elikatuak baitzituen nagusiki bere ikasketak-- eta, 1933az geroztik hainbeste egin eta idatzi bada ere unibertsalen bilaketan eta hizkuntza tipologiaren garapenean, indoeuropar hizkuntzalaritzaren eremuan eraberrikuntza eta hedapen batzuk ere eginez, esango nuke Bloomfielden aurkezpena mamitsua dela eta funtsezko ezertan ez duela irakurlea desbideratuko ongi finkaturiko metodo eta ikasteremu horien ulerkuntzan.

Gramatika III. kapituluaren hasten da fonemarekin. “Fonema” izakiaren izatasuna aski argi eta zehazki aurkezturik dago. Horrela, 5.2 n, egoki aitorturik ageri da ekoizpenaren mugagabetasuna, “hots infinituki konplexuak, infinituki bariatuak”, zeinari kontrajarri behar zaion fonemaren izatasuna. Eta 5.3 eta 5.4an (ez du traba handirik egiten Bloomfieldek fonologiari fonetika praktiko bezalako zerbait deitzeko gogoia izateak) “zenbait zertzelada fonetiko nola bereizten ditugun eta gainerakoari kasurik egiten ez diogun” eta ondorioz “muntagabe” eta “bereizgarriaren” arteko banaketa, aski zehatzak dira, nahiz eta zientzian tematzeak esanarazten dion nola oraindik zientziak ez diren perfektu bilakatu (ikus 5.6an, bi erregistro zientifiko-mota, akustikoa eta fonologikoari buruz), horregatik gaude hemen murrizturik fonema zer den

definitzeko “suposizio” edo “hipotesi” moduko batera, “hizkuntza elkarte guztietan, zenbait esaldi bai formaz eta bai esanahiaz berdintsuak” direlakora.

Eta irakurleari burutik kendu nahi diot 1933az geroztik, izaki abstraktu edo ideal horien tratamenduan aurrerapausoak eman diren pentsamendua, eta gutxiago beste ezer baino areago traba gertatu diren zertzeladatan “fonema desintegratze” prozesuarekin (atomoaren imitazio argiz: antzinakoek biei elementum deitu baitzieten).

Zentzuzkoak dira, gainerakoan, idazkuntzari buruzko bere oharrak fonemekiko erlazioan, baita bere zalantza eta erabakiak ere, 5.9an, transkripzioa eta “alfabeto fonetiko unibertsalaz”, nahiz eta ez beragan ezta orokorrean era nabarmendu ez den alfabeto fonetiko unibertsalaren ideia idazkuntza alfabetikoaren beraren printzipioen kontra doalakorik.

Bitxia da, 5.11n, azentuak eta beste prosodia batzuk “bigarren mailako fonematzat” nola hartzen dituen (honetaz gehiago gero, VII. kapitulua dela-eta), baina horko ingeles (mota baten) fonemen deskribapen eta zerrenda bikaina da.

IV. kapitulua neurri handi batean ekoizpenaren gorabehera fonetikoaren estudiorako desbideratze behartua da. Eta interesgarri da ikustea nola gramatika zientziazat hartzearen kontzientziak berriz ere esanarazten dion, 6.1ean, “esanahiaren ikerketa zientziaren ahalmenetatik kanpo gelditzen den bitartean, hizkuntzen azterketa eta bilketa, artea edo trebetasun praktikoa” gisako zerbait izango da.

V. kapituluan antzinako izenaz, prosodia deitzen dudanaren eta Bloomfieldentzat edo “bigarren mailako fonema” edo “aldaketa” direnen trataera, oro har, gure egunotara arte iraun duenez, nahasgarri eta lausoa da, oraindik desagertzen ez diren aurreiritzien eraginez. Horrela “luzera” edo “iraupena” gramatika gertakaritzat jotzen da oraindik ere eta, 7.2an “mora” termino eta nozioa erabiltzen diren arren, morak iraupen-unitateak dira (ez dira agertzen, noski gramatika gertakari gisa “gramatika silabaren muga”, eta bere kasuan, “mora-muga”, gaizkiulertze asko ezabatuko zituzkeena); ingelesezko hitz azentua, adibidez, (non stress ingeles terminoak berak neurri handi batean nahastea areagotu duen) “indar” izaten dirauen. Eta 7.6an, esaldi (sentence) doinuen eta adierazpen sintaktikozko beste doinu batzuen tratamendu lasterra den, eta ohi bezain gaizki ulertua.

Baina VI. kapituluan ongi itzultzen da fonologiaren (edo bere terminotan, fonetika praktikokoaren) eta esanahiarekiko erlazioan fonemek duten funtzioaren tratamendura.

Esanahira VII. kapitulutik sartzen da (meaning hitzak ere kalte handia egin du, “hitz-esanahia” eta esaldiaren zentzuaren” arteko banaketa trabatzeari dagokionez bereziki) eta bitxia da nola aurkezten zaion Bloomfieldi arazoa 9.1ean, errealitatearen ezagutzaren tartekatzez”; hizkuntza baten forma bakoitzaren esanahiaren definizio zientifikoki zehatza emateko, ezaguera zientifikoki zehatza eduki beharko genuke hiztunaren munduak bere baitan daukan guztiaz”; eta hori dela-eta, 9.4an, itzuli egiten da “mentalismo/materialismo” eztabaidara (argi dago gauza bera direla: “errealitate mentalak” errealitateen parte bat dira, eta “errealitate” ideia bat da).

Baina, 9.5ean, berriz ere zentzu komunak bide zuzenetik darama estudioa, “ebidentzia fisikoaren” kontra berberatasun gramatikalaren aniztasun mugagabea aitortzean: “zenbait elkartetan zenbait hizkera ahoskaldi berdintsu dira formaz eta esanahiaz.”

Eta 9. 7-8an aski zuzen eta iradokigarria da zaraten baitako ez-fonemikoa, “zentzu ez gramatikala” eta konnotazioen eta hitzen esanahi translaziozkoa dei genezakeena bezalako gauzen estudioa; non Bloomfieldek, guztiarekin ere, esanahi bat “erdikotzat” beti edukitzen den jarrera hartzen duen.

Funtsezko garrantzia du, Bloomfieldeen estudio eta metodo gramatikalerako, “gramatika formei” buruzko X. kapituluak. Non behatu eta estimatu behar dugun, halako estrainiotasun batekin, “hitz beraren formak” direnak ekoizpenetik forma ekoiztuen arteko antzekotasun partzialez deduzitzeko ahalegina (ondoren Z. Harrisek hitzaurrez hornituko zuena). Ez dago, noski, bereizpen argirik (ondorengo gramatikalarien artean ere ez dut aurkitu ongi egina) “hitza” ekoizpen tramu eta lexikoan gordailuturiko izaki ideal gisa harturiko “hitzaren” artean. Ondorioz, behin baino gehiagotan agertuko da hemen, geroago 11.5ean bezala, Bloomfieldek “hitz beraren formak” nozioa bera onartzeari dion aiherra.

VII. kapitulu horretan bi esaldi-mota aipatzen dira. Eta ohartarazi egiten dut hemen, espainiar tradizio aspaldikoaren arabera (baita frantsesarenera ere) “frase” terminoa ingelesezko sentence-ri dagokiona bezala darabilt (nahiz eta batzuetan utterance bat areago izango litzatekeen), azken urteotan, modako gramatiken itzulpenean, negargarriro “perpaus” esan izan denean (zeina espainiar gramatika tradizioan gutxi gorabehera “clause”-ri dagokion), argi dagoelarik ingelesezko phrase terminoa (erabilera zehatza duen neurrian) “sintagma” edo “talde” moduko bati dagokio, hitzezkoa, frase eta perpausa baino txikiagoa denari.

Hemen, funtsezkoa izan beharko lukeen frase-intonazioen, estudioan, nahikoa arreta handiarekin dabil haztamuka, 3 bereiziz, zeina “esklamatibo” deitzen duen “doinuzko distortsio” baten aplikazioz 6 izatera iristen diren. Eta halaber, arretatsua dirudi eta ez erabat desbideratua tramu txikiagoen, sintagma (eta perpausekoak) intonazioen estudioak. Irakurleak zentzu komunaren gabezia handia nabarituko du (hemen, baita ondorengo tratamendu askotan ere) korrespondentzia bat lortzeari dagokionez bere zentzu komunak susmatzen duenarekiko zeinak hizkuntzan jotatzen duen intonazioek sintaxiarekiko dituzten erlazioei buruz.

VIII. kapitulan, “Sintaxia” izenburupean, auzi-multzo heterogeneo samar bat tratatzen da, zeinak diren sandhi-arenak, komunztadurenak, “subjektu-predikatu” tradiziozkoaren eraikuntzak bezalakoak. Jakina, oraindik Bloomfieldegana iritsi gabe zeuden Pragmatics-estudioak, zeinek luzaroan arakatu dituzten, “pragmatiko” eta “sintaktikoaren” arteko erlazioak. Eta, jakina, behar adinako argitasunez esaldi baten antolakuntza sintaktikoaren baitako fase edo uneak, aparatuaren adierazgailu eta hitzak ateratzetik hasi eta (eta batzuetan baita “sintagma aurrefabrikatuak” ere), (bat-bateko) eraikuntza unetik igaroz, harik eta eskema hori ekoizpen “lerrozko” edo “denborazkora” jaurti arte, mekanismo guztiz anitzen nahasmenduak traba handi izaten jarraituko du hizkuntza baten eta lengoaia baten “sintaxia” aurkitzeko.

Horrela, bada IX. “Morfologia” kapitulan, elementu osagaien “banaezintasun” nozioa, Bloomfieldeen gramatikarako funtsezkoa dena, ez da ohartzen hiztunak (eta entzuleak) bere diskurtsoa eraikitzen dueneko fase diferenteei (sistemaren egoera, esaldiaren

antolakuntza instantzia, ekoizpena) buruzkoa denik eta zeinean gramatikariak banaezintasuna kontsideratzen duen.

Guztiarekin ere, 13.1eko iradokizuna, hizkuntza tipoen tradiziozko banaketa erabiltzen duten eraikuntza eskemaren arabera zehaztekoa, 13.2an ordinalen bitartez hitzari elementuak egozte-ordenaren adierazpena, “radikal” eta “tema” bereiztea 13.13an, eta beste hainbeste ikerketak eta esplikazio ahaleginek ere badute hemen zer irakatsi ugari.

XII. kapituluan, “konposizio” estudioan (“sintaxia” eta “morfologiaren” arteko mugen auzia barne dela) eta Bloomfieldek “lehen mailako eratorketa” eta “bigarren mailako” deitzen duenarena (“erregular/irregular” nozioen eztabaidarekin), besteak beste, gramatika eskuliburuak ohi duten baino mami eta iradokizun gehiago eskainiko dio irakurleari. Ez beza oharkabea pasa, 14.8an, nola ukitzen den bidenabar “erroaren” erlazioa “hitzen arteko antzekotasun unitate partzial gisa” “erroaren” aurrez aurre “hitzetik” historikoki datorren zer bait bezala.

Behar bada ez da hain egokia “Ordezpena” izenburupean, XIII. kapituluan, adierazgailu erakusle eta anaforikoei buruzko auzien tratamendua, non fidelegi dirauen (gerora ere gramatika sortzaileak, adibidez, iraun duenez) antzinakoengandik datorren errakuntzarekiko “izenorde” izendapenean, izan ere horrek ulertaraz baitezake “I”, “ni”, hiztuna denotatzen duen edozein esamolde substantibo singularren ordezko baten gisakoa dela. Bitxia da errakuntza hori kontraesanik gelditzea hizkuntza baten zuzeneko behaketa eta deskribapenera iristean, Bloomfieldek (1942) ilokeraz egin zuen aipaturikoa bezalakora, non adierazgailu horiei eskaini behar zaien lekua eta denborak ongi aditzera ematen duten bere izaera primario eta funtsezkoaren berri esanahiko hitzei dagokienean.

Halaber, ez da oso argigarria (ondorengo gramatika estudioetan ere ez da errotu) XIV. kapituluan egiten duen “lexiko” eta “sintaxiko” elementuak “taxema/tagmema”, eta abarrezko izendapen-joko konplexuaren bitartez sailkatzeko ahalegina ildotik. “Zentzua” (esaldiarena) eta “esanahia” (horrelakorik duten hitzena) ez bereizteak ere izugarritzko eragina du nahaste-borrastean. Halere, ohar bekie irakurlea, horren guztiaren erdian, liburuak ugari dituen “zentzu komunezko” erabakiei, horrela, 16.4an, “Perpau Atalezko sistema bat ezin daiteke erabat modu asebetegarrian [ingeleserako] finka: gure Perpau Atalen zerrenda garrantzitsuentzat jotzen ditugun funtzioen baitan egongo da”.

XVII. kapituluan idazkuntzara itzultzen da, eta hor aurkituko du irakurleak berriematekorik eta zuhurki ulertutakorik ugari, nahiz eta gerora hainbat Idazkuntzaren Historia bikain eta estudio dokumentatu argitara eman diren, berriki erreseinatu dudan Haarman-ena (1990) bezalakoak. Ohar bedi, nahiz eta “ideografikoetatik” “alfabetikoetarako” iragaitzan, ohi denez, “idazkuntza silabiko” ideia onartzen den, Bloomfieldek zuhurtasunak gauza “hala dirudi” batekin aurkeztarazten dio 17.4an, kasuari buruzko bere gogoeten berri ongi emanez.

Hitz batean, liburuaren azken parterako, XVIII-XXVII. kapituluetarako, zeinetan tratatzen diren kanpo hizkuntza estudioak, hizkuntzalaritza konparatiboa, hizkuntza geografia, hizkuntza aldaketak, elkarreraginak, maileguak... nahiz eta printzipio batzuen hutsunea aurkitzen dudan adibidez, aldaketaren barne-eragilearena, sistemaren parte desberdinetan dagoen erregulartasunerako joeraz, edo hizkuntzaren erregioen mailaketarena kanpo eraginetik hurbilen daudenetik hasi eta urrunenekoetaraino,

Bloomfielden (irakaskuntza trinkoaren tradizioan, indoeuropar hizkuntzalaritza konparatiboarenean heziaren eta beste familia batzuetako hizkuntzen, hala nola filipinarren edo amerindiarren analisi eta deskribapenean adituaren) obraren irakurleari berriz ere gomendioa egitea soilik gelditzen zait esanez maisu handi baten obra dela, jakintsua izaki ezagueratan eta zentzuduna beroriek eskaintzeko eran,

“Applikazioak” XXVIII. kapituluan, “Nola esan behar du?” auziaren ondorioz (hau da, kontzientzia pertsonalak eta erakunde sozial eta eskolarrek inork deitu gabe esku-hartze desegokia egiten dutelako) pertsonai sor lekizkiekeen perturbazio eta urduritasunak kontsideratzea bera ere, obran zehar normalean ia beti lagun izaten dugun bere espiritu finezia eta zentzu onaren lekuko dugu.

Horrela, bada, irakurleari lagundu eta liburu hau irakurtzera bultzatzeko egin dizkiodan oharra ez dira “egunera jartzeko” ahalegin bezala ulertu behar progresuan sinetsi ere egiten ez duen baten aldetik, zientifikoek (eta politikoez) sinesten dutela dioten erara, baizik eta irakurketan konpainia eskaintze bat bezala neure erreakzioen aztarna horiekin, zeinak desiratzen ditudan ez gramatikari naizenez neure trebezia badaezpada kotik sortuak soilik, baita lengoaiaren hitun naizenez neure zentzu komunitate ere; nahiz eta biok, berez, gauza bera izan beharko luketen.

Eta ohar horiek ez dute traba egin behar, bultzatu baizik liburu hau irakurri eta ustatzera. Ikusten du irakurleak, bestalde, ohar kritiko gehienak ez direla hainbeste Bloomfieldi eginak, baizik eta, nire ustez, bera eta gure garaiko hizkuntza estudioan berak partaidetzan zituen errakuntza eta nahasmenduei zuzenduak areago.

Liburu honek lagunduko al du bere irakurleetako batzuk adoreturik senti daitezen euskal hizkuntzaren edo hizkuntzen gramatika deskribapena egitera, gramatika horretaz badakitela ohartu gabe hitunek dakitenarekiko gero eta fidelagoa izango dena.

Agustín GARCIA CALVO

Bloch, B. (1949) “Leonard Bloomfield” *Language* XXV, 87-98 [nekrologikoa eta bibliografia orokorra]

Bloomfield, L. (1924), F. de Saussureren *Cours-en erreseina*, *Modern Language Journal* VIII, 317-319.

Bloomfield, L. (1927) “Literate and Illiterate Speech” *American Speech* 2, 132-439 [Dell Hymes (1966) 391-396an berrargitaratua]

Bloomfield, L. (1939) *Linguistics Aspects of Science* Chicago [10^o ed. 1969. Gaztelaniazko itzulpena. Aspectos lingüísticos de la Ciencia Madrid 1973]

Bloomfield, L. (1942) “Outline of Ilocano syntax” *Language* XVIII, 193-200 [Householder-en (1972) berrargitaratua]

Bloomfield, L. (1964): *Language-ren gaztelaniazko itzulpena*. (Lenguaje) Alma F. A. de Zubizarreta, “Universidad Nacional Mayor de San Marcos” Lima. [A. Escobar-en hitzaurrea]

Bloomfield, L.(1970) Language-ren frantsesezko itzulpena (Le language) Janick Gazio, "Payot" Paris. [Avant-propos de Frédéric François]
Carnap, A. (1937) Logical Syntax of language Londres eta N.Y. 1937 [jatorrizko edizioa, Viena 1934]

Cowan, W. (1986)- Forster, M.A. – Koerner, K. (biltzaileak) New perspectives in language, culture, and personality: Proceedings of the Edward Sapir centenary conference. (Ottawa 1-3 Oct. 1984)

Dell Hymes (1966) Language in Culture and Society. A reader in Linguistics and Anthropology "Harper" N.Y.-Londres-Tokyo.

Falk, J.S. "Otto Jespersen, Leonar Bloomfield and American structural linguistics" Language LX-VIII, 465-491.

Fries, Ch. C. (1961) "The Bloomfield School" Trends in European and American linguistics 1930-1960

Gray. L.A. (1949) "Mécanisme eta mentalisme dans le langage" Acta lingüística V, 2 65-73.

Haarmann, H. (1990) Universal-geschichte der Schrift "Campus Verlag" Frankfurt – N.Y. [A. García Calvoren erreseina "Desde que nos escribimos..." Claves XXXIII (1993) 50-53.

Hall, R. (1951) "American linguistics 1925-1950" Archivum linguisticum III 101-125 eta IV 1-16.

Harris, Z.S. (1946) "From morphem to utterance" Language XXII 161-183.

Harris, Z.S. (1960) Structural Linguistics "Phoenix Books" Chicago.

Hill, A.A.(1955) "Linguistics since Bloomfield" Quarterly Journal of Speech XLI 253-260, H.B. Allen Applied English linguistics N.Y. 1958an jaso.

Hockett, Ch. F. (1948) "Implications of Bloomfield's Algonquian studies" Language XXIV 117-131 ["aldaketa txikiekin" berrargitaratua Dell Hymes (1966) 599-611n]

Hockett, Ch. F.(1958) A course in modern linguistics "Macmillan" N.Y.- Londres [12^a ed. 1967]

Hockett, Ch. F. (1968) The state of the art "Mouton" Haga – Paris

Hockett, Ch. F. (1970) A Bloomfield anthology "Indiana Univ. Press" Bloomington.

Hockett, Ch. F. (1987) Refurbishing our foundations "John Benjamins" Amsterdam – Philadelphia

Householder, Fr. W. (biltzailea) (1972 Syntactic Theory 1. Structur[al (ist)] Selected Readings "Penguin Books"

Robins, R.H. "Leonard Bloomfield: The man and the man of science" Transactions of the Philological Society LXXXVI 63-87.

1

HIZKUNTZAREN IKERKETA

1.1. Hizkuntzak berebiziko garrantzia du gure bizitzan. Agian ezaguna zaigulako, gutxitan aztertzen dugu, eta, aitzitik, berez baletorkigu legez hartzen dugu, arnas hartze edo ibiltzearekin egiten dugun eran. Hizkuntzaren eragina garrantzitsua da, eta gizakiok animalietatik bereizten gaituen gehientsua biltzen du, baina hizkuntzak ez du gure hezkuntza egitasmoetan edota filosofoen gogoetetan tokirik aurkitzen.

Halere, badira hainbat egoera, non ohiko heziketa arrunta jaso duten pertsonak hizkuntza arazoez kezkatzen baitira. Lantzean behin, hau ala beste hori "ongi" dagoen eztabaidatzen dute - adibidez, it's I ala it's me [edota irten du ala irten da] esatea "hobe" ote den. Pertsona hauek ildo estu batetik eraman ohi dute gai hauei buruzko eztabaida. Ahal delarik, idazkera arauetan bilatzen dute erantzuna -esaterako, often edo soften hitzetako t ahoskatu behar ote den [edota baina hitza "in" ala "ñ" ahoskatu behar den]. Bestela, arauturik dagoenera jo ohi dute: sinestu ohi dutenez, bada hitz egiteko era bat, berez egokia dena, gainerakoak txarrak direlarik, eta zenbait pertsona ikasik argi diezaiekete zein den zein, gramatikalarik eta hiztegiak batetik. Gehienetan, baina, ez ohi dute arautzaile hauen aholkua bilatzen eta, aitzitik, "subjektua", "objektua", "predikatua" eta antzeko hitzak darabiltzan arrazonamendu filosofia usteko baten bidez erabakitzen dute arazoa. Hauxe dugu hizkuntza kontuetan aritzeko ohiko bidea. Ohituretan mozturik ageri zaizkigun beste hainbat kontu bezala, erabat sofistikatu da, eta antzinako eta Erdi Aroko filosofoen gogoetatik datorkigu zuzenean, aldaketa handirik jasan gabe.

Gutxi gora-behera, aurreko mendetik hona bakarrik hasi gatzazkio hizkuntzari zientziazkoa den era batean begiratzen, azterketa artetsu eta landuen bitartez; badira salbuespen gutxi batzuk, berehala aipatuko ditugunak. Hizkuntzalaritza, hots, hizkuntzaren ikerketa, bere hastapenetan dago. Lortu duen ezagutza ez da ohiko heziketaren parte bilakatu oraindik; gure eskoletako "gramatika" eta antzeko irakasketak ez dira ohituraren ibiliak ekarritako ideia zaharkituen errepikatzea baino. Askok eta askok, zailtasunak aurkitzen dituzte hizkuntzalaritza ikasketen hasieran, ez metodoez eta ondorioez jabetzerakoan (hauek nahiko soilak direlarik), baizik eta inposatu zaizkigun ohiturazko doktrina eskolastikoen aurriritziak ahazteko ahaleginetan.

1.2. Antzinako grekoek, gainerako gizakiek jakintzat hartzen zituzten gauzez harritzeko dohaia zeukaten. Ausarki eta gotorki, hizkuntzaren sorreraz, historiaz eta egituraz aritu ziren etengabe. Ohituraz gure artean hizkuntzari buruz errepikatzen diren gogoetak haienak ditugu, gehienbat.

Herodotok, K.a. V. mendeko idazleak, Egiptoko Psammetikho erregeak gizakien arteko naziorik zaharrena (honek azken batean zer esan nahi zuen zehazki ez dakigularik) zein zen asmatzeko, jaioberri bi parke batean bakarrik utzi zituela esaten digu; mintzatzen hasi zirenean, bekos hitza ahoskatu zuten, frigieraz ogia izendatzeko erabiltzen dena.

Bere Kratilo elkarrizketan, Platonek (K.a. 427-347) hitzen sorrera eztabaidatzen du, bereziki gauzen eta gauzok izendatzen dituzten hitzen arteko harremana berezkoa eta beharrezkoa ala giza ohituren ondoriozkoa ote den. Elkarrizketa honek mendea beteko duen eztabaida luze baten lehen distirak eskaintzen dizkigu: analogistak batetik, hizkuntza berezkoa eta ondorioz funtsean ereduazkoa eta logikoa zela sinesten zutenak,

eta anomalistak bestetik, hau guztia ukatzen zutenak, hizkuntzaren egiturak erakusten duen eredurik eza azpimarratzen zutelarik.

Analogistek, hitzen sorrera eta benetako esanahia beren itxuratik asma zitekeela sinesten zuten; gai honen ikerketari etimologia deitu zioten. Ingelesetiko adibideen bitartez argi dezakegu haien teoria. Blackbird "zozo" hitzak, noski, black "beltz" eta bird "txori" hitzak biltzen ditu; mota hau kolorearen arabera izendatu zen eta, izan ere, blackbird izeneko izakiak txoriak dira eta beltzak ere bai. Era berean, grekoek gooseberry izeneko marrubi mota eta goose "antzar" izeneko animaliaaren artean sakoneko harremanik bazela sinestu izango zuten: etimologialariaren lana harreman hori zertan datzan asmatzea litzateke. Mushroom "perretxiko" hitzak arazo larriagoak sortuko zizkiekeen [ingelesezko hitz hau frantseseko mousseron-etik dator, baina ingelesezko mush "bigun, bigunkeria" eta room "gela" hitzek osatua dela sines liteke, bere jatorria ezagutu ezean]. Osagaiek sarri asko aldaketak jasaten dituzte: adibidez, breakfast "gosari" hitzak, ahoskera aldetik ezberdina den arren, fast "baraua" break "etetzen" duen eguneko lehen jakia izendatzen du [breakfast hitzaren break zatiko bokala laburra da, "eten" aditzarena luzea eta diptongatua delarik], eta manly "gizonki" hitza man-like "gizona-lako" elkartuaren laburketa da.

Grekeraz, alabaina, ingelesez bezala, hitz gehienek ez dute honelako azterketarik onartzen. Honela, early "goiz" hitzaren bukaera manly hitzarena bezalakoa da, baina gelditzen den hitz pusketaren esanahia iluna zaigu; woman "emakume" man "gizon" hitzaren antzekoa da baina, zer da gainerako lehen silaba hori? Eta gero badira hainbat eta hainbat hitz labur, antzekorik ez dutenak -man "gizon", boy "mutil", good "on", bad "txar", eat "jan", run "laster egin" bezalakoak. Honelakoetan, grekoek eta baita jarraitzaile izan zituzten erromatarrek ere, asmakizunetara jo zuten. Esaterako, grekerazko lithos "harri" hitzaren jatorria, lian theein "gehiegi laster egitea" esaldiaren bidez azaldu zuten, hauxe baita harriak egiten ez duena. Honen antzeko latinetiko adibide bat bada, jokabide honen eredu bihurtu dena: lucus a non lucendo "zuhaiztiak (lucus), argirik, distirarik (lucendo) ez duelako dauka izen hori".

Edonola ere, etimologia hauek erakusten digute grekoek bazekitela hizkera aleak denboraren ibilian aldatu egiten direna. Aldaketa hauen ikerketa sistematikoan aurkitu dituzte egungo ikasleek hizkuntz arazo gehienek giltzak. Antzinakoek ez zioten sekula hizkuntza aldaketaren azterketa artetsuari ekin.

Antzinako grekoek ez zuten eurenaz besteko hizkuntzarik aztertu; egiaztat hartu zuten, besterik gabe, beren hizkuntzaren egituran mamitzen zela giza gogoaren eite unibertsa, eta, agian, ordena kosmikoarena ere bai. Ondorioz, gramatikazko oharra egin zituzten, baina hizkuntza bakar honi buruzkoak, eta filosofia bailitzan eratu zituzten iruzkinok. Beren hizkuntzaren perpaus atalak aurkitu zituzten, bere sintaxi egiturak, hala nola, bereziki, subjektua eta predikatuarena, eta baita flexio kategoria nagusiak ere: generoa, aniztasuna, kasuak, pertsonak, denborak eta ahalkerak. Hauek adierazteko baina, ez zituzten hizkuntza adibide jakinak erabili, baizik hizkuntzazko klase horien esanahia agerira ekarri asmo zituzten deitura abstraktuak. Irakaskuntza hauek, Dionysio Thraxiarra (K.a. II. mendea) eta Apollonio Dyskolo (K.o. II. mendea) pentsalarien gramatiketan agertzen zaigu erarik garbienean.

Grekoek azterketa zehatzagorik egin bazuten ere, beren lanaren alde honek, zoritxarrez, eragin ahulagoa izan zuen gerora begira. Beren epika poema miresgarriak, Iliada eta Odisea, eurek idatzi sakratutzat zituztenak nolabait, antzinakoa eta poemotaz kanpo ezezaguna zen grekera batean idatzirik zeuden. Testuok ulertzeko, eta kopia egokiak egiteko, beharrezkoa zen haien hizkuntza aztertzea. Aristarko (K.a. 216-144 gutxi gorabehera) izan zen zeregin hauetan ezagunena. Grekerazko gainerako literatura zenbait herrialde dialektoetatiko eredu bateratuez idatzirik zegoen: grekoek beren hizkuntzaren

hainbat aldaera ezberdin erkatzeko aukera izan zuten. Laugarren mendeko Atenaseko idazle ospetsuen hizkuntza zaharkitu zenean, aztergai berezi bilakatu zen ere, hitzaldi idatzien eredurik egokientzat zeukatelako. Ikerketa hauek guztiek ezaugarri zehatzen azterketa arretatsua eskatzen zuten. Geroko zenbait gramatikalarik, eta hauetarik Herodian, Apollonio Dyskoloren seme zenak bereziki, balio handiko iruzkinak egin zituzten antzinako grekeraren deklinabide eta indarraren kokapenari buruz, beste hainbat gairen artean.

1.3. Grekoek aurkeztu hizkuntzari buruzko aurkikuntzak ez ziren XVIII. mendera arte gainditu: garai honetan, jakintsuek, hizkuntza Jainkoak emandako doaia zelako ideia baztertu eta, bere sorrerari buruzko zenbait teoria eskaini zituzten. Hizkuntza antzinako heroien asmakizuna zen, edota Herriaren Izpiritu mistiko baten sorkuntza. Gizakiek inguruko zaratak imitatzeke egin zituzten saioetatik jaio zen (bow-wow "zaunkadaren" teoria, hau da, onomatopeien teoria), edo berezkoak zitzaizkien hots erantzunetatik (pooh-pooh teoria, hots, interjekzioena).

Hizkuntz aldaeren azalpen etimologikoari dagokionez, ez zen aurrerapausorik egin. Voltairek esan omen zuenez, etimologiaren zientzian bokalek ez zuten ezertarako balio eta kontsonanteek oso gutxitarako.

Erromatarrek, grekoen eredia jarraitzen zuten gramatikak idatzi zituzten; hauetarik ospetsuenek, Donatoren lanak (K.o. IV. mendean) eta Priszianorenak (K.o. VI. mendean), testu liburu bezala iraun zuten Erdi Aroan zehar. Erdi Aroan, latinak bere antzinako itxurak egun hizkuntza erromantzeen izenpean ezagutzen ditugunetara aldatzen zituen bitartean (frantsesa, italiera, gaztelania eta abar), idazterakoan antzinako latinaren eredia ahalik hobekien jarraitzea zen araua. Erdi Aroko jakintsuak, bada, bai latin herrialdeetan eta bai besteetan ere, latin klasikoa ikasten zuen bakar-bakarrik. Filosofo eskolastikoez latinaren gramatika ezaugarri asko aurkitu zituzten, hala nola izen eta adjektiboaren arteko banaketa, edota komunztadura, gobernu eta aposizioaren arteko ezberdintasunak. Antzinako erromatarrena baino urriagoa izan zen beren emaitza, dena den, antzinakoek aztertzen ziharduten hizkuntzaren berezko ezagutza zeukatelako. Erdi Aroko jakintsuek, logikaren arabera guztiz egokia zen giza hizkera eredia ikusten zuten latina aztertzean. Hurbilago ditugun garaietan, asmo honek suspertu zituen gramatika orokorrak idazteko ahaleginak; gramatikotan, hainbat hizkuntzen egiturak, eta bereziki latinarenak, unibertsalki egokiak diren logika ereduak biltzen dituela frogatu nahi da. Hauetarik entzutetsuena, Port-Royal apaiztegiko *Grammaire générale et raisonnée* izeneko dugu, 1660.ean agertu zena. Egitasmo orokor honek XIX. mendera arte iraun zuen; klasikoen ikerlaria zen Gottfried Hermann-en *De emendanda ratione Graecae grammaticae* lanean (1801) aurki daiteke, adibidez. Gure eskoletako ohituretan mamiturik dirau, hizkuntzari eredu logikoak ezarri nahi zaizkion neurrian. Egungo filosofoek ere, behin edo behin, unibertsoari buruzko egiak bilatzen dituzte hizkuntza bateko edo besteko egitura ezaugarriak baino ez direnetan.

Gramatika orokorrak, zoritxarrez, jakintsuek jende arruntak nola hitz egin behar duen arau zezaketelako ustea zabaldu zuen, gramatikalariek eta lexikografoek, beren arrazoinamendu botereak lagundurik, hizkuntzaren oinarri logikoak aurki zitzaketela sinesten baitzuten. XVIII. mendean, heziketaren hedatzeak, dialekto hitzunak zirenak, goi mailako klaseen hizkera ikastera eraman zituen. Honek berebiziko aukera eskaini zien agintezaleei: gramatika arautzaileak idatzi zituzten, non, sarri asko, benetako erabilera baztertzeko baitzen, egilearen asmakerien alde. "Agintean" sineste honek batetik eta, asmatutik zenbait arau bitxiak bestetik (shall eta will etorkizuneko formen erabilerari buruzkoak, esaterako), bizirik dira gure eskoletan.

Erdi Aroko jakintsuarentzat, liburuetan ageri zen latin klasikoa zen benetako hizkuntza, ez besterik; gainerako hizkerei buruzko jakinminaz aztarna bakanak baino ez ditugu.

Berpizkunde garaian zabaldu zen ostarrea. Erdi Aroaren bukaeran, grekeraren ikerketa modan jarri zen atzera; handik gutxira, hebraiera eta arabiera gehitu zitzaizkion. Garrantzitsuago zena, hainbat herrialdetako jakintsuei euren garaiko hizkuntzari buruzko interesa piztu zitzaien.

Bidaien garaiak hizkuntza askoren azaleko ezagutza ekarri zuen. Bidaiariek hiztegiak ekartzen zituzten eurekin eta, misiolariek ezagutu berri ziren herrietako hizkuntzetara itzuli zituzten erlijio liburuak. Zenbaitek hizkuntza exotikoen gramatika eta hiztegiak egin zituzten ere. Espainiar apaizak XVI. mendetik aurrera aritu ziren honelako lanetan; Ameriketako eta Filipinetako hizkuntzei buruzko hainbat liburu, haiei dizkiegu zor. Lan hauek arreta handiz erabili behar dira; egileek, erdal soinuen ezagutza jorratu gabeak, ezin zezaketen hauen itxuraketa egokirik eskaini eta, latinaren gramatikako deiturak bakarrik zekizkitenez, molde horretara bortxaturik antolatu ohi zuten gaien aurkezpena. Gure-geure garaietan ere, hizkuntzalaritzan trebatuak ez direnek horrelako lanak sortu izan dituzte; alferrik emandako lanorduez gain, jakingarri asko eta asko galdu ditugu era honetan.

Merkataritza eta bidaien ugaltzeak hurbilago zeuden hizkuntzen gramatika eta hiztegien bilketa ekarri zuen ondorio. Hizkuntzalaritzak XVIII. mendearen bukaeran zuen besarkaduraren neurrirako, 1786.ean P.S. Pallas-ek (1741-1811) argitaratutako glosarioa erabil genezake, Errusiako Katalinaren babesean egindakoa, eta 285 hitz Europa eta Asiako berrehun hizkuntzatan eskaintzen zituen. Lan honen bigarren argitalpen batek, 1791.ean, laurogei hizkuntza gehitu zizkion, Afrika eta Ameriketako zenbait jaso. 1806 eta 1817 tartean, lau liburukitan banatutako idazki mardula agertu zen, Mithridates izenburuaz, J.C. Adelung eta J.S. Vater-ek idatzia, Aita Gurea otoitza ia bostehun hizkuntzatan biltzen zuena.

Berpizkundeak, beren hizkuntzen antzinako lekukoetara itzuli zituen hainbat jakintsuren gogoak. Franciscus Junius-ek (1589-1677) lan ikaragarria egin zuen ingelesa eta bere kide hurkoak diren frasiera, holandera, alemaniera, eskandinabiera eta gotikoaren idatzi zaharrak ikertzen. Azken hizkuntza hau -egun mintzatzen ez dena-, garai hartan aurkitu berria zen Silver Kodize entzutetsutik ezagutzen zuen Juniusek; ebanjelioaren pasarteetan itzulpenak biltzen dituen K.a. VI. mendeko izkribu hau, ebanjelio zatien itzulpenez osaturik dago; Juniusek bere testua argitaratu zuen, ebanjelio anglosaxoiekin batera. George Hickes (1642-1715) jarraiki zitzaion lan honetan, gotikoa eta anglosaxoieraren gramatika bat argitaratuz, hala nola ingelesa eta ahizpa dituen hizkuntzei buruzko denetariko argibideak biltzen dituen Thesaurus mardula ere.

1.4. Orain arte itxuratu dugun garapenak, XVIII. mendeko ikerlariek hizkuntzaz zekitena erakusten digu. Hizkuntzaren gramatika ezaugarriak filosofiaren ildotik adierazten zituzten eta, ez zieten hizkuntzen artean dauden egiturazko ezberdintasunei batere jaramonik egiten; aitzitik, ezberdintasunok mozorrotzen zituzten, beren deskribapenak latinaren gramatika moldera behartzean. Ez zituzten mintzoaren hotsak aztertu eta alfabetoaren sinboloekin nahasi zituzten. Mintzoa eta idazkera bereizi ezin honek, hizkuntzaren historiari buruzko iritziak okertu zizkien. Erdi Aro eta garai modernoetan bikainki hezitako pertsonak latin ona idatz (eta are hitz egin) zezaketela ikusten zuten, baina garai berean, idazkari axolagabe edota ez hain ondo heziek erru ugari egiten zituzten: latinez idazte hau ariketa artifizial eta eskolatua zela asmatu ezinik, ondo hezitako jende txukunaren erabilerak hizkuntza gordetzen duela atera zuten ondorio, herri xeheak, ordea, usteldu eta aldatu egiten duelarik. Era berean, bada, ingelesa bezalako egungo hizkuntzen kasuan, liburuetako hizkera eta goi mailako lagunen mintzoa hizkuntzaren maila zahar eta garbiagoaren erakusgarritzat zeukaten, zeinetatik "ustelkeria" gisa abartzen baitziren herri xehearen "arruntkeriak", "hizkuntz

gainbehera" prozedura etengabe batean. Gramatikagileak libre ziren, beraz, logika burutapenetatik eratortzen zituzten arau itxurapainak asmatzeko.

Oinarrigabeko uste hauek, ezinezko egin zieten ikerlariari eskumenean zeuzkaten datuen erabilera zuzena: egungo hizkuntzak eta dialektoak, antzinako hizkuntzen aztarnak, hizkuntza exotikoei buruzko berriak eta, batik bat, hizkuntza jakin baten denboran zeharreko itxura ezberdinak erakusten dituzten idatziak; esaterako, anglosaxoiera (ingeles zaharra) eta egungo ingelesa, edota latina eta egungo hizkuntza erromantzeak. Ezaguna zen hizkuntzok elkarren antzik bazutela, baina hizkuntzen gainbeheraren teoriak antzekotasun hauen ikerketa sakona oztopatzen zuen, zeren, latinetik frantsesera zeramaten aldaketak, adibidez, halabeharrean gertatutako ustelkeri mordotzat hartzen baitziren.

Latinak aldaketarik jasan gabe hizkuntza erromantzeen ondoan bizirik iraun zuelako usteak, egungo hizkuntzak bata bestearengatik eratortzera bultzatu zituen ikerlariak. Gehien bat, gainerako hizkuntza guztien sorburutzat hebraiera hartu zuten, baina baziren bestelako iritziak ere, esaterako Gropius Becanus Anbereseakoarena, zeinak, abertzalea izanik, holanderatik eratortzen baitzituen hizkuntza guztiak.

Argi zegoen Europako hizkuntza ezagunenak hiru taldetan banatzen zirena, talde bakoitzean aurki zitezkeen antzekotasunei begiraturik, ondoko hitz zerrendetan ikus daitekeenez:

Talde germanikoa Talde erromantzea Talde eslabiarra
"esku"

Ingelesa hand Frantsesa main Errusiera ruka
Holandera hand Italiaera mano Poloniera re,ka
Alemanera Hand Gaztelera mano Bohemiaera ruka
Daniera haand Serbiaera ruka
Suediera hand
"oin"

Ingelesa foot Frantsesa pied Errusiera noga
Holandera voet Italiaera piede Poloniera noga
Alemanera Fusz Gaztelera pie Bohemiaera noga
Daniera fod Serbiaera noga
Suediera fod
"negu"

Ingelesa winter Frantsesa hiver Errusiera zima
Holandera winter Italiaera inverno Poloniera zima
Alemanera Winter Gaztelera invierno Bohemiaera zima
Daniera vinter Serbiaera zima
Suediera vinter
"edan"

Ingelesa drink Frantsesa boire Errusiera pit'
Holandera drinken Italiaera bere Poloniera pic'
Alemanera trinken Gaztelera beber Bohemiaera piti
Daniera drikke Serbiaera piti
Suediera dricka

Ezaguna zen, orobat, talde hauen arteko hain begi bistakoa ez zen antzekotasuna ere; antzekotasun zabalago hau gainerako zenbait hizkuntzataraz hedatzen zen, hala nola, bereziki, grekerara:

"ama": grekeraz me-te-r, latinez ma-ter (bere egungo ondorengo erromantzeekin batera), errusieraz mat' (genitiboa materi, eta antzeko formak eslabiarr hizkuntzetan), ingelesez mother (eta antzeko hitzak germaniar hizkuntzetan);

"bi": grekeraz duo, latinez duo, errusieraz dva, ingelesez two;

"hiru": grekeraz treis, latinez tres, errusieraz tri, ingelesez three;

"da": grekeraz esti, latinez est, errusieraz jest', ingelesez is (alemaneraz ist).

1.5. Europako ohituratik kanpo, hainbat herrik garatu dituzte hizkuntzari buruzko irizpideak, gehienbat filologiaren ildotik, hots, idatzi zaharren azterketaren bidetik. Arabiarrek beren hizkuntzak Koran liburuan agertzen duen forma klasikoaren gramatika bat osatu zuten; honen ereduari, herrialde musulmanetan bizi ziren juduek hebraieraren gramatika eratu zuten. Berpizkunde garaian, Europako ikerlariak lan hauek ezagutu zituzten; esaterako, hitzaren gunea erro izendatzeko ohitura, hebraieraren gramatika batetik datorkigu. Asiako ekialdean, txinatarrek hizkuntzaren iraganaz jakinduria itzela bildu zuten, bereziki lexikografiaren eremuan. Japonieraren gramatikagintza bere aldetik sortua dela dirudi.

Indian sortuak dira baina, Europako hizkuntzari buruzko ideiak iraultzera helduko ziren jakinduria eta irizpideak. Brahman erlijioak, antzinako himno sorta gordetzen zuen idatzi sakratutzat; sorta honetan bildumarik zaharrena, Rig-Veda delakoaren zati bat, gutxienez K.a. 1.200 ingurukoa dugu. Idatzi hauetako hizkuntza zaharkituz zihoalarik, gizon talde eskolatu berezi baten lana bilakatu zen hitzon ahoskabide zuzena eta esaldien adierazpen jatorra zein zen zehaztea. Honela sortutako hizkuntzaren garapenari buruzko jakinmina, beste eremu praktikoagoetara hedatu zen. Hinduen artean, gure artean bezalaxe, gizarte mailak hizkeraren aldetik ere bereizten ziren. Dirudienez, baziren goi mailako hiztunak maila apalagokoen hizkuntza formak erabiltzera zeramatzaten indarrak. Hinduar gramatikagileen jakinmina idatzi sakratuetatik goi mailako hiztunen hizkuntzara zuzendu eta, sanskrito izendatu zuten hizkera zuzena deskribatzen zuten arauak eta zerrendak eratzeari ekin zioten. Denborarekin, gramatika eta hiztegiaren antolaketa egituratua osatu zuten. Belaunaldietan zeharretako lan mardula egin behar izan zen, zalantzarik gabe, gugana heldu den trataturik zaharrena, Pa-niniren gramatika, idatzi aurretik. Gramatika hau, K.a. 350 eta 250 tartekoa, giza adimenari egin zaion oroitarrik itzelena dugu. Zehaztasunik xumeenarekin deskribatzen ditu egilearen hizkuntzaren inflexio, eratorketa, elkarketa eta joskera erabilera guztiak. Ez dago, orduz geroz, honen bikainki deskribatu izan den hizkuntzarik. Agian kodifikapen ezin txukunago honen laguntzaz bilakatu zen sanskrito, denboraren ibilian, India brahman guztiaren literatur hizkuntza ofiziala. Inork jaiotzez hitz egiten ez zuen hizkuntza izan arren, luzaroan iraun zuen (Europar latina legez), erlijio eta ikasketa gai guztiak idazteko lanabes artifiziala.

Sanskrito eta hindueraren gramatikari buruzko zenbait berri helduak ziren Europara, misiolarien eskutik, XVI eta XVII. mendeetarako. XVIII. mendean, Indian zebiltzan ingelesek berri zehatzagoak bildu zituzten; XIX. mendearen hasiera ingururako, Europako jakintsuen ondare bilakatu zen sanskritoaren ezagutza.

1.6. Indiatiko gramatikagintzak lehen aldiz aurkeztzen zien europarren begiei hizkuntza baten deskribapen oso eta zehatza, azterketan oinarritua, eta ez aurretiaz erabakitako teoria baten arabera. Are gehiago, sanskritoaren aurkikuntzak hizkuntzen arteko azterketa erkatua egiteko aukera ireki zuen.

Hasteko, hizkuntzen arteko senidetasuna era harrigarri batean egiazta zitekeen, Indiako aparteko bazter batean, Europako hizkuntzarik ezagunenen ahizpa existitzen baitzen; horren lekuko, gorago aipatu ditugun hitzen kideak sanskritoz:

ma-ta- "ama", akusatiboan ma-taram;

dva-u "bi";

trayah "hiru";

asti "hura da."

Are garrantzitsuago ziren irakurleak hizkuntzaren egiturari buruz bil zitzakeen berri zehatzak, hindueraren gramatikako deskribapen zehatz eta sistemadunean. Ordurarte, halako antzekotasun lainotsu eta mamigabeak baino ez ziren antzeman, garaiko gramatikek, grekeraren eredian eginak, ez baitzituzten hizkuntzaren ezaugarriak garbiro azaltzen. Hinduen gramatikak, hizkuntz formak aztertzen irakatsi zien europarrei; osagai atalak erkatzean, ordura arte erdi estaldurik zetzaten antzekotasunak ziurtasun eta zehaztasunez adieraz zitezkeen.

Hizkuntz harremanei buruzko uste nahasi zaharkituek bizirik iraun zuten, Europako hizkuntzak sanskritotik jaioak zirelako ustean, baina denbora laburrean usteok baztertu egin ziren, begi bistakoa zen azalpen zuzenaren alde, hots, sanskritoa, latina, grekera, eta abar, historiaurreko hizkuntza baten ondorengo aldaera gero eta bereziagoak zirela. Antza denez, azalpen hau Sir William Jones-ek (1746-1794) adierazi zuen lehen aldiz, Europako lehenengo sanskrito jakintsu nagusiak, 1786. urtean emandako hitzaldi batean: sanskritoak grekera eta latinarekin duen antzekotasun handia ezin zitekeela halabeharrak sortua izan eta, aitzitik, adierazi zuenez, hirurok "agian jada existitzen ez den iturburu komun bakar batetik isuri direla" eta gotikoak (hau da, germanikoa) eta keltak ere, sorgune berbera izan zutela.

Hizkuntza hauen arteko erkaketa lantzeko, beharrezkoak ziren, noski, bakoitzari buruzko deskribapen datuak. Erkapenaren egitasmoak, alabaina, antzinako hizkera ereduez, tribuen migrazioez eta herrien eta ohituren sorburuez erakutsi zuen guztia hain miresgarria izan zen, ez ziola inork gainerako hizkuntzak sanskritoaren eredian aztertzeko lan gaitzari ekin. Europako jakintsuek latina eta grekera sakonki ezagutzen zituzten; gehienek hizkuntza germanikoren bat zeukaten ama hizkeratzat. Sanskritoaren gramatiketako adierazpen zehatz baten aurrean, edota arretaz aztertutako hiztegi ale baten aurrean, ezagunago zitzaizkien hizkuntzaren batetako antzeko ezaugarriren bat gogora zezaketen sarri. Halere, hau ez zen behin-behineko bidea jorratzea baino; gehienetan, erkatzaileak datuak eurak erabakitzeke ere, alde zurretiko ikerketetan ihardun behar zuen eta, bidezidorretatik galtzen zen batzuetan, metodoz antolatutako datuen faltaz. Hinduek eginiko sanskritoaren deskribapenaren antzekorik izan balute Europako jakitunek ahizpa hizkuntzentzat, indoeuropar hizkuntzen (honela izendatzen dira egun) azterketa erkatuak askoz zehatz eta azkarrago egingo zukeen aurrera. Aitzitik, tresneria kaskar eta guzti, eta hartan zebiltzan langileen gogo sutuari eskerrak, indoeuropar hizkuntzen ikerkuntza historiko eta erkatua, XIX. mendeko europar zientziaren egitasmo nagusietako bat bilakatu zen, baita arrakastatsuenetakoa ere.

Persiako hizkuntzak (iraniar hizkuntzak deitu ohi direnak), hain ziren sanskritoaren antzeko, non berorien senidetasuna zegoen argi. Hain argia ez zen arren, Baltikoko hizkuntzen (lituanera, letoiera eta errusiera zaharra) eta eslabiarren artean antzekotasunak aurkitu ziren ere. Jonesen ustea, hots, germaniar hizkuntzak latina, grekera eta sanskritoaren senide zirela, berehala frogatu zen egiaztat, eta era berean egiaztatu zen zeltar hizkuntzez (irlanderak, galesera, korniera, bretoiera eta Galiako antzinako hizkuntzez) zuen antzeko ustea ere. Geroago, armeniera eta albaniera, eta idatzi bakanen bitartez bakarrik ezagunak zaizkigun antzinako hizkuntza gutxi batzuk ere, indoeuropar senitartekoak zirela frogatu zen.

Nahiz zehaztasunei buruzko eztabaidak izan, hizkuntzaren ikerketa historiko eta erkatuaren oinarri orokorrak laster argitu ziren. Hizkuntzek aldaketak jasaten dituzte denboraren ibilian. Ustezko salbuespenak, hala nola Erdi Aroko eta geroagoko latinaren erabilera (edota, Indian, sanskritoarena), ez dira horixe baino, hezkuntza landuaren bidez jendeak antzinako idatzien eredia antzeratzen ikas dezakeela. Antzinaletasunezko ariketa harrigarri honek ez du zerikusirik hizkuntzak gurasoengandik seme-alabengana egin ohi duen ibiliarekin. Idatzitako guztia, izan ere,

asmakizun berri samarra dugu eta, gure egunak arte bederen, aukeraturiko gutxi batzuk dira idazkuntzaren jabe: idazkuntzak egiazko hizkuntzan, mintzoan, eta bere garapenean duen eragina guztiz azalekoa dugu.

Hizkuntza bat eremu zabal batean hitz egiten bada, edota, migrazioen eraginaz, esparru banatu askotan, era ezberdinean aldatuko da leku bakoitzean eta, senide diren hizkuntza talde bat izango dugu honen ondorioz, adibidez italiara, frantsesera, espainiera, portugesa, rumaniera, eta gainerako dialekto erromantzeak. Hemendik, beste hizkuntza talde batzuk ere, esaterako germaniarrak (edota eslabiarrak edo keltarrak), bistakoa den antzekotasuna dutenak, era berean sortu izan direla ateratzen dugu kontu; historiaren halabeharrak suertaturik, hizkuntza taldeon lehenagoko aztarna idatzirik ez dugu, zatikatzearen aurretik zuten itxura erakutsiko lukeena. Aztarnarik gabeko guraso hizkuntza hauei proto-germaniera bezalako deiturak eman dizkiegu (proto-eslabiera, proto-keltera, eta abar). Era berean, hizkuntza eta hizkuntz talde guzti hauei (sanskritoa, iraniera, armeniera, grekera, albaniera, latina, keltera, germaniera, baltikoera, eslabiera), antzekotasunak ageri dituztela aurkiturik, indoeuropar hizkuntza senitarte deritzegu eta, Jonesekin bat etorritik, antzinako hizkuntza bakar baten ondorengoak direla ateratzen dugu ondorio, hizkuntza arbasoari proto-indoeuropea deritzogularik.

Erkapen metodoa ere, garbi zegoen hasieratik. Oro har, senide diren hizkuntza guztietan edo gehienetan gertatzen den ezaugarri badi, beren aurreko egoera komunaren ere gertatu behar zuen ezaugarri horrek, beren "arbaso hizkuntzan" alegia. Honela, gorago aipaturiko "ama" hitzaren formetatik, argi dago proto-indoeuropearaz hitz honen hasierak m letraren bidez adierazten dugun hotsa behar zuena. Senide hizkuntzak bat ez datozenetan, horietarik batzuek edo denek aldaketa jasan dute. Honela, argi dago "ama" hitzaren bigarren kontsonantea t soinu zena proto-indoeuropearaz, eta ingelesez ageri duen th soinu (hala nola ingeles zaharreko mō-dor hitzaren d soinu) aldaketa baten ondorioa dena.

1.7. Indoeuropar hizkuntzen erkaketa sistemadunaren hasiera, Franz Bopp (1791-1867) ikerlariak 1861.ean argitaratutako sanskrito, grekera, latina, persiera eta germanieraren adizki bukaerei buruzko liburukia izan zen. Rasmus Kristian Rask-ek (1781-1832), 1818.ean, germaniar hizkuntzen hitzek, hotsen aldetik gainerako indoeuropar hizkuntzen hitzekin eredu baten arabera harremanak dauzkatela erakutsi zuen. Adibidez, gainerakoek p duten lekuan, germaniar hizkuntzek f ageri dute, father hitzean legez: latinez pater, foot: latinez pē-s, five "bost": grekeraz pente, few "gutxi": latinez pauc Jakob Grimm-ek (1787-1863) 1819.ean Deutsche Grammatik delakoaren lehen liburukia argitaratu zuen, zeina ez baitzen, izenburuak egun sinestaraz lezakeenez, alemanieraren gramatika, baizik eta germaniar hizkuntzen (gotikoa, eskandinabiera, ingelesa, frisiera, holandera eta alemaniera) gramatika erkatua. Liburuki honen bigarren argitalpenean (1822. urtean), Grimmek germaniera eta gainerako indoeuropar hizkuntzen arteko kontsonante hotsen kidetasunen antolaketa sistemaduna aurkeztu zuen; ordutik, kidetasun hauei Grimmen legea izena eman izan zaie ingelesez mintzatzen diren jakitunen artean. Berez, kidetasun hauek ez dira zertzelada historiko bat baizik, baina beren eragina ikaragarria izan zen: gizakion jokabidea, talde handitan harturik bederen, ausazkoa ez dela erakutsi zuen; aitzitik, mintzoaren etorrian tartekatutako hots bakoitza ahoskatzea bezain ariketa garrantzigabea ere, eredu baten pean joka dezakegula agertu zigun. Grimmek eginiko germaniar hizkuntzen erkapena ez da egundaino gainditu; hiru liburuki gehiago agertu ziren 1826, 1831, eta 1837.an; bosgarren liburukia, joskera arloa osatu behar zuena, ez zen sekula argitaratu.

1833.an, Boppek lan zabal baten argitalpenari ekin zion, indoeuropar hizkuntzen gramatika erkatuari, alegia. 1833 eta 1836 urteen artean, Friedrich Pott-en (1802-1887) Etymological Investigations delakoaren lehen argitalpena argitaratu zen. Etimologia

izenak hemen, eztabaida moderno guztietan legez, esanahi zehatza hartu du: hizkera forma baten etimologia bere historia da besterik gabe; hizkuntza bereko forma zaharragoak eta jatorrizko forma bakarrak senide diren hizkuntzetan eman dituen aldaera ezberdinak aurkituaz eratzen da historia hori. Honela, ingelesezko mother "ama" hitzaren etimologia adieraztean, hitz hau mo-dor, ingeles zaharreko (IX. mendea) formaren egungo ondorioa dela esango genuke; forma zahar hau norvegiera zaharreko mo-Ber, frisia zaharreko mo-der, saxoiera zaharreko mo-dar, eta goi alemaniera zaharreko muoter formen senidea dela (forma hauek guztiak hizkuntza bakoitzeko idatzirik zaharrenetakoak ditugu), guztiak proto germanieraren hitz bakar batetik datozelarik, guk *mo-der bezala adierazten duguna; eta germaniar forma hauek guztiak, beren aldetik, sanskritoko ma-ta-, abestierako (iraniera zaharreko) ma-ta-, armeniera zaharreko mair, grekera zaharreko me-te-r, albanierako motr (aitzitik "ahizpa" esan nahi duena), latineko ma-ter, irlandera zaharreko ma-thir, lituanierazko mote- ("emazte" esanahia duena), eta bulgaria zaharreko (eslabiera) mati formekin dauka harremana ("senidekotasuna"), hala nola hemen erakutsitako hizkuntz taldeetako gainerako hainbat formarekin, guztiak protoindoeuropar formak bakar batetik diren neurrian, guk *ma-te-r bezala adierazten duguna. Adibide honek erakusten duen bezala, etimologiak, egungo zentzuan, ez digu nahitaez gardenagoa den hitzen esanahi zaharragoa eskaintzen. Egun indoeuropar hizkuntzetatik dauzkagun etimologiak, neurri handi batean, Potten ikerkuntzen ondorio dira.

Ondoko hamarkadetan eginiko aurrerapausoa hain izan zen ikaragarria, non bai liburuki txikiak zein testuliburu mardulak zaharkiturik gelditu baitziren. Azkenotarik, argitalpen berriak ezagutu zituen arren, Boppen liburua 1861.ean gainditu zuen August Schleicher-en (1823-1868) Compendium of the Comparative Grammar of the Indo-European Languages delakoak. Gero, 1886.ean, Karl Brugmann-ek (1849-1919) eta Berthold Delbrück-ek (1842-1922), beren Outline of the Comparative Grammar of the Indo-European Languages liburuaren argitaratzeari ekin zioten; honen bigarren argitalpena, 1897-tik 1916 artean agertua, erreferentzia lanik oinarritzkoena dugu gaur ere.

Lanak aurrera egiten zuelarik, beste hainbat liburu, indoeuropar sendiaren beste adar berezien azterketa zehatzean abiatu ziren, Grimmen liburuki itzelak germanierarako egin legez. Friedrich Diez-ek (1794-1876), hizkuntza erromantzeen ikerkuntza landuari ekin zion bere Grammar of the Romance Languages argitalpenean (1836-1844); Johann Kaspar Zeuss-ek (1806-1856), keltar hizkuntzen bidea urratu zuen bere Grammatica Celtica (1853) lanarekin; Franz von Miklosich-ek (1813-1891) Comparative Grammar of the Slavic Languages izenekoa idatzi zuen.

1.8. Ikerketa hauek, noski, hainbat argitasun ekarri zituzten antropologia eta historiaren arloetara, baina beren interesik zuzenena giza hizkuntzari buruz ziotenetan zetzan. Hainbat indoeuropar hizkuntzak sorburu bera baldin bazuten ere, orduz geroz ezagutu zuten garapena berezia zen: ikasleak bada, zehaztasun sorta ikaragarria erabil zezakeen eskuartean giza hizkuntzen aldakuntzari zegokionez, eta honek aldakuntzari buruzko ohar orokorrak egiteko aukera eskaintzen zion.

Hizkuntzen aldakuntzak duen jokabideari buruzko ondorioak itxuratzea, aurreko garaietako asmo eta burutapen hutsen ordeztasun zientziatiko indukzioa erabiltzea zen. William Dwight Whitney (1827-1894) amerikar jakintsuak, Language and the Study of Language (1867) eta The Life and Growth of Language (1874) idatzi zituen. Liburuok Europako hainbat hizkuntzataraz itzuli ziren; egun osatu gabeak dirudite, baina ez oso zaharkituak, eta hizkuntzaren azterketarako sarrera bikaina ditugu oraindik orain. Hermann Paul-ek (1846-1921) 1880. urtean idatzitako Principles of Linguistic History argitaratu zuen, zeina, ondorengo argitalpenetan (bosgarrena 1920.ean agertua), hizkuntzalaritza historikoaren metodoei buruzko oinarritzko lana bilakatu baitzen.

Paulen Principles liburuak, adibide ugariz horniturik, indoeuropar ikerkuntzek agerian utzitako hizkuntz aldakuntzaren jokabidea erakusten digu. Whitneyrena bezain ondo idatzirik ez badago ere, zehaztasun gehiago biltzen ditu eta ereduazkoagoa da; liburu honek eragin handia izan zuen hizkuntzalaritza ikasketetan; belaunaldi berrietako ikasleek bazterrean utzi dute, beren kalterako. Duen idazkera lehorra alde batera utzita ere, Paulen Principles lanak egun begi bistakoak diruditen akatsak dauzka, XIX. mendeko hizkuntzalaritzaren muga erakusgarri direnak.

Hauetariko akats bat, Paulek hizkuntzalaritza deskribatzaileari egiten zion jaramonik eza dugu. Hizkuntzen deskribapenak beharrezkoak zirela onartzen zuen, baina berak jorraturiko gaiak hizkuntz aldakuntzaren ingurukoak ziren bakarrik. Bere garaiko errua dugu hau. Hizkuntz aldakuntza, senide diren hizkuntzak, edota hizkuntza bereko garai ezberdinak erkatuaz azter dezakegu bakarrik. Adibidez, ingeles, frisia, holandera, alemaniera, eskandinabiera eta gotikoaren arteko antzekotasun eta aldeak erkatuaz, hizkuntza zaharragoaren (protogermanieraren) itxuraketa bat era dezakegu, zeinetatik hizkuntzok denboraren ibilian bereizi baitira eta, orduan, beranduagoko hizkuntzetan gertatu diren aldaketak iker ditzakegu. Bestela, ditugun ingeles zaharreko aztarnak (esaterako, Alfred erregearen idatziak) egungo ingelesarekin erkatuaz, azken mila urteotan ingelesa nola aldatu den ikus dezakegu. Bistan da, erkapen hau egiteko ahalmena, erkagaiei buruz dugun ezagutzaren arabera dela. Adibidez, germaniar hizkuntzetako hitz elkarketez (esaerako blackbird edo footsore) dakiguna ez da inolaz ere nahikoa; beraz ezin gaitezke urrunegi abiatu gai honi buruzko azterketa erkatuan, zeinak hitzak protogermanieraz nola elkartzan ziren erakutsiko bailiguke, eta baita ere, ondorengo hizkuntza germaniko bakoitzean elkarketaren jokabidea zein modutan aldatu den. XIX. mendeko hizkuntzalaritza historikoaren ikasleek muga hauek guztiak pairatu zituzten, baina ez omen zuten zailtasun honen benetako izatea ulertu.

Paulen Principles lanari aurki dakiokkeen beste akats nagusia, adierazpen "psikologikoei" ematen zien garrantzi setatian datza. Hizkuntzari buruzko iruzkin guztiak, hiztunen gogoek jasan omen zituzten gora-beherez osatutako parafraseekin lotzen zituen. Gogo gora-behera hauen aldeko ebidentzia bakarra, hizkuntz prozedura bera dugu; ez diote eztabaidari ezer gehitzen, ilundu egiten dutelarik soilik. Paulen liburuan, eta neurri handi batean egundaino ere, hizkuntzalaritzak salatu egiten du antzinako grekoen burutazio psikologikoetan duen iturburua. Paul eta bere garaikide gehientsuek indoeuropar hizkuntzetan ihardun zuten bakarrik, eta deskribapen arazoei garrantzi gutxi ematen zitelarik, ez zieten historia ezezagunak zuten hizkuntzei ekin nahi. Muga honek, bestelako egitura gramatikalen ezagutzatik gorde zituen, zeinak indoeuropearren hainbat oinarritzko ezaugarri erakutsi izango baitzkiekeen, hala nola hizkera atalen sailkapenak giza hizkuntzetan inolaz ere unibertsalak ez direla. Ezaugarriok unibertsalak zirela sinesturik bada, sasi azalpen psikologiko eta filosofikoetara jotzen zuten maiz, batez ere eskuartearen oinarritzko arazoak zerabiltzenez.

1.9. Ikerketa historikoaren ildo nagusiaren aldamenean bazen, halere, hizkuntzalaritza orokorra ikertzen zuen errekatxorik ere. Hinduarren sanskrito gramatika ez zen guztiz ahaztu; ikasle askok gramatika bera existitzen zenik ere jakin gabe bere ondorioak erabili zituzten arren, irakasleak, beren zientziaren aurreatariak ezagutzen zituztenak, baziren lan horren balioaren jabe. Hain ezagunak ez ziren indoeuropar hizkuntzetarako, lan deskribatzaileak saihestezinak ziren. Horietarik hoberena, hizkuntza eslabiko eta baltikoen eremuan, August Leskien-ek (1840-1916) egina dugu, ez halaberharrez, egile honek eragin handia izan zuen eta, ikerketa historikoaren metodoen oinarriak eratzean. Gehien bat, halere, ikasketa deskribatzaileak ez ziren ikerkuntza historikoaren ildo nagusiarekin bildu. Indoeuropar taldeaz kanpoko hizkuntzen egiturazko bitxikeriak

ikasle batzuk erakarri zituen, hizkuntzon historia ezezaguna zen arren. Beste ikasle batzuek hizkuntza sorta zabala aztertu zuten, giza hizkuntzari buruzko irudi filosofiko bat lortzeko asmoz; izan ere, orduko lan deskribatzaile gehiena irakurtezina da egun, jadanik ezezagunak zaizkigun filosofia ideiez josita dagoelako.

Hizkuntzalaritza orokorraren lehen liburu nagusia, Wilhelm von Humboldt-ek (1767-1835) giza hizkuntza mota ezberdinez idatziriko lan mardula dugu, 1836.ean argitaratu zena. H. Steinthal (1823-1899) ikerlariak, hizkuntzaren oinarriez idatziriko lan orokorreaz gain, hizkuntza egitura mota nagusiei buruzko liburuki bat argitaratu zuen 1861.ean. G. von der Gabelentz-en (1840-1893) hizkuntza zientziari buruzko lana ez da hain filosofikoa. Ikerketa ildo honek bere gailurra ezagutu zuen Wilhelm Wundt (1832-1920) filosofari eta psikologilariaren lanean, 1900.ean argitaratu zena, giza psikologiari buruzko bilduma baten atal gisa. Wundtek, eskumenean zituen hizkuntzen deskribapenetan oinarritu zuen bere hizkuntz psikologia. Interesgarria da egun, Delbrück indoeuropalariaren kritika eta Wundten erantzuna irakurtzea, biak hurrengo urtean argitaratuak. Delbrückek, historia ezezaguna duten hizkuntzen erabilera atxakiatzen dio Wundti; berarentzat, hizkuntzak duen baliozko ikergai bakarra, denboraren ibilian ezagutzen dituen aldaketak dira. Wundtek, bere aldetik, bere sistemaren arabera psikologikoari ematen dio garrantzia, Delbrückek, hizkuntzalari batek aukeratzen duen psikologia ereduak garrantzirik ez duela ihardesten diolarik.

Bitartean, zenbait ikaslek gero eta argiago ikusi zuten ikerkuntza deskribatzaile eta historikoaren arteko harremana. Otto Böhtlingk-ek (1815-1904) Pa-nini-ren egungo argitalpen europarraren egileak, teknika deskribatzailea ezarri zion egitura guztiz ezberdina zuen Asiako Errusiako yakut hizkuntzari (1851). Friedrich Müllerrek (1834-1898), hizkuntza zientziaren egitasmo bat argitaratu zuen (1876-1888), zeinak munduko hizkuntzen azaleko itxuraketak biltzen baitzituen, tratamendu historikorik egin zieziaiekeen kontuan hartu gabe. Franz Nikolaus Finck-ek (1867-1910), bai saiakera historiko batean (1905), hala nola senidetasunik gabeko zortzi hizkuntza azterten zituen liburuxka txiki batean (1910), behin eta berriz aldarrikatu zuen deskribapen lana zela ikerketa historiko eta filosofia orokorpenetarako oinarriarik sendoa. Ferdinand de Saussure-k 1857-1913 urtetan adierazi zuen gauza bera unibertsitateko eskoletan; bere heriotzaren ondotik, irakastaldiok liburu gisa argitaratu ziren (1915).

Honi dagokionez, indoeuropearaz kanpoko hizkuntza sendien tratamendu historikoak izan ziren konbentzigarrienak. Batetik, talde hauetan erkapenaren aurretiaz egin beharreko deskribapen lanaren beharra begi bistakoa zen; bestetik, ateratako ondorioek erakutsi zuten, hizkuntza aldaketaren arauak berberak ziren hizkuntza guztietarako, beren gramatika egiturak ezberdinak izanik ere. Fino-hungariar hizkuntzen azterketa erkatua (finera, lapoiera, hungariera, eta kideak) goiz hasi zen, 1799.ean, eta asko garatu da orduz gero. Humboldten argitalpen mardularen bigarren liburukiak, malay-polinesiar hizkuntza sendiaren gramatika erkatua sortu zuen. Egun, beste sendi askoren azterketa erkatuak dauzkagu, hala nola sendi semitikoa, eta bantu sendia Afrikan. Ameriketako hizkuntzen ikasleek ezin zituzten beren buruak inolaz ere engainatu deskribapenaren beharrari zegokionean: Mexikoren iparraldean soilik, badira senidetasunik ez duten hamaika hizkuntza talde, egitura mota askotarikoak ageri dituztenak gainetik. Hizkera formarik bitxienak jaso beharrak sortutako larriunean, batek berehala ikus lezake filosofiazko aurriritziak ez zirela ustearen erdi ustela baizik.

Ikerkuntza ildo bi hauen bilerak, erkapen historikoa eta filosofiko-deskribatzailearena alegia, agerian utzi ditu XIX. mendeko indoeuropalari nagusiei, esaterako Hermann Paul bezalakoei, ihes egin zieten hainbat oinarritzko arazo. Hizkuntz azterketa historiko oro,

datu deskribatzaile sorta bi edo gehiagoren erkapenean oinarritzen da. Datu horiek zehatz eta oso diren neurrian izan daiteke erkapena zehatz eta oso. Hizkuntza deskribatzeko ez da historiari buruzko inolako ezagutzarik izan behar; izan ere, ezagutza horri bere deskribapenean eraginik izaten uzten dion deskribatzaileak datuak bortxatuko ditu nahitaez. Gure deskribapenek aurriritzirik gabeak izan behar dute, erkapen lanetarako oinarri sendorik eskainiko badute behintzat.

Hizkuntzari buruzko orokorpen baliagarri bakarrak, orokorpen induktiboak ditugu. Geure iritzian unibertsalak izan behar luketen ezaugarriak ezezagunak izan litezke aztergai datorkigun hurrengo hizkuntzan. Zenbait ezaugarri, hala nola, esaterako, adizki eta izenkien arteko banaketa, hizkuntza askotan ageri zaizkigu, baina ez denetan. Ezaugarri batzuk oso hedaturik egoteak, dena dela, jakinmina sortu behar digu, eta azalpena eskatzen du; hizkuntza askori buruzko datu fidagarriak ditugunean, gramatika orokorraren arazora itzuli beharko dugu eta antzekotasun eta ezberdintasun horiek azaldu; baina ikerkuntza hau, datorrenean, ez da espekulatzailea izango, induktiboa baino.

Hizkuntzaren aldakuntzari dagokionez, datu nahikoa badugu aldaketa prozedurak hikuntza guztietan berberak direla, eta norabide berbera dutela erakusteko. Hainbat aldaketa berezi, era berean gertatzen dira, iturburu komunik gabe, hizkuntzarik urrunenetan. Gauza hauek ere, egunen batean, gure ezagutza zabalagoa denean, ikerkuntza sistemadunerantz eta orokorpen emankorretarantz eramango gaituzte.

Oharrak

Hizkuntzalaritza ikerketen historia: Pedersen, *Linguistic Science*. Garai zaharrak: Benfey. Indoeuropeari buruzko ikerketak: Delbrück, *Einleitung*; Streitberg, *Geschichte*. Ikerketa germanikoak: Raumer; Paul, *Grundriss* 1.9; W. Streitberg eta V. Michels in Streitberg, *Geschichte* 2.2. Ohitura eskolastiko bakar baten historia: Jellinek, *Geschichte der deutschen Grammatik*. Bada zehaztasun interesgarririk Oertel-en lehenengo kapituluan.

1.2. Antzinekoen hizkuntzari buruzko ikuspegi filosofikoaz: Steinthal, *Geschichte*. Parkeko umeen pasadizoari buruz: Herodoto 2.2.

Lithos hitzaren etimologia, *Etymologicon magnum* liburuan (T. Gaisford, Oxford, 1848) 565.50; lucus hitzarena Quintilianorengandik 1.6.34, eta Laktantio Plazidoren *Statori* buruzko glosa, Achilleis 593 (R. Jahnke argitaratzaile, Leipzig, 1898, 502 or.).

Greziako gramatikariak: G. Uhlig, *Grammatici Graeci*, Leipzig, 1883 eta aur.; Herodia, A. Lentz argitaratzaile, Leipzig, 1867 eta aur.

1.3. Hizkuntzaren sorrerari buruzko teoriak: Steinthal, *Ursprung*; Wundt, *Sprache* 2.628. Max Müller-ek egozten dio etimologiari buruzko esaera Voltaire-ri, *Lectures on the science of language*; Second series liburuan (London, 1864), 238 or.; alferrik bilatu izan dut Voltaireren idatzietan.

Latindar gramatikariak: H. Keil, *Grammatici Latini*, Leipzig, 1857 eta aur.; H. Funaioli, *Grammaticae Romanae fragmenta*, Leipzig, 1907.

Latineraren gramatikari buruzko Erdi Aroko lana: Wackernagel, *Vorlesungen* 1.2.; Thurot.

Port-Royal Gramatika, A. Arnauld eta C. Lancelot-ek idatzia da; 1660.ean agertu zen Parisen, bigarren argitalpena 1664.ean, beste bat Brusselan, 1676; azken hau ikusi dut bakarrik (Chicagoko Newberry liburutegian); argitalpen berriak, adabakidunak, Parisen agertu ziren 1803 eta 1810 urteetan.

Hemeretzigarren mendeko gramatika arautzailea: Fries, Leonard (itxuratze guztiz osoa). Shall eta will aditzen erabilera arautzaileaz: C.C. Fries PMLA delakoan 40.963 (1925).

Pallas, Peter Simon, *Linguarum totius orbis vocabularia comparativa*, Sankt Petersburg, 1786-89, liburuki bi (Newberry liburutegia, Chicago). Ez dut bigarren argitalpena ikusi.

Egile ezezaguna duen aurkibide alfabetiko bat bada, (Newberry liburutegiaren katalogoaren arabera Theodor Jankovic von Mirijevo-k egin) Sravnitel'nyj slovar" vsex jazykov i narečij, lau liburukitan, 1790-91 urteetan Sankt Petersburgen agertua. Vuk Stefanovitx-ek (Karadjich) gehigarri bat argitaratu zuen (Dodatak) Bec hirian, 1822.ean, serbiera zuzendu eta, bulgarierazko forma gehituaz (ale bat Newberry liburutegian).

Adelgun-Vater-en Mithidrates lana, bere motako lehen liburuaren eredura bataiatu zen, alfabetoaren arabera hizkuntz zerrenda, erakusgarri gutxi zituena, Konrad Gessner-ek (1516-65) argitaratua Zurich-en, 1555; honen argitalpen berria, Kaspar Waser-en sarrera batez hornitua bada, Zurich 1660 (argitalpen biak Newberry liburutegian).

Junius, F. Quatuor D.N. Jesu Christi Evangeliorum versiones perantiquae duae, Dordrecht, 1665.

Hickes, G. Institutiones grammaticae Anglo-Saxonicae et Moesogothicae, Oxford, 1689; Antique literaturae septentrionalis libri duo (Linguarum vett. thesaurus), Oxford, 1750.

1.5. Txinatarren filologia hizkuntzalaritza lanez, Karlgren, Philology. Hinduen gramatikagintzaz, Belkavar; ikus Lg. 5.267 (1929) bibliografiarako.

1.6. Jonesen hitzaldia, Asiatick researches delakoan agertu zen (Calcuta, 1788) 1.422; liburuki hau berrargitaratua izan da, behin eta berriz, Transactions of the Royal Asiatic Society of Bengal delakoaren lehen liburuki gisa.

1.7. Etimologia: Thurneysen; Thomas 1.

Brugmann-en gainean: W. Streitberg IJ 7.143 (1921). Delbrück- en gainean: Hermann.

1.8. Paulen Prinzipien liburuaren bigarren argitalpena izan zen Strong-Logeman-Wheeler egile duen ingelesezko moldatze bikaina. Paulen bizitza eta lanaz: W. Streitberg IJ 9.280 (1924).

1.9. Leskien-en gainean: W. Streitberg IJ 7.138 (1921); K. Brugmann-en Berichte Leipzig 68.16 (1916). Böthlingken gainean: B. Delbrück, IF Anzeiger 17.131 (1905). Saussureren gainean: A. Meillet, BSL 18.clxv (1913).

HIZKUNTZAREN ERABILERA

2.1. Hizkuntzaren azterketan, urratsik zailena lehenengoa dugu. Behin eta berriz, jakintsuek hizkuntz azterketari ekin diote, inoiz gaiari egiazki heldu gabe. Hizkuntz zientzia, nolabait eguneroko bizibideari zegozkion kezkek eraginik sortu zen, esaterako idazkeraren erabilpena, literaturaren azterketa (bereziki idatzi zaharrena), eta hizkera dotorearen arautzea, baina nahi adina denbora eman genezake alor horietan, sekula hizkuntza azterketarenean sartu gabe. Ikasle bakartia historian zehar gertatu diren desbideratzetan errazki amil daitekeenez, hobe dugu arazo horietaz mintzatzea lehenik, gure aztergaiaz guztiz bestelakoak direla erakutsi ahal izateko.

Idazkera ez da hizkuntza, hizkuntza ikusgarri diren markak erabiliaz adieraztea baino. Zenbait herrialdetan, Txinan, Egipton eta Mesopotamian adibidez, duela milaka urte ezagutzen da idazkera, baina egun mintzatzen diren hizkuntza gehienei, duela gutxi ezarri zaie idazkera, edota ez zaie oraindik ezarri. Are gehiago, inprenta egunetara arte, idazteko ahalmena gutxi batzuenaren baino ez zen. Hizkuntza guztiak, beren historia guztian zehar ia, idazten ez zekiten hiztunek erabiliak izan dira; herri horien hizkuntzak, idazten duten herrien hizkuntzak bezain egonkorak, arautuak eta aberatsak ditugu. Hizkuntza hizkuntza da, bera gauzatzeko erabiltzen den idazkera sistemaz gaindi, pertsona jakin bat pertsona berbera den bezala, bere irudiak nola gauzatzen diren gorabehera. Japonieradunek hiru idazkera sistema dauzkate, eta laugarrena garatzen ari dira. Turkieradunek, 1928.ean latinaren alfabetoa arabierarenaren ordeztatu zutenean, lehen bezala hitz egiten jarraitu zuten besterik gabe. Idazkera aztertzeke hizkuntzaz zerbait jakin behar dugun arren, alderantzizkoa ez da egia. Zer esanik ez, antzinako mintzairei buruzko berriak aztarna idatzietatik jasotzen ditugu batik bat, baina hau oztopotzat daukagu. Arreta handiz ulertu behar ditugu sinbolo idatziak, benetako mintzoaren arabera; sarri asko huts egiten dugu honetan eta, nahiago genuke entzun daitekeen hitza bagenu.

Literatura, ahoskaturik aurkezten dela edota, egun dugun ohituran, idatziz, esaldi eder edota bestela ere garrantzidunek osatzen dute. Literatura ikasten duenak zenbait pertsonen esaldiak aztertzen ditu (Shakespearerenak esaterako), eta esaldion edukiak edota arrunt ez diren ezaugarriak diote axola. Filologoaren gaia are zabalagoa da, irakurtzen duenaren kultur balio eta giza ingurumariak kezkatzen baita. Hizkuntzalariak, bestalde, pertsona guztien hizkuntza, maila berean du aztergai; idazle ospetsu baten hizkuntza bere garaiko eta lekuko hizkera arruntetik bereizten duten ezaugarriak ez dute hizkuntzalariarentzat gainerako beste edozein pertsona baten hizkera ezaugarriak baino interes gehiago, eta hiztun guztiek komunean dituzten ezaugarriak baino gutxiago axola diote.

Hizkera dotore edo "zuzena" bereizteko ohitura, giza baldintza jakin batzuen ondorioa da. Hizkuntzalariak, gainerako hizkuntzazko gaiak ikusten dituen bezalaxe ikusten du azken hau. Hiztunek delako hizkera bati "on" edo "zuzen" iriztea, edota "txar" eta "okertzat" gaitzestea, hizkera formari buruzko datuen parte baizik ez da. Esan gabe doa, honek ez dio hizkuntzalariari bere datuen atal bat gainbegiratzeko edo bere idatziak faltsutzeko baimenik ematen: berak hizkera mota guztiak aztertzen ditu inpartzialki. Bere lana, hiztunek delako hizkera honi honela edo horrela iriztea zein baldintzatan gertatzen den aztertzea da eta, delako hizkera modu baten aurrean, zergatik irizten dioten era horretan: zergatik, esaterako, hainbat jendek, ingelesez ain't "ez naiz" forma "txarra" eta am not "ez naiz" forma "ona" dela esaten duten. Hau hizkuntzalaritzaren arazoetatik bat baino ez da, eta oinarrikoa ez delarik, beste hainbeste gauza ezagutzen direnean ekin dakioke bakarrik. Gauza bitxia bada ere, hizkuntzalaritzan arituak ez diren askok, gai honi buruzko hamaika alferrikako

eztabaidatan iharduten dute gogoz, hizkuntzaren ezagutzan aurrerapausorik egin gabe, honek, besterik gabe, erantzunen giltza eman lekiekeen arren.

Idazkera, edo literatura edo filologia, edota hizkera zuzena aztertzen duen ikaslea, maratza balitz, eta metodikoa, alferrik aritu ondoren kontura liteke hobe dela lehenik hizkuntza aztertu eta honen ondoren jatorrizko arazoetara itzuli. Gorde gaitezen bidezidor honetatik, berehala hizkera arruntari begiratuaz. Baldintzarik soilenetan ematen den hitz jarioari begiratuaz hasiko gara.

2.2. Demagun Jack eta Jill bidean behera doazela. Jill gose da. Sagarrondoan sagarra ikusten du. Bere laringe, mihi eta ezpainei eraginaz, hots bat sortzen du. Jackek hesiari salto egin, arbolan gora igo eta, sagarra hartzen du, Jilli eraman eta, eskuan jartzen dio. Jillek sagarra jaten du.

Gertaera sorta hau era askotara azter liteke, baina hizkuntza aztertzen ari garenez, hizkera gertaera eta gainerako gertaeren arteko bereizketa egingo dugu, zeinak ekintza gertaerak deituko baititugu. Honela begiraturik, gertatutakoak hiru atal dauzka, denboraren harian:

A. Hizkera gertaera aurreko ekintza gertaerak.

B. Hizkera gertaera.

C. Hizkera gertaeraren ondoko ekintza gertaerak.

Azter ditzagun lehenik A eta C ekintza gertaerak. A ataleko gertaerek hiztunarekin zerikusia dute, Jillekin gehienbat. Gose zen, hots, zenbait gihar zirkinka ari zitzaizkion eta, sabelean batik bat, jarioak zebilzkion. Agian egarri zen baita: bere mihi eta eztarria lehor zeuden. Sagarretik zetozkion argi izpiek begietan jo zioten. Jack ikusi zuen aldamenean. Orain, Jackekiko aldeazurreko harremanak egoeran sartu behar ditugu; demagun halako harreman arruntan bat daukatela, neba-arrebak direla, edota senar-emazteak. Gertaera guzti hauek, Jillen hizkera gertaeraz aurrekoak direnak eta Jilli dagozkionak, hiztunaren eragingarriak izendatuko ditugu.

Goazen orain C-ra, Jillen hizkera gertaeraren ondotik datozen ekintza gertaeretara. Hauek, Jack entzuleari dagozkio batez ere eta, bere sagarraren hartzea eta Jilli ematea ditugu funtsean. Hizkera gertaeren ondotik datozen ekintza gertaerak, entzuleari dagozkionak, entzulearen erantzuna izendatuko ditugu. Mintzoaren ondoko gertaerak, era garrantzitsu batean, Jilli dagozkio ere: sagarraren jabe egiten da eta jan egiten du.

Garbi ageri zaigu berehala, istorio hau guztia A eta C lotzen dituen baldintzarik urrunenetan oinarritzen dela. Jack eta Jill guztiek ez lukete honela jokatu. Jill lotsatia izan balitz, edo Jackekin harreman onak ez balitu, agian gose egonik ere sagarra ikusiko luke eta ezer esan ez; Jackek Jill begiko ez balu, ez litzateke sagar bila abiatuko beharbada, Jillek eskatu izan balio ere. Hizkera gertaera (eta, ikusiko dugunez, zein hitzetan mamitzen den), hala nola bere aurretik eta ostetik gertatzen diren ekintza gertaera mordoa, hiztuna eta entzulearen bizitza osoaren arabera da. Darabilgun adibiderako, eman dezagun aldeazurretiko baldintza guzti horiek eskaini dugun istorioa eratzeke bezainbatekoak bazirela. Hau ontzat harturik, B hizkera gertaerak jazotakoan duen eragina zein den jakin nahi dugu.

Jill bakarrik egon izan balitz, agian gose eta egarri legoke ere, eta sagar berbera ikusiko luke. Hesiarri salto egiteko eta arbolan gora igotzeko adina indar eta trebetasun izan balu, sagarra hartu eta jan egingo zukeen. Jill bakarti hau, hizkerarik gabeko animaliaaren parekoa dugu. Animalia gose badago, jatekorik ikusi edo usainduz gero, jatekorantz abiatzen da. Animaliak jateko hori lortu ala ez, bere indar eta trebetasunaren arabera kontua da. Gose izatea eta jatekoaren ikuste edo usaintzea eragingarriak ditugu (S letraren bidez adieraziko ditugunak), eta jatekorantz mugimenduak erantzuna (R letraren bidez adierazten duguna)[ingelesetiko stimulus "eragingarria" eta

response "erantzuna" hitzetan oinarritzen dira S eta R laburdurak]. Jill bakartiak eta animaliak jokabide bakarra daukate, hots

S R

Gauzak behar bezala joanez gero, jatekoa lortzen dute; ezer okertzen bazaie, -R ekintzen bidez jakia lortzeko bezain indartsu eta trebe ez badira- gose gelditu behar, ordea.

Jillen onerako, sagarra hartzea garrantzitsua da, noski. Kasurik gehienetan ez da hil-ala-biziko kontua, batzuetan izan daitekeen arren; luzera, dena den, jatekoa lortzen duen Jill delako honek (edota animaliak), bizirik iraun eta lurrean zabaltzeko aukera hobeak ditu. Beraz, Jillek sagarra lortzea errezten duen edozein konponketak balio handia du berarentzat. Jazoera honetan hitz egin zezakeen Jill honek, aterabide hori erabiltzen du hain zuzen ere. Hasteko, Jill bakartiak edo hizkerarik gabeko animaliak zeuzkaten sagarra lortzeko aukera berberak. Honezaz gain, baina, Jill hitzun honek bazuen besteek ez zeukaten aukerarik ere. Hesiarekin eta arbolarekin topo egin beharrean, bere eztarri eta ahoarekin mugimendu txiki batzuk egiten ditu, hots apal bat sortzen dutenak. Berehala, Jackek bere hotsei erantzun egin die; Jackek Jillen indarretatik at dauden ekintzei ekin, eta azkenean Jillek sagarra lortu du. Hizkuntzak, pertsona bat erantzuteko gai egiten du (R), beste pertsona batek eragingarria (S) jasaten duenean.

Kasurik egokienean, bata besteari hitz egiten dieten pertsona talde batean, pertsona bakoitzak bere eskumenean dauka talde guztiko pertsona bakoitzaren indar eta trebetasuna. Pertsonon trebetasunak zenbat eta ezberdinago, are zabalagoa pertsona bakoitzak duen botere eta trebetasun maila. Batek bakarrik behar du igolari ona izan, berak lor baititzake fruituak beste guztientzat; batek bakarrik behar du arrantzale trebe izan, berak harrapa baititzake gainerako guztientzako arrainak. Lan banaketak, eta berarekin, gizartearen antolamendu osoa, hizkuntzari zor diogu.

2.3. B atala, hots, gure jazoera honetako hizkera gertaera arakatu behar dugu oraingoz. Hauxe da, noski, hizkuntzaren ikasle garenok gehien axola digun atala jazoeran. Gure lan guztian, B aztertzen dihardugu; A eta C atalek, B-rekin duten harremanagatik bakarrik digute axola. Fisiologia eta Fisika zientziei esker, badakigu hizkera gertaerak hiru atal dituen:

(B1) Hitzunak, Jillek, bere aho kordak mugitu ditu (Adanen sagarraren barruan dauden gihar txiki bi), beheko matrailezur, mihia, eta abar, haizeari hots-uhin eitea eman arte. Hitzunaren mugimendu hauek, S eragingarriaren erantzuna dira. Erantzun praktikoa edo ekintzazkoa eman beharrean -hots, benetan sagarra harrapatzen hasi beharrean-, Jillek aho mugimendu hauek egin zituen, hizkuntza (edo ordezk) erantzuna, zeina r txiki baten bitartez adieraziko baitugu. Oro har, beraz, Jillek, hitzuna izanik, eragingarri bati erantzuteko aukera bi ditu, bakarra izan beharrean:

S ? R (ekintza erantzuna)

S ? r (hizkuntzazko ordezk erantzuna)

Eskuartearen darabilgun jazoera honetan, bigarrena erabili du.

(B2) Jillen ahoko hots uhinek inguruko haizea antzeko uhin mugimendura bultzatzen dute.

(B3) Airean dabilzan hots uhin hauek Jacken barne belarrietara iristen dira, dardara eraginaz bertan, honek Jacken kirioei eragiten dielarik: Jackek hitz jarioa entzun du. Entzute honek eragingarri gisa jokutzen du Jackengan: lasterketan ikusten dugu, sagarra harrapatu eta Jilli eskuratzen, Jillen gose eragingarria beragan gertatu izan bailitzan. Giza hizkuntza denik ere ez dakien beste planeta bateko ikusle batek, Jacken gorputzan nonbait "Jill gose dago eta sagar bat ikusten du han goian" esan dion zentzumenen bat badela atera beharko luke ondorio. Labur esanda, Jackek, hitzuna izanik, eragingarri mota biri erantzuten die: S motako ekintzazko eragingarri (hala nola gosea eta jakiaren ikustea), eta hizkuntzazko (edo ordezk) eragingarriari, zeina bere barne belarran

jotzen duten dardarek osatzen baituten, eta s letra txiki baten bitartez adieraz dezakeguna. Jack ezertan ikusten dugunean (sagarra harrapatzen, esaterako), bere ekintzen bultzatzailea ez da, animalien kasuan bezala, ekintzazko eragingarria bakarrik (hots, gosea sabelean, edo sagarra ikustea), baizik eta, sarri asko, hizkuntzazko eragingarria. Bere ekintzak mota bitako bultzatzaileek eraginak ditugu:

(ekintzazko eragingarria) S ? R

(hizkuntzazko ordezkari eragingarria) s ? R

Begi bistakoa da Jillen aho zirkinekin (B1) eta Jacken entzuteak (B2) duten loturak ustekabe eta aldaera gutxi ezagutzen dituela, ez baita haizean zeharreko hots uhinen ibilera baino (B2). Lotura hau etendako marra baten bitartez adierazten badugu, hurrengo diagrama bien bitartez itxura ditzakegu gizakiok eragingarri bati erantzuteko ditugun bide biak:

hizkerarik gabeko erantzuna: S ? R

hizkera bitarteko duen erantzuna: S ? r ... s ? R

Mota biren arteko ezberdintasuna begi bistakoa da. Hizkerarik gabeko erantzuna eragingarriak jotzen duen pertsonarengan gertatzen da beti; eragingarria jasaten duen pertsonak erantzun dezake bakarrik. Erantzuna, beraz, eragingarriaren jasaleak egin ditzakeenetara mugaturik dago. Honen aurrean, hizkera bitarteko duen erantzuna eragingarri praktikoa jasan ez duen pertsonarengan gerta daiteke; eragingarria jasan duen pertsonak beste pertsona bati eragin diezaioke erantzun dezan, eta pertsona hau hitzunik ezin egin ditzakeen gauzak egiteko gai izan daiteke. Gure diagramako azkonek pertsona beraren gorputzean jazotzen diren gertaerak ageri dituzte -gure iritziz kirio sistemaren ezaugarri bati zor zaion gertaera saila. Beraz hizkerarik gabeko erantzuna estimulua jasan duen gorputzean eman daiteke bakarrik. Hizkera bitarte duen erantzunean, bestalde, etendako marra adierazten duen lotura bada, haizean dabiltzan hots uhinez osatzen dena: hizkera bitarteko duen erantzuna, hizkera entzuten duen edozein lagunen gorputzarengan gerta daiteke; erantzun aukerak izugarri ugaltzen dira, entzule ezberdinek hainbat eratako ekintzak burutu baititzakete. Hitzuna eta entzulearen gorputzen arteko tartea -kirio sistemen arteko etena- hots uhinek lotzen dute.

Garrantzizko kontuak, Biologiaren aldetik, berberak dira hizkuntzazkoak diren eta ez diren gertaeretan, hots S (gosea eta jatekoa ikustea), eta R (jatekoa lortzen edo lortzen ez dituzten mugimenduak). Hauxe dugu arazoaren ekintzazko egoera. Hizkera gertaera, s ... r, ez da R eta S pertsona ezberdinen gertatzea zilegi egiten duen bitartekoa baino. Gizaki arruntari S eta R axola zaizkio; hitza erabiltzen badu ere, eta haren bitartez aurrera egiten badu ere, ez dio inolako jaramonik egiten. Sagar hitza esateak edo entzuteak ez du inoren gosea asetzen. Hitza, hala nola gainerako hizkera osoa, lagun hurkoaren laguntza lortzeko bidea baino ez da. Hizkuntzaren azterlari garelara, baina, (s ... r) hizkuntza gertaerak digu axola hain zuzen ere, baliogabea dena berez, beste helburu nagusietarako bidea baino ez dena. Batetik, gure ikerketen gaia den hizkuntza, eta bestetik benetako ekintza gertaerak, hots, eragingarria eta erantzunak bereizten ditugu. Itxuraz garrantzirik gabekoa den zerbait garrantzi handiago duten arazoei estu loturik dagoela ikusten dugunean, "esanahi" bat duela esan ohi dugu. Era berean, hitz jarioak, berez garrantzirik gabekoa izaki, garrantzia duela diogu, esanahia duelako: esanahia, hitz jarioari (B) loturik dagoen arazo garrantzitsuez osaturik dago, (A eta C) ekintza gertaerez, alegia.

2.4. Neurri bateraino, animalia batzuek elkarren eragingarriei erantzuten diete. Txinurri edota erle taldeetan ageri den elkarlan miresgarria, nolabaiteko elkar aritze bati zor zaio noski. Honetarako hotsak erabiltzea sarri gertatzen da: kilkirrek, adibidez, estridulaketaren bitartez deitzen diete beste kilkirrei, hankak gorputzaren kontra igurtziaz ozenki. Gizakia bezalako animalia batzuek aho hotsak darabiltzate. Txoriek

sirinx delakoaren bitartez, hots, biriki-buruetan dauden kainaberalako organoen bitartez sortzen dituzte hots uhinak. Ugaztun gorenak laringea daukate, zintzur aldean dagoen kartilagoz eginiko kutxa (gizakiotan Adanen sagarra deitu ohi dena). Laringearen barnean, eskuma eta ezkerretara, apal antzeko gihar bi luzatzen dira; gihar hauek, ahots kordak, tinkatzean, kanporatzen den arnasak hotsa sortzen duen dardar erregular batera bultzatzen ditu. Hots honi ahotsa deritzogu.

Giza hizkera, erakusten dituen bereizketa ugariengatik, animalien keinulako ekintzetatik aldentzen da, baita ahotsa darabiltenengandik. Txakurrek, adibidez, bi edo hiru hots mota sortzen dituzte -esaterako, zaunkada, marmarra eta intziria: txakur batek beste bati, zeinu gutxi hauek erabiliz eragin dakioke bakarrik. Loroek hots mota ugari sor ditzakete, baina antza denez ez dute erantzun berezirik egiten hots mota bakoitzerako. Gizakiak aho hots ugari sortzen ditu eta ugaritasun hori erabiltzeko gauza da: eragingarri mota baten aurrean, delako aho hots batzuk sortzen ditu, eta bere lagunek, hots hauek entzunik, erantzun egokia ematen diote. Laburki jartzeko, giza hizkeran, hots ezberdinek esanahi ezberdinak dituzte. Delako hots batzuek delako esanahi batzuekin duten harremana aztertzea da hizkuntza ikertzea.

Harreman honek zehaztasun handiz jokatzeko gai egiten du gizakia. Adibidez, norbaiti sekula ikusi ez duen etxe baten helbidea ematen diogunean, ezein animaliak egin ez dezakeen zerbait egiten dugu. Ez da pertsona bakoitzak gainerako pertsona askoren trebetasunak eskumenean izatea bakarrik; gainera, elkarlan hau guztiz zehatza da. Elkarlan honen hedadura eta egokitasuna da gure gizarte antolakuntzen arrakastaren neurria. Gizarte edo giza erakunde izenak ez dira metaforak. Giza taldea, banakako animalia baino maila gorengoko unitatea dugu, zelula askodun animalia zelula banakoa baino maila gorengoko unitatea den legez. Zelula askodun animalia zelulek elkarlanean dihardute, kirio sistema bezalako antolaketen bitartez; gizarteko lagunak hots uhinen bidez aritzen dira elkarlanean.

Hizkuntzak ematen digun abantailak hain dira begi bistako, gutxi batzuk baino ez ditugula aipatuko. Komunikazioa igaro dezakegu. Nekazari edo merkataria batzuek ibai honen gainetik zubi bat nahi genuke diotenean, udal batzarre batetik igaro daiteke berria, edota legebiltzarretik, errepidegintza bulegotik, ingeniari-talde batetik, eta kontratugile baten bulegotik, hainbat hitz-tunengan eta hainbat hizkera-harremanetan zehar, azkenik, nekazarien jatorrizko eragingarriari erantzunik, langile-talde batek zubi eraikuntzari, hots, benetako (ekintzazko) erantzunari dagozkion zirkinak egiten dituzten arte. Igarokortasunaren ezaugarriari estu loturik doa hizkeraren abstraktutasuna. Hizkera igaroaldiek, ekintzazko eragingarria eta ekintzazko erantzunaren artean gertatzen direnek ez dute berehalako ekintzazko eraginik. Beraz, era guztietariko eiteetan ager daitezke, azken ekintza erantzunaren aurretik eite egokira berraldatzen badira. Zubia itxuratzen duen ingeniariak ez ditu habeak eta zurkaitzak eskuartein ibili behar; hizkera aleekin (adibidez zenbaki-kontugintzan) dihardu berak; erruren bat egitekotan, ez du inolako materialik hondatzen; gaizki aukeraturiko hizkera alearen (esaterako, okerreko zenbakiaren) ordeztu, egokia dena jar dezake, benetako eraikuntzari ekin aurretik. Honetan datza nork bere buruari hitz egitea edo pentsatzearen balioa. Umetan, ozenki hitz egiten diogu geure buruari, baina, nagusien zuzentzapean, ahotsa sortzen duten mugimenduen ordeztu, entzunezinak diren zirkinik txikiak egiten ikasten dugu: "hitzetan" pentsatzen dugu. Pentsatzearen erabilgarritasuna, kontugintza adibide harturik erakus daiteke. Hizkerarik erabili gabe zenbakiak asmatzeko daukagun gaitasuna oso mugatua da, inoiz apal bateko liburu ilada bati begiratu dion inork egiazta dezakeenez. Gauzaki-talde bik "kopuru berbera" dutela esateak, lehen-taldeko gauzaki bat hartu eta bigarren-taldeko gauzaki baten ondoan jarritz gero, eta gauzakirik birritan erabili gabe honetan jarraituz gero, bikoterik gabeko gauzakirik izango ez dugula esan

nahi du. Ezin genezake honelakorik beti egin, aitzitik. Gauzakiak mugitzeko pisuegiak izan daitezke edo, munduko bazter muturretan egon edo, denbora ezberdinetan existitu (adibidez, artalde bera ekaitzaren aurretik eta ondotik). Hona hizkuntza. Bat, bi, hiru zenbakiak ez dira hurrenkera jakin batean esaten ikasi ditugun hitzak baino, gorago azaldu ariketaren ordezkari. Hauek erabiliaz, zeinahi gauzaki talde "zenba" genitzake, harreman biunibokoan jarriarik (matematikalariek esan ohi dutenez) zenbaki hitzarekin, bat esanaz gauzaki baterako, bi besterako, hiru hurrengorako, eta abar, gauzaki bakoitza behin bakarrik erabiltzeko arretaz, taldeko gauzaki guztiak izendaturik dauden arte. Demagun hemeretzi esatean ez zegoela gauzaki gehiagorik. Ondorioz, edozein leku edo denboratan, zeinahi gauzaki taldek lehen talde honen kopuru bera duen ala ez erabaki genezake, zenbaketa talde berriarekin berreginak. Matematika, hizkuntzaren erabilera ideala, ariketa soil honen lantze eta berlantzeak osatzen du. Zenbakien erabilera dugu nork bere buruari hitz egitearen onuragarritasunaren adibiderik garbi eta argiena, baina badira beste hainbeste. Ezer egin aurretik, pentsatu egiten dugu.

2.5. Delako eragingarri jakin batzuen pean jendeak sortzen dituen hots-uhin bereziak, asko alda daitezke giza taldeen barrena; gizadia hizkuntza askotan mintzatzen da. Hizkera zeinu sistema bera darabilen jende taldea hizkera elkarte dugu. Noski, hizkuntzaren baliagarritasuna, hiztunek era berean erabiltzearen arabera da. Giza taldeko lagun orok une egokiari dagozkion hizkera hotsak sortu behar ditu eta erantzun egokia eman. Besteek ulertzeko moduan hitz egin behar du eta besteek diotena ulertu. Hau zibilizazio maila apalenak dituzten giza elkarteetarako egia da ere: gizakia aurkitzen dugun guztietan, hiztuna da.

Talde batean jaiotzen den edozein ume, bere bizitzako lehen urteetan jabetzen da hizkera eta erantzun ohitura horietaz. Hauxe dugu, zalantzarik gabe, gutariko edonork bizitzan bete behar duen intelektu-eginkizunik gaitzena. Ez dakigu umeeek nola ikasten duten hitz egiten; hizkuntz garapena honen antzeko zerbait dirudi:

(1) Askotariko eragingarrien artean, umeak aho hotsak egin eta errepikatzen ditu. Hau herentziari zor zaion jokabidea dirudi. Eman dezagun ba bezala itxuratuko dugun hotsa egiten duela, nahiz eta, noski, benetako mugimenduak eta sorturiko hotsak hizkera arruntan erabiltzen direnetatik ezberdin diren. Hots dardarek umearen barne belarria jotzen dute, berak mugimenduak errepikatzen dituen bitartean. Hau ohitura bilakatzen zaio: antzeko hots batek belarria jotzen dionean, antzeko aho mugimenduak egiteko joera izango du, ba hotsa errepikatuaz. Totalka antzeko honek irakasten dio bere belarria jotzen duten hotsak errepikatzen.

(2) Pertsona batek, amak esaterako, umeak errepikatzen dituen silaben antza duen hots bat ahoskatzen du. Adibidez, baba hitza esaten du. Hotsak umearen belarria jotzen duenean, bere (1) ohiturak jotzen du, eta bere totalka aritze horretan antzekoen den silaba ahoskatzen du, ba. "Antzeratzearen" hasiera dugu hau. Helduek hizkuntza guztietan aurkitu dute gertakari hau, hizkuntza orok bai baititu haurtzaroan erabiltzen diren zenbait hitz, umearen errepikatze total horren antzekoak direnak -ama eta aita bezalakoak: zalantzarik gabe, umeek errazki errepikatzen zituztelako izan zuten horrenbestearainoko arrakasta.

(3) Amak, noski, eragingarri egokia ageri zaionean erabiltzen ditu bere hitzak. Baba dioenean, umeari babak jaten ematen ari zaiolako edo babak ikusten dituelako da. Babak ikuste eta jatea batetik, eta baba (hots ba) hitzaren ahoskaldia elkarrekin gertatzen dira, behin eta berriz, umeak ohitura berri bat sortu artean: babak ikuste edo jateak ba esanarazten dio. Hitz baten erabileraren jabe da orain. Helduen belarrietarako hitz honen hotsa guztiz berezia liteke, baina, hau bere perfektutasunik ezari zor zaio soilik. Umeek hitzak sortzea ez da sarri gerta litekeen kontua.

(4) Babak ikustean ba esateko ohitura honek ohitura berriak dakarzki. Demagun, adibidez, egunero-egunero babak ematen zaizkiola umeari bainuaren ondotik (eta berak ba ba ba esaten duela). Orain bainuaren ondotik ba esateko ohitura du umeak. "Babak eskatzen ari da" dio amak eta, arrazoia dauka, zeren heldu baten "eskatzea" edo "nahi izatea" egoera beraren adibide korapilatsuagoa baino ez delako. Hizkera abstraktu edo lekutua erabili du umeak: izendatzen ari den gauzakia aurrean ez duelarik erabili du gauzakiaren izena.

(5) Umearen hizkera, dituen ondorioek hobetzen dute. Berak ba ba ongi ahoskatuz gero, gurasoek ulertzen diote; hau da, babak ematen dizkiote. Hau gertatzen denean, babak ikuste eta jateak areagoko eragingarri gisa jotzen du, eta umeak hitzaren aldaera arrakastatsua errepikatzeari ekiten dio. Bestetik, delako ba ba hori gaizki ahoskatzen badu -helduek duten esateko modutik urrun, alegia-, bere gurasoek ez dute babarik emateko eraginik jasaten. Babak ikusi eta jatearen eragingarriaren ordeztu, umeak bestelako eragingarri nahasiak jasan beharko ditu, edota, bainu osteko babak ez izatean ohitura apurtuaz, negarretan hasten da bere inpresio berriak nahasturik. Laburbilduz, bere hizkera-saio arrakastatsuenak errepikatzeko joera izango du, eta saio okerrean nahasmenduan galduko zaizkio. Garapen honek ez du etenik. Askoz beranduagoko egoera batean, "aitak ez ekarri du" esaten badu, "Ez! "aitak ez du ekarri" esan behar duzu" bezalako erantzun gogaitua jasoko du; baina "aitak ez du ekarri" esaten badu, ziurrenik esaldi zuzena entzungo du berriro: "Bai, hala da, aita ez du ekarri", eta erantzun praktikoa zuzena lortuko du baita.

Aldi berean, eta prozedura beraren bitartez, umeak entzulearena egiten ikasten du ere. Babak jaten ari dela, bere buruari ba ba esaten entzuten dio eta, bere amari baba esaten entzuten dio ere. Denbora baten buruan, hotsa entzutea nahikoa izan daiteke umea babak jaten hasteko. Amak "esan agur aita xori" esango dio, umea bere kabuz eskua mugitzen ari delarik, edota amak berak besotxo mugitzen diola agur esateko keinuan. Umeak guk ohi dugun era batean jotzeko ohitura hartzen du hizkera entzuten duenean.

Hizkera ohituren izate bikoitz hau gero eta bateratuago bilakatzen da, ohitura sortze mota biak aldi berean gertatzen direlako. Kasu bakoitzean, umeak S? R lotura ikasten duenean (esaterako, baba esatea babak ikusten dituen) s? R lotura ikasten du ere (adibidez, eskua luzatzean babak hartzeko, edo babak jatean hitza entzuten duenean). Honelako hainbat bikote ikasi dituen, bata beti bestea dakarrelako ohitura garatzen du: hitz berri bat ikasi bezain laster, besteek esaten dutenean ere erantzuten ikasten du eta, alderantziz, hitz bati erantzuten ikasi bezain laster, egokia denean hitza erabiltzeko gai izan ohi da. Azken garraio hau bietarik zailena dirudi; bizitzaren ibilian, hitzunik bere hizjarioan sekula edo oso gutxitan erabiltzen dituzten hizkera alea asko ulertzeko gai direla dakigu.

2.6. Diagraman marra eten batez itxuratuta dauden gertaerak nahikoa ongi ulertzen ditugu. Hitzunaren aho korda, mihi, ezpain eta abarrek, kanporanzko arnas lasterra oztokatzen dute, hots uhinak sortzen dituen era batean; uhin hauek haizean zehar hedatzen dira eta entzulearen barne belarriak jotzen dituzte, dardar bateratsua sortuaz bertan. Gertaerok, alabaina, azkon bitartez itxuratu ditugun arren, guztiz ilunak zaizkigu. Ez dugu ulertzen zerk bultzatzen duen jendea halako egoeratan halako gauzak esatera, edota hitz jarioak beren belarriak jotzen dituen era egoki batean erantzutera. Bistan denez, mekanismo hauek eragingarri (hotsezkoei edo bestelakoei) erantzuteko daukagun ondarearen parte dira. Mekanismo hauek, fisiologiak eta bereziki psikologiak ikertzen ditu. Hizkuntzarekin duten zerikusia aztertzea, bere psikologia aztertzea, hizkuntza psikologia egitea da. Zientzia lanen banaketan, hizkuntzalariari hizkera zeinua dio axola bakarrik (r ... s); ez du fisiologia edo psikologia arazoetan sartzeko

adina gaitasunik. Hizkera zeinuak ikertzen dituen hizkuntzalariaren aurkikuntzak, psikologiari buruzko inongo aurriritziz mozturatu gabe baldin badaude, askoz baliagarriagoak izango dira psikologialariarentzat. Lehenagoko hizkuntzalari askok hau ahaztu zutela ikusi dugu; beren txostenak kutsatu edota hustu egiten zituzten, baieztapen oro halako edo holako psikologia teoria baten arabera eskaintzeko ahaleginetan. Akats hau saihestuko dugula ziurtatzeko, bada, hizkuntz psikologiaren ekaiei gainbegiratu bat emango diegu hurrengo.

Hizkera arautzen duen mekanismoak guztiz landu eta fina izan behar du. Hiztunaz eta bere baitan lanean diharduten eragingarriari buruz nahi adina jakin arren, ezin genezake aldeztatik hitz egingo duen edo zer esango ote duen jakin. Jack eta Jill jazoera, ezagun balitzaigu bezala hartu izan dugu, gertaeren ondotik. Bertan egon izan bagina, ezin izango genuke aurretiaz esan Jillek sagarrari buruz ezer esango ote zuen, edota, hitz egitekotan, zeintzu hitz erabiliko zituen. Sagarra eskatuko zuela egiaztat hartuta ere, ezingo genuke aldeztatik jakin "gose naiz" hitzak erabiliko zituen sarrera gisa, ala "mesedez" hitza esango zuen, edota "sagarra nahi dut" edo "har iezadazu sagar hori" edo "sagar bat nahi nuke", eta abar: aukerak ia amaigabeak dira. Aldakortasun ikaragarri honek giza jokaerari eta hizkerari buruzko teoria bitara eramane gaitu.

Teoria mentalistak edo gogozaleak, zaharrena eta egun jendartearen eta zientzialarien artean hedatuena izaki, giza jokaeraren aldakortasuna, giza banako guztiengan den eta fisikoa ez den izpiritu edo gogo edo borondate (grekeraz psyche, hemendik psikologia izena) delakoaren bitartekotasunari zor zaio. Gogo hau, teoria mentalisten arabera, gauzaki materialetatik guztiz bestelakoa da eta beste kausalitate bati erantzuten dio, edo ez du kausalitate bati ere. Jillek hitz egiten duen, edo zein hitz hautatzen dituen, bada, bere gogo edo borondatearen ekintza bati zor zaio, eta bere gogoak materia munduko kausa-ondorio hurrenkerari jarraitzen ez dionez, ezin ekintzok aldeztatik ezagutu.

Teoria materialistaren (edo, hobeki esan mekanismozalearen) arabera, giza jokabidearen aldakortasuna, eta hizkerarena ere, giza gorputza sistema guztiz konplexua delako gertatzen da. Giza ekintzak, ikuspegi materialistaren arabera, fisika edo kimika aztertzean aurkitzen ditugun kausa-ondorio bikote berberak arautua da. Alabaina, giza gorputzaren egitura hain da konplexua non aldaketarik nimenenak ere, esaterako sagar gorri batetik argi uhinak begi ninietan jotzeak, ondorio kate konplexua sorbaitezake eta, gorputz egoera aldaketa txikiak ere, argi-uhinei erantzun zeharo ezberdinak ematerainoko eragina izan lezake. Pertsona baten ekintzak aurrean genitza (esaterako, delako eragingarri batek hitz egitera bultzatuko duen eta, honela izaki, zeintzuk hitz ahoskatuko dituen), une horretan bere gorputzaren egitura zehatza zein zen bageneki, edota gauza bera dena, aurretiko une batean -jaiotzean adibidez- bere organismoaren osotasuna zehazki ezagutuko bagenu, eta organismo horretan gertatu den aldaketa oro jaso izan bagenu, baita organismo horretan eraginik izan duen eragingarri oro ere.

Aldatze eta egokitze fin honi dagokion giza gorputzaren atala, kirio sistema dugu. Kirio sistema, garraio sistema konplexua da, zeinak gorputzaren atal batean gertatzen den aldaketaren indarrez (begietan jo duen eragingarriarenaz, esaterako), beste atal batean beste aldaketa bat gertatzea litekeena egiten baitu (esaterako, besoa luzatzea erantzun gisa, edota mihi eta aho kordak mugitzea). Areago, garbi dago kirio sistema bera aldatu egiten dela, une batez edo agian behin betikoz, garraioegintza honen ondorioz: gure erantzunak, neurri handi batean, antzeko eragingarriari aurretiaz eman diegun erantzunen arabera dira. Jillek hitz egiten duen ala ez, bada, sagarrak gustatu eta Jackekin ondo konpondu arabera kontua da. Gogoratzen dugu, ohiturak sortzen ditugu eta ikasten dugu. Kirio sistema, beraz, lehergarri antzeko bat da: aldaketarik txikiak, lehergai multzo handi bati hurbildutako poxpolo piztua bezalakoa izan daiteke. Axola digun

eremura itzuliaz, horrela bakarrik azal genezake urrunerako mugimendu handiak barne belarrietara heldutako dardar nimiñoak bezalako aldaketa txikiek eraginak izatea.

Kirio sistemaren jokabidea ezin daiteke kanpotik aztertu eta, pertsonak berak ez du bere kirioak zertan dabiltzan aztertzen uzten dion zentzumenik (esku giharrek nola jokatzen duten sentitzeko duguna legezkoa, adibidez). Beraz psikologilariak, zuzenezkoak ez diren ikerbideetara jo behar du.

2.7. Horietariko bat, saioa dugu. Psikologilariak, baldintzarik soilenetan ematen den eta aurretiaz zehazki antolatu duen eragingarri bat jasanarazten die zenbait laguni, eta beren erantzunak biltzen ditu ondoren. Normalean, "barne azterketa" egiteko eskatzen die baita, hots, ahalik eta zehazkien, eragingarria jasaten dutenean gertatzen zaiena azaltzea. Puntu honetan, psikologilariak bidezidorretan galdu ohi dira, hizkuntzalaritzari buruzko ezagutzarik ezagatik. Oker dabilta, adibidez, hizkuntzak horretarako zentzumenik ez daukagun zerbaite aztertzeko balio duela pentsatzean; adibidez, gure kirio sistemaren jokabidea aztertzeko. Ikusle batek bere baitan gertatzen dena azaltzeko duen abantaila bakarra, gainerakoek senti ez ditzaketen eraginak adierazi ahal izatean datza -esaterako, begietako mina, edo eztarriko hazkura. Orduan ere, hizkuntza trebatze eta ohitze kontua dela gogoratu behar dugu; pertsona batek hainbat eragin adierazteko zailtasuna izan lezake, bere hizkera ohitura ondareak horretarako biderik eskaintzen ez diolako bakarrik; honela gertatu ohi zaigu geure ekintza txiki muntagabeenetan, esterako gure organo txikien gora-beheretan. Geure gorputzaren egiturak berak, baieztapen faltsuetara eraman ohi gaitu sarri; medikuari, mina sentitzen dugun leku zehatza erakusten diogu eta, berak urrunago aurkitzen du kaltea, gure deskribapen faltsutik esperientziak mina aurkitzen irakatsi dion lekuan. Honi dagokionez, psikologialari asko nahastu egiten dira, beren ikuskatzaileei eragin ilunetarako izen teknikoak erabiltzen irakasten dietelako, eta gero ikuskatzaileek egiten duen termino hauen erabilerari esanahia ezartzen diotelako.

Hizkera zapuzten duten egoerak, dirudienez, zauri, akats eta moldakaiztasun orokorrak dira, eta ez dute hizkuntzaren egiturari buruz argibiderik eskaintzen. Moteltasuna, ziurrenik, burmuin hemisferio bien bereizkuntza akats bati zor zaio: hitzun arruntarengan, ezkerreko hemisferioak (edo ezkertia bada eskuineko hemisferioak) arautzen ditu ekintzarik finenak, hizkerarenak kasu; motela den gizakian, alde baterako bereizketa hau ez da osoa eta akatsik gabea. Delako hots jakin batzuk sortzeko zailtasuna, hizkerarako erabiltzen diren organoen akats anatomikoei zor ez zaienean, antzeko akatsen ondorioa izan ohi da. Buruko zauriek eta burmuina jotzen duten gaisotasunek sarri asko afasiak sortzen dituzte, hots, hizkerazko erantzunak sortzeko eta hizkerari erantzuteko gaitasunaren nahasketak. Henry Head medikuak, zauritutako gudariengan afasia aztertzeko aukera bikaina izan zuenak, lau mota bereizten ditu.

1. motak ondo erantzuten dio jendearen hizkerari eta, ahula denean, gauzaki egokientzako izenak erabiltzen ditu, baina hitzak gaizki ahoskatuz edo nahastuz; kasurik larrienen, gaisoak ezin dezake bai eta ez baino zertxobait gehiago baizik esan. Gaiso batek, zailtasun handiz, ondoko hau diosku: "Badakit ez dela ... ahoskera ... egokia ... ez dut beti ... zuzentzen ... ez dudalako ongi esango ... bost edo sei bider ... beste batek nigatik esaten ez badu". Kasu larriago batean, gaixoak, izena galdetzen zitzaionean, Honus erantzuten zuen, "Thomas" esan beharrean, eta erst dio "first" ("lehenengo") orde, eta hend "second" ("bigarren") esateko.

2. motak ongi samar erantzuten dio hizkera arruntari, eta hitz egoki eta esaldi laburrak ahoskatzen ditu, baina ez ohiko egituretan orde; ulertezina den hitz jarria sortzen du, hitzak, bakarka hartuta, nahikoa egokiak diren arren. "Jolasean ibili al zara?" galderari, gaixo batek honela erantzuten du: "Jokoa jolastu, bai, bat jolastu, eguna, kalean". Edota "Irten, etzan, lotara, batzuetan joan. Sukaldean jazarri, beharrean ibili, txartoago ni horretan" diosku. Hurrengoan, "Gauza bitxia, hau okerrago, horrelako kontua", eta

azalpen gisa, as "bezala" hitza eta at preposizioa idazten ditu paperean. Gero ikusiko dugunez, hizkuntzaren egiturak, lexikozko eta gramatikazko hizkera ohiturak bereiziarazten dizkigu; bigarren motakoak daude nahasirik gaixo hauengan.

3. motak, zailtasun handiz erantzuten die gauzakien izenei, eta hitz egokiak aurkitzeko arazoak dauzka, bereziki gauzen izenak badira. Ahoskera eta joskera onak dira, baina aurkitu ezin dituen hitzetarako, ingurubide luzeak erabili behar ditu. "Artaziak" esateko, gaixo batek "ebakitzeko erabiltzen duzuna" dio; "beltz" esateko, bestetik, "hilda dagoen jendea, -hilda ez dagoen beste jendeak dauka kolore hau" hitzingurua egiten du. Okerreko hitza erabil dezake, adibidez botoi "artazi" esateko. Galdutako hitzak, gehienbat, gauzaki konkretuenak izan ohi dira. Egoera hau, pertsona arrunt askok, kezka, poz edo nekearen poderioz, gauza eta pertsonen izenak gogoratzeko izaten duten zailtasunaren larritzea dirudi.

4. motak ez dio besteen hizkerari egokiro erantzuten; ez du hitzak banaka ahoskatzeko arazorik, baina ezin dezake lotutako esaldirik burutu. Gaixo hauek apraxia daukate; ezin dezakete beren bidea aurkitu eta, adibidez, kalearen beste espaloian kokatuak izanez gero, nahastu egiten dira. Gaixo batek dioskunez: "Ez dut ulertzen esaten duzun guztia, eta gero egin behar dudana ahaztu egiten zait". Beste batek: "Mahaian nagoela, oso motela naiz gauzak, adibidez nahi dudana esne-pitxarra, kokatzen. Ez dut berehala ikusten... Denak ikusten ditut, baina ez ditut kokatzen. Gatza, edo piper-beltza, edo goilarea nahi dudanean, haiekin topo egiten dut bat-batean". Hizkera arazoa, gaixo honen erantzunean ageri zaigu: "A bai! Erropagatik dakit moja eta erizainaren arteko ezberdintasuna: Mojak urdina; erizainak -ai! Nahastu naiz, erizain arruntaren erropak, zuria, urdina..."

1861. urtean, Broca-k, burmuinaren ezkerreko hemisferioaren hirugarren aurretlesduran hartutako kalteak afasia zekarrela erakutsi zuen. Orduetik, eztabaidak izan dira "Broca gunea" eta beste kortexeko eremu batzuk, hizkuntzagintzaren muin bereziak diren ala ez argitzeko. Head-ek zenbait zauripuntuk eta gorago aipatu bere lau afasia moten artean harremanik badela aurkitu du. Froga daitezkeen kortex eremuen funtzio bereizketak organo jakin bati loturik ageri ohi dira: burmuinaren eremu bateko zauria, eskuineko oinaren paralisiaarekin batera ageri da, eta beste burmuin eremu bateko zauria, erretinaren ezkerraldeari zuzendutako eraginei erantzuteko ezintasunarekin, eta abar. Hizkera, aitzitik, oso ekintza konplexua dugu, zeinetan mota guztitako eraginek aho eta eztarriaren mugimendu zehatzak sortzen baitituzte; azken hauek, bestetik, ez dira "hizkera organoak", zentzu fisiologikoan, bestelako zereginak dauzkatelako, bai gizakiarengan eta bai hizkerarik gabeko animalietan. Kirio sistemak jasandako hainbat kaltek, bada, hizkera oztopatzen dute, eta zauri ezberdinek zailtasun ezberdinak dakartzate, baina kortexaren guneak, ziurrenik, ez daude gizarte aldetik axolazkoak diren hizkeraren atalekin, hitzekin eta sintaxiarekin alegia, harremandurik; hau garbi ageri zaigu hainbat "hizkera gune" bilatzeko saioek izan dituzten ondorio aldakor eta kontrajarrietan. Kortex guneak eta hizkerari loturik dauden ekintza fisiologiko zehatzen arteko harremana aztertzean fisiologoak zori hobea izango duela espero genezake, adibidez gihar berezien mugimendua edota mihi eta laringetiko eragingarri kinestesikoen garraioa aztertzean. Anatomikoki definituriko kiriko sistemaren atalak eta gizarteari dagozkion ekintzen arteko loturak bilatzeko errakuntza agerian ikus dezakegu, irakurketa eta idazkera arautzen duen "ikusmen hitzgune" baten bila darabilen fisiologoa aurkitzen dugunean: era berean bila genezake telegrafia, edo automobila gidatzeko, edota egungo edozein asmakizun berriren erabilerarako burmuingune berezia. Fisiologikoki, hizkuntza ez da betebeharrak bakarreko unitatea, aitzitik, ekintza askok eta askok osatzen dute, beren batuketa ohitura multzo izugarriki ahaltsua delarik, gizakiaren bizitzaren lehen urteetan behin eta berriro jasotako eragingarriek sortua.

Giza erantzunak aztertzeko beste bidea, gizaki talde handiak aztertzea da. Ekintza batzuk oso aldakorrek ditugu pertsonagandik pertsonagana, baina arras berdintsuak gizatalde handietan. Ezin aurrean genezake heldu ezkongabe jakin bat hurrengo hamabi hilabeteetan ezkonduko den ala ez, edota zein pertsonak egingo duten beren buruaz beste, edota zeintzuk atxilotuko dituzten, baina giza elkarte handi samar bat eta aurreko urteetako kopuruak harturik (eta agian beste zenbait datu, hala nola egoera ekonomikoa), estatistikariek, gertatuko diren ekintza, nork bere buruaz beste egite, atxilotzea eta abarren kopurua aurrean dezakete. Litekeena eta bidezkoa balitz gizatalde handi bateko ahoskaldi guzti-guztiak biltzea, zalantzarik gabe egunon, edo maite zaitut edo zenbatean laranjak gaur? bezalako esaldiak halako egunetan zenbat bider esango diren aurreateko gauza izango ginateke. Honelako azterketa arretatsu batek asko erakutsiko liguke, batez ere hizkuntza guztietan gertatzen diren aldaketek buruz.

Alabaina, bada gizakiak taldetzarretan duen jokabidea aztertzeko bide soilagorik: ekintza arrunten ikerketa. Herrialde arrotz batera goazenean, laster ikasten dugu ohiturazkoak diren ekintza motak, hala nola txanpon, pisu eta neurri sistemak, errepideko arauak (eskuinetara jo Ameriketara eta Alemanian legez, ala ezkerretara, Ingalaterran eta Suedian legez?), hezkuntza oneko arauak, bazkari orduak eta abar. Bidaiariak ez du estatistikarik jasotzen: ikustaldi gutxi batzuek ematen diote bidea, eta hauek ibiliaren ibiliaz baieztatu edo zuzentzen dira. Honi dagokionez, hizkuntzalariak egoera erosoak dauka: ez dago talde ekintzarik hizkuntza bezain irmoki arauturik dagoenik. Gizatalde handiek, lexiko ale eta gramatika eraikuntza berberetatik sortzen dituzte beren esaldi guztiak. Ikuskatzen dabilen hizkuntzalariak, bada, estatistikara jo gabe deskriba ditzake gizatalde bateko hizkera ohiturak. Esan gabe doa, gogor lan egin behar duela, eta, bereziki, aurki dezakeen forma oro bildu behar duela, irakurlearen zentzuan edo beste hizkuntza bateko egiturari, edo halako teoria psikologiko batean aitzakiarik bilatu gabe eta, gauza guztien gainetik, ez ditu gertakariak desitxuratu edo hautatu behar bere iritziz hitzunez esan beharko luketenaren arabera. Hizkuntza aztertzeko duen berezko balioaz at, honelako deskribapen zehatz eta aurriritzirik gabea, garrantzizko dokumentua dugu psikologiarako. Arriskua, psikologiaren ikuspegi mentalistetan datza, hauek, gertakariak bildu beharrean gogo-arazoak baino ez aipatzera eramanez baitezakete azterlaria. Adibidez, hitz elkartzat "sentitzen diren" hitz konbinaketek azentu bakarra dutela esatea (esaterako blackbird eta black bird bikotearen arteko aldea), ezertxo ez esatea da, ez baitaukagu hitzunez "senti" dezakeenaren aztarnarik: aztertzaileren lana, neurrigaia edo ukigaia den irizpide baten bidez, eta, ezein aurkitzekotan, zerrenda baten bidez, azentu bakar batekin zeintzuk hitz ahoskatzen diren zehaztea da. Psikologiako hipotesi materialista onartzen duen langileak ez du horrelako galbiderik; giza ekintzak aztertzen dituen hizkuntzalaritza bezalako zientzia batean, oinarriko arau gisa esan daiteke, langileak ikuspegi materialista ontzat hartuko balu bezala jokatu behar duela. Lanaren aurrerapenean duen eraginkortasuna dugu zientzia materialistaren aldeko punturik indartsuenetakoa.

Gizataldetzarrak aztertu ondoren, elkarte baten hizkera ohiturei buruzko baieztapenik eskaintzen digun ikertzaileak ezin diezaiguke elkarte horretako hizkuntza jasaten ari den aldaketen gainean ezer esan. Aldaketa hauek, denbora epe luze batean zehar eginiko bilketa estatistikoen bidez itxura daitezke soilik; hau ezina delarik, hizkuntza aldaketari buruzko hainbeste arazori buruz ez dakigu ezertxo ere. Honi dagokionez, baita, hizkuntz zientzia egoera onean dago, zeren ikerketa metodo erkatzaile eta geografikoek, gizataldetzarren azterketa eginaz ere, estatistikaren bitartez jaso genezakeen ezagutzaren zati handi bat eskaintzen digute. Arazo hauei dagokienez, gure zientziak ezagutzen duen egoera bikaina, hizkuntza giza ekintza soil eta oinarritzakoa izaten datza. Beste alde

batetik, baina, hizkuntza aldaketaren azterketa antzinako hizkeraren aztarrenak existitzen direlako egin daiteke bakarrik.

2.9. Hizkera eragiten duten eragingarriek bestelako erantzunetara eraman gaitzakete baita. Hauetarik zenbait, ezin daitezke kanpotik ikuska: gihar eta guruin ekintzak, hiztunaren inguruko lagunentzat axolazkoak ez direnak. Beste zenbait, garrantziko erantzunbideak ditugu, hala nola mugimendua edota gauzakiak lekuz aldatzea. Badira beste zenbait erantzun ikusgai, baina zuzenean axolazkoak ez direnak; ez dute gauzen eraketa aldatzen, baina, hizkera bezala, entzulearentzat eragingarriak dira. Ekintza hauek dira aurpegikerak, antzeraketa, ahots-doinua (hizkuntz ohiturek arautua ez den neurrian), gauzakien erabilketa axolagabea (esaterako, lapitzarekin jolastea), eta ororen gainetik, keinuak.

Keinua hizkeraren laguna da beti; era eta maila guztietan, hiztunetik hiztunera aldatzen da, baina neurri handi batean, giza ohiturek arautua da. Italiarrek, ingelesdunek baino keinu gehiago darabiltzate; gure gizartean, goi mailako jendeak egiten du keinu gutxien. Neurri handi batean, banakako keinuak ohiturak sortu ditu, eta giza elkarte batetik bestera aldatzen dira. Agur esateko, eskua kanporantz zabaldurik darabilgu; napolitarrek, eskua barnerantz zabaldurik diote agur.

Keinu gehienak ez dira begi bistako seinalatze eta irudiren bat antzeratzea baino besterik. Zabaldi eta basoetako amerikar indiarrek guretzat arrotz baina arras ulergarri diren keinu leunez hornitzen dituzte beren kontakizunak: eskugaina barnealdera, erpurua gora, begien azpian eskua, espiatzea adierazteko; ukabilak eskugainean jotzen du gogor tirokada bailtzan; atzamar bik oinez dabilen laguna adierazten dute, eta lauk, zaldiaren lasterra. Keinuak sinbolikoak direnean ere, ez dabilta asma daitekeenetik urrunegi, lehenaldia adierazteko norberaren sorbalda atzea seinalatzea, esaterako.

Giza elkarte batzuek, keinu hizkuntza daukate, zeina, zenbaitetan, ahoko hizkeraren ordeaz erabiltzen baitute. Honelako keinu hizkuntzak, Napoliko behe mailako biztanleengan, fraile trapisten artean (isiltasunezko botoa egin dutelarik), Ipar Ameriketako mendebaldeko zabaldietako indiarrengan (non aho-hizkuntza ezberdinetako tribuak biltzen baitira merkataritza eta gudurako), eta gormutuen artean aurkitu izan dira.

Egia dirudi keinu hizkuntza hauek keinu arruntetatik sortutako garapena baino ez direla, eta zailagoak edo zuzenean ulergarriak ez diren keinuak hizkera arruntetan oinarritzen direla. Lehenaldia adierazteko atzamar zirkina bezalako keinu begi bistakoa, hizkeran "atzealde" eta "iraganean" esanahietarako hitz bera erabiltzeko ohituratik dator. Bien sorburua dena dela, keinua hain denbora luzean aho hizkeraren menpe egonik, bigarren mailakoa da, eta ez du aspalditiko izaera berezirik. Hizkuntza guztiz txiroa eta soila izanik, keinuak erabili beharra duten gizarteei buruzko istorioak mito hutsak ditugu. Zalantzarik gabe, animalien aho hotsak, zeinetatik hizkuntza garatu baitzen, zarata egiten zuen erantzun zirkin gisa sortu ziren (diafragma eta eztarriaren bat-bateko estutzea). Egia dirudi, dena den, gerora hizkuntza beti keinua baino urrats bat aurrerago ibili izan dela.

Gauzaki batek beste batengan aztarna uzteko mugitzen dugunean, markagintzan edo irudigintzan abiatzen gara. Erantzun mota honek, luzerako aztarna uztean du bere balioa, aztarna hori eragingarria izan daitekeelarik behin eta berriz, denbora une tartekatuetan ere, eta urrun dauden pertsonengan eragiteko garraia daiteke. Arrazoi honengatik, zalantzarik gabe, gizatalde askok, guk ikusten diogun balio estetikoaz gaindi, botere majikoa egozten diote irudigintzari.

Munduko bazter batzuetan, irudigintza idazkera bilakatu da. Garapen honen zehaztasunez beste nonbait ihardun genezake; oraingoan garrantzia duena, markagintza hizkuntzaren menpe jar daitekeela da: marka talde jakin bat, hizkuntza forma jakin

baten ahoskaketari loturik gelditzen da, marka taldea lagun edo ordezkari izan daitekeelarik.

Hizkera formak ikusgai diren marken bitartez itxuratzeak asko gehitzen dio hizkuntzaren erabilera baliagarriari. Hiztunari ezin zaio hurbiletik eta une labur batez baino entzun. Idatzitako aztarrena edonora eraman daiteke eta denbora luzean gorde. Entzun dezakeguna baino askoz gehiago ikus genezake kolpe batean eta ikusten diren gauzeekin hobeto moldatzen gara: grafikoei, diagramei, idatziriko kontuei eta antzeko lanabesek oso arazo konplexuei ekiteko gai egiten gaituzte. Urrunean dauden lagunen hizkera eraginak, bereziki antzinako jendearena, idazkeraren bitartez datorkigu eskumenera. Honek ezagutza pilatzea errazten digu. Zientzialariak (ez beti zientzialariak, ordea) bere aurreko aztertzaileen ondorioak irakurtzen ditu, eta haiek utzi zutenean ekiten dio berak. Behin eta berriz hasieratik hasi beharrean, zientziak aurrekoa bilduaz eta abiada gehituaz egiten du aurrerapauso. Gero eta trebetasun bikaineko gizabanako dohaitsuen hizkera erantzun gehiago gordetzen ditugularik (edozein irakaurlek erantzun dezakeen era sinbolikoan), unibertsoa gertaera guztiak, iraganekoak, oraingoak eta etorkizunekoak, liburutegi izugarri baten neurritan biltzen direneko egoera ideal batetara hurbiltzen ari garela esan ohi da. Ez da harritzekoa inprentaren asmakuntzak, zeinak nahi adina kopiataraz ugaltzen baitzuen idatzitako hizkuntza alea, gizaldi batzuetan zehar garatu den eta oraingoz ere indar itzela duen iraultza ekarri izanak gure bizimodura.

Ez dago gainerako hizkuntza jasotzeko, garraiatzeko eta ugaltzeko moduetan luzatzeko beharrik: telegrafoa, telefonoa, fonografoa eta irratia. Hizkuntzaren erabilera arrunterako duten axola begi bistakoa da; adibidez, kablerik gabeko telegrafia itsasuntzien hondatzeetan.

Luzera, hizkuntzaren erabilkortasunean laguntzen duen edozerk zeharkakoak baina iraunkorrak diren ondorioak ditu. Berehalako erantzunik sortzen ez duten hizkera gertaerek ere, gerorako erantzunetarako jarrera alda diezaiokete entzuleari: poema eder batek, esaterako, gerorako eragingarrien aurrean sentiberago egin dezake entzulea. Giza erantzunen fintze eta goritze honek hizkuntzazko harreman ugari behar ditu. Hezkuntza edo kultura, bera izendatzeko zeinahi izen aukeratzen dugularik, hizkera kopuru ikaragarrien errepikaketa eta argitaratzeari loturik dago.

Oharrak

Psikologialariek bazter arazotzat daukate hizkuntza. Eztabaida orokorra: Marett 130; Boas 1.5; Wundt, Sprache; Sapir; Allport; de Laguna; eta bereziki, Weiss.

2.1. Filologia izena, Britaniako ingelesez eta Ameriketako erabilera zaharrenean ere, ez zaio (bereziki idatzietan oinarrituriko) kulturaren azterketari ematen bakarrik, baizik eta hizkuntzalaritzari ere. Garrantzitsua da filologia (alemanieraz Philologie, frantsesez philologie) eta hizkuntzalaritza bereiztea (alemanieraz Sprachwissenschaft, frantsesez linguistique), ikasketok oso gutxi baitaukate komunean. Ingeleseko erabileran dabilen nahasmenduaz: H. Pedersen Litteris-en 5.150 (1928); G. M. Bolling Lg-en 5.148 (1929).

2.4. Jendarteko ustearen arabera, pentsatzean hizkera zirkin guztiak ezabatzen ditugu, azkenik bazka gabe bizitzen ikasi zuen ipuineko zaldiaren antzera.

Zenbakien erabilera, hizkera ekintzen adibiderik bikainenetakoa dugu. Nork bizi nahi luke matematika hutsen munduan? Matematika, hizkuntzak egin dezakeen onena da.

2.5. Umearen hizkuntz ikasketa: Allport 132; Weiss 310. Ez dakigu ia ezer, ikuskatzaileek umeak esaten duena deskribatzen baitute, baina ez entzun duena; honela Stern; Preyer; Bühler Hitz egiten ikastea da batek bizitzan egiten duen gauzarik gaitzena: Jespersen Language 103.

2.8. Hizkera nahasmenduak: Kussmaul; Gutzmann, Sprachheilkunde; Wilson; Head; Travis.

2.9. Keinugintza: Wundt, Sprache 1.143

2.10. Unibertsoa sinbolikoki liburutegi neurritara murriztua: A.P. Weiss Lg-en 1.52
(1925)

3.1. Bigarren kapituluan, elkarren ondoko hiru jazoera bereizi ditugu hizkera gertaeran: A, hiztunaren egoera; B, hiztunak hizkera hotsak egitea eta hauek entzulearen barne belarrian duten eragina; C, entzulearen erantzuna. Hiru gertaera mota hauetatik, A-k eta C-k pertsona bat hitz egitera bultza dezaketen egoerak eta entzuleak erantzunez egin ditzakeen ekintzak biltzen dituzte; oro har, A-k eta C-k bizi garen mundua biltzen dute. Bestetik, B, hizkera hotsa, bera ezean gudan eraginik izango ez luketen egoerei erantzuteko, edota bestela behar bezain baliagarriak ez liratekeen erantzun zehatzagoak emateko gai egiten gaituen lanabesa baino ez da. Hasiera batean, hizkuntza azterlariari (B) benetako hizkerak axola dio bakarrik; hiztunen egoerak eta entzuleen erantzunak (A eta C) aztertzea, giza ezagutza osoaren batuketa bezain beste litzateke. Hiztun ororen egoera eta entzule ororen erantzunari buruzko ezagutza zehatza bagenu -eta honek ia orojakile egingo gintuzke-, (A-C) gertakari bi hauek B esaldiaren esanahia direla esango genuke besterik gabe, gure ikerlana gainerako jakite eremuetatik txukunki bereiziz. Esaldiek eurek, sarri asko, bai hiztunaren egoeran, bai entzulearen erantzunean eragin ahal izateak zertxobait korapila ditzake kontuak, baina oztopo hau ez litzateke gaindiezina. Hizkuntzalaritza, maila ideal honetan, ikerketa ildo bik osatuko lukete: fonetikak batetik, zeinetan esanahirik aipatu gabe aztertuko baikenuke esaldia, hiztunaren mugimendu hots sortaileak, hots uhinak eurak eta entzulearen barne belarrian duten eragina ikertuaz, eta semantikak bestetik, zeinetan ezaugarri horiek esanahiaren ezaugarriekin duten harremana ikertuko baikenuke, halako hizkera hotsek, halako egoera motatan sortua izanik, entzulea halako ekintzak burutzera bultzatzen duela erakutsiaz.

Egitan, baina, bizi garen munduaz dugun ezagutza hain da zatikakoa, gehienetan ezin dugula hizkuntz ale baten esanahiari buruzko iruzkin zehatzik egin. Esaldi batera daramaten (A) egoerek eta entzulearen erantzunek bil ditzaketen (C) kontuen artean, zientziak menperatzen ez dituen hainbat eta hainbat arazo daude. Inguruko munduaz dakiguna baino askoz gehiago bageneki ere, hiztunak eta entzuleak aurretiaz duten jarrerari ekin beharko genioke. Delako egoera batean, ezin genezake aurretiaz jakin delako pertsona batek hitz egingo duen, edota, hitz egiten badu ere, zein hitz erabiliko dituen, eta era berean ezin aurretiaz jakin nola erantzun diezaiokeen delako esaldi bati.

Egia da gizabanakoak baino, taldeak digula axola gehiago. Ez ditugu sagar hitza esaten duen lagunaren kirio zirkinak ikertzen; aitzitik, taldeko kide guztientzat, oro har, sagar hitzak halako fruitu bat adierazten duela esatearekin konformatzen gara. Alabaina, arazo honi zehazki heldu nahi diogun bezain laster, taldearen adostasuna osotasunetik urrun dagoela eta gizabanako bakoitzak hizkuntz aleak era berezi batean erabiltzen dituela ikusten dugu.

3.2. Hizkuntzaren ikerkuntza aurreonarpen berezirik gabe lan daiteke, hitz egiten denaren esanahiari jaramonik egiten ez diogun bitartean. Hizkuntzaren ikerkuntza maila honi fonetika deritzaio (fonetika esperimental, laboratorio fonetika). Fonetikalariak, hiztunak hotsak sortzeko egiten dituen mugimenduak azter ditzake (fonetika fisiologikoa), edota sortzen dituen hots uhinak (fonetika fisikoa edo akustikoa); oraingoz ez daukagu uhinek entzulearen barne belarrian duten eragina ikertzeko biderik. Fonetika fisiologikoa, arakatzeaz hasten da. Laringoskopioa, adibidez, beste norbaiten (edo norberaren) ahots kordak ikusten uzten digun ispilu lanabesa da. Antzekoak diren lanabes guztiak bezala, hizkera oztopatzen du, eta bera erabiltziaz araka daitekeena oso mugatua da. X-izpiek zerbitzu handia egiten dute muga hauek gainditzeko; mihiaren egoera ezberdinen argazkiak atera ditzake, adibidez, mihigainean katea edo metal zati mehe bat jarritz gero. Beste lanabes batzuek zeharbideko lekukotasunak eskaintzen

dizkigute. Zer koloredun batez margoturiko sasi-sabaia jar daiteke ahoan; hiztunak delako hots bat ahoskatu ondoren, aho sabaiaren zein toki ukitzen diren ikuska daiteke, kolorea falta den guneei begiratuaz. Honen antzeko lanabes gehienetan, haize poltsa bat lotzen zaio hiztunaren aho-organoei, adibidez Adanen sagarrari; poltsa honek, mugimenduok paper zati batean gora-behera idazten duen idazluma bati eransten dizkio. Paper zatia abiada berdintsu batean mugituz gero, uhin itxura duen marra sortzen du lumaren gora-beherak. Lanabes honi kimografoa deritzo. Fonetika akustikoak, hots uhinen irudiak lortzen ditu. Irudi hauek ezagunak zaizkigu, fonografo disko gisa; fonetikariek ez dute oraingoz bilduriko hots irudien ezaugarri gehienak aztertzean arrakastarik izan.

Hizkera hotsei buruz lortu ditugun argibide gehienak gorago aipatu lanabesei zor dizkiegu. Halere, laboratorio fonetikak ez digu hotsak esanahiei lotzeko biderik eskaintzen; gihar zirkin diren aldetik, edota haizeari eragiten dioten aldetik aztertzen ditu hizkera hotsak soilik, komunikaketan duten erabilera ikertu gabe. Laboratorio maila honetan, hizkera hotsak infinituki konplexuak eta infinituki askotarikoak direla ikusten dugu.

Esaldirik laburrena ere etenik gabea da: eten tarterik ez duten mugimendu eta hots uhinez osatutako jarraia da. Ez du axola zenbait zatitan banatzen dugun esaldia azterketarik sakonena egiteko, beti asma daiteke azterketa meheagoa. Esaldia, matematikariek continuum deitzen dutena da; batek nahi adina jarraiko zatik osatzen dute.

Esaldiek ugaritasun amaigabea dute. Eguneroko gertakariak, pertsona ezberdinek ezberdin hitz egiten dutela erakusten digute, jendea bere ahotsagatik ezagutu baitezakegu. Fonetikalariak badaki berdin-berdinak diren esaldi bikoterik ez dela.

Noski, hizkuntzaren erabilera bata bestearen ondoko esaldien arteko antzekotasunean oinarritzen da. Eguneroko bizitzan hizkera forma "berbere" osatuta daudela esango genukeen esaldiek -esaterako gose naiz perpausaren ahoskaldi ezberdinak- badute noski hots uhinean berdintsu diren ezaugarriak, hizkuntz ale honen "beraren" esaldi guztiek dituztena. Fonetikalariak, aitzitik, ezin ditzake ezaugarri komun horiek asmatu, esaten denaren esanahiari jaramonik egiten ez dion bitartean behintzat. Demagun, esaterako, fonetikalariak man silaba bezala identifika genezakeenaren aztarrenak bildu dituela, doinu maila ezberdin bitan ahoskatua. Esaldion hizkuntza ingelesa balitz, biek hizkuntz ale bera adierazten dutela esango genuke, gizon hitza alegia, baina hizkuntza txinera balitz, aztarren biok hizkuntz ale ezberdin bi adieraz ditzakete, txineraz doinu ezberdintasunak esanahi ezberdinei loturik daudelako: man hitzak, goranzko doinuaz, "engainatu" esan nahi du, adibidez, eta behearanzko doinua duen man hitzak "astiro" esanahia dauka. Esanahiei jaramonik egiten ez diegun bitartean, ezin genezake hizkera hots bi "berdinak" ala "ezberdinak" diren erabaki. Fonetikalariak ezin esan diezaiguke komunikaketarako axolazko edo axolarik gabeko tasunak zeintzu diren. Delako hizkuntza edo dialekto batean axolazkoa den tasuna, axolarik gabekoa liteke besteetan.

3.3. Man silabaren doinu ezberdineko ahoskaldi bi ingelesez hizkuntz forma "bera" izateak, baina txineraz hizkuntz forma "ezberdinak" izateak, hizkuntzaren erabilera, guk geuk ohituraz eta konbentzioz hots ezaugarri batzuk bereiztean ala ez datzala erakusten digu. Laboratorioan jaso daitezkeen gisako edozein esaldiren ezaugarriei tasun akustiko landugabeak deritze. Hauen artetik zenbaitek ez dute axolarik (ez dira bereizgarriak), eta talde bat bakarrik dugu esanahiei lotua eta komunikapenerako beharrezkoa (bereizgarriak). Ezaugarri bereizgarri diren eta ez diren hots atalen arteko banaketa hiztunen ohituretan datza soilik. Baliteke hizkuntza batean bereizgarria den tasuna, hurrengo hizkuntzan bereizgarri ez izatea.

Esanahia dakigunean bakarrik erabaki ditzakegunez esaldi bateko tasun bereizgarriak, ezin ditzakegu fonetika mailan soilik bereizi. Ingeleseztan man eta men formen arteko ezberdintasuna bereizgarria dela badakigu, eguneroko bizitzatik forma biak egoera ezberdinetan erabiltzen direna dakigulako. Baliteke hizkuntzalaritzaz besteko zientzia batek ezberdintasun hau era zehatz batean definitzea, baita man hitza lagun bat baino gehiagorako erabiltzen dugun kasuetarako ere (man wants but little here below "gizonak gauza gutxi nahi du hemen behean"). Dena den, hala eta guzti ere, ezberdintasun hau ezin daiteke azterketa fonetiko hutsaren bitartez bereizi: man eta men hitzetako bokal hotsaren arteko ezberdintasuna ez da bereizgarria hainbat hizkuntzatan.

Hizkuntzaren tasun bereizgarriak ezagutzeko, fonetika hutsaren landak utzi, eta zientzia hizkuntz formen esanahia osatzen duten egoera eta erantzun guztiak bereizteko gauza balitz legez jokatu behar dugu. Gure-geure hizkuntzaren kasuan, gure eguneroko jakintzan oinarritzen gara, delako hizkuntz ale bi "berdinak" ala "ezberdinak" diren erabakitzeko. Honela, doinu ezberdinetan esandako ingeleseko man hitza hitz "bera" dela erabakitzen dugu, esanahi bakarrekoa alegia, baina man eta men (edota pan "zartagi" eta pen "idazluma") hitz ezberdinak direla, esanahi bereziekin. Ezezaguna zaigun hizkuntzaren kasuan, saiatuaz ikasi behar ditugu kontu horiek, hizkuntza ezagutzen duen batengandik esanahiak lortuaz.

Bereizgarriak diren hizkera hotsen ikerkuntza fonologia edo fonetika praktikoa dugu. Fonologian, esanahiei jaramon egiten zaie. Hizkera formen esanahiak, zientzia adar guztiak, eta bereziki psikologia eta fisiologia, jakintza osotik hurbil baleude bakarrik defini litezke. Egun hori heldu artean, fonologia eta semantika ukitzen duten hizkuntz ikerkuntza atal guztiak, aurreonarpen baten gainean dautza, hizkuntzalaritzan oinarrikoa dena: hizkuntz elkarte guztietan, zenbait esaldi bai formaz, bai esanahiaz berdintsuak direla onartu behar dugu.

3.4. Esperimentugintza apur batek erakutsiko digu hizkuntz ale baten tasun bereizgarriak kopuruaren aldetik mugatuak direla. Honi dagokionez, tasun bereizgarriak landugabeko ezaugarri akustikoetatik aldentzen dira, azken hauek, esan dugunez, etenik gabeko osotasuna eratzen baitute eta, batek nahi adina azpizatitan azter baitaitezke. Geure hizkuntzako formen tasun bereizgarriak aurkitu ahal izateko, komunikapen helburuetarako zein hots ezaugarri diren "ezberdin" erabaki behar dugu bakarrik. Demagun, adibidez, pin "orratz" hitzarekin hasten garela: hitza bera ozenki esatea baino besterik ez diren saio gutxi batzuek ondoko antzekotasun eta ezberdintasunak eskainiko dizkigute:

(1) pin hitzaren bukaera, fin "hegala", sin "bekatu", tin "latorri" hitzena bezalakoa da, baina hasiera ezberdina da; antzekotasun hau ezaguna zaigu bertsoetan hitz bukaerako errima erabiltzeko dugulako.

(2) pin hitzak in "barnean" hitzaren hotsak biltzen ditu, baina zerbait gehitzen du hasieran,

(3) pin hitzaren bukaera man "gizon", sun "eguzki", hen "oilo" hitzen bukaera bezalakoa da, baina antzekotasuna (1) eta (2) atalek baina txikiagoa da;

(4) pin hitzaren hasierako hotsa pig "txerri", pill "pilula", eta pit "putzu" hitzena bezalakoa da, baina bukaera ezberdina da;

(5) pin hitza pat "laxandu", push "bultzatu", peg "ziba" hitzak bezala hasten da, baina antzekotasuna (4) atalekoa baino txikiagoa da;

(6) pin hitza pen "luma", pan "zartagi", pun "hitz joko" hitzak bezala hasten da, baina erdialdea ezberdina da;

(7) pin hitzaren hasiera eta bukaera, ez da dig "atxurto", fish "arrain", mill "errota" hitzena bezalakoa, baina erdialdea berdina da.

Era honetan, pin hitzarekin antzekotasunik duten formak aurki ditzakegu, hitzaren hiru ataletatik zeinahi aldatuaz. Hiru ataletatik lehena alda dezakegu lehenik, eta gero bigarrena, eta oraindik antzekotasunik gorde: lehen atalaren ondoren bigarrena aldatuz gero, pin-tin-tan bezalako saila lortzen dugu; bigarren atala eta gero hirugarrena aldatuz gero, pin-pan-pack bezalako saila lortzen dugu; eta hiru atalak aldatuz gero, ez da antzekotasunik geratzen, pin-tin-tan-tack sailan legez.

Areagoko saiogintzak ez digu pin hitzaren beste atalik agertzen: hitzaren tasun bereizgarriak hiru atal zatietan direla erabaki genezake. Atal hauetariko bakoitza beste konbinaketetan ageri zaigu ere, baina ezin daiteke zatikako antzekotasunen bidez aztertu: hiruretariko bakoitza hots tasun berezi baten unitatea dugu, fonema bat alegia. Honela, bada, pin hitza hiru fonemez osatua dela diogu: hauetarik lehena pet, pack, push eta beste hainbeste hitzetan ere ageri da; bigarrena fig, hit, miss eta beste hainbeste hitzetan ageri da; hirugarrena, tan, run, hen eta beste hainbeste hitzetan ageri da ere bai. Pin hitzaren kasuan, gure idazkera alfabetikoak hiru letren bidez, p, i eta n, ageri ditu hiru fonemok, baina gure idazkera arauak ez dira gidari zuzenak; thick "lodi" hitza hartuz, adibidez, gure idazkerak th letra bikotearen bidez adierazten du lehen fonema, eta hirugarrena ck letra bikoteaz.

Honelako saioetan ihardun ondoren, hitzaren zati ezberdinetan ageri den fonema ezagutzeko gai izango gara, adibidez pin, apple "sagar", mop "lanbasa" hitzetan. Zenbaitetan, gure hitz ondareak ez ditu berehala agertzen antzekotasun eta aldeak. Adibidez, then "orduan" hitza, hiru fonemez osatua da begi bistan denez, baina (idazkeraren eraginez batik bat) hasierako fonema thick hitzarena bezalakoa den ala ez galde genezake; baina behin thigh "izter" eta thy "hi" hitz bikotea, edota mouth "aho" eta mouthe "ahoa ireki eta ertsi" bikotea aurkituz gero, ezberdinak direla esan behar dugu. [then, thy, mouthe hitzetan, th idazkerak hots ahostuna adierazten du, gainerakoetan ez.]

3.5. Zeinahi esaldiren tasun akustiko landugabeetatik, bada, batzuk bereizgarriak dira, hurrengo esaldietan berragertzen baitira, ezagutzeko moduko forma berdintsuan agertzen direlarik. Tasun bereizgarri hauek sorta edo mordoetan gertatzen dira, eta sorta bakoitzari fonema deritzogu. Hiztunak, fonema tasunok hots uhinetan ager daitezen ziurtatzen duten mugimendu hots egileak egiten ikasi du, eta tasun horiei erantzuten saiatua izan da, bere belarrietara heltzen diren gainerako tasun landugabe mordoei jaramonik egin gabe.

Baliorik gabeko saioa litzateke tasun bereizgarriak soilik hutsean sortzen saiatzea, bereizgarri ez diren gainerakoak kenduta. Adibidez, ingeleseko hitz batek, berez, ez du doinu eredu berezirik -hitz horren agerpen bakoitzean ageri diren doinu tasunak ez dira bereizgarriak- baina ezin genezake man bezalako hitz bat inolako doinurik gabe esan: hitzaren edozein esalditan doinu ereduren batek egon behar du -berdintsua, goranzkoa, beheranzkoa, gorena, erdikoa, behea eta abar. Hizkuntzaren fonemak ez dira hotsak, baizik hiztunek ohituraz benetako mintzoan sortzen eta ezagutzen ikasi dituzten hots tasunak -motorrean dabiltzanek argi gorri baten aurrean gelditzen ikasi behar izan duten bezala, argi elektrikoa, suzkoa, banderina edo beste zeinahi gauza delarik, nahiz ikur horiez gaundiko gorputzik gabeko gorritasunik existitzen ez den.

Izan ere, hurbiletik begiratzen dugunean, batez ere arrotza zaigun hizkuntza batean, sarri asko bereizgarri ez diren tasunen ugaritasunaz jabe gaitezke, eta baita bereizgarri direnen izate arinaz ere. Menomini indiararak, "ura" esanahia duen hitza erabiltzean, hemen nipeew idatziko dudana, erdiko kontsonantea batzuetan p bezala eta bestetan b gisa ahoskatzen duela begitantzen zaigu. Hizkuntza honetan, tasun fonemikoa (hots, bereizgarria) ez da ezpainen hertsidura bat baizik, sudurretatik arnasik atera gabe. Gainerako guztia, hala nola ingelesez p eta b hotsak bereizten dituen, ez da

bereizgarria. Bestetik, kontsonantearen aurretik arnas pitin bat ateratzeak, edota eztarria zertxobait estutzeak (gauza biok ziurrenik ingelesdun hiztunaren belarriak entzun ere egingo ez lituzkeenak), menomini hizkuntzan fonema guztiz ezberdin bi sortuko lituzke, bietariko bakoitza p-b fonema soiletik bereizten delarik.

Era berean, gaztigatu gabeko txinar bisitari batek bere arazoak izango lituzke ingelesezko hitzek, doinua gora-behera, esanahi bera dutela ("hitz bera" direla) konturatu arte.

Alde batetik, bereizgarri ez diren tasunek tratamendu arrunta jasaten dute. Hiztun arrotzak, guk uler diezaiozun gure hizkuntzako tasun fonemikoak sortzen dituenean, bereizgarri ez diren tasunak ez baditu gure ohiturara banatzen, gure hizkuntza nahikoa ongi hitz egiten duela esaten dugu, baina kanpoko "doinua" duela. Ingelesez, esaterako, pin, stick, eta kick hitzen hasierako fonemak, ezpain irekiduran halako arnas bultzada arin bat boteaz ahoskatzen ditugu (hasperena), baina aurretik s agertzen bada, spin, stick, skin hitzetan legez, egiteke uzten dugu arnas bultzada hori. Bereizgarria ez delarik, ezberdintasun hau ahoskatzen ez duen hiztun arrotzari dena uler dakioke, baina bere mintzoa bitxi egiten zaigu. Frantsesdunek huts egin ohi dute kontu honi dagokionez, frantsesez gurean antzekoak diren p, t, k fonemek ez baitute sekula hasperenik. Bestalde, frantsesa ulertua izateko bezain ongi hitz egiten duen ingeles edo amerikarrak entzuleak gogaituko ditu, p, t, eta k ondoren hasperena erabiliaz.

Bereizgarriak ez diren tasunak banaketa eredu guztietan ageri zaizkigu. Amerikar ingelesaren mota gehienetan, water "ur" edo butter "gurin" hitzetako t fonema, hortzosteko sabai konkorrari mihiak egiten dion ukitu arina baino ez da: gure ohituretan, horrela sortutako hotsa nahikoa da fonema gauzatzeko. Ingalaterran, aldaera hau ez da ezagutzen, eta d fonemaren aldaera gisa ulertua izan daiteke -eta amerikarrari, ura eskatzen duenean ulertzen ez diotela gerta dakioke.

Kasu arruntetan, bada mugarik bereizgarri ez diren tasunen aldakortasunean: fonema, hizkuntzaren gainerako fonemetatik bereizirik gorde ohi da. Beraz, pen bezalako hitz baten bokala era askotara ahoska genezake, baina inoiz ez pin hitzaren bokalari dagokion modura, eta inoiz ez pan hitzaren bokalari dagokion modura: hirurok tinko bereizirik mantentzen dira.

3.6. Hizkuntza edo dialekto arrotz bat mintzatzen saiatzen garenean garbi ikus dezakegu hizkuntza edo dialekto batean bereizgarri dena hurrengoan bereizgarri ez dela, eta fonemen arteko mugak hizkuntza eta dialektoetan ezberdin direla. Ikusi berri dugu amerikar ingelesa Ingalaterran ulertezina egin lezakeen adibidea. Amerikar ingelesez, fob "atzipetu", bomb, "bonba", hot "bero" hitzetako bokalea, britaniar ingelesez baino hurbilago dago far "urrun, balm "ukendu", pa "aita" hitzetako bokaletik; ameriketako ingelesaren mota batzuetan, hitz talde biek bokal bera dute, izan ere. Hegoaldeko ingelesak, gainetik, r hotsa galdu du far "urrun" bezalako hitzetan. Londreseko taxi gidari batek ez zidan ulertu Comedy Theatre-ra joan nahi nuela esan nionean: ahazturik, comedy hitzeko lehen bokala Ameriketako ereduahoskatu nuen eta, gidari ingelesak car "auto" hitzaren bokalaren kide bezala uler zezakeen hau; honela, inon existitzen ez den Carmody Theatre delako bati buruz galdezka ari nintzaion.

Hizkuntza edo dialekto arrotz bat hitz egiten saiatzen garenean, bere fonemen antzekoen diren geure hizkuntza edo dialektoko fonemak erabili ohi ditugu. Batzuetan, gure jatorrizko fonemak eta arrotz zaigunak badute tasun komunik, eta ondorioz, gehientsuetan gure berregiketa zuzena da, baina bestetan hots arrotzaren eremutik kanpo gelditzen da. Honela, frantseseko même hitza ingeleseko ma'm "andereño" bokalaz ahoskatzen duen amerikarrak, batzuetan baino ez ditu fonema frantsesaren ohiko eskakizunak beteko; gehienetan, frantsesdunak entzun ohi duen bokaletik garbi asko aldentzen den hotsa sortuko du.

Kasu hauetan, jatorrizko hitzunaren zehaztasunik ezak konpondu ohi du arazoa. Hizkera hots arrotzak entzuten ditugunean, geure jaiotzetiko hizkuntzako antzeko fonema baten tasun akustikoak balituzte legez jokatzeko dugu. Bien arteko aldeak erne jartzen gaitu eta, kanpotarrak era bitxi batean edota hots arraro batez mintzatzen dela esan ohi dugu, baina ez dakigu ezberdintasuna non datzan. Darabilgun adibidean, bada, frantsesdunak ulertu egingo du amerikarrak duen même hitza ahoskatzeko modua, frantsesdun horren ahoskeran sekula agertzen ez den bokala ageri duen arren. Alabaina, gure ahoskera fonema arrotzetik gehiegi aldentzen bada, ez digute ulertuko; hala, ameriketako ma'm hitzaren aldaera batzuk ulertezinak dira même hitz frantsesaren ahoskaketa gisa, zeren eta hitzun frantsesak beste fonema baten gauzatzea bezala entzungo baititu, lame "sorbatz" hitzean agertzen denaren kideztat, alegia.

Nahasketa axolazkoagoa da bizpahiru fonema arrotzek guretariko bakar baten itxura dutenean. Gure haurtzaroko hizkuntza ikasketak, fonemikoak ez diren bereizkuntzak ez entzutera bultzatzen gaitu. Ingelesdunak ez du inolako alderik entzuten menominierako a' käh "bai, benetan", ahkäh "lapiko" hitzen eta akähsemen "okaran" hitzaren hasieraren artean. Formotarik lehenean, gure k fonemaren itxura duen fonema, eztarrian egiten den estutze arin batez osatzen da (herskari glotala), apostrofoaren bidez itxuratu dudana; bigarrenean, k hotsaren aurretik arnas bultzada bat gertatzen da (hasperena), h hizkiaren bitartez adierazi dudana; hirugarren forman, ez dira tasun hauek ageri. Ingelesdunari haurtzarotik irakatsi diote kontsonante hotsetan eztarri estutze eta arnas bultzadei ez erantzuten: hitzun lagun batek halako hotsik sortzen badu inoiz, ez diogu jaramonik egiten hotsaren tasun horri.

Menominieradunak, bere aldetik, ezin ditzake gure t eta d arteko aldeak bereizi. Harentzat, bad "txar" eta bat "saguzahar" hitzek antzeko hotsa dute. Garbi ageri da hau, adibidez, menominiarrek Swede "suediar" hitzari eman dioten itzulpenean, sweet "gozo" hitza balitz legez itzuli baitute saye-wenet "gozoa dena" hitzaz. Bada menominiar fonema bat gure t eta d fonemen antzekoa dena, eta zalantzarik gabe, menominieradunak sarri ahoskatzen ditu gure t fonemaren eremukoak diren fonema bakar horren aldaerak, bestetan gure d fonemaren eremukoak direnak ahoskatzen dituen bezala; bere haurtzaroko trebatzean, baina, hots ezberdinatun horiek ez entzuten ikasi zuen.

Hizkuntza arrotza hitz egiten saiatzen garenean, gure hizkuntzako fonema bakar baten bidez berregin ohi ditugu beste hizkuntzako hainbat fonema arrotz. Jaiotzetiko hitzunak, bere aldetik, bereak balira bezala erantzuten die gure fonemei. Beraz, alemanieradunak ez du tin "latorri" eta thin "mehe" hitzen hasierako fonemen artean alderik entzuten, biek bere jaiotzetiko hizkuntzako fonema bakar baten itxura baitute. Ingelesezt mintzatzen denean, alemanierazko fonema hau darabil. Berari entzunaz, gure t fonema balitz legez erantzuten dugu; zuzen gabilta, edonola ere, tin eta thin artean bereizten ez duela esatean. Era beretsuan, ingelesdunak alemaniera entzuten duenean, hizkuntza horretako fonema berezi biri, cat "katu" hitzeko lehen fonema bailiran erantzungo die, eta ondorioz, ezingo ditu alemanieradunen ohituretan arras ezberdinak diren hotsak banatu.

Beste kasu batzuetan, hizkuntza arrotzeko fonema mordo horien ordezt erabiltzen dugun fonema bakarra, tartekoa da akustikoki, eta jaiotzetiko hitzunari, hotsak aldatzen dihardugula begitanduko zaio. Adibidez, alemaniar askok (alsaziarrek esaterako), gure p eta b fonemen eremurako fonema bakar bat daukate, fonema horren izate akustikoa erdibidekoa delarik, eta gure hizkuntzaz hitz egiten dutenean, gure fonema bientzako darabilte. Pie "tarta" bezalako hitz batean hau egiten dutenean, b fonemarantzko duen hotsak harritu egiten gaitu, eta buy "erosi" hitzari legez erantzuten diogu; bestalde, erdibideko fonema hau erabiltzen badute buy hitzean, duen p fonemarantzko hotsak

harritzen gaitu, eta pie entzun izan bagenu legez erantzuten dugu. Beraz, gure iritziz (eta frantsesdunenean ere), alemaniarrek p eta b ahoska ditzakete, baina, maltzurki, bata bestearen ordez erabiltzen dute beti.

Zailtasunik larriena, delako hizkuntza batek gure hizkuntzan inolako zereginik ez duen tasuna era bereizgarrian darabilenean aurkitzen dugu. Txinera (edota beste zenbait hizkuntza) entzuten duen ingelesdunak ezin izango du ulertu edo ongi hitz egin, silaba bakoitzean bereizgarri diren doinu aldaketak entzuten eta sortzen ikasten duen arte. Hasieran ez die erantzuten, man bezalako hitz baten ahoskaldietan gertatzen diren doinu-eite ezberdinei jaramonik ez egiten ikasi zuelako umetan; txinar umeak, bestalde, horrelako doinualdi mota ezberdinei jaramon egiten ikasten du.

Hizkuntza arrotzak fonema bakarra badu gureak fonema asko dituen eremu akustikoan, sarri asko arrotzek arrazoizkoa den bereizketarik gabe era askotariko hotsak erabiltzen dituela iruditzen zaigu. Honela, menominiarren edota alsaziarren p-b fonema bakarrik batzuetan p bezala joko ditu gure belarriak, besteetan b bezala.

Pertsona batzuek hizkera hots arrotzak entzun eta ahoskatzeko gaitasuna daukate; pertsona horiek ongi antzeratzeko ahalmena, edo "belarri ona" dutela diogu. Gainerako gehienek, hizkuntza arrotza maiz entzunez gero, edo arretaz irakasten bazaie, ulertzen eta beren buruak azaltzen ikasiko dute denborarekin. Fonetikalari praktikoei hots alerik bitxienak entzuteko eta ahoskatzeko gaitasun izugarria lortu ohi dute batzuetan. Honetan, zalantzarik gabe, bada arriskurik hizkuntzalaritza lanerako. Hots mota asko bereizten ikasirik, fonetikolariak ezaguna edo ezezaguna zaion hizkuntza bati ekin diezaioke, eta berak bereizten ikasi dituen ezberdintasun guztiak biltzen ihardun, bai bereizgarri ez diren hizkuntzetan ere, inolako axolarik ez duten arren. Honela, txinera aztertu ondoren, esaterako, p, t, k hasperendun (ingelesezko pin, tin, kick hitzen hasieran agertzen dena) eta hasperen gabeko antzeko hotsen arteko bereizketa egiten ikasi duenak (frantsesdunak egiten duen legez, edo ingelesezko spin, stick, skin, hitzetan ageri denez), fonetikolariak ingelesari buruzko azterketa korapila lezake entzuten duen guztietan hasperena markatuz, haren agerpenak esan denaren esanahiaz zerikusirik ez badu ere. Jokabide honi aitzakiatzen diogun akats nagusia sendotasunik eza da. Fonetikalariaren tresneria, pertsonala eta ausazkoa da; aztertu dituen hizkuntzetan ezagutu dituen tasun akustikoak entzuten ditu. Bere azterketarik "zehatzenak" ere, bereizgarri ez diren hainbat eta hainbat hots tasun baztertzen ditu; agertzen direnak pertsonalak eta ausazkoak diren zertzeladek erabakitzen dituzte. Tasun fonemikoekin nahasten ez dituen bitartean, hizkuntzalariak entzun ditzakeen tasun akustiko guztiak deskribatzen saiatzearen kontra ez daukagu ezer. Bereizgarri ez diren tasunak entzuteko gaitasuna bere pertsonaren egoerari buruzko zertzeladen arabera dela gogoratu beharko luke, eta bere itxuraketarik txukunena ere ezin dakiokela, urrunetik ere, itxuraketa mekanikoaren baliora hurbildu.

Hizkuntza aztarren mota bi bakarrik ditugu zientzia aldetik axolazko. Bata, tasun akustiko landugabeen biltze mekanikoa dugu, fonetika laboratorietan egin ohi diren bezalakoa. Bestea, fonemen arabera biltzea dugu, hizkuntzan bereizgarri ez diren tasun guztiak alde batera uzten dituenak. Akustikaz dugun ezagutza, egun duen maila baino askoz areago hedatzen den arte, bigarren motako biltzea erabil daiteke bakarrik, esaten denaren esanahiari begiratzen dion azterketan.

Izan ere, laboratorietako fonetikolariak badaki, beste iturburutatik, aztertzen ari den hizkera hotsen izaera fonemikoa; normalean ez ditu bere galderak akustika arazoen arabera eratzen soilik, baizik eta fonetika praktikotik mailegatu dituen arazoen bidez ere.

3.7. Gure azterketen emaitzak nolabait jaso ahal izateko, aztergai darabiltzagun hizkuntzetako fonema bakoitzarentzat zeinu bat eskaintzen digun sinbolo idatzien

sistema behar dugu. Honelako sinbolo taldea fonetika alfabetoa dugu, eta sinbolo hauen bitartez egindako transkribaketa fonetika transkribaketa (edo transkribaketa soilik) dugu.

Fonema bakoitzak sinbolo bat izateko irizpide honetara, gure ohiko idazkera alfabetikoaren bidetik hurbiltzen gara, baina gure ohiko idazkerak ez du asmo hau hizkuntzalaritza ikerketak behar bezain zehazki burutzen. Era ezberdinetan idazten ditugu sun "eguzki" eta son "seme", fonemak berberak diren arren, baina lead "berun" eta lead "gidatu" berdin, fonema ezberdinak dituztelarik [led eta lid]. Bestetik, oh "ai", owe "zor izan", so "beraz", sew "josi", sow "erein", hoe "aitzurtu", beau "gizonezko ederra", though "arren" hitzek fonema bera dute bukaeran, idazkerak ezberdinki adierazten duena; though, bough "abar" through "zehar" cough "eztul" tough "gogor" hiccough "zotin" hitzek fonema ezberdinak dituzte bukaeran baina guztiak -ough hizki taldeaz adierazten dira. Gure x hizkia alferrekoa da, ks (tax "zerga") edo gz (examine "aztertu") fonemak adierazten baititu; gure c hizkia alferrekoa da k (cat "katu") edo s (cent "zentabo") fonemak adierazten baititu. Jam "mermelada" hitzeko lehen fonemarako j hizkia daukagun arren, g hizkia erabiltzen dugu fonema bera adierazteko (gem "harri bitxi"). Ingeles arruntak, Chicagon mintzatzen den modukoak, hogeita hamabi oinarritzko fonema soil ditu: gure alfabetoko hogeita sei hizkiak gutxiegi dira fonetika transkribaketarako. Fonema batzuetarako, hizki biren konbinaketak darabiltzagu (digrafoak), adibidez th bikotea thin hitzaren lehen fonemarako, chin "kokots" hitzarenerako ch, shin "arantz" hitzarenerako sh, eta sing "kantatu" hitzaren azken fonemarako ng. Honek areagoko eredugabekerietara garamatza: then "orduan" hitzean, beste fonema baterako erabiltzen dugu th, eta hothouse hitzean normalean t eta h hizki banatuen bitartez adierazi ohi ditugun fonema biak adierazten ditu; Thomas izenean, th letren balioa normalean t hizkiaren bitartez adierazi ohi den fonema da. Singer "kantari" hitzean, fonema bakar baterako erabiltzen dugu ng, baina finger "atzamar" hitzean ng letrek, fonema hau eta normalean g hizkiaz, go "joan" hitzean legez, adierazi ohi den fonema adierazten dituzte. Ohiturazko idazkera alfabetikoa hizkuntza gutxi batzuetan baino ez da zehatza, adibidez gaztelaniaz, bohemieraz, polonieraz eta fineraz, non hizkuntzaren fonema sistema ezagutzen zuten pertsonak eratua edo berrikusia izan baita.

3.8. Ohiko idazkerak dituen akatsengatik, eta gure alfabetoan ("latinekoa" deitu ohi dena) behar adina sinbolo ez egoteagatik, jakintsuek fonetika alfabeto ugari asmatu dituzte.

Horietariko zenbait sistema gure ohiko idazkeratik guztiz ezberdinak dira. Bell-en "Visible Speech" edo "Hizkera Ikusgaia" dugu hauen artean ezagunena, batez ere Henry Sweet-ek (1845-1912) erabili zuelako. Alfabeto honetako sinboloak aho atalek fonemen ahoskaketak hartzen dituzten jarreraren diagrama soil eta egiunezkoak ditugu. Hizkera ikusgaia idaztea oso zaila da eta inprimatzea oso garestia.

Historiaren ohituretatik aldentzen den beste sistema Jespersen-en "Alfabeto notazioa" da. Bertan, fonema oro, hizki greko eta arabiar zenbakiez eratutako sinbolo multzo oso batez adierazten da, hizki latinoak esponentetzat erabiltzen direlarik. Hizki greko bakoitzak aho atal bat adierazten du, eta zenbakiak irekidura maila; honela, ? hizkiak ezpainak adierazten ditu, eta 0 zenbakiak hertsidura, beraz ? 0 sinboloa agertuko zaigu ezpainak herstea eskatzen duen edozein fonematan, esaterako gure p, b, eta m fonemetan. Ingeleseztako m fonemarako formula, adibidez man "gizon" hitzean, ? 0 ? 2 ? 1 dugu, non ? 2 atalak aho sabaiaren atzealdea beheratu dela, eta ? 1 atalak aho kordak dardarka ari direla adierazten baitute. Notazio honen abantailak begibistakoak dira, baina, zer esanik ez, ez da esaldi osoen transkribaketarako erabili ohi.

Fonetika alfabeto gehienak ohiko alfabetoaren aldaerak dira. Hizki arruntei, hizkilarri txikiak, alfabeto grekoko hizkiak, ohiko letren desitxuraketak, eta marka txikiak edo zeinu diakritikoak itsasirik dituzten hizkiak (adibidez a- eta ä) gehitzen zaizkie. Mota honetako alfabeto asko daude, hala nola Lepsius-ena, Afrikako hizkuntzetarako erabili ohi dena; Lundell-ena, suediar dialektoetarako; Bremer-ena, germaniar dialektoetarako; Ameriketako Elkarrekin Antropologikoarena, bertako indiar hizkuntzetarako erabilia. Liburu honetan, Nazioarteko Fonetika Elkarrekin alfabetoa erabiliko dugu (NFE); alfabeto hau, Ellis-ek, Sweet-ek, Passy-k eta Daniel Jones-ek eratu zuten. Hiztegi gehienek "ahoskapenerako irizpideak" atalean, alfabeto fonetikoaren aldaera soildua da ageri dena. Antzeko bideak garatu dira zenbait hizkuntzaren ohiko idazkeretan, esaterako alemaniera idatziko bokal gainerako puntu biak (ä, ö, ü), edota bohemiera idatziko marka diakritikoak (č, gure ch adierazteko, ß gure sh sinboloaren ordez); errusiera eta serbieraren alfabetoek hizki batzuk gehituaz osatzen dute alfabeto grekoa. Hasiera batean, zeinahi fonetika alfabeto besteak bezain egokia da, behar dugun guztia hogeita lau bat sinbolo baitira, lantzen gabiltzan edozein hizkuntzako fonema bakoitza jasotzeko nahikoa izaki. Erabileran, ordea, fonetika alfabeto guztiek akats larriak dauzkate. Asmatu zirenean, fonemaren oinarria ez zen ongi ezagutzen. Asmatzaileek beren alfabetoak edozein hizkuntzatan entzun zitekeen aldaera akustiko orotarako sinbolo bana eskaintzeko bezain aberats eta moldagarri izatea nahi zuten. Begi bistan dago egun, mota honetako bilketa batek hots uhinen bitartez egindakoa beharko lukeela, ezein esaldi bikoterako berdina ez litzatekeena. Praktikan, irizpide fonemikoa tartekatut zitzaien nolabait: normalean batek fonema bakoitzerako sinbolo bat idatzi ohi zuen, baina sinbolo hauek oso bereziak ziren, marka diakritikoz josiak, balio akustiko "zehatzak" adierazteko asmoz. Modu honetan banatutako aldaerak, fonetikariek berezi ahal izan zituztenak baino ez dira. Henry Sweetek arras soilak zen sistema itxuratu zuen, latineko alfabetoan oinarritua, berak Romic "romikoa" deitu zuena, Hizkera Ikusgaiarekin batera erabiltzeko. Fonemikako irizpideak argi agertu zitzaizkionean, areago soildurik ere notazio romikoa nahikoa litzatekeela konturatu zen. Honela, bada, aldaera soildua erabili zuen, fonema bakoitzari sinbolo bat emanaz, eta Broad Romic "romiko zabala" izendatu zuen; aitzitik, hornituagoa zen aldaera, "romiko estua", nolabait "zehatzagoa" eta zientzia asmoetarako egokiagoa zela uste zuen dena.

Sweeten romikotik garatu da Nazioarteko Fonetika Elkarrekin alfabetoa, zeina, haren eredura, latindar sinboloetan oinarritzen baita, zenbait hizki artifizial eta marka diakritiko gutxi batzuek osaturik. Era aldatu batean erabiliko dugu liburu honetan, fonetika-sinboloetan idatzirik dagoen guztia parentesi karratuetan sartuz, ohitura den legez.

3.9. Hizki arruntak Europako hizkuntza nagusi batzuetan duten balioetara hurbiltzen diren balioekin erabiltzea, eta, fonema mota jakin batek hizki kopurua gainditzen duenean, zeinu artifizialez edota marka diakritikoz hizkiok hornitzea dira Nazioarteko Alfabetoaren irizpide nagusiak. Honela, hizkuntza batek gure t hotsaren motako fonema bakarra badu, [t] hizki arruntaren bidez adierazten dugu delako fonema hau, akustikoki ingeleseko edo frantseseko t hotsaren guztiz antzekoa den ala ez kontuan hartu gabe. Baina hizkuntzak mota honetako fonema bi baditu, bat bakarrik adieraz genezake [t] sinboloaz eta, bigarrenetarako [T] handia erabili behar dugu, edo [t] italikoa, edo beste antzeko bide bat. Hizkuntza batek gure pen hitzeko e hotsaren motako fonema bi baditu, [e] darabilgu horietariko batentzat, eta [ʔ] sinbolo osagarria besterako, adibidez pan [pʔ n].

Nazioarteko Fonetika Elkarrekin 1912. urtean dagoeneko eratu zituen irizpide hauei, elkarrekin ere ez diete jaramon handirik egin; ikerlari gehienak ezin izan dira irizpide fonemikoa ezagutzen ez zen garaiko ohituretatik aldentu. Honela, idazle

gehienek ingelesezko fonemetarako sinbolorik bitxienak erabiltzen dituztela ikusten dugu, ingelesezko fonemak bere antzekoen diren fonema frantsesetatik bereizten direla ezaguna delako. Adibidez, [o] sinboloa frantseseko eau "ur" [o] hotserako hartu delarik, egile hauek ez lukete hizki hau erabiliko ingeleseko son "seme" hitzeko bokala adierazteko, ingeleseko fonema hau ez delako frantsesa bezalakoa. Honi eta beste zenbait gairi dagokienez, Nazioarteko Fonetika Elkartearen erabileratik aldenduko naiz (irizpideetatik ez baina).

Hizkuntza edota dialekto askotan dihardugunean, bakoitza bere fonemen arabera jaso behar da; elkarren arteko aldeak, eurak adierazteko gai garen neurrian bederen, hitzetan eskainitako deskribapena merezi dezakete, baina ezin dakioke honi sinboloen bidean oztopo bilakatzen uzten. Beraz, ingeles estandarreko fonemak Chicagon eta Londresen ahoskatu bezala ageri dituzten aldeak era zehatz batean deskriba ditzakeela sinisten duen fonetikalariak ere, ez dio ezertxo ere gehituko bere baieztapenei fonema multzo bi hauetariko bat edo bestea adierazteko sinbolo bitxiak erabiltzen baditu; eta, hizki arruntak beste hizkuntzaren batean zertxobait ezberdinak diren fonemak adierazteko erabili izan direla ikasi duelarik, Chicago eta Londreseko fonema talde bietarako sinbolo xelebreak erabiltzen baditu, kontuak are zailagotzen arituko zaigu, besterik gabe.

Fonemek sinbolo bana behar dutela dioten irizpidea, bikoiztasunik sor ezin daitekeenean bakarrik alda daiteke kalterik gabe. Bidezkoa dirudi, bikoiztasunik gertatzen ez denean, irizpide estutik aldentzea, inprimatzeko garestiak diren sinboloak, eta irakurlearentzat zailak izan daitezkeenak erabiltzetik begira bagaitezke. Hizkuntza batzuetan, gure [p, t, k] hotsen antzekoak, atzetik arnas bultzada biguna dutenak, frantsesekoak bezalakoak diren [p, t, k] hots hasperengabeetatik bereizten dira; hizkuntzak [h] sinboloaz adieraz daitekeen fonemarik ez badu, edota fonema hori izanik [p, t, k] atzetik sekula agertzen ez bada, orduan arriskugabea eta ekonomikoa da lehen hotsetarako [ph, th, kh] sinbolo elkartuak erabiltzea.

3.10. Hizkuntzak jasotzea zaila da, ez bakarrik fonetika alfabeto asko daudelako, eta euren erabileran eredugabekeria ugari agertzen direlako, baita transkribaketa fonetikoarekin batera beste prozedura bi erabili ohi direlako.

Prozedura horietarik bat ohiko ortografiaz formen aipamena eskaintzea da. Delako hizkuntzak bere idazkeran latineko alfabetoa darabilenean egiten da hau sarri. Egileak, irakurleak ahoskera ezagutzen duela egiaztat ematen du, edo, antzinako hizkuntzen kasuan, ez dio ahoskerak axola handirik. Aipamenak lagungarri izan ohi dira ohiko ortografia ongien ezagutzen duten irakurleentzat; gauzak ongi egiteko, halere, transkribaketa gehitu behar zaie, adibidez frantsesez eau [o] "ura". Antzinako hizkuntzen kasuan ere, ahoskera asmatzeko ahalegina egitea komeni ohi da, adibidez ingeles zaharra geoc [jok] "uztarri". Bohemiera edo fineraren kasuetan bakarrik utz dezakegu transkribapena alde batera, hizkuntzon ohiko idazkera guztiz fonetikoa delako. Latinaren kasuan, bokal luzeen gainean marra bat ageri duen aipamena nahikoa da (adibidez amā-re "maitatzea"), zeren eta, dakigunez bederen, latinaren idazkera fonetikoa zen, bokal luze eta laburren arteko bereizketa egiteke uzten zuela salbu.

Latinekoaz bestelako alfabetoak darabiltzaten hizkuntzetarako, aipamenak gutxiago erabiltzen dira. Grekeraren kasuan ohitura da, ez hainbeste errusieraren kasuan, baina alde guztietatik arbuigarria da. Luxuzko argitalpen batzuek hebraiera, arabiera eta are sanskritoko idazkerak erabiltzen dituzte aipamenerarako. Bidezkoak diren salbuespen bakarrak alor honetan, txinera eta antzinako egiptoera bezalako idazkera ereduak ditugu, zeinetan, ikusiko dugunez, eredu fonetikoan adierazezinak diren esanahi balioak ageri baitira.

Latineko alfabetoaz bestelako idazkera ereduak darabiltzaten hizkuntzetarako, letraldatzea erabili ohi da transkribaketaren ordez. Letraldatzean, latineko alfabetoko hizkiren bat (edo hizki talde edo sinbolo artifiziala) ezartzen zaio jatorrizko alfabetoko zeinu bakoitzari, eta honela, latineko hizkien bidez berregin dezakegu ohiko idazkera. Zoritzarrez, ohitura ezberdinak jaio izan dira hizkuntza ezberdinak letraldatzean. Honela, sanskritoa letraldatzean, latineko c hizkia erabili ohi da, gure chin "kokots" hitzean ageri den lehen fonemaren antzekoa [euskal "tx"] omen dena adierazteko balio zuen sanskrito idazkerako hizkiaren ordez, baina eslabierako alfabeto letraldatzean, c hizkia gure hats "kapelak" fonema konbinaketaren antza duen fonema adierazten duen hizkirako erabili ohi da [euskal "ts"]. Hizkuntzalaritzako egitasmo gehienetarako, hobe litzateke transkribaketa fonetikoa erabiltzea.

3.11. Ez da zaila (gure idazkera alfabetikoak eskaintzen duen laguntzatik at ere), norberaren hizkuntzako fonemen zerrenda egitea. Gorago pin hitzarekin egin bezala, hitz kopuru txiki batekin aritzea nahikoa da, batek fonema guztiak bereizi dituela ziurtatzeko. Hizkuntzetan, lehen mailako fonema soilen kopurua hamabostetik berrogeita hamar tartean ibili ohi da. Ingeles arruntak, Chicagon mintzatzen den erakoak kasu, hogeita hamabi dauzka. Fonema elkartuak fonema soilen konbinaketak dira, esanahi eta hitz-egiturari dagokienez, banako gisa jokatzen dutenak. Beraz, buy "erosi" hitzean ageri den diptongoa, far "urrun" hitzean ageri den bokala eta yes "bai" hitzaren hasierako bokalaren elkarketatzat har daiteke. Ingeles arruntak horrelako zortzi elkarketa ditu.

Zailago da bigarren mailako fonemak bereiztea. Hauek ez dira banakako hizkuntz ale esanahitsu soiletan ageri, baizik eta ale bi edo gehiago forma handiago batean elkartzen direnean bakarrik, edota hizkuntz aleak era jakin batean erabiltzen direnean -bereziki perpaus gisan. Beraz, ingelesez, hizkuntz ale soilak silaba bi edo gehiago dituen hitz batean konbinatzen ditugunean, azentua edo indarra deritzon bigarren mailako fonema erabiltzen dugu, silaba horietako bat gainerakoak baino ozenkiago ahoskatzea dena. Adibidez, foretell "auresan" hitzean, tell silaba fore baino ozenkiago ahoskatzen dugu, baina foresight "aurrikusi" hitzean, fore zatia sight baino ozenagoa da. Contest "lehia" izenak lehenengo silaban darama indarra, contest "jazarri" aditzak bigarrenengan. Doinu tasunak, ingelesez, perpaus bukaeretan ageri zaizkigu gehienbat bigarren mailako fonema gisa, galdera (at four o'clock? "lauretan?") eta erantzunaren (at four o'clock "lauretan") arteko aldeak erakusten duenez. Aipagarria da txinerak, eta beste hainbat hizkuntzek, doinu tasunak lehen mailako fonema gisa darabiltzatela. Bigarren mailako fonemak aztertzea zailago da, konbinaketetan edota forma soilen erabilera berezietan (esaterako John? John soilaren aldean) ageri direlako bakarrik.

Itxuratu ditugun irizpideek idazkerarekin ohituta dagoen edonor bere hizkuntza transkribatzeko gai egingo lukete ziurrenik. Liburu honetan ingeleseko adibideak, bestela esaten ez den bitartean, Chicagon nagusi den ingeles estandarren ahoskeraz transkribatuko dira. Honek, lehen mailako fonementzat, hogeita hamabi sinbolo eskatzen ditu, eta bigarren mailakoentzat bederatzi.

Lehen mailako fonemak

Lehen mailako fonema elkartuak

Bigarren mailako fonemak

["], lehen mailako sinboloen aurretik, indarrik ozenena: That's mine [B? ts "majn!]
"hori nirea da!"

['], lehen mailako sinboloetan, indar arrunta: forgiving [for'givin] "barkatzen"; I've seen it [aj v 'sijn it] "ikusi dut"

['], lehen mailako sinboloen aurretik, hain ozena ez den indarra:

dining-room [ˈdajnin ˈruwm] "jangela"; Keep it up [ˈkijp it ˈop] "segi aurrera".

[•], lehen mailako [l, m, n, r] sinboloen azpian, indar arina, lehen mailako fonema aurretik eta atzetik datorkiona baino ozenago egiten duena: coral [ˈk? rɪ] "koral", alum [ˈ? lɪn] "alun", apron [ˈejprɪ] "amantal", pattern [ˈp? tɪn] "eredu"¹.

[.], lehen mailako sinboloen atzetik, baieztapen baten bukaerako beheranzko doinua: I've seen it [aj v 'sijn it.] "ikusi dut".

[ɹ], lehen mailako sinboloen atzetik, bai eta ez hitzen bitartez erantzuten ez den galderaren goranzko eta gero beheranzko doinua: Who's seen it? [huw z 'sijn itɹ] "nork ikusi du?".

[?], lehen mailako sinboloen atzetik, bai-ez galdera baten bukaerako goranzko doinua: Have you seen it? [h? v juw 'sijn it?] "ikusi duzu?"

[!], lehen mailako sinboloen atzetik, harriduretako doinu itxuraldatzea: It's on fire! [it s ? n ˈfajr!] "sutan dago!" Seven o'clock?! [ˈsevn o ˈkl? k?!] "Zazpiretan?!"

[,], lehen mailako sinboloen artean, aurretik goranzko doinua izan ohi duen etena, perpausak jarraituko duela agintzen duena: John, the older boy, is away at school [ˈlj? n, Bij ˈowldr ˈbcj, iz eˈweɪ et ˈskuwl.] "Jon, seme nagusia, eskolan dago urrun".

Oharrak

3.1. Semantika, semantiko hitzetik dator, "esanahiari dagokiona". Hitz hauek ez dira semasiologia, semasiologikoa bezain korapilatsuak. Hitzez hitz, bada, semantika esanahiaren ikerkuntza da. Batek hizkera formak alde batera utzi eta esanahia edo esanahiak abstraktuki ikertu nahi balitu, unibertsoa bere orokortasunean ikertzen ihardungo luke; semantika izena horrelako hainbat saiori atxiki izan zaio. Batek hizkera formak eta beren esanahiak aztertu nahi baditu, semantika gramatika eta lexikoaren ikerkuntzaren baliokidea bilakatzen da; zentzu honetan aipatu izan dut testuan.

3.2. Laboratorio fonetika: Rousselot, Principes; Idazkera; Panconcelli-Calzia, Einführung (sarrera bilduma bikaina); Experimentelle Phonetik (aurkezpen teorikoa); Gutzmann, Physiologie; Russell; Fletcher (batez ere belarrien eta hots uhinen azterketarako); Paget (zerikusirik ez duten gaiak desegokiro lantzen dituen 7, 8, 9. kapituluak eta 8. adabakia salbu).

3.3. Fonema: Baudouin de Courtenay 9; de Saussure 55, 63; E. Sapir Language 1.37 (1925); ikus baita ere Language 2.153 (1926); Modern philology 25.211 (1927); H. Pedersen Litteris 5.153 (1928).

3.8. Fonetika transkribaketaren eredu nagusiak Heepek biltzen ditu. Hizkera Ikusgaia: Sweet, Primer. Notazio Analfabetikoa: Jespersen, Lehrbuch. Bestelako sistemak: Lepsius; Lundell, Bremer; Phonetic Transcription.

Nazioarteko Elkarte Fonetikoaren Alfabetoa: Sweet, Handbook; Collected papers 285; Passy-Jones; Jespersen-Pedersen. Eztabaida eta idatziak Maître phonétique liburuan.

3.10. Letraldatze eta antzekoez: G.M. Bolling eta L. Bloomfield Language aldizkarian 3.123 (1927); Palmer, Romanization.

FONEMA MOTAK

4.1. Aurreko kapituluan aurkeztu ditugun irizpide orokorrek, zeinahi gizabanako bere hizkeraren egitura fonetikoaz aztertzeke gai egiten duten arren, laguntza gutxi eskaintzen dute, hasieran bederen, arrotza zaigun hizkuntza ulertzeke. Hizkuntza arrotza entzuten duen lagunak, fonemak eratzen dituzten fonetika tasun oinarritzkoenak bereiz ditzake bere jatorrizko hizkuntzan, edo aztertu dituenetan, baina ezin dezake aztertzen diharduen hizkuntza berrian tasunok bereizgarriak diren ala ez jakin. Areago, bere jatorrizko hizkuntzan edota aztertu dituenetan bereizgarriak ez diren tasunak ezin ditzake entzun. Bere lehen bilketa saioetan, garrantzirik gabeko bereizkuntzak jasoko ditu, baina ez ditu axolazko direnak aurkituko. Bilketa mekaniko batek ere ez lioke lagunduko sasoi honetan, ezaugarri akustiko oro bilduko bailituzke, axolazkoak direnak bereizi gabe. Bereizkuntza fonemikoak zeintzu diren erabakitzen ikasi ahal izateko, azterlariak esanahiaren aldetik berdintsu eta ezberdintsu diren ahoskaldiak aurkitu behar ditu. Esanahiaren ikerketa zientziaren ahalmenetatik kanpo gelditzen den bitartean, hizkuntzen azterketa eta bilketa, artea edo trebetasun praktikoa izango da.

Ihardunak erakusten duenez, hizkuntza askotan bereizgarriak diren hizkera-hots motak zeintzu izan ohi diren jakiteak asko laguntzen du trebetasun hau garatzerakoan - hizkuntza berri batek guztiz berria den bereizkuntza ager dezakeen arren. Argibide hauek ulertzeke biderik errezena, aho organoen ekintzen deskribapen orokorren bitartez azaltzea da. Deskribapen orokor hau da fonetika praktikoa deitzen duguna. Aztertzaileak delako hizkuntza batean bereizgarri diren tasunak zeintzuk diren asmatu ondoren, berak egindako tasun bereizgarrien deskribapen hau bilketa mekaniko baten bidez erakuts daiteke.

4.2. Ez daukagu hizkerarako organo berezirik; hizkera hotsak, arnasa hartzeko eta jateko darabiltzagun organoek sortuak dira. Hizkera hots gehienak kanporantzko arnasa oztopatuta egiten dira. Xurgatze hotsak edo klik direlakoak (click ingelesez) ditugu salbuespen. Hizkuntzazkoa ez den oinaze harritua adierazteko hotsean (hala nola zaldiak abia daitezen egiten dugun hotsean), klikak ateratzen ditugu batzuetan - nobelagileek tut tut! idatzirik adierazi ohi dituzte ingelesez [euskaraz klik hotsik ez duen "et et!" ezeztapen harrituaz adieraziko genukeena]-, mihia hortz osteko sabai aldean jarrita. Afrikako zenbait hizkuntzatan, ahoaren hainbat aldetan egindako klikak hizkera hots gisa erabiltzen dira.

4.3. Kanporantzko arnasak aurki dezakeen lehen oztopoa laringea da. Laringea, zintzurburuan dagoen kartilagozko kutxa dugu, kanpotik ikusita Adanen sagarra eratzen duena. Laringearen barnean, eskuma eta ezkerretara, apal itxura duten giharrezko konkorr txiki bi daude, aho-kordak. Bien arteko irekidurari glotisa deritzaio, eta bertatik igarotzen da arnasa. Arnas arruntean, aho-kordak lasaiturik daude eta arnasa libre igarotzen da glotisetik. Laringearen atzealdean, aho kordak aritenoiak deritzen kartilagozko oin mugikor biri lotzen zaizkie. Giharren elkarlan finari eskerrak, hala aho kordak, nola artinoideak, eite ezberdin askotan jar daitezke. Muturreko eite bi ditugu: arnas arrunteko egoera guztiz irekia batetik, eta guztiz hertsia dena bestetik, ahoa zabalik daukagularik arnasa heltzean gertatzen dena. Hainbat hizkuntzak, glotisaren erdibideko eiteez baliatzen dira.

Eite horietarik bat, ahosketarako dugu. Ahosketan, aho-kordak tinko elkartzen dira, arnasa tarteka igaro daitekeelarik bakarrik. Korden artetik igarotzean, arnas lasterrak kordak dardarka jartzen ditu; dardararen maiztasuna laurogei eta mila dardar segundo artekoa izan ohi da. Dardar hauek, kanpoko haizera hedatuak, hots gisa jotzen dituzte gure belarriak, eta honi ahotsa deritzogu. Ahotsa ez da hizkera hots guztietan ageri: hizkera hots ahostun eta ahoskabeak bereizten ditugu. Batek Adanen sagarrean hatza

ipintzen badu, edo, are hobeagoa dena, batek ahurrak belarrien kontra gogor jartzen baditu, eta ondoren hots ahostuna egin, adibidez [n] edo [m], ahotsa dardar edo ikara gisa sentituko du, baina hots ahoskabeetan, adibidez [f] edo [s], ez da dardararik somatzen. Dirudienez, hizkuntza guztietan, fonema gutxi batzuek besterik ez bada ere, ahotsik eza daukate beren tasun tinkoen artean. Hots ahoskabe gehienek sorketan, glotisa guztiz zabalik dago, arnasartze arruntean legez.

Hainbat mekanismok egiten gaitu ahotsaren ozentasuna eta doinua aldatzeko gauza, hala nola erresonantziaren kalitatea ere. Azken aldaketa honek, zeinak "buru erregistroa", "bular erregistroa" eta "hots estalia", "hots metalikoa" eta abar eskaintzen baititu, ez da oraingoz fisiologiaren aldetik aztertu izan.

Arnasaren eta ahotsaren erdibideko eiteen artean, hainbatek merezi dute aipamena. Aho kordak bata besteagandik guztiz banaturik badaude, ahotsak hots garbia galtzeraino, glotisetik igarotzen den arnasaren igurtzitze hotsa entzun daitekeela, marmarra lortzen dugu. Ingelesez, indargabeko bokalak, ahotsaz beharrean, marmarraz ahoskatu ohi dira. Fonema gisa, bohemieran ageri zaigu marmarra, zeina hizkuntza honetako ohiko idazkeran erabili den [h] sinboloaz transkriba baikenezake. Glotisa are zabalduago baldin badago, ahotsa eten egiten da, eta hots igurzkaria gelditzen da bakarrik; han [h? nd] hitzean ageri den gure [h] fonemaren ezaugarria da hots igurzkari hau. Beste erdibitarteko eite bat zurrumurrua dugu, zeinean kartilago glotisa bakarrik zabaltzen baita -hots, aritenoiden arteko tartea-, aho-kordek elkar ukitzen dutelarik. Guk arruntki "zurrumurru" deitzen dugun hotsean, ahotsaren orde zurrumurrua erabiltzen da, eta hots ahoskabeak ohiko hizkeran bezala ahoskatzen dira.

Ahosketan gertatzen den aho-korden dardarek sortutako hots- uhinak, kanpoko haizera heldu baino lehen igaro behar duten pasabidearen eite eta malgutasunak itxuraldatzen dituzte. Aho-kordak haizezko musika tresnek duten mihi edo fitaren gisakoak direla pentsatzen badugu, ahoa, edo hobe esan, aho kordetatik ezpainetaraino doan hutsune osoa, sudur hutsunea barne kasu batzuetan, erresonantzia kamera gisa ikus genezake. Ahoa zenbait eitetan jarriaz, ahotiko edo sudurretatiko irtenbidea itxiaz eta, eremu honetako giharrak tinkotu edo bigunduaz, kanporako hots uhinen eraketa aldatzen dugu. Soinuak ez bezala, hots uhinen eredu gabeko konbinaketez osaturik dauden zaratak, glotisa, mihia eta ezpainen bitartez sor daitezke. Zenbait hots ahostun, adibidez [a, m, l], soinu hutsak dira, hau da, ia zaratarik gabeak; beste batzuk, ordea, esaterako [v, z], zarata gehi ahosketaren hotsa dira. Hots ahoskabeak zarata hutsak dira; honen adibide [p, f, s] ditugu.

4.4. Arnasak laringea uzten duenean, sudurretatik igaro ohi da arnasartze arruntean. Hizkeran, baina, irtenbide hau velum edo aho-sabai biguna delakoa altxatuaz ixten dugu gehienbat. Beloa, aho-sabaiaren atzealde bigun eta mugikorra da (latinez velum); barnealdean, gingilean bukatzen da, aho erdian zintzilik ikus daitekeen haragi pusketan (latineraz uvula). Ispilu aurrean, aho eta sudurretatik astiro arnas hartzen, eta [a] garbia ahoskatuz gero, aho sabai bigunaren igoera ikus dezakegu, bereziki gingilari begiratzen badiogu. Beloa igotzen denean, bere ertzak arnas-pasabidearen atzeko hormaren kontra jotzen du, arnasaren sudurretatiko bidea itxiaz. Hizkera-hots gehienak ahokoak dira; beloa igota dago guztiz, eta ez da sudurretatik arnasik igarotzen. Beloa guztiz igota ez badago, arnasa pixka batek sudurretatik ihes egiten du eta hotsak halako erresonantzia berezia hartzen du; hots hauei sudurkari deritze. Ingelesez, guztiz ahokoak eta sudurkariak diren hotsen arteko aldea ez da bereizgarria; sarri asko, [m, n, ŋ] fonemen aurretik sudurkari egiten ditugu bokalak eta, lasai edo nekaturik gaudenean, normalean baino gehiago darabiltzagu hots sudurkariak. Zenbait hizkuntzatan, baina, hots sudurkariak, bokalak gehien bat, fonema bereziak dira, sudurketa gabeko hotsetatik banatuak. Sudurkaritasunerako sinboloa, hizkiaren azpiko kako bat da (honela adierazten dute polonieraren ohiko idazkeran), edo hizkiaren gaineko tildea

(portugesaren idazkera eta Nazioarteko Fonetika Elkarte), edota hizkiaren ondoko esponentea [ʱ] (liburuetan erabilia inprimatzeko erreza delako). Frantsesak lau bokal sudurkari ditu fonema gisa, dagozkien aho bokaleetatik bereziak: bas [bʱ] "galtzerdi", baina banc [bʱ] "jezarlekua".

Belo a igotzen ez bada eta ahotiko irtenbidea nolabait itxiz gero, arnas hartze arruntean legez, haize guztia sudurretatik ateratzen da. Honela ahoskatzen diren fonemak sudurkariak ditugu. Ingelesezt hiru sudurkari dauzkagu: [m], ezpainak itxita; [n], mihia hobien kontra zapalduaz ahoskatzen dena; eta [ŋ], sing [sin] "kantatu" hitzean legez, mihiaren atzealde aho sabaiaren kontra estutuz egiten dena. Soinu hutsak dira hauek, ahotsaren soinuari aho sudur hutsunearen eite ezberdinek eranstzen dizkieten erresonantziek bereziak. Hizkuntza batzuek, aitzitik, sudurkari ahoskabeak dauzkate fonematizat; hotsok entzungai egiten dituen aho ez da arnas etorriaren igurtzitze hots ahula, baizik eta aurreko eta ondoko hotsekiko aldea, eta aho organoek beren eiteak aldatzean sortzen dituzten eta bereizgarri ez diren tarteko hotsak.

Hona sudurkaritasuna somatu ahal izateko bide on bat: kartoi zatitxo bat horizontalki jarri eta ertz batek goiko ezpaina eta besteak kristal xafra hotza jotzen duela, batek guztiz ahokoa den hotsa egiten badu, [a] esaterako, kristala lurrundu egingo da kartoi azpialdean bakarrik; batek hots sudurkaria ahoskatuz gero, [aʱ] adibidez, lurruna kartoiaren goiko eta beheko aldean agertuko da; eta batek guztiz sudurkaria den hotsa ateratzen badu, [m] esaterako, kristaleko lurruna kartoitxoaren goialdean agertuko da bakarrik.

4.5. Aho barrunbearen eitea, beheko masaila, mihia eta ezpainak jarrera ezberdinetan ipiniaz aldatzen dugu, eta erresonantziari eragiten diogu eztarri eta aho giharrak tinkatu edo lasaituaz. Bide hauek erabilita, hizkuntza orok fonemak diren hainbat musika hots sor ditzake, hala nola gure palm [pam] "ahur" hitzeko [a], gure pin [pin] "orratz" hitzeko [i], gure put [put] "ipini" hitzeko [u], gure rubber "goma" [ˈrobr̩] hitzeko [r̩] eta abar. Hauetariko zenbaitetan, mihiak ukitu egiten du aho-sabaia, baina alde batean edo bietan igurtzitze handirik gabe uzten dio arnasari irtetzen; hots hauei albokari deritze, gure [l] bezalakoa little [ˈlɪtl̩] "txiki" hitzean adibidez. Galeseraz eta Ameriketako hizkuntza askotan gertatzen diren albokari ahoskabeetan, arnas-etorriaren igurtzitze-hotsa sudurkari ahoskabeetan baino gehiago entzuten da.

Ezpainak eta mihia mugituaz sortzen ditugu zaratak ahoan. Organo hauek (edota glotisa) igarobide estu bat uzteko moduan ipintzen baditugu, kanporako arnasak igurtzitze-hotsa sortzen du: hots hau duten fonemak espiratzaileak (edo igurzkariak) dira. Ahoskabeak izan daitezke, gure [f] eta [s] bezala, edo ahostunak, ingelesezko [v] eta [z] legez. Igurtziketa maila edozein izan daitekeelarik, ez dago muga zehatzik igurzkari eta [i] edo [l] bezalako doinuaren artean; aldaera ahostunak, batez ere, hersketa maila ezberdinetan ageri zaizkigu hizkuntzetan zehar.

Mihia edo ezpainak (edo glotisa) irtenbiderik ez uzteko moduan jartzen baditugu, eta haizea hersketaren atzean pilatzen uzten badugu, arnasa eztanda txiki batez aterako da; honela sortutako hotsak herskariak ditugu, gure [p, t, k] ahoskabeak eta [b, d, g] ahostunak legez. Herskariaren tasuna leherketa izan ohi da, baina hersketa bera (inplosioa), edota hersketak irauten duen une laburra, nahikoa izan daiteke fonema bereizteko; honela, ingelesez egin gabe utzi ohi dugu sarri hitz bukaerako [p, t, k] hotsen leherketa. Aldaera hauek, aurretik edo atzetik datorkienarekin duten aldearen bitartez nabaritzen dira (hotsaren bat-bateko eten gisa, edota isilune gisa), edo bestela mihi-ezpainen mugimenduetan gertatzen diren aldaketa hotsen bitartez; orobat, herskari ahostun baten hersketan, ahotsaren hots ahula entzun genezake.

Ezpainak, mihia eta gangaila elastikoak direnez gero, arnasak dardarka jar ditzake, tartean irekidura eta ukitze guneak sortuaz. Dardarkari horiek hizkuntza askotan

gertatzen dira; adibide gisa, Ingalaterrako ingelesezko "r biribila", red "gorri" eta horrid "zatar" hitzetan.

Ondoko hurrenkeran hartuko ditugu fonema mota nagusiak:

Hotsak:

hetskariak

dardarkariak

igurzkariak

Soinuak:

sudurkariak

albokariak

bokaleak

4.6. Hetskariak ia hizkuntza guztietan ageri dira fonema gisa. Ingelesak hiru bereizten ditu, lekuaren arabera: ezpainkariak (edo zehazkiago, ezpainbikariak), zeinetan ezpain biek sortzen baitute hertsidura [p, b]; horzkariak (zehazkiago albeolariak edo, are hobeto hortzobikoak), zeinetan mihipuntak goi-hobien atzeko tontorraren kontra sortzen baitu hertsidura [t, d]; eta belarrak (idatzi zaharretan egokia ez den gutural izena ematen zaiena), zeinetan mihiatzeak sabai biguna jotzen baitu [k, g].

Azken mota bi hauek aldaera askotan ageri zaizkigu, mihiaren mugikortasunari esker. Hertsidura mihi puntarekin egin daiteke (artikulaketa apikala), edota alde zabalago batekin, mihi gainaren erdialdearekin (artikulaketa koronala); goiko hortzen ertzaren kontra egin daiteke (hortzarteko egoera), goiko hortzen atzealdearen kontra (hortzosteko egoera), goiko hortzen atzeko tontorraren kontra (egoera gingibaria), edota sabaiko goragoko kokaguneen kontra (burmuineko egoera, edo kakuminala, edota are hobeto, alderantzizko egoera, edo domala). Honela, egoera domalean eginiko artikulaketa apikala (mihi puntak sabaiko gunerik ia gorenena ikutzen duelarik), [t, d] gingibarien aldaera bereizgaitz gisa ageri zaigu Ameriketako ingelesez. Frantsesez, gure [t, d] hotsetatik hurbileneakoak ez dira gingibari gisa ahoskatzen, baizik eta hortzosteko gisa (mihi puntak edo gainak hortzen atzealdea ukituaz). Sanskritoz eta egungo Indiako hizkuntza askotan, hortzosteko hotsak eta domalak (letra azpian puntu bat idatzirik, edo letra etzanetan, edota, liburu honetan legeztalarrak txiki bidez [T, D] transkribatzen dira), fonema bereziak dira.

Era berean, mihiaren atzealdeko zenbait atal (artikulaketa dorsala) jaso daitezke, aho sabaiaren hainbat alde ikutzeko; aurre edo sabaiko eta atze edo sabai-biguneko egoerak bereizi ohi dira, eta, are atzerago, gingileko egoera edo ubularra. Ingelesez, [k, g] sabai bigunekoak, aurrerago hersten dira zenbait hotsen aurretik, adibidez kin "enda", give "eman", eta beste batzuen aurretik, atzerago hersten dira, adibidez cook "sukaldari", good "on" hitzetan -talde bi hauek, calm "bare" eta guard "zain(tzaile)" bezalakoei kontrajartzen zaizkie-, baina aldaera guzti hauek ez dira bereizgarriak. Zenbait hizkuntzatan, adibidez hungarieraz, badira sabai eta sabai biguneko motako fonema bereziak, transkribatzean hetskari ahoskabe sabaikoak [c] eta sabai bigunekoak [k] adierazten ditugularik. Arabieraz, sabai-biguneko hetskari ahoskabea [k] eta gingileko hetskari ahoskabea [q] fonema bereziak dira.

Hetskari laringari edo glotala, aho kordak tinko elkartu eta gero arnasaren etorriak bat-batean bana ditzala utzita lortzen da. Larrialdian hitz egiten dugunean, hasierako indardun bokal baten aurretik ahoskatzen dugu batzuetan, eta alemanieraz haxe da erabilera arrunta; fonema gisa, hetskari glotala hizkuntza askotan ematen da, esaterako danieraz, non alde bereizgarria baitago hun [hun] "bera" eta hund [hun?] "txakur" adibideen artean.

Hetsketa egiteko erari dagokionez, ahostun eta ahoskabe bereizkuntzaz gain, arnasaren bultzada neurria eta mihi-ezpainen sendotasun eta ekintzak maila ezberdinetakoak izan

daitezke: bigunetan, bultzada eta ekintza bigunak dira, indartsuetan indartsu; bigun-geldoetan, irekidura geldoa da, leherketa biguntzeko. Herskari ahoskabeak, ahotsik gabeko arnasaldi batez jarrai daitezke (hasperena), edota arnasaldi hori aurretik joan daiteke (aurre-hasperena); herskari ahostunek, era berean, marmar edo arnasaldi bat izan dezakete aurretik edo atzetik. Hersketa, leku bitan egin daiteke aldi berean, Afrikako zenbait hizkuntzatako [gb] hotsean legez; hizkuntza askok aho herskari glotalduak dauzkate, [p, t, k] hotsen irekiduraren gainean, edo aurre-aurretik edo atze-atzetik glotisaren hersketa ageriaz. Ingelesezt, herskari ahoskabeak hasperendun indartsuak ditugu, baina badira bereizgarri ez diren bestelako aldaerak ere, bereziki [s] osteko bigun hasperengabeak, adibidez spin "itzulikatu", stone "harri", skin "azal". Gure herskari ahostunak bigunak dira; hitz hasiera edo bukaeran ez dute ahosketarik ageri beren iraupen osoan. Frantsesezt, [p, t, k] herskari ahoskabeak indartsuak dira eta, aldaera bereizgaitz gisa, glotisaren hersketa ager dezakete gainean, baina ez dute sekula hasperenik jasaten; [b, d, g] ahostunak bigunak dira, ingelesez baino areago ahostunduak. Iparraldeko txineraz, herskari ahoskabe hasperendun eta hasperengabeak fonema bereziak dira, adibidez [pha] eta [pa], eta herskari ahostunak hauen aldaera ez bereizgarri gisa gertatzen dira bakarrik. Hegoaldeko alemanierazko dialekto askok, hasperengabeko ahoskabe indartsu eta bigunak bereizten dituzte, zeintzuk [p, t, k] eta [b, d, g] bezala transkriba baititzakegu; aldaera ahostunak ez dira bereizgarriak. Sanskritoak horrelako lau herskari mota zituen: [p] ahoskabe hasperengabea, [ph] hasperenduna, [b] ahostun hasperengabea eta, [bh] hasperenduna.

4.7. Dardarkaririk arruntena, apikala edo mihi-puntako dardarkaria dugu, zeinetan mihipuntak hortzobien kontra dardar egiten baitu arinki; hauxe da britaniar ingelesaren, italieraren, errusieraren eta beste hainbeste hizkuntzaren r "biribila". Bohemierak mota honetako fonema bi bereizten ditu, batuk igurzketa hots indartsua daramalarik. Dardarkari gingilaria, zeinetan gingilak mihiaren atzealde jasoaren kontra dardar egiten baitu, danieraz gertatzen da, eta ingeleseko aldaera batzuetan ere ("northumbriar burr" deitu ohi denean adibidez); hizkuntza hauetan, hala nola norvegiera eta suedieraz ere, mihipuntako dardarkaria eta gingilaria, fonema beraren geografia-araberako aldaerak ditugu. Dardarkariaren fonetika sinboloa [r] dugu; hizkuntza batek fonema dardarkari bat baino gehiago badu, beste sinbolo erabilgarria [R] da.

Mihi-puntak dardar bakarra egiten badu, hortzobi edo sabaiaren kontra behin joaz, mihi kolpea dugu. Ameriketako ingelesaren erdi eta mendebaldeko ereduetan, mihi-kolpe ahostun gingilaria agertzen da [t] hotsaren aldaera bereizgaitz gisa, water "ur", butter "gurin", at all "(ezer) ere (ez)" bezalakoetan; bestelako mihikolpeak gertatzen dira norvegiera eta suedierazko dialektoetan.

4.8. Ingelesezt arnaskariak eratzen dituzten egoerak herskarienetatik aldentzen dira. Bikote batean, [f, v] ezpain horzkarietan alegia, arnas etorriari goiko hortzen eta beheko ezpainaren artetik igaroarazten zaio. [ʔ, B] horzkarietan, adibidez thin [ʔ in] "argal", then [Ben] "orduan" hitzetan, mihiaren ertzak goiko hortzak ukitzen ditu. Gure [s, z] arnaskari gingibariak, ziizkak edo sibilariak dira: hau da, mihia bildu egiten da, bazterretan handituz eta, erdi aldean ildo estu bat bakarrik utzirik, zeinetatik arnasa gogorki isurtzen baita hortz eta hobien kontra, ziizka ozena sortuaz. Mihia egoera honetatik pixka bat aldentzen badugu -ingelesez atzera eramane ohi dugu- arnasa ez da hain gogorki isurtzen hortz eta hobien kontra, eta inguruka legez ibiltzen da irteera aurkitu aurretik: ingelesez, ixo hots edo sibilante bitxi hauek, [β, ʋ] fonema bereziak dira, esaterako shin [βin] "hanka hezur" eta vision [ˈviʃn̩] "ikuspen"². Egoera hauetariko bakoitzean, bikote bat dugu, ahostuna eta ahoskabea. Beste aldaera asko ere badira, adibidez arnaskari ezpainbikariak, zeinetan estutzea ezpain biren artean egiten baita (aldagai ahoskabea japonieraz, ahostuna gaztelaniazt). Frantsesezt, ziizkariak

hortzostean eratzen dira; gure belarrietara, frantsesdunak motela ematen du ia. Alemanierak, [ʏ] ez duelarik, ezpainak kanporatzen ditu [β] ahoskatzeko, arnasaren pilaketa luzeagotzearen. Suedierak, zabalera handiko [β] bat dauka, ingelesdunen belarrietan bitxi jotzen duena.

Ingelesak ez dauka arnaskari dorsalik, baina hizkuntza askotan ematen dira, egoera ugaritan, mota albokariak barne direla. Alemanierak arnaskari sabaikari ahoskabe bat dauka, zeinetan mihi erdialdea sabaiaaren alderik gorenaren kontra altxatzen baita; honen aldaera bereizgaitz gisa, mota belarra erabiltzen du, gure [k, g, ŋ] hotsen egoeran eratzen den arnaskari ahoskabea. Alemanieraren ohiko transkribaketak sinbolo bi darabiltza, [ç] aldaera sabaikarirako, adibidez ich [iç] "ni", eta [x] aldaera belarrerako, adibidez ach [ax] "ai (ene!)", baina sinbolo bakar bat behar da, aldaera hauek aurreko fonemaren araberrakoak baitira. Egoera bereko arnaskari ahostunak [ʔ], [g] herskariaren aldaera gisa agertzen dira alemanieraren ahoskera batzuetan; holanderaz eta egungo grekeraz, fonema berezi gisa ematen dira. Arnaskari gingilariak dardarkari gingilariaren aldaera gisa agertzen dira danieraz, eta beste hizkuntzatan fonema berezi gisa.

Ingelesez badugu arnaskari glotal ahoskabea, [h], hit [hit] "jo", when [hwen] "noiz", hew [hjuw] "txikitu" hitzetan legez, zeinetan igurzketa sortzen baita, arnasa piska bat zabalik dagoen glotisetik igarotzean; bohemierak badu antzeko hots bat, zeinetan igurzketaekin batera aho dardarak gertatzen baitira (marmarra). Areagoko arnaskari glotal bikotea, ahoskabea ("h latza") eta ahostuna ("ayin"), arabieraz aurkitzen da; beren tasun bereizgarria ezarri giharren tinkatzea dela esan ohi da.

Erari dagokionez, arnaskariak herskariak baino aukera gutxiago darakuste agian. Era mota bi agertzen dituzten hizkuntzen artean, frantsesak bere [v, z, ʁ] ingelesak baino osoroago ahostuntzen ditu. Zenbait hizkuntzak arnaskari glotalduak dituzte (glotisaren hersketaz lagundurik, aurretik, aldi berean edo ondotik).

4.9. Sudurkariaren egoerak herskariaren antzekoak dira; ingelesez, [m, n, ŋ] hotsak herskariaren egoera beretan eratzen dira. Eredu berean, frantsesak bere [n] hotsa hortzosteko egoeran egiten du. Bestalde, frantsesak ez dauka sudurkari belarrik, baina badu sudurkari sabaikaria, zeinetan mihiaren erdialdea sabaiaaren alderik gorenaren kontra altxatuz egiten baita hersketa, adibidez signe [siN] "zeinu". Herskarietan bezala, sanskritoak eta egungo Indiako hizkuntzek [n] horzkaria eta [N] domala bereizten dituzte.

4.10. Ingelesez, [l] albokaria apikala da, egoera gingibalean; hitz bukaeran, bereizgarria ez den aldaera erabiltzen dugu, zeinetan mihiaren erdialdea guztiz beheturik baitago; erka bitez less "gutxiago" eta well "ongi". Alemanieraz eta frantsesez, [l] hotsa mihiaren gaina gorago altxatuz ahoskatzen da; itxura akustikoa erabat ezberdina da; frantsesez, areago, ukitze lekua hortzostekoa da. Italiarrek badu sabaikari albokari bat, horzkaritik bereizten dena, mihiaren atzealdeak sabaiaaren punturik gorenena ukitzen duela, arnasari bidea utzirik albo batean edo bietan: figlio ['fi? o] "seme". Ameriketako zenbait hizkuntzak badute albokari sorta osoa, egoera, glotaltze edo sudurketa ñabardurekin. Albokari ahoskabeak, bereziki ukitzegunea hedatua bada, arnaskaritu egiten dira; albokari ahostunak, ukitzegune nimiñoa badute bereziki, bokalekin biltzen dira; honela, polonieraren fonema albokarietako batek [w] balitz legez jotzen ditu gure belarriak. Bestetik, Ameriketako mendebalde eta erdialdeko [r] bokala, esaterako red [red] "gorri", fur [fr] "larri", far [far] hitzetakoa, albokarialakoa da: mihiaren punta egoera domalera (iraulira) altxatzen da, baina ez da sabaia ukitzera heltzen. Transkribaketan, beste hizkuntzetako dardarkaria adierazteko den [r] sinboloa erabiltzen dugu; mesedegarria da hau, gure hotsa eta britaniar ingelesaren dardarkaria red hitzean, fonema beraren geografia araberrako aldaerak direlako.

4.11. Bokalak, mihi edo ezpainen ukitu, igurtzitze edo hersketarik eratzen ez duten ahots hotsaren aldaketak dira. Ahostunak izan ohi dira; hizkuntza batzuek, halere, ahots kalitateak bereizten dituzte, hala nola ahapeko bokalak, edo bokal marmartuak, aho korden dardar geldoez, edo bokal xuxurlatuak, zeinetan aritenoideen arteko dardarak aho-korden dardara ordezkatzan baitu.³

Hizkuntza orok bokal fonema bat baino gehiago bereizten du. Fonema hauen arteko aldeak mihi egoeraren araberrakoak ditugu neurri handi batean, eta akustikaren aldetik, desberdintasunak harmonikoen banaketari dagozkio. Oinarri hauek berak ere eztabaidagaia dira; ondorengo azalpenean, mihi egoerak onartu ohi den ereduaren arabera itxuratuko ditut, honek bai baitu bere balioa, hizkuntza askotako gramatika eta fonetika sistemetan bokalek darakustzaten harremanekin bat datorrelako. Bokal fonemen bereizkuntzan axolazko diren beste ezaugarri batzuk, mihia eta beste zenbait giharren tinkotasun eta lasaitasuna ditugu, edota ezpainen gainerako egoerak, adibidez kanporaketa edo barneraketa.

Ameriketako erdialde eta mendebaldeko ingelesak bederatzi bokal fonema bereizten ditu. Hauetariko bat, [r], jada aipatu duguna, mihiak duen egoera irauliagatik bereizten da. Gainerako zortziek bilaukodun sistema dei genezakeena osatzen dute. Egoerari dagokionez, bikoteetan biltzen dira; bikote bakoitzak aurreko bokala du, mihiaren erdialdea sabaiaren alderik gorenena eratzen dena, eta atzeko bokala, mihiaren atzealdea gingilerantz altxata eratzen dena. Lau bikoteak, mihiak duen sabairanzko hurbiltasunagatik bereizten dira; honela, bada, lau igoera maila ditugu: goia, erdi-goia, erdi-behea, eta behea. Goi eta behe deituren ordezt, zenbait egilek hertsu eta ireki darabiltzate. Honek, ondoko ereduaren ematen digu:

Aurre Atze

goi i u

erdi-goia e o

erdi-behe ? c

behe a ?

Adibideak: in "(barne)an", inn "ostatu" [in], egg "arrautza" [eg], add "gehi" [ʔ d], alms "eskupeko" [amz], put "ipini" [put], up "gora" [op], ought "beharko" [ct], odd "xelebre" [ʔ d]. Fonema hauek bereizgarriak ez diren aldaketa ugari jasaten dituzte, eta horietarik asko inguruko fonemen araberrakoak dira, gero aztertuko ditugunak.

Hegoaldeko britainiar ingelesak guztiz antzeko sistema du, baina atzeko bokalen banaketa ezberdina da, up eta odd hitzetako bokalen hersketa maila gurearen alderantzizkoa delarik: odd hitzean erdi-goia, [od], eta up hitzean behea, [ʔ p]. Aitzitik, bada zabalduriko ohitura bat, zeinaren arabera britainiar ingelese ez baita hemen aurkezturiko NFE alfabetoaren eredura transkribatzen, baizik eta irakurleari, honek axola balu legez, frantses eta ingeleseko bokalen arteko aldeak gogoratuko dizkion sinbolo xelebreen bitartez:

Chicagoko ahoskera Britainiar ahoskera Britainiar ahoskera

NFE eredura NFE eredura egungo ohituran

inn in in In

egg eg eg ? g

add ? d ? d æd

alms amz amz ? :mz

put put put pUt

odd ? d od cd

ought ct ct c:t

up op ? p vp

Bederatzigarren bokal fonemak, Ameriketako erdi eta mendebaldeko ingeleserako [r] gisa transkribatu duguna, esaterako bird "txori" [br,d] hitzekoak, ez du kide osorik hegoaldeko britainiar ingelesez, edo Ingalaterra Berriko eta hegoaldeko amerikarrez. Bokal aurretik, britainiar ingelesak mihipuntako dardarkaria dauka, zeina [r] bidez transkriba baitezakegu, red "gorri" [red] legez; erdi eta mendebaldeko amerikarrak bokal atzetik [r] duen lekuan, britainiarrak bokalaren aldaketa baino ez du (zenbaitetan luzapena), puntu biren bidez adierazten dena [:], esaterako part "atal" [p? :t], form "eite" [fc:m]; erdi eta mendebaldeko amerikarreen [r] bokal atzetik edo aurretik sekula ematen ez den bitartean, britainiar ingelesak arteko bokala darabil, aurre eta atzeko egoeren artekoa, zeina [e:] edo [e] bidez transkribatzen baita, adibidez bird "txori" [be:d], edo bitter "mingots" ['bite].

4.12. Ameriketako erdi eta mendebaldeko ingeles mota batzuek ez daukate [a] eta [ʔ] arteko bereizkuntzarik. Hiztun horien beheko bokalak [a] balitz legez jotzen ditu nire belarriak, bai alms eta bai odd hitzetan; beren fonemika sisteman, aitzitik, egoera hau ez da ez "aurre" ez "atze", honek ezer bereizten ez duelarik, beren ahoskerak bokal fonema behe bakar bat baitu. Antzeko sistema dugu italieraz, [r] bokal bitxia gabea. Zazpi bokaleko sistema dei diezaiokegu honi:

Aurre Berdintsu Atze

goi i u

erdi-goi e o

erdi-behe ? c

behe a

Italierako adibideak: si [si] "bai", pesca ['peska] "arrantza", pesca ['p? ska] "mertxika", tu [tu] "hi", pollo ['pollo] "oilasko", olla ['clla] "lapiko", ama ['ama] "maite du".

Hizkuntza batzuek antzeko sistemak dauzkate, adibidez gaztelania edo errusierazko bost bokaleko sistema:

Aurre Berdintsu Atze

goi i u

erdi e o

behe a

Gaztelaniazko adibideak: si [si] "bai", pesca ['peska] "arrantza", tu [tu] "hi", pomo ['pomo] "kirten, eskuko", ama ['ama] "maite du".

Oraindik soilagoa, tagalog bezalako zenbait hizkuntzatan agertzen den hiru bokaleko sistema:

Aurre Berdintsu Atze

goi i u

behe a

Zenbat eta fonema gutxiago izan bokal sisteman, are eta aukera gehiago bereizgarriak ez diren aldaketetarako. Gaztelanieraz, erdiko bokalak, adibidez, italieraren akustika ezaugarri antzeratsuak izaterainoko gorago eta beheragoko egoeren arteko aldaketak egiten dituzte gure belarrietarako, italieraz bereizkuntza horiek fonemak bereizten dituztelarik. Errusierazko bokalek aldaketa handiak jasaten dituzte, aurreko fonemen eraginaren arabera; batik bat, bada aurreko goi bokalaren aldaera bat, esaterako [sin] "seme" hitzean, gure belarrietan oso bitxi egiten dena, aldaera honetan mihia ingelesezko edozein aurreko goi bokal baino askoz atzerago eraman ohi baita. Tagalogezko hiru bokaleko sistemak, azkenik, gure entzumenerako itzela dirudien aldaketa aukera eskaintzen dio fonema bakoitzari: gorago [i] eta [u] sinboloen bidez itxuratu dugun tagalogezko fonemak gure goiko bokal eta erdi-beheko bokalen arteko egoeratan era daitezke.

4.13. Ezpainen egoerek ez dute ezer gehitzen amerikar ingeleseko bokal sisteman, ez bada geroago aipatuko dugun kontu txiki batean. Hizkuntza asko eta askotan, baina, ezpainen egoerak bokalen ezaugarriak indartzeko erabili ohi dira: aurreko bokalak ezpainen atzeraketaz laguntzen dira (ahoaren bazterrei atzerantz eraginik), eta atzeko bokalak ezpainen aurreraketa edo biribilketa. Orokorki, zenbat eta bokala gorago, areagokoa ezpainen ekintza. Tasun hauek Europako hizkuntza gehienetan agertzen dira eta euren eta gure bokalen arteko ezberdintasuna areagotzen dute. Hemen ere, bereizkuntza argiak aurkitzen ditugu; Eskandinabiako hizkuntzek, suedierak batik bat, gainerako europar hizkuntzek baino gehiago biribiltzen dituzte beren bokalak: suedierazko [o], adibidez bo [bo:] "egoitza hartu", hitzak alemanierazko edo frantsesezko [o] baten egoera beretsua du, adibidez alemanierazko so [zo:] "hala" edo frantsesezko beau [bo] "eder", baina alemanierazko edo frantsesezko [u] hotsak goi bokalaren ezpain biribilketa agertzen du, adibidez alemanierazko du [du:] "hi" edo frantsesezko bout [bu] "amaiera"; guri, [o] eta [u] arteko hotsa begitantzen zaigu. Aipatu ditugun hizkuntzok fonema bereizkuntzarako ere darabiltzate ezpain egoerak. Mota honetako bereizkuntzarik arruntena aurreko bokal arruntak (ezpainek egoera atzeratua dutela) eta aurreko bokal biribilduen artekoa da, bigarrenetan ezpainen egoera atzeko bokalei dagokiena delarik. Honela, frantsesak, amerikar ingelesaren antzeko banaketa duten zortzi bokal fonemez gaindi, baditu hiru aurreko bokal biribildu:

Aurre Atze

Biribildugabeak Biribilduak (Biribilduak)

goi i y u

erdi-goi e ø o

erdi-behe ? œ c

behe a ?

Adibideak:

fini [fini] "bukatua", été [ete] "uda", lait [lɛ] "esne", bat [ba] "irabiatu",

rue [ry] "kale", feu [fø] "su", peuple [pœpl] "jende".

roue [ru] "gurpil", eau [o] "ur", homme [cm] "gizon", bas [b?] "behe".

Hauei, lau bokal sudurkari gehitzen zaizkio (ikus gorago, #4.4), fonema berezi gisa: pain [p? ɲ] "ogi", bon [boɲ] "on, un [œɲ] "bat", banc [b? ɲ] "banku". Areago, frantsesak badu [œ] bokalaren aldaera laburtua, [e] transkribatzen dena, adibidez cheval [βeval] "zaldi".

[y, ø] sinboloak, danierazko ohiturazko idazkeratik hartuak dira; alemanierazko (edo finerazko) idazkerak ü eta ö sinboloak darabiltza.

Bokal biribilduak eratzen ikas daiteke, ezpainen egoera ispiluaren aurrean antzeztuaz: ahoaren bazterrak atzeraturik, [i, e, ?] bezalako aurreko bokalak egiten ikasi ondoren, eta [u, o, c] bezalakoak ezpainak kanporatu eta biribildurik egiten ikasita, [i] bokala ahoskatzen da, eta mihiaren egoera aldatu gabe, ezpainak biribiltzen saia gaitezke [u] hotserantz bagindoaz legez; ondorioa, [y] hotsa dugu. Era berean, [e] hotsetik [ø] hotsera joan gaitezke, edota [?] hotsetik [œ] hotsera.

Bada bestelako bereizkuntzarik, atzeko bokal biribildugabeen erabilerak sortzen duena alegia, biribilduei kontrajartzen zaiena. Ezaugarri honek, hiru dimentsiotako sistema sortzen du turkieraz: bokal fonema bakoitza, aurreko edo atzeko, goi edo behe, biribil edo biribildugabea izan daiteke:

Aurre Atze

Biribildu Biribildugabe Biribildu Biribildugabe

goi y i u i

behe ø e o a

6.14. Bokal sorkuntzan eragina duen beste ezaugarria giharren egoera tinko edo lasaia izan daiteke: gure belarrietarako, lehen motako bokalak argiago entzuten dira, agian argiegi, ingeleseko bokalak erabat lasaiak baitira denak. Egile batzuek estu eta zabal deiturak darabiltzate tinko eta lasai ordeztu. Gure belarrietan nabarmenen egiten den frantsesezko bokalen ezaugarria beren izaera tinkoa da. Ezpainen lanaz gaindi, tinkotasun neurri honek bereizten ditu erabat italierazko bokalak ingelesekoenetatik, hizkuntza biek bereizkuntza kopuru bera egiten duten arren.

Tinkotasuna eta lasaitasuna, fonema bereizkuntzarako erabiltzen dira alemanieraz eta holanderaz. Alemanieraz, eta neurri txikiago batean holanderaz, bokal tinkoek lasaiek baino iraupen luzeagoa dute orobat (geroago axolazkoa izango zaigun ezaugarria). Tinkotasuna luzeagotasunarekin lotzen badugu sinboloaren atzetik puntu bi jarriaz, hizkuntza hauetarako ondoko sistema lortzen dugu, egoera bakoitzean fonema bi ditugula⁴:

Aurre Atze

Biribildugabe Biribildu Berdintsu (Biribildu)

goi i: i y: y u: u

erdi e: e ø: ø o: o

behe a: a

Alemanierazko adibideak:

ihn [i:n] "bera", in [in] "(barne)an", Beet [be:t] "lore mordo", Bett [bet] "ohe",

Tür [ty:r] "ate", hübsch [hypß] "polit", König [kø:nik] "errege", zwölf [tsvølf] "hamabi",

Fusz [fu:s] "oin", Flusz [flus] "ibai", hoch [ho:x] "goi", Loch [lox] "zulo", kam [ka:m] "etorri zen", Kamm [kam] "orrazi".

Hizkuntza ezberdinen bokal fonemen arteko ezberdintasunak ez ditugu oraingoz ongi ulertzen. Litekeena da, halere, hizkuntza berean, fonema bera aho-organoen ekintza ezberdinek sortua izatea, nahiz antzeko (eta jaiotzetiko hiztunarentzat berdin-berdintsu diren) ondorio akustikoak izan; ontzat hartu ohi da holakoetan, organo baten egoera aldaketa (mihi-egoera ezberdina, adibidez), beste organo baten areagoko ekintza batek orekatzen duela (adibidez laringearen ekintza berezi batek).

Oharrak

4.1. Fonetika praktikoa: Passy, Phonétique (sarrerarik bikaina); Sweet, Primer; Rippmann; Soames; Noël-Armfield. Lan handiagoak: Sievers, Grundzüge (idatzi klasikoa); Jespersen, Lehrbuch; Viëtor, Elemente.

Ameriketako ingelesa: Krapp; Kenyon; H. Kurath SPE 30.279. alean (1928); L. Strong RP 5.70. alean, (1928); Maître phonétique 3.5.40 (1927); bibliografia: H. Kurath Lg aldizkarian 5.155 alea (1929).

Britainiar ingelesa: Sweet, Sounds; Jones Outline; Palmer, First Course; Lloyd. Fonetika hiztegiak: Michaelis-Jones; Jones English pronouncing dictionary; Palmer-Martin-Blandford (Ameriketakoari buruzko atala ez da egokia).

Alemaniera: Hempl; Viëtor, German pronunciation; Aussprache; Aussprachewörterbuch; Bremer; Siebs.

Frantsesa: Passy, Sons; Sounds; Passy-Rambeau; G. G. Nicholson; Michaelis-Passy; Passy-Hempl.

Holandera: Kruisinga, Grammar; Scharpé. Daniera: Jespersen, Fonetik; Forchhammer. Suediera: Noreen VS. Gaztelania: Navarro Tomás. Errusiera: Trofimov-Jones. Iparraldeko txinera: Guernier.

4.2. Afrikako hizkuntzak: Meinhof, Moderne Sprachforschung 57.

4.3. Ahostun h: Broch 67; E. A. Meyer NS bilduman 8.261 (1900). Erresonantzia: Paget.

4.6. Domals: E. Srámek RP aldizkarian 5.206 (1928); Noël- Armfield 99. Leherkari sabaikariak: Noël-Armfield 91. Leherkari glotala: Jespersen, Fonetik 297. Leherkari glotalduak: Boas 1.429; 565; 2.33. Hego Alemaniako leherkariak: Winteler 20.

4.7. Dardarkariak: Jespersen, Fonetik 417; Lehruch 137; Bohemiera: Chlumsky RP aldizkarian 1.33 (1911). Mihi nahasketak: Lundell 48; Noreen VS 1.451.

4.8. Alemanierako arnaskariak: Maître phonétique 3.8.27 (1930). Arabierako arnaskari glotalak: Gairdner 27; W. H. Worrel Vox aldizkarian 24.82 (1914); G. Panconcelli-Calzia Vox aldizkarian 26.455 (1916).

4.10. Albokariak: Sweet, Collected Papers 508; Boas 1.429; 565; Broch 45.

4.12. Bokalak: Russell, Vowel; Paget; C. E. Parmenter and S. N. Treviño in Quarterly journal 18.351 (1932). Bokal sistemak: N. Troubetzkoy in Travaux 1.39 (1929). Ingelesdunarentzat, frantsesaren bokalen azterketa bereziki argigarria da H, Pernot RP aldizkarian 5.108; 289; 337 (1928).

ALDAKETAK

5.1. Aurreko kapituluaren itxuratutako aho organoen ekintza arruntak hainbat eratan alda daitezkeen oinarri gisa har genitzake. Aldaketok hauek ditugu: hotsak irauten duen denbora; erabiltzen duen ozentasun maila; hotsa egitean ahotsak duen doinua; delako ekintzan zuzenean ez diharduten organoen egongunea; aho organoak egongune jakin batetik bestera mugitzeko modua. Gure azalpenerako, egoki zaigu oinarrizko hizkera-hots eta aldaketen arteko bereizkuntza hau, baina ez da beti hizkuntzen sistema fonetikoan ageri; hizkuntza askok, bigarren motako ezaugarriak, lehen motako fonemen parean jarri ohi dituzte. Ikusi dugunez, adibidez, doinu tasunak oinarrizko fonema gisa erabili ohi dira txineraz, eta iraupen tasunek oinarrizko fonemak bereizten dituzte alemanieraz. Bestetik, hizkuntza gehienek, neurri bateraino behintzat, bereizkuntzok nabari ohi dituzte, tasun aldatzaileetako zenbait bigarren mailako fonema gisa darabiltzatelarik -hots, hizkuntza forma soilen parte ez diren fonemak, eta forma soil horien konbinaketa edo erabilera bereziak adierazten dituztenak.

5.2. Iraupena (edo zenbatekoa), aho organoek delako egongune batean irauten duten denbora dugu. Hizkuntza batzuek hizkera hots iraupen bi edo gehiagoren arteko bereizkuntza egiten dute. Honela, ikusi dugunez (#4.14), alemanieraz bokal tinkoak lasaiak baino luzeagoak dira; luzera ezberdintasun hau tinkotasunarena baino harrigarriagoa da. Fonema luzerako sinboloa hotsaren sinboloaren ondoko puntu bi dugu, adibidez alemanierazko Beet [be:t] "lore sorta" hitza, Bett [bet] "ohe" hitzari kontrajartzen zaiona. Iraupen maila gehiago adierazi behar badira, puntu bakarra edo bestelako zeinuak erabil daitezke. Iraupen luzea adierazteko beste eredia sinboloa birritan idaztea dugu; hauxe da finerazko idazkerak egiten duena, esaterako kaappi "arasa", [a] eta [p] luzeduna.

Ameriketako ingelesez, bokal iraupena ez da bereizgarria. Bokal behe eta erdi beheak, adibidez pan "sartagin", palm "ahur", pod "idar", pawn "maileguan eman" hitzetakoak, gainerako bokalak baino luzeagoak dira, esaterako pin "orratz", pen "idazluma", pun "hitz joko", pull "sakatu". Areago dena, gure bokal guztiak luzeago dira hots ahostunen aurretik hots ahoskabeen aurretik baino; honela, bada, pan eta pad "bete" hitzetako [ʔ] bokala, pat "laztandu" eta pack "bildu" hitzetakoa baino luzeagoa da, eta pin, bid "postura" hitzetako [i] hotsa, pit "amildegi" bit "apur" hitzetakoa baino luzeagoa. Ezberdintasun hauek, noski, ez dira bereizgarriak, bokalaren goratasunaren eta inguruko fonemen arabera baita.

Zenbateko kontuetan gabiltzalarik, komenigarria da iraupen neurri bat itxuratzea, mora alegia. Honela, bokal labur batek mora bat irauten duela esaten badugu, hizkuntza bereko bokal luzea, mora bat, mora bat eta erdi edo mora bi irauten duela esanaz deskriba genezake.

Frantsesez, bokal luze eta laburren arteko bereizkuntza era berezi batean azaltzen da. Bokal luzeak hitz bateko azken kontsonante edo kontsonante multzoaren aurretik ager daitezke bakarrik: beraz, frantsesez, bokal luzearen agerpen soilak hurrengo kontsonante edo kontsonante multzoak hitza bukatzen duela adierazten du. Egoera honetan, baina, bokalaren iraupena fonemen izaerak berak erabakitzen du gehienbat. Bada, [ʔ n, ʔ n, oⁿ, œⁿ] bokal sudurkariak eta [o, ø] bokalak luzeak dira beti egoera honetan: tante [taⁿt] "izeko", faute [fo:t] "akats". Gainerako bokalak luzeak dira beti, azken kontsonantea [j, r, v, vr, z, ʒ] bada, adibidez cave [ka:v] "ardangela", vert [vʔ :r] "berde". Bokal iraupena bereizgarria da, arau bi hauek estaltzen ez dituzten egoeretan bakarrik, esaterako bête [bʔ :t] "pizti", eta bette [bʔ t] "betarraba".

Kontsonante luzeak, ingelesez, esaldietan eta hitz elkartuetan agertzen dira, adibidez pen-knife ['pen 'nɛf] "labana", edo eat two ['i:t 'tuw] "jan (itzazu) bi"; hitz bakar

batean, [nn] ageri da meanness "maltzukeria" hitzaren ['mijnnes] ahoskera aldaera gisa, ['mijnes] ahoskeraren ondoan. Hitz soilen barnean kontsonante-zenbateko bi bereizi ohi dira italieraz, adibidez fatto ['fatto] "egina", baina fato ['fato] "patu", eta gauza bera finlanderaz, eta beste hizkuntza askotan. Suedieraz eta norvegieraz, kontsonantea luzea da beti bokal indardun labur baten ondotik eta ez beste inon; beraz, kontsonante zenbatekoa ez da bereizgarria. Holanderaz, ez dago kontsonante luzerik; kontsonanteek esaldi batean elkarrekin topo egiten dutenean ere, kontsonante mora bat ahoskatzen da bakarrik, honela, dat [dat] "hura" eta tal [tal] "zenbaki", ['da 'tal] ahoskatzen da.

5.3. Indarra -hau da, intentsitatea edo ozentasuna-, hots uhinen zabaltasun handiagoak sortzen du, eta mugimendu sendoagoen bidez lortzen da, adibidez arnaskada handiagoak botaz, ahosketarako aho-kordak hurbilago elkartuaz, edo aho-ekintzetarako giharrak indar handiagoz erabiliaz. Ingeleseztik baditugu bigarren mailako hiru fonema, indar gehituaz osatzen direnak, indargabeko fonema segidak dei genitzakeenei kontrajartzen zaizkienak. Gure indarrak gorenak [ʔ], forma hanpatuak markatzen ditu, kontrajartze edota kontraesanetan erabili ohi direnak; gure indar goia edo indar arrunta [ʔ] hitz bakoitzeko silaba batean agertu ohi da; gure indar baxua edo bigarren mailako indarra [ʔ] hitz elkartuetako eta hitz luzeetako silaba bat edo gehiagotan agertzen da. Esaldietan, zenbait hitzetako indar goia indar baxu batez ordezkatu edo guztiz desagertzen da. Adibideak:

This is my parking place ['Bis iz "maj 'parkin 'plejs!] "Hau nire aparkalekua da".

It isn't my fault and it is your fault [it "iz ɾ t "maj 'fɛlt en it "iz "juwɾ 'fɛlt.] "Ez da nire errua, eta zure errua da"

insert "sartu" aditza [in'sɪt]; "adabaki" izena [ɪn'sɪt]

I'm going out [aj m 'gowin 'awt.] "Kanpora noa"

Let's go back ['let s 'gow 'b? k.] "Itzuli gaitezen"

Bussines-man ['biznes 'm? n] "enpresaria"

gentleman ['jɛntlmn] "zalduna"

dominating ['d? mi'neɪtɪn] "menderatzen"

domination ['d? mi'neɪʃn] "menderapen"

Sistema hau germaniar hizkuntzetan zehar hedatzen da, eta baita beste askotan ere, adibidez italieran, gaztelanian, eslabiar hizkuntzetan, eta txineran zehar. Indarra erabiltzen duten honelako hizkuntzetan, indarrak hizkuntz formen elkarketak itxuratzen ditu; kasurik arruntena esaldiko hitz bakoitzean indar goi baten erabilera da, zenbait hitz indargabe edo indar baxudun salbuespen direla. Halere, honelako hizkuntza batzuek badituzte silaba bat baino gehiagoko hizkuntz forma soilak (adibidez banaezineko hitzak), indarraren kokapenaren arabera bereiz daitezkeenak; honela, errusieraz ['gorot] "hiri" eta [mo'ros] "izotz" hitz bakunak dira biak, atzizki edo aurrizkirik gabeak; hemen, bada, indarraren kokapenak lehen mailako fonemaren balioa du.

Beste hizkuntza batzuek ozentasun mailak darabiltzate bereizgarri ez diren tasun gisa. Menominieraz, esaldiaren doinua, indar gorakada eta beherakaden aldetik, ingelesarenaren antzekoa da, baina lehen mailako fonemek erabakitzen dituzte gora behera horiek, eta ez dute esanahiarekin zerikusirik. Frantsesez, indarraren banaketak keinu baten balioa du: normalean, esaldiaren bukaera gainerako ahoskaldia baino ozenagoa da; batzuetan, hizkera hanpatuan, bada biziki ozena den beste silabarik; sarri asko, batek silaba segida luzeak entzun ditzake indar gora behera gutxirekin.

5.4. Indarra darabiltzaten hizkuntzetan, badira ezberdintasunak indarra bera eratzeke moduan. Ingeleseztik bada bereizgarria ez den aldaera bat, zeinean indargabeko hitzen bokalak eta silabak forma "ahulduan" agertzen baitira: laburragoak dira, giharrak lasaiturik eratuak, ahotsa sarri marmarreraino isildua, eta mihi egoerek goi-erdi bitarteko lekuan gelditzeke joera dute. Ahultze maila ahoskaldiz ahoskaldi aldatzen da,

eta alde handiak izaten ditu geografia eta gizarte mailaren arabera bereizten diren ingeles arrunt mota ezberdinetan. Fonetikalariek, sarri, sinbolo bereziak erabili ohi dituzte bokal ahulduetarako, baina hau ez da beharrezkoa, ezberdintasunok bereizgarriak ez direlako, baizik eta indargabeko lekuaren arabekoak erabat. Indargabeko bokala, zehaztasun gutxiagorekin eratutako indardunaren aldaera laburrago eta lasaiagoa da. Erka bitez test ['test] "azterketa" hitzeko [e] bokal osoa, contest ['k? ntest] "lehiaketa" hitzeko [e] ahulduarekin; ahulduriko [e] hau, Ameriketako ingelesez, glasses ['gl? sez] "betaurreko", landed ['l? nded] "lehorreratu" hitzetan agertzen da ere; kasu guztiotan, britaniar ingelesak bokal goragoa darabilela ematen du. Era berean, seen "ikusia" eta unseen ["on'sijn] "ikusigabea" hitzetako [o] osoa, undo [on'duw] "desegin" hitzeko aldaera ahularekin erka genezake; ahulduriko [o] hau cautious ['kʰʊs] "arretatsu" eta parrot ['p? rot] "loro" hitzetan agertzen da orobat.

Beste kasuetan, ahulduriko silabek fonemen galera edota bokal fonema baten ordezkaketa jasaten dute; normalean, ahultze maila asko gertatzen dira bata bestearen alboan:

concert ['k? nsɹ t] "kontzertu" concerted [kon'sɹ ted] "kontzertatu"

address ['? dres] "helbide" address [e'dres] "zuzendu"

relay ['rijlej] "transmisio" return [re'tɹ n] "itzuli"

vacate ['vejkejɪ] "hustu" vacation [vej'kejʃɹ] "opor"

vacation [ve'kejʃɹ] "opor"

protest ['prowtest] "protesta" protest [prow'test] "protestatu"

protest [pro'test] "protestatu"

rebel ['rebɪ] "errebelde" rebel [re'bel] "errebelatu"

atom ['? tɹ] "atomo" atomic [e't? mik] "atomozko"

maintenance ['mejnɹɹ s] "mantenu" maintain [mejn'tejn] "mantendu"

maintain [mɹɹ 'tejn] "mantendu"

Honelako kasuetan, badira ahultze mailak, ahoskaldiaren abiada edo egoeraren arabera aldatzen direnak (senitartekoa, formala, eta abar). Badira leku eta gizarte arabeko aldeak ere. Ameriketako ingelesak dictionary ['dikʃɹ 'ejrij] "hiztegi" esaten du, hala nola secretary ['sekre'tejrij] "bulegari" (erka bedi secretarial ['sekre'tejrijɪ] "bulegariari dagokiona" adibidearekin); britaniar ingelesak, ordea, forma ahulagoak darabiltza, ['dikʃɹ ri, 'sekrɪtri] esanaz. Bestalde, Latin ['l? tɹ], Martin ['martɹ] bezalako formetan, ahultze maila hau azpi-estandarra da Ingalaterran, bertan forma estandarrek ['l? tɹ , 'ma:tɹ] direlarik.

Indarra tasun bereizgarri gisa erabiltzen duten hizkuntza guztiek ez dituzte beren bokal indargabeak ahultzen. Ingelesaz besteko germaniar hizkuntzek indarra duten silabak bezalatsu ahoskatzen dituzte indargabeko silabak ere. Alemanierazko Monat ['mo:nat] "hile", Kleinod ['klaɪno:t] "harri bitxi". Armut ['armu:t] "txirotasuna" hitzetako bokal indargabeak, hat [hat] "dauka", Not [no:t] "larritasuna", Mut [mu:t] "ausardia" hitzetako bokal indardunak bezelakoxeak dira. Hizkuntza hauetan, [e] laburra da indargabea denean forma laburtuan agertzen den bokal bakarra. Honela, bada, alemanieraz hatte ['hate] "zeukan" edo gebadet [ge'ba:det] "bainatu" hitzetan, [e] bokala, Bett [bet] "ohe" hitzean baino laburragoa da, eta mihia gutxiago altxatuaz eta aurreratuaz ahoskatzen da; baden ['ba:den] "bainatu" bezalako forma batean, bigarren silaba, akustikaren aldetik, ingelesezko sodden ['s?dn] "busti" formaren bigarren silabaren antzekoa da, eta alemanierazko denn [den] "orduan" forma ez bezelakoa. Fonetikalariek indargabeko [e] hotserako [e] sinboloa erabiliaz adierazi ohi dute ahultze hau, hatte ['hate] eta baden ['ba:den] edo ['ba:dɹ] transkribatuz, baina hau ez da beharrezkoa, indar-markak adierazten baitu ahultzea.

Indarra erabiltzen duten beste hizkuntzek, adibidez italierak, gaztelaniak, bohemierak, polonierak, ez dituzte bokal indargabe aldaerarik erabiltzen; esaterako, erka bedi gure restitution ['resti'tuɰβɾ], italierazko restituzione [restitu'tsjone] hitzarekin. Bohemierazko kozel ['kozel] "ahuntz" hitzean, [e] bokala bete-betean eraturik agertzen da, zelenec ['zelenets] "hosto berdeduna" adibidean legez.

5.5. Indarra darabilten hizkuntzen arteko beste alde bat, ozentasun mailak gora egiten duen puntuari dagokio. Ingelesezt, hitzaren lehenengo silabak indarra badu, ozentasun mailaren igoera hitzaren hasieran bertan gertatzen da. Beraz, bada ezberdintasunik honako bikoteetan:

a name [e 'nejm] "izena" an aim [en 'ejm] "helburua"

that sod ['B? t 's? d] "belar hura" that's odd ['B? t s '?d] "arraroa da"

that stuff ['B? t 'stof] "gauza hori" that's tough ['B? t s 'tof] "gogorra da hori"

Ohitura bera aurkitzen dugu alemanieraz eta eskandinabieraz: alemanierak, hain zuzen ere, hain du indarraren hasiera gogor markatzen, non sarri honek indarturiko bokal edo atalaren aurreko (bereizgarria ez den) hersketa glotalaren itxura hartzen baitu, esaterako ein Arm [ajn 'arm] "besoa", edo Verein [fer-'ajn] "elkarte", ver- indargabeko aurizkia delarik.

Indarra darabilten hizkuntza askotan, bestetik, indarraren hasiera-gunea, lehen mailako fonemek erabakitzen dute. Holanderaz, adibidez, indarturiko silabaren aurretik kontsonante soila badator, kontsonante honek beti parte hartzen du ozenketan, hitz banaketa edo esanahi aldetiko beste irizpideak gora-behera: een aam "aam bat" (berrogei galoiko neurria), eta een naam "izena", biak [e'na:m] ahoskatzen dira, eta het ander oog "beste begia" bezalako esaldia, [e'tande'ro:x] da. Ohitura bera aurkitzen dugu italieraz, gaztelaniaz, eta eslabiar hizkuntzetan.

5.6. Doinu ezberdintasunak, hots, ahotsaren soinuaren dardar maiztasunak, bigarren mailako fonema gisa erabiltzen dira ingelesez, eta agian hizkuntza guztietan ere. Benetako forma akustikoak aldaketa asko jasan ditzake; bada geografia araberako aldaketarik ere. Amerikarren belarrietan bitxi egiten da ingalaterratarren goranzko doinua Thank you! "eskerrik asko" esatean, eta zenbait baieztapenetan erabiltzen duen goranzko doinuak bai-ala-ez galderen itxura ematen die. Are gehiago, guk keinuak bailiran erabili ohi ditugu doinu tasunak sarri, adibidez latz mintzatzen garenean, edo irain eginaz, harrokeriaz, maitekiro, alai, eta abar. Ingelesezt, eta Europako hizkuntzetan oro har, hizkuntz bereizkuntzei gehien hurbiltzen zaion ezaugarri akustiko ez bereizgarria doinua dugu eta honek giza harremanetan eragina duten keinuen antzeko aldaketak jasaten ditu. Ondorioz, bereizgarriak ez izan arren gizaharremanetan eragina duten hizkera ereduaz azterketa, ia bere hastapenetan dagoena, doinuaz kezkatzen da batik bat. Arrazoi beragatik, ez da erreza gure hizkuntzan, doinu ezaugarriek bigarren mailako fonema izaera zein kasutan duten zehazki erabakitzea.

Garbi dago perpaus bukaera (geroago zehaztu beharko dugun deitura) doinu eredu berezi batez markaturik etorri ohi dela. It's ten o'clock, I have to go home "Hamarrak dira, etxera joan behar dut" hitzak ahoska genitzake perpaus bakarria bailiran, bukaerako doinua azkenean bakarrik jarrita, edo perpaus bitan esan genitzake, bukaerako doinua clock hitzean eta bukaeran jarrita: It's ten o'clock. I have to go home "Hamarrak dira. Etxera joan behar dut". Bukaerako doinuaren ondoren, nahi adina denbora egon gaitezke isilik, edo hitz egiten bukatu.

Bukaerako doinuaren eremuan, hainbat bereizkuntza fonemiko azter ditzakegu. It's ten o'clock, baieztapen gisa, eta It's ten o'clock? galdera gisa, ezberdinak ditugu. Bigarrenak goranzko doinua du bukaeran, behearanzkoa izan beharrean. Galderen artean, bada alderik Is it ten o'clock? "hamarrak al dira?" edo Did you see the show? "ikuskizuna ikusi al zenuen?" bezalako bai-ala-ez galderaren doinualdiaren eta What

time is it? "zer ordu da?" edo Who saw the show? "Nork ikusi zuen ikuskizuna?" bezalako osagai galderen doinualdiaren artean; azken hauek, hitz edo esaldi berezi bat eskatzen dute erantzunerako, eta ez dute hainbesterako goranzkadarik egiten bukaera aldean. Transkribaketan, galdera marka hankaz gora jarrita adieraz genezake azken mota hau [¿]. Bereizkuntza hau garbi ageri zaigu, osagai galdera eta delako osagai galdera erantzun behar ote den galdetzen duen bai-ala-ez galderaren arteko aldean: Who saw the show? "Nork ikusi du ikuskizuna?" ['huw 'sc Be 'βow¿] galderak, pertsonari buruz galdetzen du, baina ['huw 'sc Be 'βow?] doinualdiaz, "hau al da galdetzen zenuena" esanahia dauka.

Hiru bukaera doinu mota hauek, bata bestearen alboan ageri zaizkigu hurrengo adibidean. Baten batek I am the man who -who- "ni naiz harako gizona, zera..." entzuleak, bukaera doinua duen baieztapenez lagun diezaioke Who took the money ['huw 'tuk Be 'monij.] "dirua hartu zuena". Hau, Who took the money? ['huw 'tuk Be 'monij¿] "nork hartu zuen dirua" osagai galderatik bereizten da, eta galdera horixe zela ziurtatu nahi duen entzuleak, edo galdera ahoskaldiaren abiapuntuntzat hartu nahi duenak, bai-ala-ez galderaren doinua ezarrita erantzun lezake: Who took the money? ['huw 'tuk Be 'monij?] "Dirua nork hartu zuen?" (I'll tell you who took it... "neuk esango dizut nork hartu zuen...")

Areago dena, badirudi hiru motatako perpaus hauek, hiztunak erangingarri sendo bati erantzuten diotenean, doinu eta indar aldaketa sakonak jasan ditzaketela. Bidezkoa da bada, honelakoetarako, harridura-doinuari dagokion bigarren mailako fonema sinboloa [!] eratzea, eta mota honetako aldaerak, adibidez haserre, ezuste, dei, irain eta antzekoak adierazten dituzten doinuak, keinuak bezalako aldaketa ez bereizgarriak direla onartzea. Harridura fonema, hiru bukaera doinu fonemekin ager daiteke. Erka bitez John ['j? n.], galdera bati emandako erantzuna, eta John! ['j? n!] entzulearen (Johnen) jaramona edo agerpena eskatzen duen deia; era berean erka ditzakegu John? ['j? n?] galdera soil gisa (John al haiz?), eta harridura-doinua gehitu zaion galdera: John?! ['j? n?!] ("John ez haizela espero dut"); azkenik, Who was watching the door [¿] "nor zegoen ateari begira?" galdera, gaitza edo premiazko kontua adierazten duen Who was watching the door [¿!] harriduradunetik bereizten da.

Ingelesezt, bosgarren hots fonematzat bereizi behar dugu eten- doinua [.,], perpausan, etenaldi baten aurretik egiten den doinu igoera dena. Bukaera doinuak ez bezala, esaldiaren formak perpaus bukaera zilegi egingo lukeen lekuan perpausa bukatzen ez dela erakusteko erabili ohi da: I was waiting there [.,] when in came the man. "Hor nengoen zain eta [.,] halako batean gizona sartu zen"; John [.,] the idiot [.,] missed us. "Jonek [.,] alu horrek [.,] ez gaitu ikusi" (Erka bedi honekin: John the Baptist was preaching "Jon Bataiaria predikatzen ari zen"); The man [.,] who was carrying a bag [.,] came up to door "gizona [.,] poltsa bat zeramala [.,] gure ateraino etorri zen", esaldi honetan gizon bakar bat dago; erka bedi honekin: The man who was carrying a bag came up to our door "Poltsa bat zeraman gizona gure ateraino etorri zen", kontakizunean hainbat gizon badirela adierazten duena.

5.7. Ingelesezt, bada, bai indarra eta bai doinua bigarren mailako fonema gisa erabiltzen dira bakarrik, baina bada alderik bion zereginen artean. Indar fonemak, hizkera ale bi edo gehiago forma batean elkartzen direnean agertzen dira: John bezalako hitz soil batek ez du indar tasun bereizgarriarik; indar tasun bereizgarria entzuteko, esaldia, edo hitz elkartua, edota atal bi edo gehiago dituen hitza hartu behar dugu, adibidez contest. Doinu fonemak, bestetik, ahoskaldi guztietan daude, hitz bakar bat ahoskatzen denean ere, adibidez John!, John?, John. Bestalde, ingelesezko doinu fonemak ez daude hitz edo esaldi jakinei loturik, eta aldatu egin ohi dira, esanahi aldaketan arabera, bestela berdintsu diren formetan.

Hizkuntza asko ingelesetik aldentzen dira, osagai bat baino gehiago duten hitz eta esaldietan doinuzko bigarren mailako fonemak erabiltzean, guk indarra erabili ohi dugun era beretsuan alegia. Suedieraz eta norvegieraz, silaba bi dituen hitzak, adibidez, indar goi arrunta darama batean, ingelesak egingo lukeen modura, baina honezaz gain, silaba indartuak doinu eredu biren bitartez bereizten dira. Indarrari, goranzko doinuak lagun diezaioke, ingelesezko indar goiaren antza akustikoa duena itxuratuaz, adibidez norvegierazko [ˈbønɐr] "nekazariak", edo [ˈaksel] "sorbalda", edo, bereizgarria den diferentziaz, beheranzko doinua izan dezake, adibidez [μ bønɐr] "indabak", edo [μ aksel] "ardatz". Hitz doinu bereizgarri hau are azpimarragarriagoa da, bestelakoetan suedierak eta norvegierak ingelesaren antza handia daukatelako bigarren mailako doinu eta indar fonemen erabileran.

Japoniar hizkuntzak, diotenez, doinu neurri bi bereizten ditu, arrunta eta goia; honela, [hana] "sudur" hitzak doinu arrunta darama silaba bietan, [ˈhana] "hasiera" hitzak doinu goia darama lehenengo silaban, eta [haˈna] "lore" hitzak, bigarrean; ez dirudi bigarren mailako indar fonemarik denik hitzetan.

Beste hizkuntza batzuetan, doinu tasunak lehen mailako fonema gisa erabili ohi dira. Iparraldeko txinerak honelako lau bereizten ditu, zenbakien bitartez adierazko ditugunak:

[1] goi maila: [ma¹] "ama"

[2] goranzko goia: [ma²] "kainabera"

[3] goranzko behe: [ma³] "zaldi"

[4] beheranzko behe: [ma⁴] "erriertan egin"

Kantonerak honelako bederatzi doinu dituela esan ohi da. Doinuzko lehen mailako fonemak, izan ere, hizkuntza askotan ageri dira, bai mota soil gutxi batzuetan, lituaniera, serbiera eta antzinako grekeran bezala, edo baita ere guri guztiz landu eta korapilatsua begitantzen zaigun ugaritasunez, hainbat Afrikako hizkuntzetan legez.

Azpimarratu behar dugu, Ameriketako ingelesean badela bereizgarria ez den doinu-aldaketa indartutako bokaletan: hots ahoskabearen aurretik, adibidez map "mapa", doinu-eredua soila da, baina hots ahostunaren aurretik, adibidez mad "zoro" edo man "gizon", goranzko eta beheranzko doinua ahoskatu ohi dugu, indar ozena egitean hobeto entzuten dena.

5.8. Fonema baten eraketari buruzko zerbait ikasi ondoren, fonema horrek ahoskatua izatean jasaten dituen hainbat aldaketa azter ditzakegu. Ingeleseko [k, g] fonemak, adibidez, mihi-atzeak beloaren kontra hersketa eginaz eratzen dira: arreta handiz begiratzen badugu, hurrengo fonema aurreko bokala denean hersketa hori aurrerago egiten dela ikus genezake, adibidez kin [kin] "enda", keen [kijn] "zale", give [giv] "eman", gear [gijr] "lanabes", eta atzeko bokalaren aurretik atzerago, adibidez cook [kuk] "sukaldari", coop [kuwp] "kaiolan sartu", good [gud] "on", goose [guws] "antzar" hitzetan, egongune arrunta dei genezakeenetik bereiziaz, adibidez car [kar] "kotxe", cry [kraj] "negar", guard [gard] "goardia", gray [grej] "urdin" hitzetakoa. Ingelesezko [h] fonema hurrengo bokalaren aho-egonguneaz eratzen da beti. Aldaera hauek ez dira bereizgarriak, hurrengo fonemaren arabera baitira guztiz. Honelako bereizkuntzak bereizgarri diren hizkuntzetan, ezin ditugu "aldaketa" izendatu, hizkuntza horietan fonemaren berezko tasunak direlako. Hori egingo bagenu, "aldaketa" izena eman geniezaioke ahotsak hotsetan duen eraginari edo eraginik ezari, edo sudurketaren agerpen edo desagerpenari, edo bokalgintzan eman daitekeen ezpainen biribiltze edo atzeratzeari. Alabaina, komenigarria da zenbait hizkuntzatan fonemikoak diren tasun ez oso ezagunei honela begiratzea.

Hauetarik garrantzitsuena sabaikaritzea da: kontsonantegintzan zehar, mihia eta ezpainek, delako fonemaren tasun nagusiek onartzen duten neurrian, [i] edo [e] aurreko bokalaren lekua hartzen dute. Honela, ingelesez [k] eta [g] fonemek bereizgarria ez den sabaikaritzea jasaten dutela esan genezake. Sabaikaritzea tasun bereizgarria da zenbait eslabiar hizkuntzatan. Errusieraz, adibidez, kontsonante fonema gehienak bikoteetan biltzen dira, soila eta sabaikaritua bereizkuntzaren arabera. Azkenon transkribaketarako, hainbat modu erabili izan dira, adibidez puntua, marra biribila, sinbolo gaineko tontorra, i txikia goialdean, edo azentu marka, edo letra italikoak. Guk azken hau erabiliko dugu, inprimatzeko errezena baita. Errusierazko [pat] "bost" bezalako hitzean, ahoaren bazterrak atzeraturik daude, eta mihia aurreko bokalaren egongunera igotzen da kontsonante bien sorreran. Mihiaren punta eta ertzek goiko hortzostearen kontra hersketa egiten duten bitartean, mihigaina sabairantz igo dela esan nahi du honek [t] hotsaren kasuan, noski; gauza bera ['dada] "osaba" edo ['nana] "inude" hitzetan. Bien arteko aldearen bereizgarritasuna [bit] "izakera" [bit] "izan" eta [bit] "jo" hirukotean agertzen zaigu argiro.

Hizkuntza batzuek beloturiko kontsonanteak bereizten dituzte, zeinetan mihia atzeko bokalerako balitz legez eratzen baita. Kontsonantegintzan ezpainak biribiltzen badira, ezpainkariturik daudela esan ohi da. Aldaketa bi hauek elkarrekin gertatzen dira ezpainbeloturiko kontsonanteetan.

5.9. Aho organoek egote hutsetik fonemagintzara, edo fonema batetik bestera, edota fonema baten eraketatik egote hutsera duten igarotzeko modu ezberdinetan aurkitzen ditugu igaropenak deitu ohi diren aldaerak. Deitura hau egokia da aldaerak bereizgarri ez direnean, baina bereizgarri badira, ez daukagu fonemaren berezko tasun batzuei oinarritzko eta besteei igarokor irizteko eskubiderik egiazki.

Isiltasunetik herskari ahostun batera igarotzean, adibidez day "egun", gay "alai", pixkanaka ekiten diogu ahosketari, eta hots hauetatik isiltasunera goazela, adibidez add "gehitu", egg "arrautza", pixkanaka itzaltzen dugu ahosketa. Frantsesak egin ohi duenarekin kontrajartzen da hau, egongune horietan herskariak guztiz ahostundurik baitaude, hasiera-hasieratik bukaeraraino. Isiltasunetik indartutako bokalera igarotzean, apurkako ahosketa egin ohi dugu ingelesdunok; iparraldeko alemanieraz ordea, lehenik glotisa hertsia eta ondoren ahosketa osoaz hasten dira, honela (bereizgarria ez den) hersketa glotala sortuz. Lantzean behin, bereizgarri ez den aldaera gisa, alemanierazko moduan hasten gara eta alemaniera gurean. Frantsesez eta hegoaldeko ingeles azpi-ereduan, hirugarren hasiera mota bat bada, bereizgarria ez dena, zeinean glotisa [h] hotsaren egongunetik igarotzen baita. Ingeles estandarrean eta alemanieraz, aldaera hau bereizgarria da, adibidez ingelesezko heart [hart] "bihotz" eta art [art] "arte". Bokaletik isilunera doazela, aipaturiko hizkuntzek igaropen leuna egiten dute, baina beste batzuk [h] egongunetik igarotzen dira, edo bat-batean bukatzen herskari glotalaren bidez, eta beste zenbaitetan aldaera hauek bereizgarriak dira. Herskari ahoskabetik hots ahostunera igarotzean, batik bat bokalera, leherketa unean has gaitezke ahosketagintzan, edo une batez berandutu; edozein kasutan, leunki edo hersketa glotalaren bidez has daiteke; bereizkuntza hauek fonemikoak dira zenbait hizkuntzatan eta #4.6. atalean aztertu ditugu. Sabaikaritutako kontsonanteen aurretik edo atzetik, aurreko bokalaren itxura duen glide hotsa ager daiteke; belotutako kontsonanteak, era berean, atzeko bokal glideaz lagundurik ager daitezke.

Kontsonante sailetan, igaropenezko tasun nagusia, igarotze ireki eta hertsien arteko bereizkuntza dirudi. Ingelesezt, igaropen hertsia darabilgu. Herskari batetik bestera goazela, lehena ireki baino lehenago eratzen dugu bigarren hersketa: actor ['?ktr,] "aktore" bezalako hitz batean, adibidez, mihiaren puntak hortzobiak jotzen ditu [t] eratzeko, [k] irekitzeko mihi atzea belotik kendu baino lehen. Frantsesak igaropen irekia

darabil: acteur [aktœ:r] "aktore" hitzean, [k] irekitzen da [t] eratzeko mihi puntak hortzobiak jo aurretik. Era berean, ingelesez, herskari eta arnaskari konbinaketek igaropen hertsia dute, adibidez Betsy, cupful "tazakada", it shall "(egin)go du": herskaria ireki aurretik, organoak, ahal den neurrian, hurrengo arnaskariaren egonguneetan jarri dira eta, herskariaren leherketa ez da osoa. Hau, frantsesaren igaropen irekitik aldentzen da: herskaria guztiz lehertzen da arnaskaria hasi aurretik, adibidez cette scène [s? t s? :n] "eszena hau", étape facile [etap fasil] "maila erreza", cette chaise [s? t β? :z] "aulki hau". Bereizkuntza bera agertzen da kontsonante bikoitz deitu ohi direnetan, kontsonante bera segidan birritan agertzen den konbinaketa, alegia. Ingelesezt, grab-bag ['gr? b 'b? g] "zakulako poltsa", hot time ['h? t 'tajm] "sasoi beroa", pen-knife ['pen 'najf] "labana" adibideek hersketa bakarra agertzen dute [bb, tt, nn] taldeetarako; hersketa honek kontsonante soilarenak baino iraupen handiagoa du soilik. Kontsonante bikoitza, (gure adibideetan ahula den) hersketa eta (gure adibideetan indartsua den) leherketaren artean dagoen indarraren aldetiko bereizkuntzaz markaturik dago orobat. Frantsesezt, antzeko taldeek, adibidez cette table [s? t tabl] "mahai hau", irekitze bi erakutsi ohi dute, kontsonante bakoitzak hersketa eta leherketa bana agertzen dutelarik.

Hizkuntza batean igaropen mota biak gertatzen badira, bereizkuntza hau fonemikoki erabil daiteke. Honela, polonierak igaropen irekiak izan ohi ditu, frantsesak legez, adibidez trzy [tʃi] "zuhaitz", baina [t] eta [β] konbinaketa igaropen hertsiaz eman daiteke baita, fonema berezi gisa, guk [c] idatziko duguna, adibidez czy [ci] "baldin". Bada honen aldaera sabaikaritua baita, fonema berezia dena, [c] adibidez ci [ci] "hiri".

Azken adibide honek fonema elkartuak erakusten dizkigu -hau da, hizkuntza bereko fonema bi edo gehiagoren segida diruditen hotsak, baina nolabait horrelako segida batetik bereizten direnak, eta fonema berezi gisa erabili ohi direnak. Fonema elkartu asko, gure adibidekoak kasu, herskari eta arnaskariz edo beste kontsonante irekiz osaturik daude; honelako fonemei afrikatu esan ohi zaie. Ingelesezt, kontsonante talde guztiek igaropen hertsia dutelarik, hau ezingo litzateke bereizkuntza fonemiko gisa erabili. Alabaina, ingelesak baditu fonema afrikatu bi, [tʃ], esaterako church [tʃr, tʃ] "eliza" hitzean, eta [dʒ] adibidez judge [dʒoʒ] "epaile". Afrikatu hauek sabaikarituak dira beti, eta tasun honek bereizten ditu [t] eta [β] konbinaketetatik, adibidez beet-sugar ['biʃt 'βʒr,] "arbi-azukre", it shall [it 'β? l] "egingo du", eta [d] gehi [ʒ] konbinaketetatik ere, adibidez did Jeanne [did ʒan] "Jeannek (egin) al (zuen)"⁵.

5.10. Bokale eta gainerako soinuaren segidan arteko igaropenek aldakortasun handia darakuste eta, igaropen mota asko bereizgarri dira hizkuntza batean edo bestean.

Zeinahi hots sailetan, batzuek gogorago jotzen dute belarrietan besteek baino: ozentasun maila ezberdinek eragin handia dute bokale eta bokalelakoak diren hotsen arteko igaropenetan. Honela, gainerako guztia berdina bada (bereziki indarra), bokale behea, adibidez [a], [i] bezalako bokale goi bat baino ozenagoa da; edozein bokale kontsonante bat baino ozenagoa da; sudurkaria, dardarkaria eta albokaria, herskaria edo arnaskaria baino gehiago; [s, z] sibilariak, arnas etorria ildo hestu batera bortxatzen dutelarik, beste edozein arnaskari baino ozenago; arnaskaria herskaria baino gehiago; hots ahostuna, ahoskabea baino gehiago. Zeinahi fonema segidatan, bada, ozentasun gora-beherak daude. Adibidez, [tatatata] bezalako segida batean, [a] hotsak [t] hotsak baino ozenagoak dira. Hurrengo adibideetan, lau ozentasun maila bereizten ditugu, zenbakien bitartez:

jack caught a red bird
[j? k kct e red br,d]
314 414 1 213 323

"Jack-ek txori gorria harrapatu zuen"

Bistan denez, fonema batzuk alboan dituzten beste fonema batzuk (edo isiltasuna) baino ozenagoak dira. Gure adibidean 1 zenbakia daramaten fonema guztiei gertatzen zaie hau, eta 2 daraman fonema bati, hots, bird hitzeko [r] fonemari, baina ez red hitzeko [r]-ari. Fonema horiek, ozentasun kokorak edo silabagileak dira; gainerako fonemak ez dira silabagileak. Honela, red hitzeko [e] eta bird hitzeko [r] silabagileak dira, baina red hitzeko [r] eta red eta bird hitzetako [d] ez dira silabagileak. Ahoskaldi batek silabagile adina silaba (edo berezko silaba) dituela esan ohi da. Silabagintzaren gora-beherek eragin handia dute hizkuntza guztien hots egiturari.

Hizkuntza guztietan, fonema jakin batzuk bakarrik izan daitezke silabagile, baina oinarrian, edozein hots izan daiteke ondokoak baino ozenago. Adibidez, pst! pst! [pst!] "txt! txt!" edo isiltasuna eskatzeko sh! [ʃ!] "ixo!" hotsak ingeles arruntetik bereizten dira, [s] eta [ʃ] silabagiletzat darabiltzatelako. Hain zuzen ere, edozein hizkuntzatan fonema gehienak ez dira silabagile gisa erabiltzen, ingelesezko [p, t, k] kasu; hauei kontsonante deritzegu. Kopuru aldetik gutxiago diren beste fonemak silabagile gisa ageri ohi dira bakarrik, adibidez ingelesezko [e, o, a]; hauei, bokal deritzegu. Hizkuntza gehienetan bada tartekoa den hirugarren talde bat, ozenak, silabagile diren eta ez diren lekuetan ager daitezkeenak; honela, Ameriketako ingelesez, erdi eta mendebaldekoan bederen, [r] silabagilea da bird hitzean baina ez red hitzean.

Delako hitz bateko ozena silabagilea den ala ez, era ezberdinetan erabakitzen da hizkuntzetan zehar. Ozenaren ahalmen silabagilea inguruko fonemen arabera bada guztiz (adibidez bird eta red bikotea), orduan ezberdintasuna ez da bereizgarria eta, transkribaketari dagokionez behintzat, ez dugu sinbolo bat baino gehiago behar. Kasu askotan baina, ozenaren ahalmen silabagilea arbitrarioki erabakitzen da eta, bereizkuntza fonemikoa bilakatzen da. Honela, stirring ['strɪŋ] "eragiten" hitzean, [r] fonema silabagilea da, baina string [strɪŋ] "soka" hitzean ez da; pattern ['pʌtɹn] "eredu" hitzeko bigarren silaban, [r] fonema silabagilea da, eta [n] fonema ez, baina patron ['peɪtrn] "bezero" hitzeko bigarren silaban, [r] ez da silabagilea eta [n] bai. Honelako kasuetan, sinbolo bereziak behar ditugu fonema bietarako. Zoritxarrez, honi dagokionez, gure transkribaketa ohiturak ez dira ereduak edo sendoak. Kasu gutxi batzuetan, sinbolo bereziak erabiltzen ditugu: [i, u, y] balio silabagileetarako erabili ohi dira, eta [j, w, x], silabagile ez direnetarako; transkribatzaile askok, halere, lehenengo sinboloak erabili ohi dituzte silabagile ez diren agerpenetarako ere. Beste bidea, [i, u, y, e, o, a] sinboloen azpian biribilerdi txiki bat jartzea da, silabagile ez direla adierazteko. Bestalde, [r, l, m, n] sinboloek puntua, biribila edo marratxoa daramate azpian, silabagileak direla adierazteko.

Ozenaren izate silabagilea inguruko fonemek (edo isiluneak) erabakitzen dutenean, banaketa berezkoa da. Honela, alemaniera estandarrean, [i, u] fonemak ez dira silabagile bokalaren alboan ageri direnean, eta gainerako leku guztietan silabagile dira. Silabagilea ez den [u], [a] ondotik agertzen da bakarrik, adibidez Haus [haws] "etxe" hitzean; silabagile ez den [i], [a] ondotik agertzen da, ingelesez bezala, adibidez Ei [aj] "arrautza", edo [o] (edota [ø]) ondotik, adibidez neu [noj, nøj] "berri", hala nola bokal eta [u] aurretik, esaterako ja [ja:] "bai", jung [jun] "gazte". Bokal ondoko aldaera behetu egiten da, eta silabagile aurreko [i] hotsa, kontaktu estuan eratzen da, igurtzitze hots argia ematearren, baina ezberdintasun hauek ez dira bereizgarriak; ohituraz, transkribatzaileek [i, u] sinboloak darabiltzate lehenengo motarako, baina [j] bigarrenerako.

Ozenen silabagiletasuna inguruko fonemek erabakia ez denean, bereizkuntza fonemikoa da. Hizkuntza batzuek indarraren gehitzea darabilte ozena silabagile bihurtzeko. Ingelesez, indar silabagile honek bigarren mailako fonema gisa jotzen du. Erdi-

mendebaldeko Ameriketako ingelesez, indar silabagileak [r] fonema silabagile bihurtzen du indarra duten silabetan, adibidez stirring ['str₁in], string [strin] hitzari kontrajarriaz, edo erring ['r₁in], ring [rin] hitzari. Indargabeko silabetan, [r, l, m, n] ozenak silabagile izan ohi dira berezko banaketaz, adibidez butter ['botr₁] "gurin", bottle ['b? t₁] "botila", bottom ['b? t₁m] "ondo", button ['bot₁] "botoi", baina beste zenbaitetan beren ahalmen silabagilea indarraren araberakoa da. Honela, indar silabagileak [r₁] bat bereizten du aurreko [r]-tik, adibidez error ['err₁] "akats", bearer ['bejrr₁] "jasale", edo aurreko [r] batetik, adibidez stirrer ['str₁r₁] "eragile", eta sarri asko, ondoko ozenetatik silabagile zeintzuk izango diren erabakitzen du:

apron ['ejpm₁] "amantal" pattern ['p? tr₁n] "eredu"

pickerel ['pikr₁l₁] "arrain mota" minstrel ['minstr₁l₁] "koblari"

coral ['k? r₁l₁] "koral" Carl [karl]

char "em ['lcam₁] "erre itzazu" charm [lcam] "gozotasun"

maintenance ['mejnt₁n₁s] "mantenu" penance ['pem₁s] "penitentzia"

Indar silabagileak [r, l, m, n] silabagile egin ditzake, irekiagoa den fonema baten aurretik ere:

battery ['b? tr₁ij] "bateria" pantry ['p? ntrij] "jakigela"

hastily ['hejst₁ij] "premiatz" chastely ['|cejstlij] "kastoki"

anatomy [e'n? t₁ij] "anatomia" met me ['met mij] "ni ezagutu"

botany ['b? t₁ij] "botanika" chutney ['|cotnij] "txutni (jakia)"

Indar silabagileak, beraz, badu ingeles mota honetan bigarren mailako fonemaren balioa. Silabagile diren [r, l, m, n] hotsen azpiko marratxo bertikala kenduko bagenu, silabagiletasuna inguruko fonemen araberakoa den kasuetan egin beharko genukeen legez, marratxo hau, gainerako kasuetan, indar silabagilearen marka sendoa izango litzateke.

Hizkuntza batzuek, indar silabagilearen erabileraren bitartez, berezko ozentasunaren harremanak hankaz goratzen dituzte; honela, hegoaldeko alemanierazko dialektoek [i, u y] silabagileak dituzte, [a] silabagile ez delarik, [liab] "maite", [guat] "on" eta [gryan] "berde" bezelako formetan.

Ozenen betebeharrak silabagileak erabakitzeko beste banaketa mota bat, artikulatze ezberdintasunen erabilera dugu. Normalean, silabagilea ez den aldaerari silabagilear denari baino hersketa gehiago eranstean datza hau. Ingelesez, [i] eta [u] ozenak bokal alboan ez dira silabagile; [j] eta [w] sinboloen bitartez adierazten baditugu silabagile ez diren aldaerak, [j] daukagu yes [jes] "bai", say [sej] "esan", buy [baj] "erosi", boy [bcj] "mutil" hitzetan, eta [w] well [wel] "ongi", go [gow] "joan" eta now [naw] "orain" hitzetan. Adibide hauetan, [j] eta [w] hotsak silabagile ez izatea, berezko ozentasunak erabakitzen du, aurretik edo atzetik irekiagoa den bokala baitarraikie. Beraz, hotsa eratze gertatzen diren aldaketak ez dira hemen bereizgarri: bokal osteko [j, w], batik bat [aj, j, aw] motak oso irekiak dira, eta [a] bera ere, [a] arrunt batetik arras ezberdina da; bokal aurretik, adibidez yes eta well hitzetan, [j] hotsak [i] silabagileak baino mihi egongune gorago eta aurreratuagoa du, eta [w] hotsak [u] silabagileak baino mihi egongunea goragoa du, ezpainen hersketa arin batez eratzten delarik orobat. Bada, ezberdintasun hauek, ingelesez, bereizkuntza fonemiko gisa erabiltzen dira: berezko ozentasunak funtzioak erabakitzen ez dituenetan ere, silabagile ez diren [j, w] hertsitagoak, [i, u] silabagile eta irekiagoetatik bereizten diren fonematzat dauzkagu. Honela, ooze [uwz] "isuri" hitzeko [uw] eta wood [wud] "zur" hitzeko [wu] bereizten ditugu, hala nola ease [ijz] "erretasun" hitzeko [ij] eta kaleko yip [jip] "intziri egin" hitzeko [ji] bitxia, eta baditugu [jij, wuw] bezalako taldeak ere, adibidez yeast [jijs] "legamina", woo [wu] "uuu!". [i, u, r] taldeko ale ezberdin bi silaba indardun batean biltzen direnean, lehena ez da silabagile: you [juw] "zu", yearn [jr₁n] "faltan bota", win

[win] "irabazi", work [wɹk] "lan", rid [rid] "kendu", roof [ruf, ruwf] "teilatu". Indargabeko silabetan, halere, badugu hire [hajr] "kontratatu" eta higher ['hajr] bereizkuntza, edota pair [pejr] "bikote" eta payer ['pejr] "ordaintzaile", edo sore [sowr] "mindua" eta sower ['sowr] "ereile". Aldaketa baten bitartez, dagokion ozen silabagiletik bereizten den ozen ez silabagileari bokalerdi deritzaio.

Era berean, frantsesak [i, u, y] bokal goiak, silabagile ez direnean, hersketa eta tinkotzen maila handiagoz eratzen ditu, adibidez hier [jʔ:r] "atzo", oie [wa] "antzar", ail [a:j] "berakatz", huile [xil] "olio", eta bokalerdi fonema bereziak bailiran jokatzen du, adibidez oui [wi] "bai" eta houille [u:j] "harrikatz" bereziaz, eta [ij] segida erabiliaz, esaterako fille [fi:j] "alaba".

5.11. Bokalak eta ozenak fonema elkartuetan elkartzen dira, zeintzuei diptongo baiteritze osagai bi dituztenean, eta hiru badira, triptongo. Fonema sail bat fonema elkartutzat hartzen den ala ez, hizkuntzaren fonetika egituraren arabera arazoa da guztiz. Ingelesezt, yes "bai" hitzeko [je] saila, edo well "ongi" hitzeko [we], fonema bitzat hartzen dira, kontsonante eta bokal elkarte guztiak bezala, baina bokal eta bokalerdi konbinaketak fonema elkartutzat dauzkagu. Horrelako zazpi konbinaketa ditugu, hala nola bokalerdi-bokale-bokalerdi triptongo bat ere:

see [sij] "ikusi" seeing ['sijin] "ikusten"
say [sej] "esan" saying ['sejin] "esaten"
buy [baj] "erosi" buying ['bajin] "erosten"
boy [bcj] "mutil" boyish ['bcjiʃ] "mutilalako"
do [duw] "egin" doing ['duwin] "egiten"
go [gow] "joan" going ['gowin] "joaten"
bow [baw] "makurtu" bowing ['bawin] "makurtzen"
few [fjuw] "gutxi" fewer ['fjuwr] "gutxiago"

Hurrengo kapituluan ikusiko dugu, gure hizkera formen egitura fonetikoan, talde hauek bokal fonema soilen jokabide bera dutela. Gorago aipatu ditugun osagaien aldaketa ez bereizgarri eta bitxiak, batez ere [a, j, w] hotsena, diptongoetan ageri ohi dira, baina honek bigarren mailako garrantzia du; axolazko tasuna, egitura aldetiko eraketa berezia da. Gure diptongoek duten beste tasun garrantzitsu bat, hotsak Ameriketako ahoskera gehienetan [r] aurretik duen aldakortasuna dugu: egongune honetan, bokal soil luze eta arras tinko baten itxura hartzen dute:

gear [gijr] "lanabes" sure [ʃuwr] "ziur"
air [ejr] "haize" oar [owr] "arraun"
fire [fajr] "su" hour [awr] "ordu"

Ahoskera batzuetan, aldaketa jasan duten diptongo hauek edozein bokal soiletik bereizten dira; ohar bedi:

Mary ['mejrij] wore [wowr] "jantzi zuen"
hoarse [howrs] "latz"
merry ['merij] "alai horse [hors] "zaldi"
marry ['mʔrij] "ezkondu" war [wcr] "gerra"

Ahoskera mota askotan, halere, bereizkuntza hauek ez dira gertatzen; mota hauetan, diptongo batzuk eta bokal soil batzuk ez dira [r] aurretik agertzen.

Diptongoak, bokal silabagile eta silabagile ez direnak fonema bereizitzat ez dauzkaten hizkuntzetan ere agertzen dira. Alemanieraz, Eis [ajs] "izotz" hitzeko [aj] konbinaketa, eta neu [noj] "berri" hitzeko [oj], eta Haus [haws] "etxe" hitzeko [aw], egituraren aldetik, fonema bakartzat hartzen dira. Ingelesezt bezala, osagaiak beren forma arruntetik asko bereizten dira: silabagile ez direnek erdiko bokalaren izatea dute, bokal goiarena izan beharrean, eta [oj] batik bat, aldaera askotan existitzen da, zenbait ahoskeratan, aurreko bokal biribilduen konbinaketa ematen duelarik, demagun [ø x].

Atal silabagilea aurretik daramaten ingeles eta alemanierazkoak bezalako diptongoei, beheranzko deritzaie, eta silabagilea ez den atala aurretik daramaten goranzko diptongoetatik bereizten dira. Honela, frantsesez, fier [fj? :r] "harro" hitzetako [j?] konbinaketak, edo moi [mwa] "ni" hitzeko [wa] taldeak, fonema bakanak legez jotatzen dute egituraren aldetik; italieraz, [j? , wc] konbinaketek diptongo jokabidea dute; gauza bera gaztelaniazko [je, we] multzoetan.

Hizkuntza batzuek bokal silabagile eta silabagile ez diren kontsonantez osatutako fonema elkartuak dauzkate. Lituaniaraz, [l, r, m, n] fonemak ez dira inoiz silabagile, baina [al, ar, am, an] konbinaketak, bai egitura eta baita indarraren aldetik, diptongotzat hartzen dira, [aj] eta [aw] bezalatsu.

5.12. Silabagintza fonemen ozentasunaren arabera denez, sendotu edo oposa daiteke, indarra egokituz gero. Hizkuntza gehienetan sendotzeko ohiturak irabazten du. Frantsesez, indarra bereizgarria ez delarik, silaba guztiak sendotzen dira beren silabagilean indarra handituz; silabagilearen aurretik silabagilea ez den ale bakar bat badago, indar handitzea bertan hasten da; bi baldin badaude, multzo ezberdinek jokabide ezberdinak erakusten dituzte: *pertinacit * [p? r-ti-na-si-te] "tematitasuna", *patronnesse* [patrc-n? s] "ugazabandre". Indar gora-behera txiki hauen banaketa ez da bereizgarria, lehen mailako fonemek erabakitzen baitute guztiz. Gure belarrietarako, zaparrada edo danborrada azkarraren hotsa ematen dio hizkuntzari. Ohitura bera aurkitzen dugu indarra darabilten hizkuntza askotan, adibidez italiara, gaztelera, poloniera, bohemiera eta baita errusiera ere, zeinak indar bereizgarria izateaz gain, indargabeko bokalak ahultzen baititu. Honela, italieraz, *pertinacia* [per-ti-'na-ica] "tematitasuna", edo *patronessa* [pa-tro-'nes-sa] "ugazabandre" hitzetan, indarraren gora-beherek banatzen dituzte silabak, gora-beherok indarra duten silabaten markatuago eta indargabeetan ahulago direlarik.

Ingelesak eta gainerako hizkuntza germanikoek ez dituzte beren silaba indargabeak indar gora-beherez markatzen. Adibidez, *dimity* ['dimitij] "algodoi ehuna" edo *patroness* ['pejtrones] "ugazabandre" hitzetan, indarra erabat ahultzen da, besterik gabe, lehenengo silabako punturik gorenaren ondotik. Bistan denez, hiru silaba daude, berezko ozentasunezko hiru konkor daudelako, baina ezinezkoa litzateke silaba bat non bukatzen den eta hurrengo hasten asmatzea. Honela, *pertinacity* [pr,ti'n? sitij] "tematitasun" edo *procrastination* [pro 'kr? sti'nejβn] "gerorako utzi" hitzetan, silaba indardunen hasiera indarrak berak markatzen du argiro, baina gainerako silaba mugak ez daude inola ere markaturik.

Indarraren banaketak fonemen berezko ozentasunaz bestelakoak diren ozentasun konkorrak sor ditzake. Ikusi dugunez, ingelesez [r, l, m, n] inguruko fonemak baino ozenagoak izan daitezke, eta beraz, silabagile bilakatu, indar handitze bati esker.

Indarraren banaketak berezko ozentasunezko harremanak gaindi ditzake baita. Adibidez, [dzd] bezalako konbinaketa batean, [z] fonema [d] baino ozenagoa da, eta [kst] taldean, [s] arnaskaria herskariak baino ozenagoa da; baina ingelesez, adzed [? d zd] "aitzurtu" eta text [tekst] "testu", step [step] "urrats" hitzetako indar goren bakarra hain da ozena, non berezko ozentasun alde txiki hauek ezabatzen baititu. Indarra darabilten hizkuntza batzuek soinuak direnen ozentasuna ere gaindi dezakete; honela, errusierak silaba bakarreko hitz bihurtzen ditu hurrengoak, indarrari eskerrak: [lba] "bekokiko", [rta] "ahoko"; polonierak, era berean, trwa [trva] "irauten du", msza [mβa] "meza".

Oharrak

5.2. Mora: E. Sapir in Lg 7.33 (1931).

5.4. Britainiar eta amerikar ingelesak bokale indargabeei dagokienez ageri dituzten ezberdintasunetarako, ikus Palmer-Martin-Blandford laneko sarrerako oharrak; beren ikuspegi orokorra, aldiz, ez da gehienek onartua.

5.5. A name: an aim: Dr. Jones-ek honelako adibide asko biltzen ditu Maître phonétique liburuan, 3,9,60 (1931).

5.6. Doinua (britaniar) ingelesez: Jones, Curves; Palmer, Intonation; Armstrong-Ward. Alemanieraz: Barker; Klinghardt. Frantsesa: Klinghardt-de Fourmestraux.

Eduard Sievers (1850-1932) ikasleak urte asko eman zituen bereizgarri ez diren hizkera ereduak aztertzen; bilkura eta bibliografia: Sievers, Ziele; Ipsen-Karg.

5.7. Hitz doinua norvegiera eta suedieraz: Noreen V.S. 2.201; E. Selmer in Vox 32.124 (1922). Japonieraz: K. Jimbo in BSOS 3.659 (1925). Iparraldeko txineraz: Guernier; Kalgren, Reader. Kantonieraz: Jones-Woo. Lituaniaraz: R. Gauthiot in Parole 1900.143; Leskien, Lesebuch 128. Serbieraz: R. Gauthiot in MSL 11.336 (1900). Atabaskeraz: E. Sapir in Journal de la Société 17.185 (1925).

5.8. Sabaikaritzea: Broch 203; belartzea: 224.

HOTS EGITURA

6.1. Aurreko kapitulu bietakoak bezalako hizkera hotsen deskribapenak, halabeharrezko ikuskatzeari zor zaizkio. Deskribapen hauek hiztunaren mugimenduen arabera egiten dira: fisiologiaren ikuskatze landuago batek horietariko zenbait oker dabiltzala erakus lezake. Are garrantzitsuago dena, jaso izan diren ezberdintasun eta aldaeren artean, esaterako frantsesaren eta ingelesaren [p, t, k] herskari ahoskabeen arteko bereizkuntzaren kasuan, ez dago hori agintzen duen (fonetika akustikoak egunen batean eskaini liezaizkigukeena bezalako) inolako araurik; belarri oneko lekuko batek hizkuntza biok entzun izanari zor zaio hortaz dugun ezagutza, besterik gabe. Hego alemanieraren dialektoak edo Ameriketako zenbait indiar hizkuntzen ikuskatzeak ingeles edo frantses arruntetik bil daitezkeen herskari ahoskabeen aldaera kopurua handi dezakeen bezala, halaxe zeinahi dialekto berriren azterketak fonetikari batek entzun ditzakeen ezberdintasunen aukera zabaltzen du. Deskribapenaren hedadura ausazkoa da, bere egokitasuna zalantzazkoa eta bera adierazteko erabili ohi den bidea ez oso argia. Fonetika praktikoa trebetasun hutsa dugu, hizkuntzaren ikastunari sarri mesedegarri gertatzen zaiona, baina zientziazko balio gutxi duena.

Arrazoi honengatik, hizkuntza baten itxura akustiko orokorra aztertzea gure ahalmenetatik at datza. Gain-gaineko ezaugarri batzuk azal genitzake: (ingelesdun belarrientzat) italierak duen hots "txalapartaria", silaba zatiketari zor zaio eta holanderaren hots "gangailaria" (gure iritzirako bederen), dardarkari ubularra (#4.7) eta arnaskari belarren erabilerak (#4.8.) sortzen du. Oro har, baina, "hots artikulaketaren araberrako" iruzkinok ezin daitezke zehatzegiak izan. Ingelesezt (frantsesezt edo alemanieraz ez bezala), masaila atzeratzen dugu; Ameriketako erdi eta mendebaldeko ingelesak badu mihi punta altxatzeko joera nabaria. Alemanierak eta frantsesak (ingelesak ez bezala) masaila aurreratzen dute eta indartsuago eragiten diete giharrei - alemanierak zirkin luze eta bat-batekoetz, frantsesak zirkin laburrago eta zehatzagoetz, bereziki ahoaren aurrealdean. Danierak erdialdera bildu ohi ditu giharrak. Honelako iruzkinak lagungarri gerta daitezke ahoskera ulertu edo antzeratu nahi denean, baina ilun samarrak dira, eta ez oso egokiak. Laboratorioko fonetika behar dugu baieztapen zehatz eta oinarrituak nahi baditugu.

Dena den, hizkuntzetan garrantzitsuena ez dira sortzen diren hotsak. Hiztunaren zirkinak, haizean sortzen dituen irauliak eta entzulearen barne belarriaren dardarak (2.2. saileko B) ez dira, berez, axola handiko kontuak. Hizkuntzaren garrantzia, hiztunaren eragingarria (2.2. saileko A) entzulearen erantzunaz (2.2. saileko C) lotzeko duen ahalmenean datza. Lotura hau, ikusi dugunez (3.4), forma akustikoaren tasun gutxi batzuen araberrakoa da, fonemak deitzen ditugun tasunen araberrakoa, alegia. Hizkuntzari ekiteko behar den guztia, fonema bakoitza gainerako besteetatik nahasketarik gabe bereiztea da. Bereizkuntza hau betez gerozt, aldaeren aukera eta beren izate akustikoa ez dira axolazkoak. Hizkuntza oro, bere oinarritzko balioan bederen, argiro bereizten diren zeinuezt ordeztka daiteke, zeinu bakoitzak hizkuntzaren fonema bakar bat ordezkatzten badu. Hain zuzen ere, fonetikazko transkribaketa egoki batek egiten duena ordezkaketa hauxe dugu -fonema bakoitzerako sinbolo bakar bat erabiliaz, egokitasunak eta baliagarritasunak agintzen dutena betetzen duelarik. Bikaina ez bada ere, ohiko alfabeto idazkera ordezkaketa horretan saiatzen da, gure eguneroko helburuetarako egokia den era batean. Fonemaren garrantzia, beraz, ez datza bere hotsu-hinen antolaketan, baizik eta antolaketa honek hizkuntza bereko gainerako fonema guztien antolaketarekin duen aldean.

Arrazoi honengatik, bada, akustikaren ezagutzarik landuenak ere ez digu, berez, hizkuntzaren egitura fonetikoa eskainiko. Beti ere, hiztunentzat esanahiaren indarrez "berdintsu" edo "ezberdin" diren ezaugarri akustikoak zeintzu diren asmatu beharko dugu. Honetarako irizpide bakarrak, hiztunaren egoera eta entzulearen erantzuna ditugu.

Tasun bereizgarri eta bereizgaitzak banatzen ez dituen deskribapenak ezin digu hizkuntzaren egiturari buruzko gauza handirik esan. Honi dagokionez, bilketa mekanikoak ez ditu gertakari akustikoak desitxuratzen behintzat. Fonetikari trebe amorratuek eskuz egindako bilketa "zehatzak", biltzaileak halaberrez bereizten ikasi dituen axolagabeko bereizkuntza akustikoak, jaso ohi dituzte. Abiapuntu honetatik, guztiz hots egitura ezberdinak dituzten hizkuntza bitan "hots" multzo berberak aurki litezke. Adibidez, hizkuntza biek antzeko zazpi bokal "hots" ager litzakete, baina B hizkuntzan zazpiok fonema bereiziak izan daitezke, A hizkuntzan [ʔ] eta [c] hotsak [a] hotsaren aldaera bereizgaitzak izan litezkeelarik, eta [e, o] hotsak [i, u] hotsarenak. Hizkuntza biek bokal iraupen bi erakus lezakete, baina iraupenok A hizkuntzan bakarrik litezke fonemiko (alemanieraz legez), B hizkuntzan aldaera bereizgaitzak izaki. Biok ager litzakete herskari ahoskabe hasperendun eta soilak, A hizkuntzan fonema bereiziak direlarik, eta B hizkuntzan aldaera bereizgaitzak. Biok, arnaskari ahostun sorta izan lezakete, B hizkuntzan bereizgarri eta A hizkuntzan bokal arteko herskarien aldaera bereizgaitz izanik.

Hizkuntzaren fonemak bakarrik dira axolazko bere egituraren -hau da, duten betebeharrean. Tasun bereizgaitzen deskribapenak interes handia izan lezake, baina orainarte egindakoa baino askoz osoago eta ugariagoa izan beharko luke.

6.2. Hizkuntza baten fonema zerrenda edo taulak, bada, tasun bereizgaitz guztiak alboan utzi beharko litzuke. Honelako zerrenda edo taulak fonetika sailkapen praktikoetan oinarrituz eratu ohi dira, honela:

Amerikar ingelesa (Chicago)

herskari, ahoskabeak	p	t	k
ahostunak	b	d	g
afrikatu, ahoskabeak			c
ahostunak		j	
arnaskari, ahoskabeak	f	ʔ	s β h
ahostunak	v	B	z ʝ
sudurkariak	m	n	ɳ
albokariak	l		
irauliak	r		
bokalerdiak		j	w
bokal goiak		i	u
erdi-goiak		e	o
erdi-beheak		ʔ	c
beheak	a	ʔ	

bigarren mailako fonemak:

indarra " ' ' "

indar silabagilea ,

doinualdia . ː ʔ ! ,

Honelako taulak, tasun bereizgaitzak alde batera uzten dituztenean ere, axolagabekoak dira hizkuntzaren egiturarako, fonemok, hizkuntzalariak egozten dizkien izate fisiologikoaren arabera sailkatzen dituelako, eta ez hizkuntzaren ibileran fonema multzoek duten eraginaren arabera. Gure taulak, esaterako, ez digu erakusten sudurkarietarikoa bik, [m] eta [n], indargabeko silabetan silabagune lana bete dezaketela, adibidez bottom ['bʔ tm] "hondo", button ['bɒtn] "botoi", hirugarrenak, [n] hotsak horrelakorik egiten ez duelarik. Ez digu erakusten [l] indargabeko silabetan bakarrik izan daitekeela silabagile, esaterako bottle ['bʔ tl] "botila", [r] fonema, indarra gora behera, beti silabagile izan daitekeelarik, learner ['lɜnr] "ikasle" hitzean legez. Ez digu erakusten zein bokal eta bokalerdi biltzen diren fonema elkartuak sortzeko. Honelako

egiturazko gertakariak erakutsi ahal izateko, hurrengo bezalako taula osagarria beharko genuke:

I. Lehen mailako fonemak:

A. Kontsonanteak, batzuetan edo sekula silabagile ez direnak:

1. Mutuak, sekula silabagile ez direnak: [p t k b d g |c |j f ? s β h v B z ¥ n]

2. Ozenak, batzuetan silabagile direnak:

a. Kontsonanterdiak, silabagiletasuna inguruak eta indar silabagileak erabakitzen du:

(1) Kontsonantoideak, indargabeko silabetan bakarrik silabagile: [m, n]

(2) Bokaloideak, silaba indardunetan ere silabagile: [r]

b. Bokalerdiak, silabagiletasuna artikulakerak ere erabakia; diptongogileak:

(1) Silabagile ez direnak: [j,w]

(2) silabagileak: [i, u]

B. Bokalak, beti silabagile:

1. Diptongo eta triptongoak, fonema elkartuak: [ij uw ej ow aj aw cj juw]

2. Bokal soilak: [e o ? c a ?]

II. Bigarren mailako fonemak:

A. Indar silabagilea, kontsonanterdiei ezarria: [']

B. Forma indarra, forma esanahitsuei ezarria:[" ' '']

C. Doinualdia, ahoskaldiaren bukaerari dagokiona:

1. Erdikoa:[,]

2. Bukaerakoa: [. ? !]

6.3. Fonemek gure hizkuntzaren egituran duten eragina, egiazki, hau baino askotarikoagoa da; izan ere, zeregin bera betetzen duten fonema bi ez daudela erakuts dezakegu.

Ahoskaldi orok, izatez, fonema silabagile bat biltzen duenez gutxienez, hizkuntzaren hots egitura deskribatzeko biderik soilena, silabagile ez diren fonema edo fonema taldeak ondoko hiru lekuetatik zeintzuetan ager daitezkeen baieztatzea da: hasierakoa, ahoskaldiaren lehenengo silabagilearen aurretik; bukaerakoa, ahoskaldiaren azken silabagilearen ondotik; eta erdikoa, silabagileen artean.

Honi dagokionez, diptongoek eta triptongoek, bokal soilak betetzen duten lan bera egiten dute ingelesez; gertakari honek garamatza, izan ere, fonema elkartu gisa sailkatzera, fonema sail huts legez sailkatu beharrean.

Kontuak errezteko, egiturazko jokabide honetan inolako berezitasunik erakusten duten fonema edo fonema taldeen aurretik zenbaki bat jarriko dut.

Has gaitezen silabagile ez direnak jorratuz, hasieratik ikusten dugu fonema bik ez diotela sekula hasiera ematen ahoskaldiari; (1) [n, ¥] ditugu. Forma arrotzak albora uzten ditugu, adibidez Jeanne [¥an] izen frantsesa.

Areago, hasierako lekuan ager daitezkeen eta silabagile ez diren fonemetarik sei ez dira inoiz hasierako multzo batean agertzen: (2) [v, B, z, |c, j, j].

Hasierako multzo guztiak silabagile ez diren ondoko fonemekin hasten dira: (3) [p, t, k, b, d, g, f, ? , s, β, h] Hemen, egituraren arabera sailkapena bat dator gure fisiologiazko deskribapenarekin, gure (3) egiturazko atalak herskari eta arnaskari ahoskabeen multzoa biltzen baitu zehazki.

Taldearen lehenengo kontsonantea (4) [s] bada, (5) ataleko batek jarrai lezake [p, t, k, f, m, n], adibidez spin "itzuli(katu)", stay "egon", sky "zeru", sphere "esfera", small "txiki", snail "marraskilo".

Bestalde, (3) multzoko hasierako guztiak eta (4) [s] eta (6) [p, t, k] multzoko konbinaketak (7) ataleko ale bat izan dezakete ondotik [w, r, l], ondoko murrizketekin:

(8) [w] ez da inoiz (9) [p, b, f, β] ondoren agertzen, eta inoiz ez (4) [s] eta (10) [t] konbinaketaren ondotik. Gertatzen diren multzoak, beraz, hitz hauek erakusten dituzte:

twin "bizki", quick "azkar", dwell "egoitza izan", Gwynne, thwart "ipotx", swim "igeri egin", when [hwen] "noiz", squall "deihadar egin".

(11) [r] ez dator inoiz (12) [s, h] fonemen ondotik. Multzoak, beraz, honako hitz hauekin hasten dira: pray "otoitz egin", tray "erratilu", crow "bele", bray "arrantza egin", dray "gurdi", gray "urdin", fray "igurtzi", three "hiru", shrink "txikitu", spray "hedatu", stray "galdu", scratch "hatz egin".

(13) [l] ez darraikio inoiz (14) [t, d, ʔ, β, h] fonemei, ez eta (4) [s] eta (15) [k] konbinaketari. Multzoak, bada, hitz hauetan agerten dira: play "jostatu", clay "bustin", blue "urdin" glue "lekeda", flew "ihes egin (iraganaldia)", slew "hil (iraganaldia)", split "erdibitu".

8.4. Bukaerako multzoei ekingo diegu hurrengo. Fonema bera birritan elkarturik onartzen ez duen arau orokorra jarraitzen dute hauek: ez daude [ss] edo [tt] bezalako bukaerako multzoak. Arau hau hasierako multzoetan ere betetzen da, eskaini dugun deskribapenean ikus daitekeenez, baina, ikusiko dugunez, erdiko multzoek ez dute betetzen.

Bokal eta [j] edo [w] konbinaketak, fonema elkartutzat (diptongotzat) hartzea erabaki dugu eta, beraz, ezin ditzakegu konbinaketa hauetako bokalerdiak silabagile ez diren bukaerako fonematzat edo multzo ataltzat hartu. Ondorioz, adibide hauek baztertzen baditugu (esaterako say [sej] "esan" edo go [gow] "joan"), (16) [h, j, w] fonemak bukaerako multzoetan edo bukaerako hots ez-silabagile bezala sekula agertzen ez direla ikusten dugu. Silabagile ez diren gainerako guztiak betebeharrak bi hauetan agertzen zaizkigu.

Ingeleseko bukaerako multzoek silabagile ez diren fonema bi, hiru edo lau bil ditzakete. Konbinaketok deskribatzeko erarik soilena, multzo bakoitzak bukaerako kontsonante nagusi bat duela esatea da, kontsonante nagusi honek bukaera aurreko kontsonante bati jarraitzen diola, eta bukaera aurrekoari bukaera aurreko bigarren kontsonanteak ere jarraitzen diola; areago, bukaerako nagusiaren ondotik, bukaera-ondokoa ager daiteke. Honek guztiak sei aukera eskaintzen dizkigu:

Bukaera-ondokorik gabe Bukaera ondokoarekin

bukaerako nagusia

bakarrik: bet [-t] "postura" bets [-ts] "posturak"

bukaera-aurrekoa

gehi bukaerako nagusia: test [-st] "azterketa" tests [sts] "azterketak"

bukaera-aurreko

bigarrena gehi bukaera-

aurrekoa gehi bukaerako

nagusia: text [-kst] "testu" texts [-ksts] "testuak"

Bukaera-aurreko legez ager daitezkeen kontsonanteak (17) [t, d, s, z] ditugu. Test edo text bezalako formetan, bukaerako nagusi deritzogu [-t] fonemari, tests eta texts bezalako formak badirelako, zeinetan ondoko kontsonantea (bukaera ondokoa) gehitzen baita, baina wished [wiβt] bezalako forma batean, bukaera ondoko deritzogu [-t] hotsari, [-βt] multzoak ez duelako ondoko kontsonantearen gehitzeaz eratzen den multzo kiderik: ez daukagu [-βts] bezalako bukaerako multzorik, alegia.

Hiru baldintza garrantzitsuk murrizten dute bukaera-ondokoen agerpena. (19) [p, t, k, ʃ, f, ʔ, s, β] bukaerako nagusien ondotik, bukaera-ondoko (18) [t, s] fonemak bakarrik ager daitezke; eta (21) [ʃ, j, s, z, β, ʔ] bukaerako nagusien ondotik, (20) [t, d] bukaera ondokoak bakarrik. Ohar bedi (19) multzoa, [h] fonemagatik izan ezik, hots ahoskabeen multzo fisiologikoarekin bat datorrela, eta (21) multzoak frikari eta arnaskariaren multzo fisiologikoa biltzen duela. Murrizketa hauek sei multzotan banatzen dituzte bukaerako nagusiak:

(19) multzokoei, [t,s] fonemek jarrai diezaiekete, baina (21) multzokoei ez, adibidez [p] help, helped, helps "lagundu";

ez (19) eta ez (21) multzokoei ezin jarrai diezaiekete [d, z] hotsek, adibidez [b], grab, grabbed, grabs "harrapatu";

(21) multzokoei [d] hotsak bakarrik jarrai diezaieke, (19)koei ez bezala, adibidez [j], urge, urged "premiazkoa izan";

(19) multzoan, baina ez (21)ean, [t] fonemari [s] fonemak bakarrik jarrai diezaioke, bikoizketa galera duen arauaren arabera, adibidez wait, waits "itxaron";

arau beragatik, [d] fonemak, ez (19) eta ez (21) multzoetan, ezin dezake [z] bakarrik izan ondotik, adibidez fold, folds "tolestu".

Goazen orain bukaera aurrekoetara. Kontsonante nagusiak (22) [g, B, ʒ, n, r] ez dira sekula beste bukaera-aurreko batekin agertzen, eta (23) [b, g, ʃ, j, v, β] kontsonanteak ez dira inoiz bukaera-aurreko bezala agertzen. Gelditzen diren konbinaketak ondoko baldintzen mende daude:

(24) [l, r] bukaera aurrekoak ez dira (25) [z] bukaerako nagusiaren aurretik agertzen. Onartzen dituzten elkarketak, bada, ondoko adibideetan agertzen direnak ditugu: harp "arpa", barb, heart "bihotz", hard "gogor", hark, march, barge, scarf "zapi", carve, hearth, farce, harsh, arm "beso", barn "korta"; help "lagundu", bulb, belt "gerriko", held, milk "esne", filch, bilge "okertu", pelf "ondasun", delve "ekin", wealth "aberastasun", else "beste", Welsh "galestar", elm "zumar", kiln "labe".

Bukaera aurreko (25) [n], (27) [t, d, ʃ, j, ʔ, s, z] bukaerako nagusien aurretik bakarrik ager daiteke, adibidez ant "inurri", sand "are", pinch "txitximurka", range "aukera", month "hile", once "behin", bronze "brontze".

Bukaera aurreko (28) [m], (29) [p, t, f, ʔ] bukaerako nagusien aurretik bakarrik agertzen da, adibidez camp "akanpatu", dreamt "amets egin (iraganaldia)", nymph "ninfa"; (30) [ʔ] hotsarekiko elkarteak, (11) [r] bigarren bukaera aurrekoarekin azaltzen da: warmth "berotasun".

(31) [n] bukaera aurrekoa, (32) [k, ʔ] hotsen aurretik agertzen da bakarrik, esaterako link "lokarri", length "luzera".

Bukaera aurreko (4) [s], (6) [p, t, k] aurretik agertzen da bakarrik, adibidez wasp "liztor", test "azterketa", ask "galdetu". Bestetik, (10) [t] aurretik badator, (15) [k] bigarren bukaera aurrekoaren ondotik ager daiteke, adibidez text "testu".

(33) [B, z] bukaera aurrekoak, (28) [m] bukaerako nagusiaren aurretik bakarrik agertzen dira, rythm, "erritmo", chasm "amildegi".

(10) [t] bukaera aurrekoa, (34) [ʔ, s] bukaerako nagusien aurretik agertzen da bakarrik, adibidez eighth [ejtʔ], "zortzigarren", Ritz (erka bedi kaleko ritzed "baztertu" hitzarekin, bukaera ondoko [t] gehituta). Quartz "kuartzo" adibidean, (4) [s] bukaerako nagusiarekiko konbinaketa, (11) [r] bigarren bukaera-aurrekoarekin ere azaltzen da.

(35) [d] bukaera aurrekoa, (36) [ʔ, z] aurretik azaltzen da bakarrik, adibidez width "zabalera", adze "aitzur".

(37) [p, k] bukaera aurrekoak, (18) [t,s] bukaerako nagusien aurretik agertzen dira bakarrik, adibidez crypt "kripta", lapse "igaro", act "ekintza", tax "zerga". Bi hauetarik, (4) [s] bukaerako nagusiaren aurretiko (15) [k] bukaera aurrekoa, (31) [n] bigarren bukaera aurrekoarekin ager daiteke, adibidez minx "lotsagabe" (erka bedi, bukaera ondoko [t] gehituaz, kaleko jinxed [ʃjinskt] "zoritxarra ekarri"); bestea, [p] alegia, (28) [m] bigarren bukaera aurrekoaz azaltzen da: glimpse "begiratu", tempt "tentatu".

(38) [f] bukaera aurrekoa, (10) [t] aurretik ager daiteke bakarrik, adibidez lift "jaso". Erdiko ez-silabagileak ingelesez, bukaerako eta hasierako konbinaketa guztiak ditugu, silabagileak bakarrik dituen hiatus delakotik hasita, esaterako saw it [ʃsɪt] "hura

ikusi", eta [-mpst str-] multzoak agertzen dituzten glimpsed "begiratu (iraganaldia)", strips "erantzten du" adibideetaraino, tartean fonema beraren errepikaketak aurkitzen ditugularik, that time [-t t-] "garai hura", edo ten nights [-n n-] "hamar gau".

8.5. Ez-silabagilez osatutako 38 multzo funtzional aztertzea nahikoa izango da, sailkapen hau gure hizkuntzako ez-silabagile guztietarako egokia dela erakusteko. Era berean, gure fonema silabagile guztiak, edo gehienak, gure hizkuntzaren egituraren betetzen dituzten zereginen arabera zehatz daitezke. Ingeles arrunt mota ezberdinak fonema silabagileen banaketan arabera bereizten direnez gero, aurkitzen diren eredu gutxi batzuk baino ez ditut aipatuko.

Kontsonanterdietatik, [r,] bakarrik agertzen zaigu silaba indardunetan; ez da sekula [r] aurretik agertzen. Hasierako lekuan inoiz agertzen ez delako bereiz genezake [u] bokalerdi silabagilea, eta erdiko lekuan, [t, k, d, s, β, l] aurretik bakarrik ager daiteke, adibidez put "ipini", took "hartu zuen", wood "zur", puss "katu", push "bultzatu", pull "sakatu"; [f, m] aurretik ere ager daiteke, adibidez roof "sabai", room "gela", baina honelakoetan, dotoreago den [uw] aldaeraren ondoan beti. Ez [i] eta ez [u] ere, ez dira bukaerako lekuan inoiz agertzen.

Bokaletatik, [ʔ, ʔ] ez dira bokalerdien aurretik agertzen (diptongo konbinaketetan), eta [c] ez da [w] aurretik ematen. Bukaerako lekuan, [c, a] ager daitezke bakarrik, adibidez saw "ikusi zuen", ma "ama". [a] bokala, [ʔ, m, r] aurretik ager daiteke bakarrik, adibidez garage "garaje", calm "bare", far "urrun", eta erdiko [B] aurretik, adibidez father "aita". [i, e, ʔ, ʔ] fonemak, ondoren beste bokal bat badator bakarrik ager daitezke [r] aurretik, adibidez spirit "izpiritu", herring "sardintzar", marry "ezkondu", sorry "damu"; [o] fonema [r] aurretik ager daiteke delako [r] hori bukaera aurrekoa denean bakarrik, adibidez horn "adar", horse "zaldi", north "ipar"; ahoskera askotan, ez dago [or] elkarketarik. [c] bokala [r] aurretik ager daiteke, baina bakarrik [w] agertzen bada lehenago, adibidez war "guda", dwarf "ipotx". [a] bokala [g] aurretik agertzen da [c] bokalaren aldaera bitxi gisa bakarrik, adibidez log "enbor", fog "laino". Diptongoetatik, [ij, ej, ow] bakarrik ager daitezke [rs] aurretik, adibidez fierce "betizu", scarce "urri", course "ildo"; gainerako bukaera aurreko [r] fonemaz osatutako elkarketan aurretik, zilegi diren diptongo bakarrak, [ow] batetik eta dialekto doinua duten hitz gutxi batzuetan [ej] bestetik: cord "soka", fork "sardexka", torn "urratu", laird "gizen", cairn "harri mordo". Bukaera aurreko [l] aurretik, zilegi diren diptongo bakarrak [ij, aj, ow] ditugu, eta lehenengo biak [d] hotsak jarraitzen dienean bakarrik ager daitezke, adibidez field "landa", mild "bigun", old "zahar", colt "zaldiko". Bukaera aurreko [n] aurretik, [aj, aw] azal daitezke bakarrik askatasunaz, esaterako pint "pinta", mount "igo", bind "lotu", bound "mugatu"; [cj, ej] diptongoak, [t] fonemak jarraitzen dienean ager daitezke, adibidez paint "pintatu", point "puntu". Diptongoak ez dira [n] aurretik agertzen.

[juw] triptongoa, [j] gehi bokal edo diptongo elkarte arruntetatik bereizten da (yank "yanki", year "urte", Yale), hasierako kontsonanteen ondotik ager daitekeelako; [p, k, b, g, f, h, v, m, n] ondotik agertzen da, adibidez pew "eliz banku", cue "aztarna", beauty "edertasun", gules "guleak", few "gutxi", view "ikuspegi", muse "musa", new "berri", hala nola [sp, sk] multzoen ondotik, adibidez spew "bota", skew "zeharka"; [n] ondotik, bada [juw] ahoskatu beharrean [uw] egiten duen aldaera ez hain jasoia, baina, bestalde, [juw] ahoskera dotorean, [t, d, ʔ, s, l, st] ondotik agertzen da, ahoskera arruntagoa [uw] delarik, adibidez tune "doinu", dew "ihintz", thews "indar", sue "auzitara eraman", lute "arrabita", stew "lapikoko".

Hizkuntzaren gramatika egiturak, hurrenkeraren arabera zehatz daitezkeen multzoak osatzen dituzten fonema elkarketak agintzen dituela ikusiko dugu (#11.6).

6.6. Egitura ereduak asko aldatzen dira hizkuntzaz hizkuntza, eta askotariko fonema elkartuak bereiztera garamatza. Alemanierak, adibidez, badu, orokorrean, ingelesalakoxea den egitura antolaketa, hainbat bereizkuntza harrigarriekin ordea. Esaterako, [p, d, g, v, z] arnaskari eta herskari ahostunak ez dira inoiz bukaerako lekuan agertzen. Hasierako multzoak oso era soilean deskriba daitezke [pf, ts] afrikatu-elkarketak fonema elkartutzat hartzen baditugu, adibidez Pfund [pfunt] "libera", zehn [tse:n] "hamar", zwei [tsvaj] "bi". Diptongo bakarrak [aj, aw, oj] dira; atal honi dagokionez ageri den egituraren soiltasunak [ai, au, oi] bezala transkribatzera daramatza hainbeste fonetikolari, ezin baita nahasterik sortu. Frantsesaren sistema, bai azaltzen diren multzoetan, eta bai alor orokorragotan ere, bereizten da. Diptongoak goranzkoak dira, adibidez [jʔ, wə]. Bereizkuntzarik nabariena, [e] bokal fonemaren erabileran datza, bere agerpena hots ereduak erabakitzen baitu neurri handi batean, lehen mailako fonema baino, bigarren mailako fonemaren jokabidea duelarik. [e] fonema, bera ezean zilegi ez den kontsonante multzoa biltzen den guztietan erabiltzen da. Honela, le chat [le ʃat] "katua" esaldian ageri zaigu, [lβ] ez baita hasierako multzo bezala zilegi, baina ez l'homme [l cm] "gizona" adibidean, multzorik sortzen ez delako. Cheval [β val] "zaldi" hitzean ageri da, [βv] multzoa ez delako hasieran zilegi, baina multzo hau erdiko lekuan onargarria delarik, batek un cheval [œⁿ βval] "zaldi bat" ahoskatzen du. Erdiko multzoak, gehienbat, kontsonante bitara murrizten dira; honela, [rt] zilegi da bukaerako multzo gisa, adibidez porte [pcrt] "darama", baina hasierako kontsonante batek jarraitzen badio, [e] tartekatzen da, adibidez porte bien [pcrte bjʔ n] "ongi darama". Eredu guztiz ezberdina agertzen zaigu Zabaldietako Kreeran. Egiturak bost multzotan banatzen ditu fonemak: (1) Bokalak [a, a:, e:, i, i:, u, o:]: hauexek dira fonema silabagile bakarrak; (2) lau motatako kontsonanteak: herskariak [p, t, k], [c] afrikatua barne dela; arnaskariak [s, h]; sudurkariak [m, n]; bokalerdiak [j, w]. Hasierarako aukerak hauek dira: kontsonanterik ez; edozein kontsonante; herskaria, arnaskaria edo sudurkaria eta bokalerdia. Erdiko lekurako aukerak: zeinahi kontsonante; herskaria, arnaskaria, edo sudurkaria eta bokalerdia; arnaskaria gehi herskaria, arnaskaria gehi herskaria gehi bokalerdia. Bukaerarako aukera bakarra kontsonante bat da. Fox hizkuntzak, antzeko eredu agertzen duenak, ez du bukaerako kontsonanterik onartzen: ahoskaldi guztiak bokal labur batean bukatzen dira.

Ingelesa kontsonante multzoetan bereziki aberatsa den arren, erreza da multzo gehiago aurkitzea; adibidez, alemanierak dituen hasierako [pf-, pfl-, pfr-, ts- tsv-, sv, kn- gn-] multzoak, esaterako Pfaume ['pflawme] "okaran", schwer [βve:r] "astun", Knie [kni:] "belaun", edo errusierazko multzoak, [tku] "iruten dut", [mnu] "estutzen dut", [βcɪ] "aza zopa", [lβcu] "zuritzen dut". Ingeleseztik arrotzak diren bukaerako multzoak, alemanierazko Herbst [herpʃt] "udazken" eta errusierazko [borβc] "barazki zopa" hitzetan aurki ditzakegu.

6.7. Fonemak esanahiaren aldetik eragina duten alerik txikiak lege zehaztu ondoren, gehienetan fonema bakoitza areago zehatz genezake hizkuntz formen egitura ereduaren betetzen duten zereginaren arabera. Egitura ereduak, bereziki, fonema bi edo gehiagoren hurrenkera diruditen arren, fonema bakar baten jokabidea duten fonema elkartuak bereiztera garamatza ere, eta akustikazko alderik ñimiñoenak, hala nola, ingelesez [r, l, m, n] fonemek indar silabagilea eramateak, edo [j, w] fonemek erakusten duten beren [i, u] kide silabagileek baino tinkotasun handiagoak, fonema bereziak sor ditzakete.

Honela zehaztutako fonemak, zeinugintzako aleak ditugu; hizkuntzaren forma esanahitsuak, lehenengo eta bigarren mailako fonemen atonketak direla esan daiteke. Hizketaldi luzea jasotzen badugu, fonemen eta fonema elkarketen maiztasuna zenba genezake. Hizkuntzalariek eginkizun hau baztertu eta, zaletuek burutu izan dute, era desegoki batean, fonemak eta inprimaturiko hizkiak nahastuaz. Testuaren fonema

kopuru osoa ehuneko ehuntzat hartuta, ingeleserako egin berri den zenbaketa batek ondoko maiztasun portzentaiak erakusten dizkigu kontsonante fonemetarako:

n 7,24 B 3,43 p 2,04 g 0,74

t 7,13 z 2,97 f 1,84 j 0,60

r 6,88 m 2,78 b 1,81 |c 0,52

s 4,55 k 2,71 h 1,81 |j 0,44

d 4,31 v 2,28 n 0,96 ? 0,37

l 3,74 w 2,08 ß 0,82 ¥ 0,05

[r, l, m, n] fonemetarako kopuruek silabagile betebeharra dutenetako agerpenak biltzen dituzte; [j] eta [w] fonemetarakoek ez dituzte fonema hauek diptongo edo triptongoetako kideak direnetako agerpenak biltzen. Bokal fonemetarako, zenbaketa nahasgarriegia da zuzenean irakurri ahal izateko. Dirudienez, [e] da erabiliiena, ehuneko zortzitik gorako maiztasunaz; hurrengo [ij] dator, ehuneko seitik gora; gero [?] ehuneko 3.5 maiztasunaz. Fonema multzoetarako kopuruak ez dira erabilgarriak. Zenbaketa honetatik, eta are antzekoetatik ere, begi bistakoa da hizkuntza bateko fonemek maiztasunaren aldetik jokabide bereziak dituztena. Areago, dirudienez bada antzekotasunik hizkuntzen artean; honela, herskari mota bi darabiltzaten hizkuntzetan, gure [p, t, k] eta [b, d, g] kasu, ahoskabea den herskaria bere kide ahostuna baino maizago agertzen da -adibidez [t] herskaria [d] baino maizago. Honi buruz, ikerketa sakona beharko litzateke.

6.8. Hizkera-hotsak aztertzeke hiru bide ikusi ditugu. Fonetikak, bere zentzurik hertsienean -laboratorio-fonetika alegia-, osoro akustikazkoa edo fisiologiazkoa den deskribapena eskaintzen digu. Akustikazko ezaugarri nagusiak erakusten ditu. Eguneroko fonetikagintzan, laboratoriko fonetikalariak bere hiztun ezagutzak fonema baten ezaugarritzat hartzen duen tasunen bat aukeratzen du ikerketarako. Fonetikagintza, trebetasuna edo artea da, ez zientzia; fonetikalariak zuzenean onartzen du hots-aleen eguneroko banaketa, eta hiztunak nola eratzen dituen asmatzen saiatzen da. Fonologia deitura kontrajarri ohi zaio batzuetan fonetikagintza mota bien aurrean: fonologiak ez dio garrantzirik ematen fonemen akustikazko izateari, besterik gabe ale berezitzat hartzen ditu. Fonema bakoitza, hizkera formen egituran duen jokabidearen arabera zehazten du. Garrantzitsua da gogoratzea fonetikagintzak eta fonologiak esanahien ezagutza behar dutela aldeztu aurretik: ezagutza hau gabe, ezingo genituzke tasun fonemikoak zeindu.

Hizkuntzaren deskribapenak, bada, fonologian du hasiera, honek fonema bakoitza zehaztu eta zein elkarketetan ager daitekeen azaltzen duelarik. Hizkuntza batean azaltzen den edozein fonema konbinaketa, ahoskagaia da hizkuntza honetan, eta hots forma da. Adibidez, [mnu] elkarketa ahoskagaitza da ingelesez, baina [men] elkarketa ahoskagaia eta hots forma dugu.

Hizkuntza baten fonologia erabaki denean, forma fonetiko ugariei zein esanahi dagokien adierazteko lana gelditzen da. Deskribapenaren maila honi semantika deritzaitaio. Zati bitan banatu ohi da, gramatika eta lexikoia.

Esanahia duen forma fonetiko hizkuntz forma da. Honela, edozein ingelesezko perpaus, esaldi, edo hitz, hizkuntz forma da, hala nola esanahia duen silaba bat, adibidez maltreat "gaizki hartu" hitzeko [m? l] (mal- "gaizki"), edo Monday "astelehen" izenezko [mon] (moon/mon- "ilargi"); forma esanahidunak fonema bakarra izan dezake ere, hala nola "bat baino gehiago" esanahia duen [s], hats "txapelak", books "liburuak" pluraleko formetan legez. Hurrengo kapituluetan, esanahia hizkuntz formei nola lotzen zaien ikusiko dugu.

Oharrak

6.1. Hizkuntza bi, guztiz antzeko hotsak dituztenak, baina guztiz hots egitura ezberdinak adibide gisa: E. Sapir in Lg 1.37 (1925).

6.2. Fonemen maiztasun erlatiboa: Dewey; Travis 233; Zipf. Zipfen ondorioak ez dirudite bere datuetan ongi oinarrituak; ikus baita ere Harvard studies-en 40.1 argitaratutako ikerketa (1929).

7

ESANAHIA

7.1. Hizkera hotsak esanahiari begiratu gabe aztertzea, abstrakzioa da: egiazko usadioan, hizkera hotsak zeinu gisa ahoskatzen ditugu. Hizkuntz-forma baten esanahia, hiztunak sortzen duen egoera eta entzulearengandik eskatzen duen erantzun gisa zehaztu dugu. Hitztunaren egoera eta entzulearen erantzuna hertsiki elkarloturik daude, gutariko orok hitzun edota entzule gisa aritzen ikasten baitugu. Ondoko kausazko hurrenkeran, hitzunaren egoera ? hizkera ? entzulearen erantzuna

hitztunaren egoerak, katearen lehen maila delarik, entzulearen erantzunak baino izaera soilagoa ageri ohi du; beraz, hitzunaren eragingarriaren arabera zehaztu eta eztabaidatu ohi ditugu esanahiak.

Gizalagunak hitz egitera bultzatzen duten egoerek beren unibertsoko gauzaki eta gertaera oro biltzen dute. Hizkuntza bateko forma guztien esanahien zientziatzko zehazpen egokia eskaini ahal izateko, hitzunaren munduko ororen zientziatzko ezagutza zehatza beharko genuke. Honekin erkatuta, giza ezagutzaren oso hedadura murriztua dugu. Dagokion gaiari buruz zientziatzko ezagutza dugunean zehatz dezakegu, era egoki batean, hizkuntza forma baten esanahia. Meen izenak, adibidez, kimika eta mealaritzaren bitartez zehatz ditzakegu, eta gatz hitzaren esanahi arrunta "sodio kloruroa (NaCl)" dela diogu, eta landare edo animalien izenak botanika eta zoologiako deitura teknikoen bitartez zehatz ditzakegu, baina ez daukagu maitasun edota gorroto hitzentzako zehazketabide zuzenik, zehazki sailkatu gabeko egoerei baitagozkie -eta azken adibideok gehiengo nagusiaren parte ditugu.

Areago, zientziatzko sailkapena (hots, unibertsalki onartu eta egokia) daukagunean ere, sarri asko, hizkuntzaren esanahiaik sailkapen honekin bat ez datozela ikusten dugu. Baleari, alemanieraz, "arrain" esaten zaio: walfisch, eta saguzarrari "sagu" [euskaraz ere gertatzen den bezala]: fledermaus. Fisikariek kolore espektroa luzera ezberdinetako argi uhin segida etengabea dela diote, luzera tarte milimetroaren 40 ehunmilakotik 72 ehunmilakorakoa delarik; baina hizkuntzek etengabetasun honetan hainbat zati bereizten dituzte arras arbitrarioki, eta muga zehatzik gabe, more, urdin, berde, hori, laranja, gorri eta antzeko kolore deituren esanahietan, eta hizkuntza ezberdinetako kolore izenek ez dituzte zatiketa berak biltzen. Pertsonen arteko senidetasunak arazo erraza dirudi, baina hizkuntzaz hizkuntza ageri diren senidetasun deiturak oso zailak dira aztertzeko orduan.

Esanahien itxuraketa, bada, hizkuntza-azterketako gunehula dugu, eta horrela iraungo du giza ezagutzak gaurko egoeraz areagoko aurrerapauso handiak egin arte. Eguneroko ibilbidean, hizkuntza forma baten esanahia, ahal dugunean, beste zientzia baten arabera zehazten dugu. Hau ezinezkoa denean, ordea, bestelako erdibidetara jotzen dugu. Horietariko bat, erakustea dugu. Baten batek sagar hitzaren esanahia ezagutuko ez balu, sagar bat emanaz edo sagar bat erakutsiz argi geniezaioke ezjakintasuna, eta honela jakatuko genuke, errurik egiten duen bitartean, sagarrak emanez eta erakutsiz, hitza ohiko eran erabili arte. Honela ikasten dute umeek hizkera formen erabilera, azken batean. Galdetzaile batek gure hizkuntza nahikoa ondo ulertuko balu, zirkunlokuzio edo itzulinguruaren bidez azal geniezaioke sagar hitzaren esanahia -hau da, gure hiztegien erara, sagar hitzaren egoera bera bete dezaketen hitz esaldi sortaren bidez, esaterako: "Ongi ezaguna den haragi sendo eta azal leundun Malus jeneroko arbolaren fruitu biribilxka, garraztasun maila, neurri, forma eta kolorearen aldetik askotarikoa izan

daitekeena". Bestela, galdetzailearen hizkuntza nahikoa ondo ezagutuko bagenu, itzulpena erabil genezake -hots, bere hizkuntzako kiderik hurbilena adieraziaz; frantsesak bagina, adibidez, pomme eskain genezake sagar hitzaren esanahitzat. Zehazketa bide hau hiztegi elebidunetan ageri dena da.

7.2. Zeinahi hizkera forma ahoskatzera garamatzan egoerak askotarikoak ditugu; filosofoek diotenez, hain zuzen, ez da berdintsu den egoera bikoterik. Gutariko bakoitzak, sagar hitza, garai ezberdinetan darabilgu, ahogozoz, usainez, kolorez, formaz, neurriz eta abarrez ezberdinak diren fruituak izendatzeko. Kasu errez batean, hala nola sagar hitzarenean, hizkera elkarteko partaide guztiek, txikitandik, dagokion egoerak (edo darabilgun kasu honetan, delako gauzakiak) nolabait zehazgarriak diren ezaugarriak agertzen dituenean, delako hizkera forma erabiltzen ikasi dute. Honelakoetan ere, gure erabilera ez da guztiz bateratua, eta hizkera forma gehienek ez dituzte honen esanahi zehatzak. Alabaina, garbi dago egoeran bereizgarri ez diren ezaugarriak, hala nola sagar jakin baten neurriak, formak, koloreak eta abar, bereizgarri direnetatik banatu behar ditugula, hots, hizkuntz esanahia (semantika ezaugarriak), hizkera forma ahoskatzea agintzen duten egoera guztiek komunean dituztenak, hala nola euskaldunok sagar hitza erabiltzean izendatzen dituzten gauzaki guztiek komunean dituzten ezaugarriak.

Gure azterketa forma eta esanahiaren ezaugarri bereizgarriez arduratzen denez, aurrerantzean hizkuntzazko edo bereizgarri lagungarriak bazterrean utziko ditut, eta formak eta esanahiak aipatuko ditut bakarrik, bereizgarri ez diren ezaugarriei jaramonik egin gabe. Forma batek bere esanahia adierazten duela esan ohi da.

7.3. Hizkuntzaren forma bakoitzari dagokion esanahiaren zehazpen egokia bagenu ere, aurkituko genuke bestelako zailtasunik. Egoera ororen garrantzizko atal bat hiztunaren gorputza bera dugu. Honen baitan, noski, bere kirio sistemaren joera, bere une hartararteko esperientzia guztiei zor zaiena, bai hizkuntzazkoei eta bai bestelakoei ere -jaio aurretiko eta heredentziazko baldintzak ez aipatzearren. Kanpo egoera idealki berdintsu gorde ahal izan bagenu ere, eta hiztun ezberdinak bertan kokatu, ezingo genuke, hala ere, hiztun bakoitzak berarekin dakarrena neurtu, eta, ondorioz, ahoskatuko lituzkeen hizkera formak auresateko gauza ezingo ginateke izan, ez eta ere hizkera formarik ahoskatuko lukeenik asmatzeko.

Zehazpen guztiz egokiak bagenitu ere, ahoskaldi askotan hiztuna guk zehaztutako egoeran ez dagoela ikusiko genuke. Maiz, jendeak sagar hitza erabiltzen du inguruan sagarrik ez delarik. Honi hizkera lekutua dei diezaiokegu. Hizkera lekutuaren maiztasun eta garrantzia begi bistakoa da. Gogora dezagun "babak" eskatzen zituen umea (#2.5). Berandututako hizkerak hizkuntzaren erabilera guztiz garrantzitsua osatzen du: A hiztunak sagar batzuk ikusten ditu eta ikusi ez dituen B hiztunari aipatzen dizkio; B hiztunak C-ri igarotzen dizkio berriak, C-k D-ri, D-k E-ri eta abar eta abar, eta agian pertsona hauetariko inork ez ditu sagarrok ikusi, azkenean X hiztuna bertara joan eta jaten ditueneko. Beste modutara ere, ohiko eragingarria aurrean ez dugunean, dagozkion hizkuntza formak ahoskatzen ditugu. Goseak dagoen eskaleak, atarian, gose naiz dio, eta etxekoandereak jana ematen dio; gertaera honek, diogunez, gose naiz hizkera formaren oinarritzko edo hiztegi esanahia osatzen du. Ume mainati batek, oherakoan, gose naiz dio, eta bere amak, ongi ezagutzen duelarik, ohera bidaltzen du zuzenean. Hona hizkera lekutuaren adibide bat. Aipagarria da arrotz batek gose naiz formaren esanahiaz galdetuko balu, bai umeak eta bai amak, gehienetan bederen, hiztegi esanahiaren arabera azalduko lioketeela. Gezurra, ironia, txantxa, poesia, kontakizunak eta antzekoak, hizkuntza bezain zahar eta hedatuak dira ziurrenik. Formaren hiztegi esanahia jakin bezain agudo, hizkera lekutuan erabiltzeko gai gara; hizkuntza arrotzen hiztegi eta eskuliburuak hiztegi esanahia eman behar digute soilik. Hizkera lekutuaren

erabilerak, era arras bateratuan, beren oinarritzko baliotik eratortzen dira, eta ez dute eztabaida berezirik merezi; hala eta guztiz ere, egoera jakin batean hiztun batek ahoskatuko dituen formei buruzko gure ezjakintasuna areagotu egiten dute.

7.4. Mentalismo psikologiazaleek esanahiak zehazteko zailtasuna saihestu dezaketela uste dute, zeren, haien iritziz, hizkera formaren ahoskaketa aurretik, bada hiztunaren baitan fisikoa ez den gertaera bat, pentsamendua, kontzeptua, irudia, sentimendua, gogo ekintza edo antzekoa, eta entzuleak, era berean, hots-uhinak jasotzean, antzeko edo balio bereko gogo prozedura jasaten baitu. Mentalismozaleak, bada, hizkera formaren ahoskatze edo entzutearekin, hiztun-entzule ororen barnean ematen den gogo gertaera bezala zehatz dezake delako hizkera formaren esanahia. Sagar hitza ahoskatzen duen hiztunak sagar baten gogo-irudia izan du, eta hitz honek antzeko irudia sortzen du entzulearen gogoan. Mentalismozalearentzat, hizkuntza nahi, sentimendu edo ideien esapidea da.

Mekanismozaleak ez du aterabide hau onartzen. Bere ustez, gogo irudiak, sentimenduak eta abar, hainbat gorputz mugimenduren deitura arruntak baino ez dira, zeinak, hizkuntzari dagokionez, hiru motatan bana baitaitezke:

- (1) jendartean antzekoak diren neurri handiko eragiketak, gizarte aldetik axolazkoak direnez hizkera forma ohituez adierazten direnak, adibidez gose naiz (haserre, beldur, damu, pozik; buruko mina dut, eta abar);
- (2) gizakiz gizaki ezberdinak diren gihar zirkin txiki eta guruin isuri ilun eta aldakorrak, gizarte aldetik ondorioz ez izanik, ohiko hizkera formez adierazten ez direnak;
- (3) aho organoen zirkin hotsak, hizkera mugimenduen lekua hartzen dutenak, baina inguruko lagunek nabari ezin ditzaketenak ("hitzetan pentsatzea" #2.4).

Mekanismozaleak (1) saileko jazoerak hiztunak beste edonork baino hobeki ikuska ditzakeen gertaeratzat dauzka; esanahiaren arazo ugariak, hala nola hizkera lekutuarena (gose naiz dioten ume mainatia), hemen ere gertatzen dira, beste sailetan bezainbat. Mekanismozaleak (2) saileko jazoerak heziketak eta gainerako esperientziek utzitako aztarna antzeko ohitura norberekoiak direla uste du; hiztunak irudi, sentimendu, eta abarren antzera aurkezten ditu, eta ez dira hiztunak hiztun bereizten soilik, baita egoeraz egoera ere. "Sagar baten gogo irudia izan du" dioten hiztuna, egiazki, "Nire iraganaren uneren batean sagar baten eragingarriarekin elkarturiko barne eragingarri ilun bati erantzun diot" esaten ari da. (3) saileko ahopeko hizkera, mekanismozaleari, hizkera ahoskaketa arruntetik eratorritako ohitura begitantzen zaio; hiztunak ahoskaldi jakin bateko hizkera mugimenduak egin dituela ziurtatzen dugunean ("hitzezko pentsamendua"), delako hizkera forma bera ozenki ahoskatzen duenean agertzen zaizkigun arazo berberak aurkitzen ditugu. Laburbilduz, beraz, "gogo-jazoerak", mekanismozalearentzat, gorputz gertaerei ematen zaizkien ohiko izenak baino ez dira; eta hauek (1) esanahia bera hiztunaren egoeratzat hartzen duen esanahiaren zehazpenean bertan biltzen dira, edo (2) hizkera ahoskalditik hain daude urrun non hiztunaren egoeran axolagabekoak baitira, edo (3) hizkera-ahoskaldiaren errepikatzea baino ez dira.

Iritzi ezberdintasun hauek, gainerako giza ekintzei buruz bezala, hizkuntzaren oinarriari buruz dugun ikuspegian berebiziko eragina duten arren, eta mentalismozaleek esanahiari buruzko eztabaidetan beren terminologia asko erabiltzen duten arren, eztabaidak berak ez du hizkuntzazko esanahiaren arazoekin zerikusi handirik. Mentalismozaleak gogo jazoera deitzen dituen gertaerek, mekanismozaleak beste nolabait sailkatzen dituenak, pertsona bakar batengan dute eragina dena den: gu guztiok, norberaren barnean gertatzen direnean erantzuten diegu, baina beste norbaitengan gertatzen direnean ez dugu erantzuteko modurik. Lagun hurkoaren gogo jazoerak eta gorputz barneko eragiketak hizkera-ahoskaldien bitartez, edota beste nolabait ikuska

daitezkeen moduetatik bakarrik zaizkigu ezagun. Horretarako ditugun bideak hauexek bakarrik direlarik, mentalismozaleak, eguneroko ibilbidean, mekanismozaleak bezala itxuratzen ditu esanahiak, egoera jakinen bitartez; ez du sagar "Ongi ezaguna den haragi sendo eta azal leundun Malus jeneroko arbolaren fruitu biribilxka eta abarraren irudia" dela esaten, baizik eta, mekanismozalearen erara, "irudi" hitza ezabatzen du, eta bera izan ezik gainerako hitzun guztiek irudia begibistan zegoela egiten dute kontu, bai hitzunak sagar hitza erabili duelako, edo hitzunaren ahoskaldi zehatzagoren batetik ("sagar baten gogo irudia izan dut"). Jokabidez, bada, hizkuntzalari guztiek, mentalismo edota mekanismozaleak direla, hitzunaren egoeraren arabera zehazten dute esanahia, eta, honek ezer gehitzen duenean, entzulearen erantzunaren arabera ere.

7.5. Hizkuntzazko esanahiak, hizkuntzazkoak ez diren ekintzak baino bereziagoak dira. Giza elkarlanaren zati handi bat, hizkuntzarik gabe burutzen da, keinuen bidez (adibidez, zerbait hatzaz erakutsiz), gauzakiak erabiliaz (gauzaki bat norbaiten eskuetan jarriaz, gauzaki bat lurrera boteaz), ukituaz (besarkatu, laztandu), hizkuntzazkoak ez diren hotsez, bai ahozkoak ez direnez (hatzak gogor igurtziaz, txaloz), nola ahozkoez (barrea, negarra), eta abar. Berezi aipatu beharra dago, azken honi dagokionez, bereizgarri ez diren hizkera hotsen ezaugarriak, hala nola kexuzko, haserreko, aginduzko, totelkako "ahots doinuak"; hitz egiteko era, izan ere, hizkeraren hurrengo, dugun adierazpiderik eragingarriena da. Hizkuntzazko formak, ordea, hizkuntzarik gabe lor daitekeena baino askoz koordinaketa zehatz, berezi eta sotila lor dezake; hau ikusteko, zenbait hizketa adibideri begiratzea besterik ez dago: Lau metro eta hiru zentimetro t'erdia. -Zortzietarako nitaz entzun ez baduzu, joan zaitez ni gabe. Non dago libxa botila txikia? Salbuespen diruditenak, hala nola keinu sistema landuak, gormutuen keinu hizkuntza, zeinu kodeak, idazkeraren erabilera, telegrafia, eta abar, azken batean, ez dira hizkuntzaren aldaerak baizik.

Esanahi gehienak zehazteko eta beren iraupena frogatzeko biderik ez dugunez, hizkuntzaren berezitasuna eta izaera iraunkorra ontzat hartu behar dugu besterik gabe, hizkuntzaren azterketarako, geure eguneroko elkar harremanetan egiten dugun legez. Egiazat hartzen dugun hizkuntzalaritzaren oinarritzko onarpen hau (#5.3) honela adieraz dezakegu:

Zenbait elkartetan (hizkuntza elkartetan) zenbait hizkera ahoskaldi berdintsu dira formaz eta esanahiaz.

Hizkera formen bertute hau arrazionaltasunaren lepotik lortzen da. Hizkuntzazkoak ez diren komunikabideak gure gorpuzkeran oinarritzen dira guztiz, edota gizarte egoeretatik eratorriak dira zuzenean, baina hizkera formek beren esanahiekin duten lotura guztiz arbitrarioa da. Zaldi deitzen duguna, alemanieradunak Pferd, frantsesdunak cheval, kreedunak misatim, deitzen du, eta abar; hots multzo bat bestea bezain arrazoigabea da.

Gure oinarritzko onarpenak hizkera forma bakoitzak esanahi berezi eta iraunkor bat duela diosku. Formok fonemikoki ezberdin badira, beren esanahiak ere ezberdin direla suposatzen dugu -adibidez, arin, azkar, laster, bizkor, ernai bezalako forma multzoko ale bakoitza beste guztietatik bereizten dela, esanahizko ezaugarri iraunkor eta jakinen batez. Laburbilduz, bada, sinonimorik ez dela ontzat hartzen dugu. Bestalde, gure onarpenak loturik dakar forma bi semantikoki ezberdinak badira (hots, hizkuntzazko esanahiaren aldetik ezberdin), ez direla "hitz bera", forma fonetikoaren aldetik antzekoak badira ere. Honela, bada, ingelesez, [bejr] forma fonetikoa hiru esanahi ezberdinekin ageri zaigu: bear "eramatea, jasatea, zerbaitez erditzea", bear "artza", eta bare "soila, biluzia". Era berean, [pejr] formak izen bi adierazten ditu (pear "madari" eta pair "bikote"), eta aditz bat (pare "moztu, zuritu"), eta beste hainbeste adibide aurki daitezke. Forma fonetiko bera duten hizkuntza-forma ezberdinak (hots, esanahiaren aldetik bereizten direnak bakarrik) homonimo deitzen dira. Esanahiak ezin ditugunez

ziurtasunez zehaztu, ez da beti erreza delako forma fonetiko bat bere erabilera anitzetan esanahi bera duen ala homonimo multzoa den jakitea. Adibidez, aurreko ingelesezko bear aditza hartuta, ez dakigu ondoko bear a burden "zama jasan", bear troubles "arazoak jasan", bear fruit "fruitua eman", bear offspring "kumeez erditu" erabilerak forma bakartzat hartu behar diren ala homonimo multzo bi edo gehiago diren. Era berean, charge "kargatu" aditza: charge the cannon with grapeshot "kanoia metrailaz kargatu", charge the man with larceny "gizonari lapurreta egotzi", charge the gloves to me "jarri eskularruak nire kontuan", charge him a stiff price "berari prezio garestia kobratu", adibideok era askotara sailka daitezke; the infantry will charge the fort "infanteriak fuerteari eraso egingo dio" esaldiak, ordea, beste zerbait dirudi. Sloth "alper" ezaugarria eta sloth "alper" Hegoameriketako animalia bikote homonimoa izan daitezke hiztun batzuentzat, eta esanahi bakarra besteentzat. Honek guztiak erakusten duenez, noski, gure oinarritzko onarpena muga batzuen barnean betetzen da, nahiz eta egia orokor hau ontzat hartzen den ez bakarrik hizkuntzalaritzan, baita gure benetako hizkuntzaren erabileran ere.

7.6. Hizkuntzalariak esanahiak zehatz ezin ditzakeen arren, eta honetarako alboko zientzietako ikerlarien edota ezagutza orokorraren laguntza behar duen arren, aitzitik, zenbait formen zehaztasunak lortu ondoren, beste batzuen esanahiak zehatz ditzake aurrekoenak erabiliaz. Matematikariak, adibidez, hona hizkuntzalari lanetara ekarriko duguna, ezin ditzake bat eta gehi deiturak zehaztu, baina hauen zehaztapena eskaintzen badiogu, orduan bi zehatz dezake ("bat gehi bat"), eta hiru (bi gehi bat), eta abar, bukaerarik gabe. Hizkuntza matematikoan garbi ikusten duguna, non denotazioak guztiz zehatzak diren, hizkera forma arruntetan ageri zaigu sarri. Ingelesezko iraganaldia eta go "joan" hitzaren esanahiak zehazten badira, hizkuntzalariak went "joan zen (nintzen, hintzen...)" zehatz dezake go "joan" aditzaren iraganaldia bezala. Bestetik, ar:eme ezberdintasuna zehazten bazaio hizkuntzalariari, berak ziurta diezaiguke horixe dela he:she "bera, maskulino: femenino" artekoa, edota lion "lehoi ar": lioness "lehoi eme", gander "antzar ar": goose "antzar eme", ram "aker": ewe "ardi" artekoa ere. Ziurtasun hori, hizkuntzalariak, kasu askotarako dauka, non delako hizkuntza batek, nabari daitekeen fonetika edo gramatika ezaugarri baten bidez, bere forma batzuk forma klaseetan biltzen baititu: forma klase batean, forma orok badu osagai bat, klase esanahia, forma klase honetako forma guztietarako bera dena. Honela, ingelesezko izenak forma klase baten partaide dira, eta beraz, ingelesezko izen bakoitzak badu esanahi bat, zeina, guretzat zehazten denean (demagun, "gauzaki" gisa), hizkuntzako izenki guztiei ezar dakioken. Ingelesezko izenak, areago, bakanen eta anizkoitzen multzoetan banaturik daude; klase bi hauen esanahiaren zehaztapena izanik, hauetariko esanahi bat egozten diogu izen orori.

Hizkuntza guztietan badira zenbait forma, ordezekoak, zeinen esanahia neurri handi batean edo osorik klase esanahiak osatzen baitu. Ingelesez, izenordainak ditugu ordezeko multzorik handiena. Izenordainek esanahi konbinaketa guztiz interesgarria agertzen dute. Ezaugarri nagusiak, klase esanahiak dira; honela somebody, someone "norbait" izenordainek, izen, bakan, eta pertsonazko klase esanahiak dituzte; he "bera (maskulinoa)" izenordainak izen bakan, pertsonazko eta ar klase esanahiak ditu; it "hura (ez gizakia)" izenordainak izen, bakan, ez-gizakien klase esanahiak ditu; they "haiek" izenordainak, izen anizkoitzen klase esanahiak. Bigarrenik, izenordainak hizkuntzaren izen forma jakin bat adierazten duen esanahi osagarri bat izan dezake. Honela, some "batzuk" eta none "ezer(ez)" izenordainek delako izena duela gutxi aipatua izan dela adierazten digute (here are the apples: take some "hona sagarrak: hartu batzuk"); honen ondoan, aitzitik, something "zerbait", somebody, someone, "norbait", nothing "ezer ere ez", no one "inor ere ez" izenordainek ez diote ezer

dagokien sailaz. Hirugarrenik, zenbait izenordainek delako sail bateko zein izakiz ari garen adierazten duen esanahi osagai bat dute. Honela, he, she, it, they bezalako izenordainek saila aipatu izan dela ("ertzaina", esaterako) adierazteaz gain, sail horretako izaki jakin hori (hots, Smith ofiziala, edo "izkina honetan dagoena") zeindua izan dela esaten digute. Esanahiaren ezaugarri hau, zehaztuz gero, gure hizkuntzako beste hainbat formatan aurkituko dugu; itxuraz nahasmendurik sortu gabe ageri zaigu, the artikulu mugatuaren esanahian, hitz txiki honek hurrengo izenak sail jakin bateko banako ezaguna zeintzen duela adierazten baitigu.

Hau guztia laburbildurik, bada, zenbait esanahik, zehaztu direnean, forma multzo osoetan berragertzen direla nabari daitekeela esan dezakegu. Bereziki, azkenik aipatutako mota, sail bateko izaki bakanen zeintzearekin zerikusia duenak, hautaketa, bilketa, bazterketa, edo zenbaketaren bidez, erantzun berdintsuak sortzen ditu gizabanako ezberdinengandik, eta askotariko hizkuntzatan agertzen da oso antzeko eratan; esanahi mota hauek, beraz, matematika deritzogun hizkera zehatz mota bereziaren sorreran daude.

7.7. Aho keinuak, komunikatze maila apalagoetarako erabiltzen direnak, ez dira hizkeraz kanpo bakarrik agertzen, artikulapenik gabeko garrasian adibidez; hizkera formekin elkaturik ere azaltzen dira, hizkera hotsean bereizgarri ez diren ezaugarrien eraketan, "ahots doinuak", esaterako. Izan ere, zenbait ohiturazko hizkera formek aho keinuen mugetan aurkitzen direla dirudi; bada, ikusi dugu jada, ingelesez, pst [pst] deiak eta sh [β] isiltzeko aginduak eredu fonetiko bortxatzen dutela, silabagune bezala, arras ozen ezak diren [s, β] fonemak baitarabiltzate. Esku keinuaren esanahiaren antza duten hitzetan, eredu fonetiko era ahulago batean bortxatzen duten hitzetan ageri da. Ingelesez, hitz hasierako [B] fonema, erakusle eta antzeko esanahia duten hitzetan ageri da bakarrik, hala nola this "hau", that "hura", the artikulu mugatua, then "orduan", there "han", though "ordea"; errusieraz, [e] fonema erakusleetan ageri da bakarrik, esaterako ['eto] "hau".

Fonemikoak ez diren keinu gisako ezaugarriak asko tinko daitezke. Zabaldietako Kree hizkuntzan, [e:] "bai" hitza, bokalerdi diptongatu batez ahoskatu ohi da, eta hitz bukaerako leherketa glotalaz, gutxi gora behera [ʔe: ʔ], nahiz eta horietariko ezein ezaugarri fonemikoa ez izan hizkuntza honetan. Gure kale hizkuntzan, zenbait doinu eredu halako balio jakin batzuei lotzen zaizkie; azken urteotan, Yeah? "bai?" eta Is that so? "hala da?", galdera doinuaren ereduaren aldaketa berezi batez, txantxa izpi gisa erabili ohi dira, entzuleak esan zaiona sinesten ez duela adieraziz.

Azken adierazpide honek Is zat so? "hala da?" aldaera ere badu, zeinak hizkuntz ezaugarri bitxien beste eremu bat erakusten baitigu, txantxetako sasi-ahoskaketa. Adibidez, Please, excuse me esatea, adarjotze ezaguna da [ingelesezko esaldiak please, excuse me behar luke, hots, "mesedez, barka nazazu(e)"]. Bihurkeria hauek beste hizkera forma batzuekin duten antzagatik hartzen dute beren balioa (gure adibidean, ox "idi" hitzetik adibidez), edota kanpotarren hizkera formatatik, eredu estandarpeko hitzuneetatik, eta umeetatik, esaterako bird "txori" bezalako hitzean txantxetazko [cj] hotsaren erabilera, [r] beharrean (New Yorkeko hizkera estandarpekoa antzeztuz), edota ume hizkeraren erabilera (Atta boy! "horra mutikoa!", Atta dir! "horra neskatua!" [esaldi hauen forma ohiak What a boy eta What a girl lirakeke].

Zenbait esapidek laburtu eta zirriborroturiko sasi-formak dauzkate, zeinetan eredu fonetiko galdu egin baita: giza harremanetarako formula arruntak izan ohi dira, agurpenak eta deiturak adibidez. Honela, How do you do? "Nola zabilta?" agurra era guztietan laburtu ohi da, ingelesezko fonemen bidez itxura ezin daitezkeen formetan, eta ondoko adibideek agertzen duten antzekotasunaz bakarrik erakuts daitezke: [j' duw] edo [d' duw]; How are you? "Nola zaude?" agurra, bestetik, [hwaj; haj;]

bezalako zerbait dugu; madam "andere" deitura, [m̩] bezala gertatzen da Yes'm "bai, anderea" bezalako laburduretan. Sasi-forma hauek, formuletan ageri dira bakarrik; beraz, How do you do it? "Nola egiten duzu?" galdetzean, [ˈhaw |ju ˈduw it̩] diogu, ez dugu zirriborroturiko forma erabiltzen. Forma laburtu hauek hizkuntza askotan agertzen dira, hizkera arruntarekin duten harremana iluna da, baina argi da hizkuntzapeko komunikatze mota osatzen dutena, zeinetan formen esanahi arruntak ez baitu eraginik. Edozein hots aipa genezake, aho hotsez gutxi gora-beherazko antzezketak bat eginaz, animalien deiak izendatu edo makina baten hotsa adierazten dugunean legez. Era honetan, hizkuntza hotsak ere aipa genitzake; totela den pertsona bati buruz hitz egiterakoan, adibidez, norbaitek "haren akegga, adagga etengabe horrek nekatuta nauka"⁶. Kasurik arruntena hipostasia dugu, fonetikoki normala den hizkera forma baten aipamena, esaterako "zaio esan dut, ez jaio", edo "gero dioenak bego dio", edota "aldarte hitza", "Agirre deitura" aipatzen ditugunean. Batek hitz atalak ere aipa ditzake, liburu honetan maiz egingo dudana legez, "-kor atzizkia, hauskor adibidean" bezalako aipamenetan.

7.8. Aurreko pasartean aurkeztutako formak, hots eredua eta hiztegi esanahiaren ohiko loturatiko aldenteak ditugu. Holako aldentzerik gertatzen ez denean, eta hots forma arrunta bere hiztegi esanahiaz erabiltzen delarik, azken honek konplexutasun handia azaltzen du. Ikusi dugu dagoeneko, egungo ezagutza ez dela esanahiaren korapiloa desagiteko nahikoa, baina badira hiztegi esanahiaren beste ezaugarri nagusi bi, ahal dugun neurrian eztabaidatu beharrekoak.

Hizkuntza forma asko eta asko, egoera jakin bat baino gehiagorako erabiltzen ditugu.

Ingelese⁷, armadaren, prozesioaren, etxeko, erreken "buruaz" (head) mintzatzen gara, baita azaren "buruaz" (head); botilaren, kanoiaren, hibaia "ahoz" (mouth); orratzaren "begiaz" (eye); zerraren "hortzez" (teeth); zapataren edo bagoi baten "mihiaz" (tongue); botilaren eta mendiaren "lepoaz" (neck); aulkiaren "beso" (arm), "hanka" (leg) eta "lepoaz" (back); mendi baten "oinaz" (foot); azenarioaren "bihotzaz" (heart). Gizona "azeria" izan daiteke, edo "astoa", edota "zakur zikina"; emakumezkoa "mertxika" (hots, peach "ederra"), "limoia" (hots, lemon "zatarra"), "katua" (cat "gaiztoa", "umore txarrekoa"), edo "antzarra" (goose "baldarra"); pertsonak "zorrotzak" izan daitezke, edo "motzak", edo bestela ere, "argiak" edo "lainotsuak" (hots foggy, "motel") beren asmamenetan; baita "bero" edo "hotzak" izaeraren aldetik; "bihurriak" edo "zuzenak" jokabidez; pertsona bat "airean" egon, "pikutara joan" daiteke, "sutan jarri" ere, eta "burua joan" dakioke ere, lekutik batere mugitu gabe. Irakurleak nahi adina adibide gehi diezaizkioke zerrenda honi; ez dago "metafora" hauek zenbatu eta sailkatzea baino gauza aspergarriagorik.

Esanahi bihurri hauen ezaugarriak aipagarriena, guk esanahi bat normaltzat (edo gunekotzat) eta besteak bazterrekotzat (metaforiko edo eratorritzat) hartzerakoan dugun adostasuna da. Guneko esanahiak lehentasuna hartu ohi du, zeren forma bat ulertzean (hots, formari erantzutean), guneko esanahiaz egiten baitugu, bizi dugun egoerak bazterreko esanahiari begiratzen behartzen ez bagaitu. Inork "horra azeria!" oihu egiten badigu, benetako azeri bat bilatzen dugu, eta hau guztiz ezinezkoa denean, ahoskaldia hizkera lekututzat hartzeko joera izango dugu (hots, irudipen gisa edo ipuin gisa). Egoeraren zertzeladaren batek horretara behartzen gaituenean bakarrik -esaterako, hiztunak gizon bat aurkezten badigu-- ulertuko dugu delako forma zentzu eratorrian. Baten batek "azeri horrek lagunduko ziola agindu zion" esango balu ere, ipuin bat etorriko litzaiguke gogora, "maltzurra den pertsona: azeria" esanahia baino lehen. Zenbaitetan, forma jakin bat esanahi eratorrian hartzea behartzen gaituen ezaugarri praktikoa ahoskaldiak berak eskaintzen digu: "Smith zaharra azeria da" zentzu eratorrian hartu beharrekoa da, ez baitiegu azeriei deiturak eman ohi. "Asto batekin

ezkondu zen" entzunez gero, zentzu eratorrira joko dugu, gizakiek animaliekin ezkontzeko ohiturarik ez dutela dakigulako. Bestetik, egoera praktiko bereziek hau guztia alda dezakete. Fox indiarren auzoek baldintza berezirik gabe har lezakete gure adibideko "azeri" (fox) aipamena, "fox nazioko biztanle" zentzu eratorrian.

Kasu batzuetan, zentzu eratorria aldameneko hizkuntz forma batek behartzen du. Ingeleseko cat (hiztegi zentzuan "katu") hitzak zentzu eratorria du beti -kin atzizkiaz agertzen denean (catkin "gerba"), eta pussy (hiztegi zentzuan "katutxo") hitzak ere, willow "sarats" ondoan duenean (*pussy-willow); era berean, eye "begi" hitza, -let atzizkia duenean (eyelet "zirrikitu"). Bestetik, dog "txakur", monkey "tximino", beard "bizar" izenek, aditz eratorrita markak daramatzatenean (adibidez, aurretik infinitibozko to marka dutenean), esanahi eratorria dute beti (to dog someone's footsteps "norbaiten urratsak jarraitu"; don't monkey with that "ez horrekin jostatu (edo tranparik egin)"; to beard a lion in his den "lehoiari bere gordelekuan bizarrak moztu"). Hizkuntz ezaugarri hauek guztiz ezezkorrak izan daitezke: give out, (hitzez hitz "kanpora eman", hiztegi esanahiez "banatu, eman") objekturik gabe erabiltzen denean, beti "leher egin, bukatu" zentzu eratorrian ulertzen da (his money gave out "bere dirua bukatu zen", our horses gave out "gure zaldiek leher egin zuten"). Kasu hauetan, hizkuntzaren egiturak nabaritzen du zentzu eratorria. Esanahirik zehazteko ahaleginik egiteko asmorik ez duen hizkuntzalariak ere, give out aditz iragangaitzak, give out aditz iragangorrak (he gave out tickets "txartelak banatu zituen") ez duen esanahi berezia duela (hots, forma berezia dela) zehaztu beharko luke.

Kasu askotan, delako forma esanahi askoduntzat ala homonimo multzotzat hartu behar ote dugun zalantza dugu. Hona adibide batzuk: air hitzak "aire, hots, melodia, era" (azken adiera honek airs anizkoitza biltzen du, "aldarte harroa" esan nahi duena) adierak ditu; key hitzak "giltz, musika tonaltasunak" adierak; charge aditzak "eraso, zamatatu, eragotzi, kontuan jarri", eta sloth izenak "animaliaren izena, alferra".

Gure hizkuntzako esanahi eratorriak guztiz legezkoak eta giza hizkerari dagokionez sahiestezinak direla pentsatuz, errazki nahas gaitezke -are gehiago Europako hainbat hizkuntzatan agertzen direlarik. Hau, baina, ditugun kultur ohitura komunei zor zaie; esanahi eratorriak hizkuntza guztietan gertatzen badira ere, hizkuntza jakin batean agertzen direnak ez dira nahitaezkoak. Frantsesez eta alemanieraz, batek ezin dezake orratzaren "begirik" aipatu, edo ale "belarri" batez [ear hitzak bai "belarri" eta bai "buru" esanahia dauka, esaterako artaburu eta galburu zentzuan]. Europar bati normala begitantzen zaio mendiaren "oinaz" hitzegitea, baina menominieraz zentzugabekeria litzateke hau, beste hizkuntza askotan legez. Bestalde, menominieraz, [una:ʔn? w] "hark lekuan jartzen du" esaldiak, badu esanahi eratorririk: "hark zorriak kentzen dizkio". Errusieraz, [no'ga] "hanka" ez da aulki edo mahaien hanketarako erabiltzen; esanahi eratorri hau era txikitzailan agertzen da soilik [noβka] "hanka txikia; mahai edo aulkiaren hanka". Era berean, hizkuntzalariak esanahiak itxuratu nahi ditutenean, hizkera-lekutuko erabilerak bazterrean uzten ditu, baina ahalegin guztiak eginaz esanahi eratorri guztien gertaerak biltzeko.

Hau guztia beste esanahi bihurri baten kasuari ezar dakioke ere, esanahi estuari, ezberdintasun bakar batekin, hots, forma bat bere esanahi estuan askoz ere errazkiago onartzen dugula. Egoera praktikoak berehala garamatza car "auto" hitza zenbait esanahi estutan ulertzeraz ondokoetan: The dinner is in the second car forward "afaria aurreko bigarren bagoian da" (trenean); Does the car stop at this corner? "Hemen geratzen al da autobusa?"; Bring the car close to the curb "ekartzazu autoa errebuelatik hurbilago". Call a doctor "medikuari deitu" agindua entzuten dugunean, berehala ulertzen dugu doctor delakoak medikuntzan izan behar duela doktore. Bestetik, burner "erretzailea, gauzak erretzen duen pertsona edo zera" da [ez euskarazko "zigarroak erre" zentzuan

ordea], baina, ohituraz, esanahi estuan, sua ateratzen duen gas- ahoa. Bulb hitzak esanahi bat du baratzean dabilenarentzat ("tipula"), eta beste bat elektrikarien artean ("bonbila"). Normalean, glass ("kristal") "edontzia" edo "lupa" da; forma anizkoitzan, glasses, "betaurrekoak" izan ohi dira. Esanahi estuak zehaztea oso zaila da, zeren eta, azken batean, forma baten gertakari oro, esanahi aukera guztiak bil ez ditzakeen egoera praktikoa batek eragina baita: "sagar" hitza berdea den bati buruz esan genezake orain, gorri bati buruz gero, eta abar eta abar.

Hizkuntzak berak, forma ezaugarrien bitartez, esanahi estuak nabaritzen ditu zenbait konbinaketatan. Adibidez, blackbird "bele" (black "beltz" eta bird "txori") ez da edozein "txori beltz": konbinaketa honetan, "beltz" atalaren esanahia guztiz estua da; era berean, blueberry "masusta mota bat" (blue "urdin" eta berry "masusta"), whitefish "zarbo (izokinaren antzeko arraina)" (white "zuri" eta fish "arrain"), eta antzekoak.

Hedatutako esanahiak ez dira honen ugariak. Orokorrean, cat "katu" etxeko aberea da, baina lantzean behin, lehoiak, tigreak eta antzekoak bildurik erabili ohi dugu hitza; dog "txakur" hitza, alabaina, ez dugu era horretan hedatzen, otsoak eta azeriak biltzeko. Bestalde, hound "ehizatxakurra", bai poetikoki eta bai txantxetan, edozein txakur mota aipatzeko erabili ohi dugu. Sarritan, hedatutako esanahia nabari egiten da hizkuntzaren egiturari, eta aldamenen forma jakin batzuk dituelarik azaltzen zaigu bakarrik. Honela, meat "okela" jateko haragia da, baina meat and drink esaldian, "jana eta edana", hala nola sweetmeats "gozoki" hitzean, edozein jaki motari dagokio; fowl "oiloki", jatekoa den hegaztia da, baina fish, flesh or fowl 8 "arraina, haragia ala oilokia" esaldian, edota the fowl of the air "aireko hegaztia" hitza edozein hegaztiri dagokio.

Sarri asko, hizkuntza bateko hiztunek ez dute guneko eta bazterreko esanahia bereizten, kanpoko ikuskatzaile batek egoerei dagokienez balio ezberdin bi ikus lezakeenean ere; honela, day "egun" hitzak, ingelesez, hogeita lau orduko tarte adierazten du (suedierazko dygn [dynn]), edo tarte honen zati argitua (night "gau" hitzarekin oposaketan, suedieraz dag [da:g]).

7.9. Esanahiek iraunkortasunik eza erakusten duten beste eremua, konotazioak deitzen ditugun balio gehituena da. Forma batek hiztun batentzat duen esanahia ez da forma hori entzun duen egoeren bilduma baizik. Maiz entzun ez badu, edo oso egoera berezitan entzun badu, bere erabilera erabilera arruntetik alden daiteke. Esanahiaren zehazpen landuak eskainiaz burukutzen gara aldentze pertsonal horietatik; hau da hiztegiek duten zeregin nagusia. Zientzi hitzen kasuan, ezaugarri konotatzaileak baztertua lortzen dugu, nahiz eta horretan ere arrakasta gutxi izan genezakeen zenbaitetan; hamahiru zenbakiak, adibidez, jende askorentzat konotazio gogorrak ditu.

Konotaziorik garrantzitsuenek formak darabiltzaten hiztunen gizarte mailarekin zerikusia dute. Jatorri apaleko hiztunek erabiltzen dituzten formak, zakar, itsusi, eta arrunt begitantzen ohi zaizkigu. I ain't got none "ez dut bat ere ikusi", I seen it "ikusi dut", I done it "egin dut" esaldi azpiestandarrek, zatarki jotzen dute ingeles estandarra darabilen hiztunaren belarrietan. Gaitzeste hau beste baldintza berezi batek gaindi dezake ordea: gaizkile eta eskaleen hizkuntza formek halako "niri guztiak bost axola" konotazioa izan dezakete, eta nekazarien formak zakar baina poetikoak irudi dakizkiguke. Gizarte maila handiagoko hiztunek erabiliriko formak, arranditsu, jasoegi, edo txukunegiak begitantzen zaizkigu maiz. Mendebalde-erdiko amerikar ingelesaz mintzatzen diren hiztun gehienek horrela irizten diote [?] ordez [a] ahoskatzeari laugh "barre", bath "bainu", can't "ezin" bezalako hitzetan, hala nola [uw] ordez [juw] ahoskatzeari tune "doinu", sue "auzipetu", stupid "lelo" bezalako hitzetan.

Leku jakin batetiko konotazioak honen antzekoak ditugu; eskoziar edo irlandar ahoskaldi batek badu bere-berea den berezitasuna; era berean, Ameriketako benetakoak edo bestelakoak diren Ingalaterratik hitzak, hala nola luggage erabiltzea baggage ordez

("bidekoak, fardelak"), edo old chap, old dear "lagun zahar" esaldiak erabiltzea deikera gisa.

Idazkerarik ez duten giza elkarteetan ere, forma batzuk (zuzenki edo okerki) zaharkituztat jo ohi dira; idatziak dituzten elkarteetan, idatziok forma zaharkituen gaineko iturri bilakatzen dira. Adibide gisa, ingelesez, bigarren pertsona zaharreko formak (thou hast "hik duk/dun"), -th bukaera duten hirugarren pertsona formak (he hath "hark zeukan"), subjuntibo orainaldi zaharra (if this be treason "hau saldukeria bada"), ye "zuek" izenordain zaharra, eve "arrats", e'en "ere", e'er "inoiz", morn "goiz", anent "(zerbaiti) dagokionez" bezalako formak, eta abar. Batzuetan, bizi-bizirik dagoen forma batek forma aforistiko berezia gorde dezake: honela, zenbait esaeratan, esaldi eraikuntza zaharrek bizirik dihardute esaera zahar gutxi batzuetan, hala nola First come, first served, "lehenengo etortzen denari, lehenengo zerbitzen zaio", edo Old saint, young sinner "santu zaharra, bekataria gaztea".

Forma teknikoen konotapenak jatorrizko lanbide edo eremuak duten egoeratik hartzen dute beren izatea. Itsasotiko formek hots prestu, zintzo eta ausarta dute, lege hitzek zehatza eta zertxobait irristakorra; gaizkileen hitzak gordinak, baina harira doazenak.

Forma ikasien konotazio ilunagoak dira, baina sarriago gertatzen dira: eguneroko hizkeraren ia edozein formak badu konotazio ikasirik:

Arrunta Ikasia

He came too soon He arrived prematurely

"Arinegi heldu zen" "Behar baino lehenago heldu zen"

It's too bad It is regrettable

"Pena da" "Damugarria da"

now at present

"orain" "une honetan"

if he comes in case (in case that, in the event that, in the contingency that) he comes; should he come,...

"etortzen bada" "etorriko (baldin) balitz, bera etortzekotan, bera (baldin) baletor"

so (that) you don't lose it in order that you may not lose it, lest you lose it.

"zuk ez galtzeko" "gal ez dezazun, gal ez zenezan, ezin gal zenezan"

Adibide hauek erakusten dutenez, konotazio ikasi, jaso, zaharkituak forma askotan biltzen dira. Idazkeran eta hizkera jasoan, forma ikasiak izan ohi ditugu nahiago, maila bateraino behintzat: forma ikasi gehiegi erabiltzen dituen hizlari harroputza edo idazle nekagarria da.

Hizkera forma arrotzek guk arrotzekiko dugun jarrera islatzen duten konotapenak daramatzate. Forma aldetiko ezaugarri arrotzak, hots edo eredu fonetikoaren bitxitasunek osa dezakete: garage, mirage, rouge, je ne sais quoi; olla podrida, chile con carne; dolce far niente, fortissimo; Zeitgeist, Wanderlust; intellingsentsia. Beste adibide batzuetan, ezaugarri arrotza eraikuntzan datza, adibidez frantsesalakoak diren marriage of convenience "ezkontza komenigarria", eta that goes without saying "esan gabe doa". Doinu hau barregarri bihur daiteke txantxetako forma arrotzetan, hala nola nix come eruse (txantxetako alemaniera), edo ish gabibble ("ez dit axola", judu-alemaniera omen). Eskolako umeek txantxetako latina darabilte, hala nola quid sidi quidit, edo neurri mordoiloak: Boyibus kissibus priti girlorum, girlibus likibus, wanti somorum "mutilus musu emanibus neski politorum, nesribus gustatibus, gehiagorum nahioribus".

Hizkuntza batzuek, eta bereziki, agian, ingelesak, erdi- arrotzak edo arrotz-ikasiak diren forma ugari dituzte -eratorketa eredu eta izaera berezia duten forma klasea. Erretorika testu liburuek gure hiztegiko "latin-frantsesera" atala legez bereizten dituzte formok, "jatorrizko" forma "anglo-saxoietatik" banatuaz. Konotapena, ordea, ez da zuzenean formaren jatorriaren arabera kontua. Esaterako, chair "aulki" hitza latin-

frantsesetikoa dugu jatorriz, baina ez dagokio gure hiztegiko atal arrotz-ikasiari. Gure kanpotik ikasitako formen ezaugarri nagusia, agian, atzizki eta atzizki elkarte indardunen erabilera da, hala nola [-itij] ability "trebetasun"; [-'ejβn] education "hezkuntza". Beste ezaugarri bat, zenbait aldaera fonetikoen erabilera dugu, hala nola [sijv] receive "hartu" forman, baina [sep] reception "harrera", eta [sij] receipt "hartu agiri", edo [vadj] provide "hornitu" hitzean, baina [vid] provident "zuhur" aldaeran, edota [viz] visible "ikusgai" hitzean, baina [viz] provision "hornigarriak" aldaeran. Bereztasun hauek nahikoa dira hainbat hitz eta hitz osagai kanpotiko gisa sailkatzeko, batik bat hainbat aurrizki (ab-, ad-, con-, de-, dis-, ex-, in-, per-, pre-, pro-, re-, trans-); aurrizki hauek eurek ere, fonetika aldaketa bereziak erakusten dituzte, adibidez con-tain "bildu", baina collect "jaso", correct "zuzen(du)", eta ab-jure "ukatu", baina abs-tain "utzi". Semantikaren arabera, gure kanpotiko hitzak bitxiak dira osagaien elkarrekin ageri dituzten esanahi guztiz berezi eta apetzakoengatik; esaterako, conceive "sortu", deceive "iruzur egin", perceive "somatu", receive "jaso" hitzetako [sijv] osagaiaren esanahi bidezkorik itxuratzea ezinezkoa dirudi, edo attend "jaramon egin", contend "eztabaidatu", distend "lasaitu", pretend "zerbaiten itxurak egin" hitzetako [tend] osagaiarena, edota adduce "agertu", conduce "eraman", deduce "asmatu", induce "bultzatu", produce "sortu", reduce "murriztu" hitzetako [d(j)uws] osagaiarena. Forma hauen konotazio doinua, ikasiak izatetik datorkie: hitzunik formok erabiltzeko duen trebetasunak bere hezkuntza maila agertzen du. Okerreko erabilerak (malapropismoek) erdizka hezitako hitzuna zeintzen dute. Hezkuntza apalagoko hitzunik ezin ditu forma horietako asko ulertu, eta honen ondorioz, zenbait komunikatze motetatik baztertzen da; mendeku har lezake txantxetako forma ikasiak erabiliak, hala nola absquatulate "alde egin", rambunctious "zaratatsu", scrumptious "zoragarri". Hizkuntza askok honelako kanpotiko hiztegi azala daukate: Hizkuntza erromantzeek latinetikoa dute, gurea lakoxea dena; errusierak, latinetiko zipriztinez at, bulgariara zaharretiko hitzak dauzka; turkierak arabieratik eta persieratik hitz geruza ageri du, eta persierak arabieratikoa; Indiako hizkuntzek, era berean, sanskriotiko hitzak darabiltzate.

Kanpotiko forma ikasien konotazio kontrajarririk, kaleko konotazio jostaria eta uztarrik gabea dugu: kaleko formak darabiltzaten hitzunik, gazteak, kirolariak, jokariak, eskaleak, gaizkileak dira, eta horrezaz gain, hitzun gehienek ere, eguneroko egoera lasaieran erabili ohi dituzte. Adibideak ezagunak ditugu, adibidez guy, gink, gazebo, gazook, bloke, bird "gizon" esateko, rod edo gat "pistola", eta abar eta abar; kaleko forma bera ere kanpotikoa izan daiteke, adibidez loco "zoro", sabby "ulertu", vamoose "goazen", gaztelaniatik. Balioa txantxetazkoa da neurri handi batean; kaleko forma batek luzaroan irauten badu, asmakizun berri batek ordezkatzeko du gehienetan.

7.10 Konotazio motak zenbaezinak eta zehaztezinak dira eta, oro har, ezin daitezke esanahi denotatzaileetatik bereizi. Azkeneko azterketan, hizkera forma orok bere konotazio doinua du hizkera-elkarte osoan, eta hau, aldiz, alda edo are deusezta daiteke, hitzun bakoitzaren kasuan, bere esperientzia bereziaren arabera formak berarentzat jaso duen konotapenagatik. Egoki litzateke, ordea, nolabaiteko garbitasunaz bereiz daitezkeen konotazio mota biri buruz hitzegitea, labur bada ere.

Hizkera elkarte askotan, zenbait hizkera forma desegoki halako baldintza mugatu batzuetan baino ezin daitezke ahoska; muga horietatik kanpo ahoskatzen dituen hitzuna, lotsagarri bilakatzen da, edo zigortua izan daiteke. Debekuaren sendotasuna, egokitasun bigun batetik tabu gogorrenerakoa izan daiteke. Forma desegokiak, gehienbat, esanahi eremu jakin batzuetakoak izan ohi dira, baina sarri asko, beren aldamenean, denotazio bera izan arren konotapen desegokirik ez duten formak existitzen dira, hala nola emagaldutako hitza, desegokia den puta hitzaren ondoan.

Zenbait forma desagokik arinki ezin aipa daitezkeen gauzaki edo pertsonak denotatzen dituzte, edo agian sekula aipa ezin daitezkeenak ere. Ingelesez, erlijiozko hainbat izen, hala nola Jainko, deabru, zeru, infernu, Kristo, Jesus, madarikatu, ezin daitezke hizkera serioan baizik erabili. Arau hau bortxatuz gero, hiztuna arbuaiatua izan daiteke; bestalde, zenbait taldetan, eta baldintza jakinetan, bortxaketak indarra eta askatasuna adieraz lezake. Gizarte askotan, pertsonen izenak tabu zaizkie baldintza batzuetan zenbait laguni. Kree indiar gizonezkoak, adibidez, ez ditu bere arreben izenak ahoskatzen, ez eta bere beste senide emakumezkoenak ere; saihestea azaltzeko, "begirune handia diot" esaten du.

Beste desagokitasun ildo bat, lizun deritzen formena dugu. Ingelesez badira tabu gogorrak, esanahia gorputz isuriei loturik duten formetarako, hala nola erreproduzioarekin zerikusirik dutenetarako ere.

Hirugarren konotazio desagoki mota bat bada, gure artean hedatuegia ez dena: zer mingarri edo arriskutsuak izendatzen dituzten formen saihestea. Batek hil edo heriotza formak saihesten ditu (if anything should happen to me "ezer gertatuko balidake") eta baita gaixotasunen izenak ere. Beste batzuek ezkerreko eskua aipatzea saihesten dute, edo ekaitzak.

Gizarte batzuetan, ehiza animalien izenak saihesten dira, ehiza garaia denean, edo orohar. Baldintza berezitan (gudarako bidean, esaterako), hizkera forma asko saihets daitezke, edo hizkera hankaz goratuz, esan nahi denaren kontrakoa esatea egoki liteke.

7.11. Hemen aipatzea merezi duen bigarren konotazio berezi mota, intentsitatea dugu. Forma hauen artean ohikoenak, harridurazko formak ditugu. Hauetarako, ingelesez badugu bigarren mailako fonema berezi bat, [!], eta baita hizkera forma bereziak ere, tartekariak, esaterako oh! "o!", ah! "a!", ouch! "ai!". Forma hauek eragingarri gogorra adierazten dute, baina konotazioaren aldetik, hiztunak eragingarri gogorra jaso duela adierazten duen esaldi arruntetik bereizten dira.

Zenbait hizkera formek badute halako izate bizia, hanpatuarenaren antzekoa, adibidez, zenbait adizlagunen aurreratzea: Away ran John "urrunera ihes egin zuen Jonek"; Away he run "urrunera ihes egin zuen". Elkarlotutako kontaketa, lekuz aldatze leunagoetan ere, antzeko bizitasuna aurkitzen dugu: Yesterday he came (and said...) "atzo etorri zen (eta esan...)" Ingelesez, orainaldi historikoa, iraganaldiko ekintzak kontatzean, elegantea izan daiteke, istorio edo teatro lan baten laburbiltzean bezala, edo guztiz arrunta, eguneroko hizkeran erabiltzen bada: Then he comes back and says to me... "orduan badator bera eta esaten dit...".

Ingelesak berebiziko aberastasuna erakusten du beste intentsitate forma multzo batean, forma sinbolikoetan. Forma sinbolikoen konotazioa, duten esanahia nolabait hizkera forma arruntek baino zuzenago adieraztean datza. Honen azalpena, gero aztertuko dugun gramatika egituraren zenbait arazori dagokie; hiztunari, hotsak esanahiarentzat guztiz egokiak direla begitantzen zaio. Adibidez flip, flap, flop, flutter, flimmer, flicker, flutter, flash, flush, glare, glitter, glow, gloat, glimmer, bang, bump, lump, thump, thwack, whack, sniff, snuffle, snuff, sizzle, wheeze [ikus 12.9 forma hauen hots esanahi loturarako].

Forma sinbolikoak dituzten hizkuntzetan bada adostasunik, baina ziurrenik desadostasun gehiago, elkarloturik dauden hots eta esanahiei dagokienez. Bada forma sinboliko mota berezi bat, nahikoa hedatua dagoena: formaren errepikaketa, hots aldaketa txiki batekin, adibidez ttipi-ttapa, siri-miri, txipi-txapa, kili-kolo, tiriki-trauki, zirri-borro.

Hauen oso antzeko ditugu forma antzeztu edo onomatopeiak, hotsa sortzen duen izakia edo hotsa adierazten dutenak: hizkera antzeztuak hotsa antzezten du: kikiriki, miau, mu, bee. Txori izen asko honelakoak ditugu: kuku, adibidez. Forma bizkoiztuak ugari dira:

din-dan, txuku-txuku, siri-miri, dilin-dalan. Forma hauek hizkuntzaz hizkuntza aldatzen dira: Frantsesdunen txakurrak gnaf- gnaf dio, eta alemanieradunen kanpaiak bim-bam.

Aipaturiko formen artean, batzuek haurtzaroko konotazioa dute: haur-hizkuntza dira. Ezagunenak mama "ama" papa "aita" ditugu. Ingeleseztan, ia silaba bizkoiztu oro erabil daiteke, edozein esanahiz, haur-hizkuntza gisa; familia bakoitzak ['dijdi, 'dajdi, 'dajdi, 'mijmi, 'wawa] motako formen antzeko ondare propioa sortzen du. Ohitura honek haurrak errezki errepika ditzakeen formak sortzen ditu, eta helduei, haurraren esaldiak ohiko zeinu bihurtzen laguntzen die ere.

Ezizenezko konotazioa edo konotazio hipokoristikoa haur-hizkuntzarekin bildu ohi da maiz. Ingeleseztan, Lulu bezalako ezizen gutxi batzuek bakarrik daukate haur hizkuntzako eredu bizkoiztua. Frantseseztan, honelakoak ugari dira: Mimi, Nana, eta abar. Ingeleseztan, ezizenak ez dira honen eredu bereko: Tom, Will, Ed, Pat, Dan, Mike izen osoaren laburketa gisa deskriba daitezke; baina hau ez da honela Robert izenetik datorren Bob, edo Edward izenetik Ned, edo William izenetik Bill, Richard izenetik Dick, John izenetik Jack ezizenetan. Batzuek [-ij] atzizki txikigarria daramate, hala nola, Peggy, Maggie, Margaret izenetikoa, edo Fanny Frances izenetik, Johnny, Willie, Billy.

Zentzugabeko formetan ere, bada intentsitate konotaziorik. Haurtariko batzuek, ohikoak diren arren, ez dute inolako denotaziorik, adibidez tra-la-la, pi-ri-pi-pi, din-don-dan. Edozein hiztunek asma ditzake zentzugabeko formak; izan ere, hiztunak asmatutako forma guztiak zentzugabeak dira, inguruko hiztun lagunak esanahi jakin baterako zeinu gisa erabiltzeko konbentzitzen dituen artean bederen.

Oharrak

Testuko hainbat adibide, Greenough-Kittredge bilduma herrikoi bikainetik hartuak dira. Ikus baita ere Bréal; Paul, Prinzipien 74; Mc-Knight; Nyrop Liv; Darmester, Vie; Hatzfeld. Ingeleseztan hitz bakanetarako, ikus NED. Esanahiaren ikerketaren egoera: L. Weisgerber in GRM 15.161 (1927). Esanahiaren ikuspegi mentalista: Ogden-Richards. Bibliografia: Collin; G. Stren.

7.1. Senitarte hitzak: L. Spier in University of Washington Publications 1.69 (1925). Erakuspena: Weiss 21. Sagar hitzaren definizioa Sarasolaren Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia-tik hartua, Donostia (1984).

7.7. Nahita eginiko desitxuraketak: M. Reed in American speech 7.192 (1932). Barregarri bihurturiko formulak: Horn, Sprachkörper 18.

7.8. Ikus bereziki Collin 35.

7.9. Hizkera mailen adibideak: Norren VS 1,21, 30. orrialdean taula duelarik. Farmer-Henley; Mencken, The American Language.

7.10. Tabu: Meillet, Linguistique 281; G. S. Keller in Streitberg Festgabe 182.

7.11. Jespersen Language 396; Hilmer; Wheatley. Forma hipokoristikoa: Sundén; Rotzoll; L. Müller in Giessener Beiträge 1.33 (1923).

GRAMATIKA FORMAK

8.1. Gure orainarteko eztabaidak, hizkuntza oro zeinu multzo batez, hizkuntza formez osaturik dagoela erakutsi digu. Hizkuntz forma bakoitza, ale zeinugile, hots fonema konbinaketa zehatz bat da. Hizkuntza guztietan, fonema kopurua eta gertatzen diren fonema-konbinaketa kopurua guztiz mugatuta daude. Hizkuntz forma ahoskatuaz, hiztunak egoera bati erantzunarazten die entzuleei; egoera hau, eta honi emandako erantzunak, formaren hizkuntzazko esanahia osatzen dute. Hizkuntz forma bakoitzak esanahi zehatz eta iraunkorra duela ontzat hartu dugu, hizkuntza bereko beste edozein hizkuntz formaren esanahia ez bezalakoa dena. Honela, hizkuntz forma beraren zenbait ahoskaldi entzutean, esaterako gose naiz, ondokoak egiaztat hartzen ditugu: (1) soinu aldetiko ezberdintasunak garrantzigabeak direla (ez fonetikoak), (2) hiztun askoren egoerek ezaugarri komunik badutela, eta egoeron arteko aldeak garrantzigabeak direla (ez semantikoak), eta (3) hizkuntzazko esanahi hau hizkuntzako beste edozeinetik ezberdina dela. Onarpen hau egiaztaezina dela ikusi dugu, hiztunaren egoerek eta entzulearen erantzunak munduko ia zeinahi gauza bil dezaketelako, eta, bereziki, beren kirio sistemen egoeraren arabera delako neurri handi batean. Areago dena, hizkuntzaren historian zeharreko aldaketaz dihardugunean, gure onarpen hau betetzen ez den zenbait kasu aztertuko ditugu. Orokorki, baina, hiztunek erarik landuenetako elkarlanean aritzeko gauza izateak onarpen hau bidezkoa dela erakusten digu. Hizkuntza bat deskribatzean, elkarlan honen jokabidea delako gizarte batean delako garai batean dugu aztergai batik bat, eta ez bere lantzean behineko huts egiteak, edo bere historian zeharreko aldaketak. Hala, bada, hizkuntzalaritzaren maila deskribatzailea, hizkera-formen azterketa lehor samarrak osatua da, hizkera formek zehatz daitezkeen esanahi iraunkorrak dituztelako onarpenari jarraituz.

Gure oinarritzko onarpena aldatu beharra dago, hala eta guzti ere, hasiera hasieratik, beste modu batera. Hizkuntza bateko forma kopuru handi samarra bildu ondoren, gure orainarteko eztabaidan saihestu egin dugun ezaugarri batekin egiten dugu topo: hizkuntz formen arteko atalkako antzekotasuna. Eman dezagun hiztun bati ondoko ahoskaldia entzuten diogula:

John ran "Jonek laster egin zuen"

eta zertxobait geroago, berak edo beste hiztun batek ondoko hau dioela:

John fell "Jon erori da"

Berehala jabetzen gara forma bi hauek, John ran "Jonek laster egin zuen" eta John fell "Jon erori zen", neurri bateraino antzekoak direla fonetikoki, biek John [j? n] alea biltzen baitute, eta gure ezagutza praktikoak esanahiek ere antzekotasunik badutela diosku: forma batek [j? n] hots alea biltzen duen guztietan, esanahiak elkarteko gizon edo mutilen batekin du zerikusia. Izan ere, gauzak ondo joanez gero, baten batek

John! "John!"

forma bakarrik, aldamenekorik gabe ahoskatzen duela entzun genezake.

Honelako hainbat gertakari ikuskatu ondoren, hizkuntzalaritzako oinarritzko onarpena hurrengo moldean aldatu beharko dugu: Hizkera-elkarte batean, zenbait ahoskaldi antzekoak dira edo atalkako antzekotasuna daukate, bai soinuaz, bai esanahiez.

Atalkako antzekotasuna duten formen atal komuna (gure adibideko John), esanahi iraunkorra duen hots forma batek osatzen du: beraz, hizkuntz formaren zehaztapenari moldatzen zaio. Antzekotasuna duten ahoskaldietan komunak ez diren atalak ere (gure adibidean run "laster egin" ahoskaldi batean, fell "erori" bestean), hizkuntz formak izan daitezke. John ran "Jonek laster egin du" forma entzun ondoren, Bill run "Billek laster egin du" forma entzun genezake, eta baita agian bakarturiko run "laster egin" bat (esaterako, galdera baten erantzun gisa). Gauza bera gerta daiteke John fell "John erori

zen" esaldiko fell "erori" atalarekin: Dan fell "Dan erori da" bezalako forma entzun genezake, edota bakartutako fell "erori" ahoskaldia ere.

Beste kasu batzuetan, alferrik egon gaitezke forma bakartuaren zain. John, Bill eta Dan formak ezagutzen ditugula, Johnny "Johntxo", Billy "Biltxo" eta Danny "Dantxo" formak entzun genitzake, eta -y [-ij] "-txo" bakartua entzuteko itxaropena izan, "txiki" esanahia lukeena, baina kasu honetan ez dira gure itxaropenak beteko. Era berean, play "jolastu" eta dance "dantza egin" formen ezagutza izanik, playing "jolasten" eta dancing "dantza egiten" formak entzun genitzake, eta alferrik itxaron, bakartutako -ing "ten" bat entzutea, horrela silaba honen esanahi nolabait ilunari antzeman ahal izateko. Zenbait atal bakarrik agertzen ez badira ere, hizkuntz formak deritzegu, esanahi iraunkorra duten hots formak baitira, [ij] edo [in] kasu. Inoiz bakarturik ahoskatzen ez den hizkuntz forma, forma lotua da; beste guztiak (esaterako John run "Johnnek laster egin zuen" edo John, edo run, edo running) forma askeak dira.

Beste kasutan, alferrik aritzen gara forma baten gertaeraren zain, beste forma baten atal gisa bada ere. Adibidez, cranberry forma entzunaz, berehala jabetzen gara beste formatan ere agertzen den berry "bikor" atalaz, blackberry "masusta" hitza kasu, eta bakarturik ere entzun genezake, baina cranberry formaren beste atalarekin ez dugu halako arrakastarik izango. Izan ere, *cran forma bakarturik entzuteko zain egotea ez da alferrikakoa bakarrik, baizik eta, nahi adina entzunik ere, ez dugu atal hau cranberry konbinaketaz kanpo entzungo, eta ezin dugu hiztunengandik cran- atal hau duen beste formarik lortu. Benetako lana egitean, hizkuntzen erabilera ikuskatzean, berehala ikasten dugu horrelako formak galdetzea bide egokia ez dela; gure galderek hiztunak nahasten dituzte, eta benetakoa ez den baietza emanaz saia daitezke gutaz libratzen, adibidez "A, bai, cran hitzak "gorri" esan nahiko du seguruenik" esanda. Xedera honetan erortzen ez bagara, cran atala cranberry konbinaketan bakarrik agertzen dela aterako dugu ondorio. Alabaina, hots forma iraunkorra duenez, eta bere esanahia iraunkorra denez ere, cranberry bikor (berry) mota delarik, beste bikorretatik bereizten dena, cran hizkuntz forma dela diogu. Adibide hau honela orokortzea egokia dela erakusten digu esperientziak: ale bakanak, konbinaketa bakar batean ageri direnak, hizkuntz formak dira.

Batzutan, fonetikoki antzekoak diren formak esanahiez ere berdintsu diren ala ez erabakitzea zaila egiten zaigu. Strawberry "marrubi" hitzeko straw atala, strawflower formako straw atala bezalakoxea da fonetikoki, baina esanahi "bera" duten ezin esan genezake [straw hitzak, bakarturik, "lasto" esan nahi du]. Hitzunei galdetzen badiegu, batzuetan era batera eta besteetan bestera erantzungo digute; ez dakite guk baino gehiago. Zailtasun hau, semantikaren zailtasun unibertsalaren alde bat baino ez dugu: benetako mundua ez da zehatz-mehatza.

8.2. Beraz, hizkuntz forma batzuek beste forma batzuen atalkako antza dutela ikusten dugu; adibide gisa, John run "Jones laster egin du", John fell "Jon erori da", Bill ran "Billek laster egin du", Bill fell "Bill erori da"; Johnny "Jontxo", Billy "Billtxo"; playing "jolasten", dancing "dantza egiten"; blackberry "masusta", cranberry "amerikar bikor mota"; strawberry "marrubi", strawflower "lore lehor". Beste hizkuntz forma baten atalkako antzekotasuna duen hizkuntz forma, forma konplexua dugu.

Edozein (bi edo gehiago) forma konplexuren atal komuna hizkuntz forma da ere; izan ere, forma konplexu horien osagaia (edo atala) da. Osagaia forma konplexuetan bildurik (edo barneraturik, edo beren barnean) dagoela esan ohi da. Forma konplexu batek, atala komunaz gaindi, beste hondarkirik baldin badu, esaterako cran- silaba cranberry adibidean, beste ezein hizkuntz formatan ageri ez dena, hondarki hau ere hizkuntz forma da; forma konplexuaren osagai bakana da. Gure goragoko adibidetako osagai formak hauek dira: John, ran, Bill, fell, play, dance, black, berry, straw, flower, cran-

(cranberry-ko osagai bakana), -y (Johnny, Billy adibideetako forma lotu osagaia), -ing (playing, dancing adibideetako forma lotu osagaia). Edozein forma konplexutan, osagai bakoitzak besteei laguntzen diela esan ohi da.

Beste hizkuntz formaren atalkako antzekotasun fonetiko-semantikorik ageri ez duen hizkuntz forma, forma soila edo morfema dugu. Honela, bird "txori", play "jolas(tu)", dance "dantza(tu)", cran-, -y "txo", -ing "tzen", morfemak ditugu. Morfemek atalkako antzekotasun fonetikorik erakuts dezakete, adibidez bird "txori" eta burr "gubil" formek badute atalkako antzekotasun fonetikorik, eta badira homonimoak ere, pear "madari", pair "bikote" eta pare "moztu, zuritu" bezalakoak, baina antzekotasuna fonetikoa da soilik, eta ez dute esanahi aldetiko loturarik.

Guzti honetatik, badirudi forma konplexu guztiak eraikiak direla, fonetika aldetik bereiz dakizkien osagai edo morfemei dagokienez bederen. Oinarritzko osagai hauen kopurua oso handia izan daiteke. Poor John run away "Jon gaixoak ihes egin zuen" formak bost morfema biltzen ditu: poor "gaixo", John, ran "laster egin", a-(aground, ashore "lehorrera", aloft "goian", around "inguruan" formetan berragertzen den forma lotua), eta way "bide". Alabaina, forma konplexuen egitura ez da hain soila; ezingo genituzke hizkuntzaren formak ulertu, forma konplexu guztiak biltzen dituzten oinarritzko formetara bihurtuko bagenitu. Darabilgun gaiari begiratu dion edozein ingelesdunek ziurta diezaigukeenez, Poor John run away "John gaixoak ihes egin zuen" formaren ondoko osagaiak poor John "John gaixoak" eta run away "ihes egin zuen" ran away formaren ondoko osagaiak run "laster egin" morfema eta away "urrunera" forma konplexua ditugu, eta azken honen osagaiak a- eta way dira. Bide honetatik bakarrik, analisi egokiak oinarrian dautzan morfema osagaietara eraman gaitzake. Honetarako arrazoiak beherago ikusiko ditugu.

8.3. Morfema bat fonetikoki deskriba daiteke, fonema batek baino gehiago osatua baita, baina bere esanahaia ezin daiteke gure zientziaren barrutian aztertu. Adibidez, ikusi dugu pin "orratz" morfemak baduela beste morfema batzuekin antzekotasunik, esaterako pig "txerri", pen "idazluma", tin "lаторria", ten "hamar", eta, antzekotasun honetan oinarriturik, hiru fonemen arabera zehatz genezake (#3.4.), baina antzekotasun hauek esanahi aldetikoekin loturarik ez dutenez, ezin diogu fonemari inolako esanahirik egotzi, eta ezin genezake, gure zientziaren hedaduraren barnean, morfemaren esanahia aztertu. Morfema baten esanahiari semema deritzazio. Hizkuntzalariak ontzat hartzen du semema bakoitza esanahi ale zehatz eta iraunkorra dela, beste esanahi guztietatik, gainerako hizkuntzako sememak barne, berezi egiten dena, baina ezin dezake hau baino urrutirago jo. Wolf "otso", fox "azeri" eta dog "txakur" morfemen egituran ez dago beren esanahien arteko harremana argi diezaigukeen ezer; zoologialariarentzako arazoa da hau. Zoologialariak eskaintzen digun esanahi hauen zehaztapena, eskertzeko lagungarri praktikoa zaigu, baina ezin daiteke onartu edo arbuia gure zientziaren oinarriak erabiliaz.

Hizkuntza bezalako zeinu sistema erabilgarri batek zeinu-ale gutxi batzuk izan ditzake, baina zeintzen dituen gauzak -gure kasuan, benetako munduak biltzen duen oro- asko eta askotarikoak izan daitezke. Honela, bada, zeinuak (alerik txikiak morfemak dituztenak), zeinu ale (fonema) ezberdinen konbinaketez osatuak dira, eta konbinaketa horietako bakoitzari, arbitrarioki, benetako munduko ezaugarri bat ezartzen zaio (semema). Zeinuak azter daitezke, ez ordea zeindutako gauzak.

Guzti honek, hizkuntzaren azterketak esanahitik ezik hots-formatik abiatu behar delako ondorioa areago oinarritzen du. Hots-formak -hizkuntzaren morfema bilduma osoa, demagun- fonemen eta fonema sailen bitartez deskriba daitezke, eta, oinarri hau harturik, era egoki batean sailka edo zerrenda daitezke, alfabetikoki, adibidez;

esanahiak, baina -gure adibidean hizkuntzaren sememak-, ikuskatzaile orojakitun batek bakarrik azter litzake, edo goitik behera zerrendatu.

8.4. Forma konplexu guztiak morfemez eraturik daudenez, morfema zerrenda oso batek hizkuntzaren hots forma guztiak azalduko lituzke. Hizkuntza bateko morfema bilduma osoari lexikoa deritzaio. Alabaina, hizkuntza baten lexikoa ezagutu eta semema bakoitzaren ezagutza egokia bagenu ere, hizkuntza honetako forma asko ez ulertzea gerta liteke. Ahoskaldi guztiek lexikoiak ezin azalduzko ezaugarri axolazkoak izan ohi dituzte. Ikusi dugunez, adibidez, poor "gaixo", John, ran "laster egin", a-, way "bide" bost morfemek, zeintzuek poor John run away "Jon gaixoak ihes egin zuen" forma osatzen baitute, ez dute ahoskaldi honen esanahi osoa adierazten. Esanahi honen alde bat, morfemok forma konplexuan duten atonketaren arabera da -esaterako, beren hurrenkera. Hizkuntza guztiek formen atonketaren bidez erakusten dute esanahiaren alde bat. Honela, ingelesez, John hit Bill "Jonek Bill jo zuen" eta Bill hit John "Billek John jo zuen" formak esanahiaren aldetik bereizten dira, morfemak ahoskatzeko hurrenkera ezberdin bioi esker.

Hizkuntza bateko formen atonketa adierazgarriak bere gramatika osatzen du. Orokorrean, hizkuntz formak atontzeko hiru bide daudela dirudi:

(1) Hurrenkera, forma konplexu baten osagaiak ahoskatzean sortzen den segida dugu. Hurrenkeraren garrantzia, John hit Bill "Jonek Bill jo zuen" eta Bill hit John "Billek Jon jo zuen" bezalako bikoteen arteko aldean azaltzen zaigu bikainki. Bestetik, *Bill John hit ez da ingelesezko forma, gure hizkuntzak ez baititu osagaiak hurrenkera honetan atontzen; era berean play-ing "jolasten" forma bat dugu, baina *ing-play ez. Batzuetan, hurrenkera ezberdintasunek konotazio balioa izan dezakete; honela, Away ran John "urrun ihes egin zuen Jonek", John run away "Jonek urrunera ihes egin zuen" baino biziagoa da.

(2) Doinua, bigarren mailako fonemen erabilera da. Bigarren mailako fonemak, gogora dezagun (#5.11), morfeman azaldu beharrean, morfemen gramatikazko atonketan bakarrik ageri direnak ditugu. John [lj? n] bezalako morfema, edota run [ron] bera ere, abstrakzioak ditugu egiazki, zeren morfema baten benetako edozein ahoskaldi gramatikazko esanahia dakarren bigarren mailako fonema batek lagundua gertatzen baita. Ingelesez, morfema bakarturik ahoskatzen bada, bigarren mailako fonema den doinuak lagundu ohi du (#5.6.): beraz, John!, edo John? edo John[.] gisan ahoskatzen da -azken aldagarria beheranzko doinuaz, galderaren erantzunean legez- eta ez dago morfemak inolako azken doinurik jasotzen ez duen forma abstraktu edo neutralik. Ingelesezko forma konplexuetan, zenbait osagaik bigarren mailako indar fonemez lagunduak dira beti (#5.3); honela, indarraren lekuak bereizten ditu convict izena [indarra lehen silaban daramana] eta convict aditza [indarra bigarren silaban daramana].

(3) Aldaketa fonetiko, forma baten oinarriko fonemen aldaketa dugu. Adibidez, do [duw] "egin" eta not [n? t] "ez" formek forma konplexua osatzen dutenean, do formaren [uw] atalaren ordeztu [uw] ahoskatu ohi da, eta, hau gertatzen den guztietan, not formak bere bokala galtzen du, ondorioz konbinaturiko forma don't [dow nt] gertatzen delarik. Adibide honetan, aldaketa aukerazkoa da, eta bada aldatugabeko do not forma ere, konotazio aldeko ezberdintasunik baduena. Beste kasu batzuetan, ez daukagu aukerarik. Honela, "eme" esanahia duen -ess atzizkia, count-ess "kondesa" forman adibidez, duke [d(j)uwk] "duke" formari gehi dakioke, baina konbinaketa honetan, duke forma duch- bilakatzen da [do|c-], ondoriozko hitza duchess ['do|ces] baita.

Zehazki mintzatuz, kasu horietan morfemak hots forma ezberdin bi (edo, batzuetan gehiago ere) dituela esan beharko genuke, hots, not morfemak [n? t] eta [nt], do morfemak [duw] eta [dow], duke eta duch-, eta aldaera hauek halako baldintzapetan ageri direla. Gure adibideetan, dena den, aldaeretakoa batek askoz hedadura zabalagoa

du, eta, ondorioz, oinarritzko aldaera da. Beste kasu batzuetan, aldaerak hedadura berdintsukoak dira. Run "laster egin (orainaldia)" eta ran "laster egin (lehenaldia)" formetan, adibidez, bietariko ezein ez dago forma lagungarri bati loturik, eta zalantzan ibili gaitzke oinarritzko aldaera aukeratzeko. Alabaina, keep "gorde (orainaldia)": kep-t "gorde (lehenaldia)" bezalako beste aditz bikotetan, lehen aldiko formak beste forma lagungarri batekin (-t) bakarrik ageri den aldaera ageri duela ikusten dugu (kep-); beraz, ahalik eta itxuraketarik erabatekoena lortzeko, forma ez jokatu hartzen dugu oinarritzat (keep "gorde", run "laster egin"), eta lehenaldian ageri den forma aldaera fonetiko aldatu gisa sailkatzen dugu (kep-, ran). Aukera hau zailago den zenbait gertakari ikusiko ditugu; saiatzen gara, noski, azken batean, gertakarien deskribapenik soilena lortzeko moduan egiten dugu oinarritzko aldaeraren aukeraketa.

(4) Formen aukeraketak badu eraginik esanahian, zeren eta, gramatika atonketa berberetan jarritako forma ezberdinek esanahi ezberdinak osatzen baitituzte. Adibidez, bukaerako goranzko doinuaz ahoskatzen diren zenbait morfema pertsona baten jaramona edo etorrera lortzeko dira (Jon!, mutil!), era berean ahoskatzen diren beste zenbait aginduak direlarik (Korri!, Jauzi!), eta ezberdintasun hau zenbait forma konplexutara ere hedatzen da (Smith jauna!, Andereño!, batetik, alde egin hadi!, itsasbazterra!). Esklamazio bukaera doinuz ahoskatzen diren formak, doinuagatik beragatik, dei baten esanahia dutenak, hizkuntzako forma klase bat osatzen dutela esan liteke; "pertsona izen esapideak" dei genitzake. Era berean, aginduzko esanahia duten esklamazio bukaera doinuz ahoskatzen diren formek, arrazoi honengatik, "jokatugabeko esapideen" klasea osatzen dute. Esklamazioa, deia ala agindua dela, klase bi hauetatik bateko forma aukeratzearen arabera kontua da.

Forma konplexu baten esanahia osagai formen aukeraketaren arabera da, neurri batean. Honela, edan esnea eta begira Jon ahoskaldiek ekintzak izendatzen dituzte, eta, ikusi berri dugunez, jokatugabeko esapideak dira, baina esne epela eta Jon gaixoa ahoskaldiek izakiak izendatzen dituzte. Bigarren osagaiak, esnea eta Jon, berdintsu dira; ezberdintasuna lehen osagaiaren aukeraketan datza. Ezberdintasun honen arabera, edan eta begira formak euskarazko klase batekoak ditugu (hots, "aditz iraunkorren" multzokoak), eta epel, gaixo formak beste batekoak ("adjektiboak" dei genitzakeenekoak).

Aukeraketa ezaugarriak arras konplexuak izan ohi dira, forma- klase batzuk beste azpiklaseetan zatitzen direlarik. Ingelesezt, John edo the boys "mutilak" bezalako formak ("izen esapide nominatibo" forma-klasekoak), ran "laster egin zuen" edo went home "etxera joan zen" ("aditz jokatu esapide" forma klaseko) forma batekin konbinatuz gero, ondorioz gertatzen den forma konplexuak gauzaki honek delako ekintza "betetzen" duela esan nahi du (John ran "Jonek laster egin zuen", the boys ran "mutilek laster egin zuten", John went home "Jon etxera joan zen", the boys went home "mutilak etxera joan ziren"). Aukeraketa ezaugarri hauek, aitzitik, areagoko ohitura batek osatzen ditu: John runs fast "Johnek azkar laster egiten du", baina the boys run fast "mutilek laster egiten dute" esaten dugu, eta ez dugu alderantzizko konbinaketa sekula egiten, hots, John forma run fast formarekin lotzekoa, edo the boys forma runs fast formarekin lotzekoa. Esapide nominatiboen klasea, azpiklase bitan banatzen da ("singularra" eta "plurala") eta, era berean, aditz jokatu esapideen klasea, azpiklase bitan ("singularra" eta "plurala"); honela, gauzakiak ekintza burutzen duela esan nahi duten forma konplexuetan, osagai biek "singular" edo "plural" azpiklaseari dagokion konmuztadura ageri dute. Latineraz, pater filium amat (edo filium pater amat) formak, "aitak semea maite du" esan nahi du, eta patrem filius amat (edo filius patrem amat) formak, "semeak aita maite du" esan nahi du; pater "aitak" eta filius "semeak" formak, amat "maite du" bezalako aditz batekin lotzean, ekintzaren "egilea" adierazten duten

forma-klasekoak dira ("kasu nominatiboa"); patrem "aita" eta filium "semea" formak, ordea, amat bezalako aditz batekin lotzean ekintzaren "jasalea" ("objektua" edo "helburua") adierazten duten beste forma-klasekoak dira.

Aukeraketa ezaugarriak guztiz arbitrarioak eta apetzakoak izan daitezke sarri. Prince "printze", author "egile", sculptor "eskultore" formak -ess atzizkiarekin konbinatzen dugu princess "printzesa", authoress "egile (eme)", sculptress "eskultore (eme)" adibideetan (azken forman [r,] soinutik [r] soinurako aldaketa fonetikoaz), baina ez king "errege", singer "kantari" painter "margolari" formetan. Ohitura honen poderioz, lehen multzoko hitzak, bigarren multzokoak kanpo dituen forma klase batekoak dira.

8.5. Gramatikazko atonketa ezaugarriak hainbat konbinaketatan azaltzen dira, baina, normalean, banatu eta, bereizirik deskriba daitezke. Gramatikazko atonketa ezaugarri soilari, gramatika ezaugarria edo taxema deritzo. Lexikoian fonema dena, gramatika taxema dugu -hots, formaren gutxienezko alea. Fonema bezala, taxema, bakarrean harturik, abstraktuki, esanahirik gabea da. Fonema konbinaketak, edo, ez hain sarri fonema bakarrak ere, benetako zeinu lexiko (hots forma) gertatzen diren legez, taxema konbinaketak, edo, sarri asko taxema bakarrak, gramatika atonketa ohiak izan ohi dira, forma taktikoak alegia. Bere esanahia duen hots forma hizkuntz forma da; bere esanahia duen forma taktikoa gramatika-forma dugu. Forma baten lexikozko izaera hutsa, dagozkion atonketa ohiturekin aldentzeko aukera daukagunean, lexiko-formaz mintzatuko gara. Lexiko-formen kasuan, ale esanahidun txikiak morfematzat zehaztu ditugu, eta dagozkien esanahiak semematzat; bide bera jarraituz, gramatika formaren ale esanahidun txikienei tagmema dei geniezaieke, eta beren esanahiei episemema.

Run! "Korri!" ahoskaldiak, adibidez, gramatika ezaugarri (taxema) bi biltzen ditu, alegia, esklamaziozko bukaerako doinua eta jokatu gabeko aditza erabiltzeko aukerazko ezaugarria (esaterako, izena erabili beharrean, John! adibidean legez). Taxema hauetariko bakoitza forma taktikoa da ingelesez, biak banaka ere erabil baitaitezke zeinugintza ale bezala. Taxema bakoitza bere esanahiarekin hartuz, gramatika formako ale gisa (tagmema gisa) deskribatzen ditugu. Esklamazio bukaera-doinuzko tagmema edozein lexiko formarekin ager daiteke, eta ondorioz, agian gutxi gora-behera "eragingarri gogor" gramatikazko esanahia eransten dio. Forma jokatu gabeak forma-klase batean biltzen dituen tagmemak, "ekintza" izenpeaz zehaztu eta klase esanahia dei genezakeen gramatika esanahia (episemema) du.

Tagmema, taxema batek baino gehiagok osatua izan daiteke. Adibidez, John ran "Jonek laster egin zuen"; poor John ran away "Jon gaixoak ihes egin zuen"; the boys are here "Mutilak hemen daude"; I know "Badakit" formetan, hainbat taxema aurkitzen ditugu. Osagai bat, esapide nominatiboen forma klasekoa da (John, poor John "Jon gaixoa", the boys "mutilak", I "ni"). Beste osagaia, aditz jokatuaren forma-klasekoa da (ran "laster egin zuen, ran away "ihes egin zuen", are here "hemen daude", know "dakit"). Areagoko aukeraketa taxema batek esapide nominatiboari dagozkien aditz jokatuak ezartzen dizkio; honela, ondoko hiru adibideetan, I am "ni naiz", John is "Jon da", you are "zu zara", osagaiak ezin daitezke edonola elkartu. Hurrenkera taxema batek esapide nominatiboa aditz jokatuaren aurretik jartzen du: ez dugu *ran John esaten. Areagoko hurrenkera taxemak, oinarritzkoa nolabait hankazgoratzen dutenak, kasu berezietan ageri ohi dira, hala nola did John run? "Jonek arin egin al zuen?"; away run John "urrunera laster egin zuen Jonek"; will John? "(egingo) al du Jonek?". Doinu taxema, esapide nominatiboa azentu gabea den kasu berezietan ageri da bakarrik, esaterako I know [aj 'now] "badakit" adibidean. Aldaketa fonetiko taxemak ere ager daitezke zenbaitetan, hala nola John's here "Jon hemen dago" is "da" [z] ahoskatzen delarik, edota I'd go "joango nintzateke", would ahalezko forma [d] ahoskatzen delarik. Ohar bedi taxema hauek, bakarka hartuta, ez dutela esanahirik, baina, denak elkarrekin hartuta, gramatika

forma bat, tagmema bat osatzen dutela, eta bere esanahia zera dela, osagai batek ("esapide nominatiboak") beste osagaia (aditz jokatu esapidea) "betetzen" duela.

John ran! "Jon korri!" esatean, hiru tagmema dituen gramatika forma konplexua osatu dugu. Hauetariko bat "eragingarri gogorra" da, bigarrena "(gauzakiak) (ekintza) betetzen du", eta hirugarrenak ahoskaldi "oso eta berri" episemema dauka, eta, formaren aldetik, ekintza-egile esaldia perpaus gisa erabiltzea da bere aukeraketa ezaugarria.

8.6. Ahoskaldi oro, lexiko eta gramatika formen bidez deskriba daiteke; gogoratu behar dugun gauza bakarra, esanahiak gure zientziaren arabera zehaztezinak direla da.

Morfema oro (bere esanahiaz at) osorik deskriba daiteke, delako atonketa duen fonema bat edo gehiagoko multzo gisa. Honela, duke "duke" morfema, [d], [juw] eta [k] fonema soil eta konposatuez osatzen da, hurrenkera horretan; eta -ess "-sa" morfema, [e] eta [s] fonemaz osatzen da, hurrenkera horretan. Edozein forma konplexu deskriba daiteke (esanahiaz at), forma osatzen duten ondoko osagai forma eta gramatika ezaugarrien (taxemen) bidez. Honela, duchess ['doʃes] "dukesa" forma konplexua, duke [djuwk] "duke" eta -ess [es] lehen osagaiez osaturik dago, ondoko eran atondurik: Aukeraketa: duke osagaia, -ess formarekin konbina daitezkeen ingelesezko forma klase berezi batekoa da. Forma klase honek, adibidez, count "konde", prince "printze", lion "lehoi", tiger "katamotza", author "egile", waiter "kamarero" formak biltzen ditu, baina ez ditu man "gizon", boy "mutil", dog "txakur", singer "kantari" formak biltzen; gizaarren izen forma klase handiagoaren azpiklasea da. -ess formak berezko forma klase txikia osatzen du, deskribatu berri dugun klaseko formekin konbina baitaiteke bera (eta bera bakarrik). Gertakari hauek guztiak, batera harturik, aukeraketa taxema bakartzat har daitezke.

Hurrenkera. -ess forma, forma laguntzailearen ondotik ahoskatzen da.

Doinua. -ess forma azenturik gabe ahoskatzen da; forma lagungarriak indar gorena dauka.

Aldaketa fonetikoa. duke formako [juw] atalaren lekua [o] fonemak hartzen du, eta [k] soinuarena [c] soinuak.

Beraz, duke "duke" eta -ess "-sa" formak harturik, lau gramatika ezaugarrien itxuraketak, osoro deskribatzen du duchess "dukesa" forma.

Edozein ahoskaldi deskriba daiteke lexiko forma eta laguntzen dituzten gramatika ezaugarrien bitartez. Honela, bada, Duchess! "dukesa!" ahoskaldia, duchess lexiko forma eta esklamazio bukaera-doinu eta izen esapidearen aukeraketa taxemaz osaturik dago.

Zientziaren batek darabiltzagun aleen esanahiez hornituko bagintu, hots, morfema bien (duke eta -ess) esanahiez (sememak) eta hiru tagmemen (duke eta -ess formen atonketa; esklamazio bukaera-doinuaren erabilera; izen esapidearen aukeraketa) esanahiez (episememak), orduan Duchess! "dukesa!" ahoskaldiaren esanahia osoro aztertu eta zehazturik legoke.

8.7. Hizkuntzak forma ezaugarri jakin bati loturiko esanahiak bakarrik adieraz ditzakeelako beharrezko araua -edo, zehazki mintzatuz, onarpena-, gramatika formetara ere hedatzen da noski: hiztunek zeinuen bidez zeindu dezakete bakarrik. Hizkuntzaren ikastun asko nahastu egin dira gai honi dagokionez, gramatikazko ezaugarriak ahoska eta transkriba daitezkeen fonemak edo fonema multzoak ez direlako, baizik eta hots formaren atonketa hutsak. Erru hau gure ohitura eskolastikoari lepora dakioko; ohitura honengatik ez balitz, ez genuke inolako zailtasunekin topo egingo John hit Bill "Jonek Bill jo zuen" eta Bill hit John "Billek Jon jo zuen" ahoskaldiek, ingelesez, egoera ezberdin bi zeintzen dituztela esaterakoan, edota convict "preso" forma, lehenengo silaban indarra duenean, bigarrenengo silaban indarra duen convict "atxilotu" formaz

bestelako esanahia duela azaltzerakoan, edota John!, John? eta John formen artean esanahiari dagokionez alderik badela defendatzean.

John edo run bezalako forma batek, abstraktuki aipaturik, bukaera doinuari buruzko zehaztasunik gabe esaterako, ez da, propioki hitz eginik, hizkuntz forma, lexiko forma baino; hizkuntz formak, benetan ahoskatua delarik, gramatika formaren bat biltzen du beti.

Forma nahi adina soila izanik, eta edonola ahoskaturik ere, aukeraketaren bat egin behar izaten dugu, eta horren ondorioz, bere lexiko esanahiaz gaindiko gramatika esanahia adierazten duen ahoskaldia agertzen zaigu; bestetik, ingelesez bederen, "deklarapen" "bai-ez galdera", "areagoko galdera" edo "esklamazioa" esanahia duen doinu ereduren bat erabili behar izaten dugu baita.

Hizkuntza bateko gramatika formak hiru klase nagusitan bana daitezke:

(1) Forma bakarki ahoskatzen denean (hots, forma handiago baten osagaia ez denean), perpaus mota sail batekoa edo bestekoa da. Honela, ingelesez, [!] bigarren mailako fonemaren erabilerak esklamazio perpaus mota sortzen du, eta izen esapidearen erabilerak dei mota gertatzen digu (John!).

(2) Bi (eta ez hain sarri hiru) forma elkarrekin ahoskatzen direnean, forma handiago baten osagai gisa, elkartzen dituzten gramatika ezaugarriek eraikuntza bat osatzen dute. Honela, duke eta -ess formak duchess forman biltzen dituzten gramatika ezaugarriek, edo poor John eta ran away formak poor John ran away forman elkartzen dituzten gramatika ezaugarriek, eraikuntza bat osatzen dute.

(3) Beste forma edo forma klase baten egiunezko ordezkotzat gisa ahoskatzen diren formak ageri diren kasuetarako, hirugarren gramatika klase nagusia eratu beharko litzateke ziurrenik. Honela, ingelesezko he "bera", beste forma klase oso baten (John, poor John "Jon gaixoa", a policeman "polizia", the man I saw yesterday "atzo ikusi nuen gizona", whoever did this "hau egin duenak" eta abar, zeintzuek, ohitura honen eraginez, "ar izen esapide singularren" forma klasea osatzen baitute) egiunezko ordezkotzat bilakatzen duen aukeraketa ezaugarria, zalantzarik gabe, hirugarren gramatika forma klasetzat hartu beharra dago, eta klase honi ordezkotzatzaile izena eman diezaiokegu.

Oharrak

Hizkuntzen egiturari buruz: Sweet, Practical Study; de Saussure; Sapir; Hjelmslev; ikus baita ere Lg 2.153 (1926). Azterketa deskribatzailearen adibiderik bikainena, Hinduek sanskritoari buruz egindakoa da; ikus 1.6. ataleko oharra. Ingelesez: Jespersen, Grammar; Philosophy; Kruisinga, Handbook; Poutsma, Grammar; Alemaniera: Curme; Frantsesa: Beyer-Passy. Boas-ek hainbat hizkuntza aztertzen ditu, eta ikus baita ere Finck, Haupttypen.

8.1. Forma aurreko asteriskoak (adibidez *cran), idazleak delako forma hori inoiz entzun ez duela, edo idatzirik ikusi ez duela adierazten du. Beraz, idazleak direnik ezeztatzen duen formen aurretik ageri ohi da (adibidez, *ran John), eta baita teorikoki eraikitako formen aurretik ere (esaterako *cran, teorikoki eraikitako hitz askea, cranberry elkartuaren lehen aleari dagokiona). Azken hauen artean garrantzitsuenak, idatzietan ageri ez arren, hizkuntzalariak berregin dituenak ditugu.

PERPAUS MOTAK

9.1. Edozein ahoskalditan, hizkuntz forma beste forma handiago baten osagai gisa ageri da, adibidez John ran away "Jonek ihes egin zuen" ahoskaldiko John osagaia; bestela forma berezi gisa azaltzen da, beste hizkuntz forma (konplexu) handiago baten barne egon gabe, John! esklamazioko John bezala. Hizkuntz forma bat beste forma handiago baten barnean ageri denean, barne lekuan dagoela esan ohi da; bestela, leku absolutuan dagoela esaten da, hots, perpausa osatzen duela.

Ahoskaldi batean perpausa osatzen duen forma, barne lekuren batean ager daiteke hurrengo ahoskaldian. Gorago aipatu esklamazioan, John perpausa da, baina Poor John! "Jon gaixoa!" esklamazioan, John forma barne lekuan dago. Azken esklamazio honetan, poor John forma perpausa da, baina poor John ran away "Jon gaixoak ihes egin zuen" ahoskaldian, barne lekuan dago. Edo, berriz ere, aipatu berri ahoskaldian, poor John ran away perpausa da, baina When the dog barked, poor John ran away "txakurrak zaunka egin zuenean, Jon gaixoak ihes egin zuen" ahoskaldian, barne lekuan dago.

Ahoskaldi batek perpaus bat baino gehiago bil ditzake. Honelaxe gertatzen zaigu, inolako gramatika atonketa ohi eta esanahitsuk (inolako eraikuntzak, alegia) ahoskaldia lotzen ez duen hainbat hizkuntz forma biltzen direnean, adibidez: Nola zaude? Egun ederra dugu gaur. Tenisean arituko zara gaur bazkalondoan? Hiru forma hauen artean elkarriketaren arabera lotura egon daitekeen arren, ez dago hirurak forma handiago batean lotzen dituen gramatika atonketarik: ahoskaldiak hiru perpaus ditu.

Begi bistakoa da ahoskaldi bateko perpausaren mugak zehazturik daudela, perpaus bakoitza hizkuntz forma berezia baita, inongo gramatika eraikuntzak hizkuntz forma handiago batean bildu gabekoa. Alabaina, hizkuntza gehienetan, agian guztietan, zenbait taxemek perpaus mugak zehazten dituzte, eta, areago, perpaus motak ere bereiz ditzakete.

Ingelesezt, eta beste hizkuntza askotan ere, perpausak bigarren mailako fonema den doinualdiaren bidez mugatu ohi dira. Ingelesezt, bigarren mailako doinu fonemek adierazi ohi dituzte perpausen bukaerak, eta horrezaz gain hiru perpaus mota bereizten dituzte: John ran away [.] "Jonek ihes egin zuen" John ran away [?] "Jonek ihes egin zuen?" Who ran away [¿]. Hauetariko bakoitzari, are gehiago, harridura doinua gehi geniezaioke, denetara sei perpaus mota ateratzen zaizkigula, 5.6. atalean deskribatu legez.

Bigarren mailako fomenak perpaus bukaerak bereizteko erabiltzeak parataxi izena duen eraikuntza sortzen du; bertan, beste inongo eraikuntzak lotu gabeko forma bi, perpaus doinu bakar baten erabilerak lotzen ditu. Honela, Hamarrak dira [.] Etxera joan behar dut esaten badugu, deklarapenaren bukaerako beheranzko doinua dira forman dela, perpaus bi esan ditugu, baina bukaera doinu hau ezabatzen badugu (etenaldi doinuaz ordezkatur), forma biak loturik daude, praxiaren bitartez, perpaus bakar batean: Hamarrak dira [,] etxera joan behar dut [.]

Perpaus doinualdiak ingelesez eta beste hizkuntza askotan duen beste betebeharra, perpausaren atal hanpatuak bereiztea da. Ingelesezt, azenturik gorenena erabiltzen dugu honetarako ("Now it's my turn", "orain neure txanda da" # 5.3). Ingelesezt, atal hanpatua eraikuntza bereziren bitartez adieraz daiteke baita (It was John who did that "Jon izan zen hura egin zuena"), hala nola hitz hurrenkeraren bitartez (Away he ran "Hurrutera arin egin zuen"); indarra esanahitsua ez den hizkuntzetan, azken bide hauek ditugu nagusi, adibidez frantsesezt, C'est Jean qui l'a fait [s ? ʔaⁿ ki l a f ?] "Jean izan da egin duena". Hizkuntza batzuek hitz bereziak erabiltzen dituzte ale hanpatu baten aurretik edo atzetik, Tagalog hizkuntzak esaterako, [ikaw 'n? ? an nag'sa:bi nijan] "zu (partikula hanpatzailea) hura-esan-zuena", hots, "zuk zeuk esan zenuen hori";

menominierak orobat, [ʝo:hpeh 'niw, kan 'wenah 'wa:pah] "Gaur (partikula hanpatua), ez (partikula hanpatua) bihar". Gure [ingelesazko] indar gorenak, indargabeak izan ohi diren formak jo ditzake ere: of, for and by the people, "jendearena, jendearentzat, eta jendeak (egina)"; immigration and emigration "inmigrazio eta emigrazio".

9.2. Doinualdi ezaugarriez gaindi, aukeraketa ezaugarriek ere bereiz ditzakete perpaus motak. Orainartean eskainitako zenbait adibidetan gertatzen da holakorik, eraikuntza berezi batek, edo partikula hanpatu baten erabilerak ale hanpatua bereizten duenean adibidez. Ingelesezt, osagai galderak ez dira beren doinu-fomenagatik [¿] bereizten bakarrik, baita aukeraketa taxema batengatik ere: osagai galdera gisa erabiltzen den formak hitz edo esaldi berezi batek osatzen ditu, guk galderazko ordezkatzailerak deituko duguna, edo bestela, honelako hitz edo esaldiren bat du barnean; Who? "Nor?" With Whom? "Norekin?" Who ran away? "Nork egin zuen ihes?" With whom was he talking? "Norekin hitz egiten ari zen?".

Baliteke hizkuntza guztiek perpaus mota nagusi bi bereiztea, perpaus beteak eta perpaus txikiak dei genitzakeenak. Ezberdintasuna, aukeraketa taxema batean datza: zenbait forma perpaus forma gogokoena dira; perpaus forma gogokoena perpaus gisa erabiltzen denean, perpaus beteak dugu hau, eta beste edozein forma perpaus gisa erabiltzen denean, perpaus txikia dugu ordea. Ingelesezt, perpaus-forma gogoko bi ditugu. Bata, egile eta ekintza esaldiz osaturik dago -hots, egile eta ekintza eraikuntzaren egitura duten esaldiak: John ran away "Jonek ihes egin zuen". Who ran away? "Nork egin zuen ihes?" Did John run away? "Jonek ihes egin zuen?". Bestea, agindua dugu -lagunekin edo lagunak gabe ageri den aditz jokatuagabea: Come! "Erdu!", Be good! "Ona(k) izan!". Bigarren mota hau, esklamaziozko perpaus-doinuaz ahoskatzen da beti; aditz jokatuagabea, you "zu" egile hitzak lagundurik ager daiteke: You be good! "ona izan zu!". Adibideok erakusten digutenez, perpaus-mota betearen esanahia "ahoskaldi berri eta osoa" bezalako zerbait da, -hots, hiztunak esaten duena argibide edo gertakari beteak dela adierazi nahi du, eta horrek nolabait entzulearen egoera aldatzen du. Zenbat eta hizkera landuagoa, hainbat eta perpaus bete gehiago agertzeko joera. Perpaus beteen epistemaren izaerak eztabaida ugari sortu ditu filosofian; esanahi hau (eta beste edozein ere) behar bezala zehaztea hizkuntzalaritzaz kanpoko zeregina da. Erru itzela da esanahi hau (edo zeinahi esanahi) hizkuntzari buruzko eztabaidari ekiteko abiapuntu gisa hartzea, ezaugarri formalak hartu beharrean.

Egungo hizkuntza indoeuropar asko eta asko ingelesarekin bat datoz egile eta ekintza forma perpaus forma gogokoena izatean. Zenbait, hala nola gainerako hizkuntza germaniarrak eta frantsesa, bat datoz egile eta ekintza forma beti esaldi batean biltzean, egilea eta ekintza hitz edo esaldi banatan ageri direlarik. Beste zenbaitetan, ordea -adibidez italieraz edo gaztelaraz, eta hizkuntza eslaviarretan-, egilea eta ekintza hitz bakarrik osatzen duten forma lotuak ditugu: italieraz canto ['kant-o] "kantatzen dut", canti ['kant-i] "kantatzen duzu", canta ['kant-a] "kantatzen du", eta abar. Hizkuntza bateko perpaus forma gogokoena biltzen duen hitza, perpaus hitza da.

Zenbait hizkuntzek bestelako perpaus mota gogoko dituzte. Errusierak baditu italierazkoak bezalako egile eta ekintza motako perpaus hitzak, aditz jokatuak direnak: [po'ju] "kantatzen dut", [po'juos] "kantatzen duzu", [po'jot] "kantatzen du", eta abar. Honez gain, badu beste perpaus bete mota bat: [i'van du'rak] "Ivan leloa (da)", [sol'dat 'xrabr] "gudaria ausarta (da)", [o'tets 'doma] "aita etxean (da)". Bigarren mota honetan, osagai bat, lehenik ahoskatzen dena, izena da; beste forma, bigarrenarekin berdintzen den izena da, edo adjektiboa (adjektiboek forma berezia dute erabilerak honetarako), edo adizlagun forma.

Hizkuntza batek perpaus bete mota bat baino gehiago daukanean, mota hauek atal biko eraikuntzak azaltzean bat etor daitezke. Atal biko perpaus mota gogoko horiek

predikazio izena eman ohi zaie. Predikazioan, gauzaki itxura gehien duen osagaia subjektua deitu ohi da, eta bestea predikatua. Errusierazko mota bietatik, lehenari predikapen narratzailea deritzaio, bigarrenari predikapen berdintzailea. Atal biko perpaus mota bakarra duen ingelesa edo italiera bezalako hizkuntza batentzat, deitura hauek ez dira beharrezkoak, sarri erabiltzen diren arren: John ran "Jonek laster egin zuen" predikazioa dela esan ohi da, zeinetan egilea (John) subjektua baita, eta ekintza (ran) predikatua.

Latinak errusierak bezalako perpaus beteak zituen, baina mota narratzailea bi eratakoa izan zitekeen: bata, egile eta ekintza eraikuntzaduna: cantat "kantatzen du", amat "maite du", eta bestea helburu eta ekintza eraikuntzaduna: canta-tur "kantatua izaten ari da" ama-tur "maitatua izaten ari da". Mota berdintzailea ez zen errusieraz bezain arrunta: bea-tus ille "zorionsua (da) hura".

Tagalog hizkuntzak bost predikazio mota ditu, ezaugarri komun hauek dituztenak: subjektua agertzen da lehenengo, eta [aj] partikula tartekatzen da ([j] bokalosteetan), edo alderantzizko hurrenkera erabiltzen da, partikularik gabe.

Lehenik, bada mota berdintzailea: [an 'ba:ta j maba'it] "umea ona da", edo, alderantzizko hurrenkeran, [maba'it an 'ba:ta?] "ona (da) umea". Gero badira lau mota narratzaile, zeinetan predikatuak hitz igarotzaileak baitira, ekintza batekiko lau harreman adierazten dituztenak. Lau hitz iragale motok hauexek ditugu:

egilea: [pu'mu:tul] "ebaki zuena"

helburua: [pi'nu:tul] "ebakia"

gaia: [ipi'nu:tul] "zerbaitekin ebakia"

lekua: [pinu'tu:lan] "nonbait edo nonbaitetik ebakia"

Hitz igarotzaileok ez dira predikatu lekuetara mugatzen, gure aditzen modura; perpaus berdintzaileetan ere ager daitezke, adibidez: [an pu'mu:tul aj si 'hwan] "ebaki zuena izan zen Juan", baina predikatu lekuan agertzean, lau predikazio narratzaile mota sortzen dituzte:

egile eta ekintza: [sja j pu'mu:tul nan 'ka:huj] "hark ebaki zuen egurra"

helburu eta ekintza: [pi'nu:tul nja an 'ka:huj] "hark ebakia (zen) egurra"

gai eta ekintza: [ipi'nu:tul nja an 'gu:luk] "hark zerarekin-ebakia bolo haiztoa", hots, "bolo haiztoarekin ebaki zuen harek"

leku eta ekintza: [pinu'tu:lan nja an 'ka:huj] "hark bertatik-ebakia egurra", hots, "egurretik ebaki zuen hark".

Georgierak egile-mota eta zentzumen-mota bereizten ditu: ['v-ts?er] "idazten dut" eta ['m-e-smi-s] "soinua zait", hots, "entzuten dut". Bereizketa hauek ez dira sekula zientzia eredura egiten; georgierak ikusmena ekintza motatzat sailkatzen du: ['v- naxav] "ikusten dut".

Perpaus mota gogoko guztiek ez dute atal biko egitura: Ingelesezt, aginduak ez du aditz jokatu gabea baizik (come "erdu"; be good "ona izan"), eta lantzean behin bakarrik laguntzen dio egileak (you be good "zu ona izan"). Alemanieraz, gurea bezalakoxea den egile eta ekintza perpaus mota gogokoenaz gairi, bada aldaera inbertsonala ere, egilerik ez daukana: mir ist kalt [mi:r ist 'kalt] "hotz zait", hots, "hotzak nago"; hier wird getanzt ['hi:r virt ge'tantst] "hemen dantzatzen da". Errusieraz, bada inbertsonal mota bat, mota berdintzailetik bereizten dena subjektu gabea delako: ['nuʎno] "beharrezkoa da".

9.3. Ingelesak badu perpaus bete azpimota bat, ekintza hanpatu mota dei genezakeena; mota honetan, ekintzak do, does, did "egin du, zuen (zeinahi pertsona)" aditza hartzen du gunetzat. Aukeraketa taxema hau, I heard him "entzun nion" eta I did hear him "entzun egin nion" formen arteko aldean ageri zaigu. Ekintza hanpatu formak baditu hainbat erabilera. Aditza ale hanpatua denean (indar gorendunaz ahoskatua), mota

arruntak aditzaren eduki lexikoa (semema) indartzen du, I heard him "(ikusi ez baina) entzun egin diot" adibidean legez, edota Run home! "korri etxera! (ez ibili)". Ekintza-hanpatu motak gertaera bera hanpatzen du (ez gertatzearekin kontrajarriz), edo ekintzaren aldia (oraina edo lehena) I did hear him "entzun nion" edo Do run home "zoaz etxera!". Bigarrenik, aditza not "ez" formak laguntzen duen guztietan erabiltzen dugu ekintza hanpatu mota, I didn't hear him "ez nion entzun" edo Don't run away "ez ezazu ihes egin"; beraz, ingelesak, aukeraketa taxema baten bidez, ezezko perpaus betearen mota bereizten du.

Areago, ekintza hanpatu mota honen barnean, aditza (do, does, did) egilearen aurretik ageri den azpimota bereizten dugu. Iraulitako mota hau, bai ala ez galdera landuetan ageri zaigu, galdera doinuarekin batera: Did John ran away? "Alde egin al zuen Jonek?", Didn't John ran away? "Ez al zuen Jonek alde egin?", eta irauligabeko motari (landugabeari) kontrajartzen zaio: John ran away? "Jonek alde egin zuen?", John didn't run away? "Jonek ez zuen alde egin?".

Eztabaidatu berri ditugun ezaugarriok ez dituzte ingelesezko perpaus osoen beste ezaugarri orokorragoek adina kide hizkuntzen artean. Alemanieraz, esaterako, ezezko adizlaguna ez zaio perpaus mota berezi bati lotzen: Er kommt nicht [e:r 'komt 'nixt] "hura ez dator" forma, Er kommt bald [e:r 'komt 'balt] "laster dator" bezalakoa da. Beste hainbat hizkuntza, aitzitik, ingelesa bezalakoa ditugu, hau da, ezezko baliorako perpaus mota berezi bat erabiltzen dute. Finlandieraz, ezezko perpaus eraikuntza berezia azaltzen dute: aditza (zeinak, italieraz bezala, perpaus hitz batean egilea eta ekintza biltzen baititu), ezezko aditz berezia dugu, aditz jokatu batek edo beste aditz batek lagundurik ager daitekeena:

lue "irakurri dut" en lue "ez dut irakurri"

luet "irakurri duzu" et lue "ez duzu irakurri"

lukee "irakurri du" ei lue "ez du irakurri"

Menominieraz, hiru perpaus bete mota daude, berdintzailea, narratzailea eta ezezkoa:

narratzailea: [pi:w] "dator"

berdintzailea: [enu? pajiat] "hura (da) datorrena"

ezezkoa: [kan upianan] "ez dator"

Ezezko motan, atal biak, [kan] ezezko hitza bere joko ezberdinetan batetik eta, bestetik, aditz forma bereziz markaturiko gainerako perpausa ditugu.

Galdera landuetarako perpaus bete forma bereziak edukitzea hedatuago dago. Alemanierak, aditza egilearen aurretik dauden egile eta ekintza formak darabiltza: Kommt er? ['komt e:r?] "badator hura?" forma, Er kommt [e:r 'komt] "hura dator" ez bezalakoa dena. Frantsesak ere, galderazko eraikuntza bereziak ageri ditu: "Jon ba al dator?" galdera, Jean vient-il? [ʒ? n vj? nt i?] "Jon badator bera?" edo Est-ce que Jean vient? [ʔ ? s ke ʒ? n vj? nt?] "Ba al da Jon datorrela?" izan daiteke. Menominieraz, hiru perpaus mota nagusi bakoitzak badu galderazko azpimota bat:

narratzailea: [pi:??] "badator?"

berdintzailea: [enut pajiat?] "bera(galderazkoa) datorrena?"

ezezkoa: [kan? :? upianan?] "ez(galderazkoa) dator(ezezkoa)" hots, "ez al dator bera?".

Beste hizkuntza batzuek ez daukate perpaus mota berezirik bai ala ez galderetarako, baina zenbaitek galderazko hitz bereziak darabiltzate, latinazko venitne? [we'nit ne?] "ba ote dator?" eta num venit "ez ote dator?" (ezezko erantzuna espero duen galdera) adibidez, venit? "badator?" soilaren aldean. Bai ala ez galdera landua zeintzeko hitz txikiak (partikulak) erabiltzeko joera, hizkuntza askotan agertzen da, hala nola errusieran, txineran, tagalogeran, eta kreeran.

Hizkuntza gehienak ingelesarekin bat datoz osagai galderak hitz berezien erabileraren bitartez bereiztean, baina zehaztasunetan ezberdintasunak ageri zaizkigu: tagalog eta

menominieraz, adibidez, osagai galdera perpaus berdintzailea da beti, hots, menominierazko [aw? ? pajiati] "nor datorrena?", hau da, "Nor dator?".

Ingeleseko agindua, esklamazioetan erabiltzen den perpaus- mota bereziaren adibidea dugu. Beste zenbait hizkuntzek badituzte esklamazio mota batzutarako perpaus bete mota bereziak. Menominieraz badira horrelako bi, bata harridura adierazteko, gertaera berria edo ezustekoa denerako, eta bestea etsipenezkoa, espero zena gertatzen ez denerakoa:

Harridura

narratzailea: [piasah!] "eta badator bada!"

berdintzailea: [enusa? pajiati] "bera datorrena bada!"

ezezkoa: [kasa? upianan!] "ez dator bada!"

Etsipena

narratzailea: [piapah!] "ene, bazetorren eta!"

berdintzailea: [enupa? pajiati] "bera (zen) zetorrena baina!"

ezezkoa: [kapa? upianan!] "ez zetorren baina!"

9.4. Perpaus-forma gogokoenaz osaturik ez dagoen perpausa, perpaus txikia dugu. Zenbait forma, perpaus txiki bezala ageri dira batik bat, parataxiaz besteko eraikuntza gutxitan edota beste inongo eraikuntzatan sekula agertu gabe; forma hauei tartekaldiak deritze. Tartekaldiak hitz bereziak izan daitezke, edota ouch "ai", oh "ene", sh "ixi", gosh "ene bada", hello "kaixo", sir "jauna", ma'am "anderea", yes "bai" bezalakoak, edo baita ere esaldiak, hala nola dear me, goodness me, goodness gracious, goodness sakes alive, oh dear, by golly, you angel, [euskaraz, "ene bada", "ene koittadua", "jaungoiko maitea", "Jesus Maria eta Jose", "laztana" eta antzekoak lirarteke hauen kideak, "itzulpenak" ez badira ere] eta please "mesedez", thank you "eskerrik asko", good-bye "agur".

Orokorrean, perpaus txikiak osagarriak edo aldarrikatzaileak dirudite. Osagarri motakoak delako egoera bat gehitzen duen formez osatzen dira -hau da, aurreko hizketaldiren bat, keinuren bat, edota gauzaki baten agerpena: this one "hauxe". Tomorrow morning "bihar goizean". Gladly, if I can "pozik, ahal badut". Whenever you're ready "nahi duzunean". Here "hemen, hona". When? "Noiz?" With whom? "norekin?". Mr Brown: Mr Smith "Brown jauna: Smith jauna" (jendea elkarri aurkeztean). Drugs "drogak, sendagaiak". State Street "State kalea". Galderen erantzunetan agertzen dira batik bat; erabilera honetarako, yes "bai" eta no "ez" tartekaldi osagarri bereziak dauzkagu. Honi dagokionez ere, hizkuntzak bereizi egiten dira: frantsesak si "bai" dio ezezko galderen erantzunetarako, esaterako "ez al dator?", baina oui "bai" bestelako galderen erantzunetan, adibidez "badator?". Zenbait hizkuntzek ez dute honelako tartekaldirik batere. Polonierak adizlagun arrunten bidez erantzuten du, baiezkoa tak "hala" eta ezezkoa nie [ne] "ez". Finlandierak forma arrunta darabil baiezko erantzunerako, hots Tulette-ko kaupungista? -Tulemme "Herritik al zatozte?"- "Bagatoz", eta ezezkorako, ezezko aditza erabiltzen du: Tunnette-ko herra Lehton? -En (edo En tunne) "Lehto jauna ezagutzen al duzu?" "ez dut (ezagutzen)" (edo "ez dakit").

Perpaus txiki aldarrikatzaileak, eragingarri gogor baten ondorioz gertatu ohi dira. Tartekaldiak, perpaus-mota gogokoenak ez diren perpaus-motak izan ohi dira, eta sarri parataxia ageri dute: Ouch, damn it! "Ai, madarikatua!" This way, please! "Hemendik, mesedez!". Entzulea izendatzen duen izen forma erabili ohi da ingelesez bere etorrera edo jaramona eskatzeko: John! "Jon!" Little boy! "Aizu, mutiltxo!" You with the glasses! "Zu, betaurrekoduna!". Parataxiaz: Hello, John! "Kaixo, Jon!", Come here, little boy! "Erdu hona, mutiltxo!". Sir "jauna" eta ma'am "anderea" bereziki erabili ohi dira modu honetan; era beretsuan, errusierak [s] tartekaldia darakus, [da-s] "bai jauna;

bai anderea", sexu ezberdinketarik gabea. Hizkuntza askok, forma deigile bereziak dauzkate erabilera honetarako, latinak kasu, Balbus (gizonezkoaren izena), Balbe forma deigilea, edo Fox hizkuntzan [iβkw? :wa] "emakumea", [iβkwe] deigilea, eta [iβkw? :wak] "emakumeak", [iβkw? :tike] deigilea. Menominieraz, senidetahun izenek arras irregularrak diren forma deigile bereziak dauzkate: [n?n?h] "nire anai zaharra", [nan? :?] deigilea, edo [neki:jah] "nire ama", [ne?? :h] deigilea. Gainerako hitzak, deigile direnean, bokal luzeen ordeztu bokal laburrak ahozkaturik esaten dira: [m? t? :muh] "emakumea", [m? t? :muh] deigilea. Sanskritoz, forma deigileak indargabeak ziren.

Lantzean behin, mota aforistikoko perpaus txikiak aurkitzen ditugu (#7.9), perpaus beteen balio berdintsuaz erabiliak; ingelesezko adibideen artean, The more you have, the more you want "zenbat eta gehiago izan, hainbat eta gehiago nahi". The more, the merrier "zenbat eta (jende) gehiago izan, are eta alaiago". Old saint, young sinner "santu zaharra, bekatar berria".

9.5. Hizkuntza gehienetan, orainarte eztabaidatutakoak baino orokorragoa den aukeraketa ezaugarri batez itxuratu ohi da perpausa: forma lotuak deitu izan ditugun hizkuntz formak, izan ere (#8.1), ez dira sekula perpaus gisa erabiltzen. Ingelesezko adibideak ditugu countess "kondesa", lioness "lehoi (eme)", duchess "dukesa" eta abarretako -ess [es] forma, edo boyish "mutil itxurakoa", childish "ume itxurakoa", greenish "berdexka" eta abarretako -ish [iβ], edota hats "txapelak", books "liburuak", cups "tazak" eta abarretako -s [s] "ak". Guzti hauek, benetako hizkuntz formak ditugu, eta esanahia badute, baina eraikuntzetan ager daitezke bakarrik, beste forma handiago baten barne. Perpaus gisa ager daitezkeen formak, forma askeak dira. Hizkuntza guztiek ez dituzte forma lotuak erabiltzen: egungo txinerak, esaterako, ez omen du horietariko bat ere.

Forma aske bi edo gutxiagoz osatutako forma askea, esaterako poor John'Jon gaixoa" edo John ran away "Jonak ihes egin zuen" edo yes, sir "bai jauna", esaldia dela diogu. Esaldia ez den forma askea hitza da. Hitza, bada, (bi edo gehiago) forma askez osaturik ez dagoen forma askea da; laburbilduz, hitza gutxienezko forma askea da.

Benetako hizketaldian forma askeak bakarrik bana daitezkeenez, hitzak, forma aske txikiena izanik, berebiziko eragina du guk hizkuntzarekiko ditugun jarretan. Eguneroko bizitzari dagokionez, hitza hizkera alerik txikiena dela esan genezake. Gure hiztegiek hizkuntzaren hitzak zerrendatzen dituzte; hizkuntzaren azterketa sistematikoz gairik helburu guztietarako, jokabide hau morfema zerrendagintzan aritzea baino askoz baliagarriagoa da zalantzarik gabe. Hizkuntz formak hitzetan aztertu ohi ditugu, idazkeran eta inprimakeran hitzen arteko tarte hutsak uzteko ohitura dugulako. Irakurtzen eta idazten ikasi ez duten pertsonak zailtasunak dituzte inoiz hitzez-hitzezko banaketak egiteko eskatzen bazaie. Zailtasun hau txikiagoa da ingelesez beste zenbait hizkuntzatan baino, esaterako, frantsesez baino. Hitzak banatzea gure idazkerako ohituraren parte bilakatu izanak, ordea, hiztunentzat hitza hizkera-aletzat jotzea naturaltasunik gabeko kontua ez dela erakusten digu; izan ere, zenbait zalantzako kasu izan ezik, jendeak errezki ikasten du banaketa mota hau egiten.

Maiz book "liburu", books "liburuak" edo do does did done "egin [pertsona, aldi eta partizipio jokoetan]" "hitz beraren forma ezberdinak" direla esaten da gure eskoletan. Esaera hau ez da guztiz zehatza, noski, talde horietako aleen artean forma eta esanahi aldetiko ezberdintasunak baitaude: aipaturiko formak hizkuntz forma bereziak dira, eta, beraz, hitz bereziak.

Beste kasu batzuetan, gure idazkera ohiturek zalantza jar gaitzakete. Adibidez, John's idazten dugu, bai John's ready "Jon prest dago" esaldian, hitz bi biltzen dituelarik (John eta [z], is "da, dago" aditz formaren aldaera), eta baita ere John's hat "Jonen txapela" forman, hitz bakarra delarik (John eta [-z] "-ren" jabetzazko forma lotuaz osatua). Era

berean, the boy's "mutilaren" idazten dugu, bi edo hiru hitz balira legez, baina, zehazki mintzatuz hitz bakarra da, bere lehen osagaiak the boy "mutila" eta [-z] "-ren" jabetzazko forma baitira, azken hau forma lotua dela; hau argi agertzen zaigu the king of England's "Ingalaterrako erregearen" edo the man I saw yesterday's "atzo ikusi nuen gizonarena" bezalako kasuetan, bertan esanahiak baitarakusku [-z] jabetzazko forma aurreko esaldi osoarekin eraikitzen dela, biak hitz luze bakar batean loturik daudelarik.

9.6. Hizkuntza askotan, baina, ezinezkoa da bidezko bereizkuntzarik egitea esaldi eta hitzen artean batetik, eta hitz eta forma lotuen artean bestetik. Hizkuntzalaria ezin daiteke forma jakin bat perpaus gisa erabiltzen den -hau da, bakarturik esaten ote den-entzuteko aukeraren zain betiko egon. Forma batzuk oso gutxitan erabiltzen dira horrela. Galdeketak guztiz erantzun ezberdinak lor ditzake entzuleengandik. Bakarturik esaten al dira inoiz ingelesezko the "-a", a "-a, bat", is "da", and "eta" formak? Elkarriketa bat irudikatu lezake batek: Is? -No; was "da? Ez; zen". Because "-lako" hitza emakumearen erantzuna dela esan ohi da [euskarazko "hargatik" erantzunean legez, arrazoa azaldu nahi ez denean]. Pazientziarik gabeko entzuleak And? "eta?" esan ohi du. Zalantzak jotako hiztuna irudika genezake, The... dioena, bere entzuleek ederto ulertzen diotelarik. Bazterreko egoera horiez kanpo, hizkuntzaren egitura orokorrak sailkapen bat edo beste egokiago egin lezake gure helburuetarako. Gure hizkuntzan, the formak, bakarturik ia inoiz ahoskatzen ez den arren, perpaus gisa agertzeko askatasuna duten this "hau" eta that "hura" formen jokabide beretsua du; antzekotasun honek the alea hitza dela esatera garamatza.

this thing "gauza hau" : that thing "gauza hori" : the thing "gauza"

this "hau" : that "hori" : (the) "-a"

Beste kasutan, zailtasuna aldaketa fonetiko arazoetatik datorkigu. John's ready "Jon prest dago" perpausoko [z] forma, edo I'm hungry "goseak nago" adibideko [m], edota Don't! "ez egin!" aginduko [nt] ahoska ezinak dira ingelesez, is "da", am "naiz", eta not "ez" forma ahoskagaien aldaerak baino ez direlako. Frantsesez, fonema bakar batek hitz bi adierazten dituen kasua badugu: au [o] forma, au roi [o rwa] "erregeari" bezalako esaldian, à [a] "-ri" eta le [le] "-a" formen aldaketak sortua da; delako [o] hau, eau "ur" eta haut "goren" hitzen homonimoa da.

Beste kasu batzuetan, zalantzazko formak gramatika-aukeraketa aleak dira, ez aldaketak, eta hala ere, hizkuntzaren egitura orokorra gogoan izanik, hitz gisa sailka daitezke. Frantsesez, berriz ere, badira honelako hainbat forma. Moi [mwa] "ni" eta lui [lxi] "bera" bezalako forma absolutuak, erabilera absolutuan ageri ohi ez diren forma laburrek ordezkatzan dituzte zenbait eraikuntzatan, je [ʔe] "ni", me [me] "ni", eta il [il] "bera" le [le] "bera" formek alegia; adibidez: je le connais [ʔe l kcn?] "ezagutzen dut", il me connaît [i m kcn?] "ezagutzen nau". Forma absolutuen ordezkari delako lotura forma hauek agertzea, aukeraketa ezaugarri gisa sailkatu behar da, eta ez aldaketa gisa; alabaina, lotura formei, neurri handi batean forma absolutuekin duten kidetasunagatik, hitz-maila ematen zaie.

Bada hain garrantzitsua ez den muturreko beste gertaera bat, forma lotuen erabilera hipostasian, alegia (#7.7.), esaterako delako tasun edo beste aipatzean, edo honen edo bestearen zale amorratuak direnez hitzegitean.

Beste muturrean, hitz eta esaldi arteko mugan dautzan formak aurkitzen ditugu. Blackbird "zozo" bezalako forma batek hitz bi dituen esaldia dirudi [hots, black "beltz" eta bird "txori"], baina ingelesaren deskribapen sakon batek forma hau hitz (elkartu) bakar gisa sailkatu behar duela ikusiko dugu. Kasu honetan bada ezberdintasun argirik: blackbird "zozo" adibidean bigarren hitzak (bird "txori") indar goren arrunta izan beharrean indar ahulagoa darama, eta ezberdintasun hau ingelesez fonemikoa da, beraz

forma aldetiko ezberdintasun hau semantika aldeko ezberdintasunarekin uztarturik dator, black bird "txori beltza" ez baita blackbird "zozoa" nahitaez. Bereizkuntza hau ez da honen garbi ageri beti: ice-cream ['ajs 'krijm] "izozki", indar goren bakar batekin ahoskaturik, hitz elkartutzat sailkatu ohi da, baina ice cream ['ajs 'krijm] "izozki" aukerazko ahoskaketa, indar goren bi dituen, hitz bi dituen esalditzat hartu ohi da. Antzeko bikoteak aurki genitzake messenger boy "mezulari (mutil)" eta lady friend "andere adiskide".

Indarraren irizpide honek huts egiten digu honako hauetan; devil-may-care "deabruari axola liezaioke", hots "axolagabe" (adibidez in a devil-may-care manner "era guztiz axolagabea") edo jack-in-the-pulpit landarearen izenean legez. Lehen adibidea devil-may-care-ish balitz, "deabruari-axola-liezaioke-itxurakoa", ez genuke zalantzarik izango hitz gisa sailkatzerakoan, bertan lehen osagaietako bat -ish "itxurakoa" forma lotua baita. Devil-may-care bezalako formak hitz gisa (esaldi-hitza bezala) sailkatzen dira, beste zenbait ezaugarriren arabera, hitzen pareko baititugu, ingelesaren sistemaren barnean. Ezaugarrietako bat, beren betebeharrak berezia da; esaldia balitz, devil-may-care egile eta ekintza forma litzateke, baina esaldi-hitza denez, adjektiboaren lekua hartzen du. Beste ezaugarri bat beren ikusgaiztasuna dugu: jack-in-the-pulpit landare-izena ezin daiteke inolaz ere aldatu, little "txiki" hitza pulpiti "pulpitu" aurrean jarrita esaterako, baina itxura bereko esaldiak hau eta beste askotako zabalkundeak onartzen ditu.

Azken oinarri hau, hitza ezin daitekeela beste formez eten alegia, egia da ia unibertsaletan. Honela, bada, batek ezin dezake blackbirds "zozoak" hitz-elkartua inolaz eten, baina errezki esan genezake ondokoa: black-I should say bluish-black-birds "txori beltzak -beltz-urdirak esan beharko nuke". Oinarri hau bortxatzen duten gertakariak hain dira urri non kasik patologikoak baitirudite. Gotikoak bazuen [ga-] forma lotua, batez ere aditzei lotzen zitzaiona ['se:hwi] "ikus beharko luke", [ga'se:hwi] "ikusteko gauza izan beharko luke". Alabaina, lantzean behin, delako [ga-] hau eta aditzaren gorputz nagusiaren artean hitzak tartekaturik aurkitzen ditugu, Marko 8, 23 pasarteko itzulpenean legez: ['frah ina ga- u hwa 'se:hwi] "ezer [hwa] ikusten zuen [u] galdetu zion".

Irizpide hauetarik bat ere ezin daiteke era hertsian ezarri: forma asko forma lotu eta hitzen arteko mugan edo hitz eta esaldien artekoan bertan dautza; ezinezkoa da leku absolutuan ahoska daitezkeen formak zorrozki bereiztea.

9.7. Hitza, oinarrian, ez da hots alea: ez ditugu etenak edo bestelako ezaugarri fonetikoak erabiltzen gure hizkeran bakarturik ahoska daitezkeen aleak bereizteko. Era askotara, baina, hainbat hizkuntzak hitz-aleari nolabaiteko berezitasun fonetikoa ematen diote: batzuek, frantsesak kasu, neurri gutxikoa, beste batzuek, ingelesak adibidez, neurri handikoa.

Forma askea delarik, hitza leku absolutuan ahoska daiteke; honela, bada, bere hizkuntzako eredu fonetikoaren pean dago. Silabagile izan daitezkeen fonemetatik bat behintzat izan behar du; tartekaldiek, hala nola gure sh [s] "ixo", eta pst [pst] "ts-ts! (ezezagunen jaramona lortzekoa)", oinarri hau bortxatzen dute batzuetan. Hasierako eta bukaerako kontsonanteek, eta kontsonante multzoek, hizkera hasiera eta bukaeran gerta daitezkeenak izan behar dute nahitaez; hala, bada, ez dago [n] edo [mb] fonemez hasten den ingelesko hitzik, ez eta [h] edo [mb] fonemez bukatzen denik.

Honezaz gainera, hizkuntza askok areagoko mugak jartzen dizkiote hitzaren egiturari. Zilegi diren zenbait erdiko hots- multzo hitz bakar baten barnean gertatzen ez direla aurki genezake; ingelesez, [β|c, vt, tsv, stsr] bezalako multzoak, rash child "ume ausarta", give ten "eman hamar" it's very cold "hotz handia egiten du", least strong "indar gutxienekoa", eta [nn, tt, bb] bezalako kontsonante bikoitzak, ten nights, that

time, nab Bill, ez dira hitz soiletan ageri. Bestalde, frantsesak, [e] tartekatzeke joeraz, edota Fox eta samoera bezalako hizkuntzek, bukaerako kontsonanterik onartzen ez dutenak, ez dute esaldi batean hitzean baino multzo gehiago onartzen.

Hizkuntza batzuek badute baldintza berezi bat, bokal harmonia deritzona, hitz bateko silabetan delako bokal konbinaketa batzuk bakarrik onartzea, alegia. Honela, turkieraz, hitz bateko bokalak denak aurrekoak dira [i, y, e, ø], [sevildirememek] "beraganako maitasuna sortzeko gauza ez dena" adibidean legez, edo denak atzeko bokalak [i, u, a, o] [jazıldıramamak] "idaztarazteko gauza ez dena".

Txineraz, hitzen egitura zeintzearen muturrenetako adibidea aurkitzen dugu; hitz bakoitzak silaba bat dauka eta bi edo hiru lehen mailako fonema: hasieran, silabagilea ez den fonema soil edo elkartua, bukaeran, fonema silabagile soil edo elkartua; eta doinu-eredua (#5.7); silabagilea ez den hasierako fonema horrek ez du nahitaez agertu behar; hizkuntzak ez du forma loturik.

Ingelesez eta beste hainbat hizkuntzatan ere, hitz bakoitza indar goren bakar bat izateak bereizten du (forgiving "barkatzen", convict "atxilotu", convict "preso"). Hizkuntza hauetariko batzuetan, hitz alea are garbiago zeindurik agertzen da, hitz indarraren kokapenak hitzaren hasiera edo bukaeraren arabera erabakitzen baita: bohemieraz eta islandieraz, lehenengo silaba da indarduna, Kree hizkuntzan azken hirugarrena, polonieraz azkenaurrekoa. Latinez, azkenaurrekoa zen indarduna, amamus ['ama:mus] "maite dugu" adibidean legez, salbuespen batekin: silaba honek kontsonante bati eta bati bakarrik jarraitzen zion bokal laburra bazuen, azken hirugarrenari ezartzen zitzaion indarra, capimus ['kapimus] "hartu genuen" hitza kasu. Honelako hizkuntzetan, indarra hitz-markatzailea dugu, hitzen hasiera eta bukaera adierazten duena, baina, bere kokapena erabakirik dagoenez, ezin ditzake hitzak bereizi. Italieraz, gaztelaniaz eta egungo grekeraz, indarra hitzaren azken hiru silabetako batean datza beti. Grekera zaharrean, hitz batek indar soila zeraman azken hiru silabetako batean, edo indar elkartua azken bietako batean, silaba horiek osatzen zituzten lehen mailako fonemei buruzko areagoko baldintza batzuk bazirelarik.

Indarra darabiltzaten hizkuntzen artean, zenbaitzuek, ingelesa horien artean, indarra lehenengo silaban duen hitzaren hasieran jotzen dute; ohar bedi a name eta an aim bikotearen arteko aldeaz, edo that scold eta that's cold bikotearen artekoa (#5.5); beste batzuek, hala nola holandera, italiera, gaztelania eta hizkuntza eslabiarrek, guztiz fonetikoak diren ohituren bitartez arautzen dute indarraren abiapuntua, bokal indardunaren aurreko kontsonantean joaz indarra, kontsonante hori beste hitz bati badagokio ere, adibidez italierazko un altro [u'n altro] "beste bat". Frantsesa bezalako hizkuntza batek, indar fonemarik erabiltzen ez duenez, ezin ditzake bere hitz aleak honela markatu.

Hitz alearen nabarmentze fonetikoa, goiko adibideetakoa bezalakoa, baldintza bik nahas dezakete. Beren oinarriko osagaien artean forma aske bi edo gehiago dituzten hitzek, normalean, esaldien izaera fonetikoa ageri ohi dute. Ingelesez, hitz elkartuek esaldiek bezalako erdiko multzoak ager ditzakete: stove-top "sukalde gaina" [vt], chest-strap "bular-banda" [ststr], pen-knife "labain txiki" [nn], grab-bag "poltsa" [bb]; esalditik eratorritako hitzek indar goren bat baino gehiago izan dezakete baita ere: old-maidish ['owld 'mejdɪʃ] "neskazahar itxurakoa", jack-in-the-pulpit ['j? k in de 'pulpit].

Bestalde, barne lekuetan dauden hitzak, hitz-markatzailearen ezaugarri fonetikoak ezaba ditzaketen doinualdi eta fonetika aldaketen menpe daude. Honela, bada, not "ez" hitzak don't ['downt] esaldian bere indar gorena eta silabagilea galtzen ditu; can't "ezin (jokatua)" esaldia cant "izkina" izenaren homonimoa da; erka bitez, era berean, lock it "giltzaz hertsu", eta lock it "kutun", edo feed her ['fɛjd r,] "eman berari jaten" eta feeder "aska", eta abar eta abar. Ahoskera arruntan, at all [e't cl] "(ez) ere" esaldiaren indarra

at hitzaren [t] hotsean hasten da. Barne lekuetako aldaera hauek, zeinetan hitz batek leku absolutuetako hitzak nabarmentzen dituen ezaugarri fonetikoak galtzen baititu, hurrengo kapituluko gaia izango dugu. Orain darabilgun haritik, ohar bedi, hala eta guztiz ere, neurri txiki batean bada ere, aldatutako esaldiok hitz alearen nabarmentze fonetikoa jaso dezaketela, hitz bakanetan agertzen ez diren hurrenkera fonetikoak biltzen dituztelako. Honela, bada, ingelesez zilegi da [ownt] bukaera hurrenkera, baina don't "ez du(t, zu, gu, zue, te)" eta won't "ez du(t, zu, gu, zue, te) (egingo)" esaldietan gertazen da bakarrik, ez inongo hitz soiletan. Hego alemanierako dialektoetan, zenbait hasierako multzo, hala nola [tn, tʃt], esaldietan gertatzen dira, lehenengo hitzaren aldaketa fonetikoari esker, adibidez [t n? xt] "gaua", [t ʃt? :ʃt] "zaude", baina ez hitz soiletan. Iparraldeko txineraz, esaldi batek silabagile gehi [r] bukaera izan dezake, adibidez [tʃjaw³ 'ma ʃ³] "zalditxo", baina hitz biren aldaketa fonetikoaren ondorio bezala bakarrik, -gure adibidean, [ma³] "zaldi" eta [r²] "seme, ume, txiki".

Forma loturik ez duten hizkuntza gutxietan, hitzak garrantzi bikoitza dauka, ez baita forma askeen alerik txikiena bakarrik, baizik eta hizkuntz forma alerik txikiena oro har. Forma lotuak darabiltzaten hizkuntzetan, hitzak garrantzi handia du egituraren aldetik, zeren eta, esaldietan forma askeak ageri dituzten eraikuntzek alde handia baitute forma aske edo lotuan hitzen barnean agertzen dituzten eraikuntzekin. Honela, bada, hizkuntza hauetako gramatikak atal bi ditu, sintaxia eta morfologia deitzen direnak. Alabaina, hitz elkartu eraikuntzak, eta neurri bateraino esalditatik eratorritako hitzak, tarteko eremuan ageri zaizkigu.

Oharrak

Kapitulu honetan, eta hurrengoetan ere, oso ezagunak ez diren hizkuntzetako adibideak ondoko iturrietatik hartu ditut: arabiera, Finck, Haupttypen; bantu (Subiya), iturri bera; txinera, iturri bera, eta Arendt, Einführung; Kree hizkuntza, Atti 2.427; eskimoera, Finck, Hautypen; gotikoa, Streitberg, Elementarbuch; irlandera, Borthwick; menominiera, Proceedings 21st 1.336; poloniera. Soerensen; errusiera, Berneker, Grammatik; samoera, Finck, Haupttypen.

9.1. Eskoletako gramatiketan, eta ohituraz, perpaus hitza esanahi estuago batez erabili ohi da, indoeuropar gramatiketako subjektu-eta-predikatu perpaus motak adierazteko. Honi jarraituko bagenio, esaldi bateko formarik handiena izendatzeko beste deitura bat asmatu beharko genuke. Zehaztapenik zaharrenak, hizkuntzazkoak izan beharrean filosofikoak dira; Ries-en, Satz lanean bildurik daude. Testuko zehaztapena Meillet-i zor zaio, Introduction 339; erka bedi Lg 7.204 (1931).

9.2. Perpaus mota inpersonalak, sasi-inpersonal motakoekin nahasi ohi dira, azken hauek egile izenordainkaria agertzen dutelarik (adibidez it's raining "euria ari du" 13.6).

9.5. Hitz zatiketak egiteko zailtasunez: Passy, Phonétique 21.

9.7. Frantsesdunak, noizean behin, indarra erabili ohi du hitz mugak adierazteko (Passy, Sons 61), baina erabilera hau ez da bereizgarria; guk, edota frantsesdunak ere noizean behin, hitz tarteetan egin ohi ditugun etenaldien gisakoa da. Hitz alea hego alemanieran: Winteler 185; 187.

10

SINTAXIA

10.1. Ohituraz, hizkuntza gehienek gramatika, atalburu biren pean eztabaidatzen da, sintaxia eta morfologia. Aurreko kapituluan aztertu ditugun perpaus motak, lehen atalpean jarri ohi dira, (13. kapituluan aztertuko ditugun) ordezkaketa motak kasu, baina orain aztertuko ditugun gramatikazko eraikuntzak, edo horien atal batzuk behintzat, morfologiaren izenburupean landu ohi dira. Zatiketa honen baliagarritasunari buruzko eztabaida ugari izan da, baita izenburuon hedadurari buruz ere. Forma lotuak dituzten

hizkuntzetan, forma lotuok ageri dituzten eraikuntzak errotik bereizten dira forma askeak dituzten eraikuntzetatik. Beraz, lehenak morfologia izenburupean jartzen ditugu. Badira, ordea, arazoak sortzen dituzten zenbait forma harreman, esaterako he "bera (nom.)" eta him "bera (acc.)" aleen arteko harremana, forma lotuen erabileran datzana, formon arteko ezberdintasun semantikoa eraikuntza sintaktikoaren aldetik zehatz daitekeen arren; he egile bezala ageri ohi zaigu (he run "berak laster egin zuen"), eta him jasale bezala (hit him "bera jo"). Dena den, ohiko banaketak badu oinarririk: aipatu kasu hauetan, eraikuntza morfologikoan azaltzen diren esanahiak sintaxiaren bidez itxuratzen dira, eta ez eguneroko bizitzaren arabera. Egitura sintaktikoak bada, forma loturik gabeko lehen osagaiak dituzten eraikuntzak dira. Morfologia eta sintaxiaren arteko muga-mugako gertakariak, hitz eratoraketa eta esaldi hitzak ditugu batik bat.

10.2. Hizkuntza bateko forma askeak (hitzak eta esaldiak), forma aske handiagotan ageri dira (esaldiak), doinu, hots aldaketa, aukeraketa eta hurrenkera taxemez eraturik. Behin eta berriz agertzen den horrelako zeinahi taxema multzo esanahitsu, eraikuntza sintaktikoa dugu. Adibidez, ingelesezko egile eta ekintza bikotea ondoko esaldietan ageri zaigu:

John run "Jonek laster egin zuen"

John fell "Jon erori zen"

Bill ran "Billek laster egin zuen"

Bill fell "Bill erori zen"

Our horses run away "Gure zaldiek urrunera laster egin zuten"

Adibide hauetan, aukeraketa taxemak ikus ditzakegu. Osagai bat (John, Bill, our horses "gure zaldiak") esapide nominatiboa deritzagun klase zabalagoko forma dugu; ran "laster egin zuen" edo very good "oso ondo" bezalako formak ezin erabil daitezke era honetan. Bigarren osagaia, (ran "laster egin zuen", fell "erori zen", ran away "urrunera laster egin zuen"), beste multzo zabalago batekoa dugu, aditz jokatu esapideak izenekoa; John edo very good "oso ondo" bezalako formak ezin erabil daitezke era honetan. Bigarrenik, hurrenkera taxema ere bada: esapide nominatiboak aditz jokatu esapidearen aurretik behar du. Ez dugu hemen gelditu beharrik, eraikuntza honetako atalak eta azpiatalak aztertzeko, bestelako edo gainerako taxemak erakusten baitituzte. Eraikuntzaren esanahia, gutxi gora-behera, zera dugu, esapide substantiboak adierazitakoa, aditz jokatu esapideak izendatutako ekintza egiten duen egilea dela. Ingelesezko egile eta ekintza eraikuntzaren osagai nagusi biak ezin daitezke lekuz aldatu: eraikuntzak leku bi dituztela diogu, egile eta ekintza lekuak izenda ditzakegunak. Ingelesezko zenbait hitz eta esaldi egile lekuan ager daitezke, beste zenbait ekintza lekuan. Forma bat ager daitekeen lekua, bere funtzioa da. Delako leku bat bete dezaketen formek, bada, forma klasea osatzen dute. Honela, ingelesez egile eta ekintza eraikuntzan egile lekua bete dezaketen hitz eta esaldi guztiek forma klase zabala osatzen dute, eta esapide nominatibo deritzegu; era berean, ingelesez egile eta ekintza eraikuntzan ekintza lekua bete dezaketen hitz eta esaldi guztiek bigarren forma klase nagusi bat osatzen dute, eta aditz jokatu esapideak direla diogu.

10.3. Esaldien osagaiak forma askeak direnez gero, hiztunak etenaldien bitartez bana ditzake. Etenaldiak ez du gehienetan esanahi aldetiko berezitasunik gehitzen; osagaiak esaldi luzeak direnean ageri ohi dira; ingelesez, etenaldi doinu baten ondoren azaltzen dira.

Ikusi dugunez (9.1.), beste eraikuntza batek lotu gabeko forma askeak, parataxiaren bitartez bil daitezke, hots, esaldi bukaera hotsik ezaz, adibidez It's ten o'clock [,] I have to go home [,], euskaraz "hamarrak dira [,] etxera joan behar dut [,]" litzatekeena. Ingeles arruntean, parataxia etenaldi doinuz adierazi ohi da, baina bada etenaldi doinu

gabeko parataxi hertsia, please come "erdu mesedez" edota yes sir "bai jauna" adibideetan legez.

Forma erdi-absolutuen erabileran, parataxi mota berezi bat ageri zaigu, zeinetan gramatikalki eta esanahiez, parataxian loturik dauden formaren zati bat errepikatzen baita, hala nola John, he ran away edo "Jonek, hark ihes egin zuen". Frantsesez, eraikuntza hau zenbait galdera motatan erabili ohi da, esaterako Jean, quand est-il venu?

[ʔ? n k? nt ? t i vny?] "Jean, noiz etorriko da (bera)?"

Parentesia, forma batek bestea etetzen duen parataxi mota dugu; ingelesez, forma parentetikoa etenaldi doinuz inguraturik ageri ohi da: I saw the boy [,] I mean Smith's boy [,] running across the street [,] "Mutila ikusi nuen, Smithenekoa izan ere, kalean zehar lasterka". Esaterako Won't you please come? "etorriko al zara mesedez?", please "mesedez" hitza parentesi hertsia dugu, etenaldi-doinurik gabekoa.

Aposizio izena parataktikoki loturiko formak gramatikalki berdintsu baina esanahiez ezberdin direnean erabiltzen da, adibidez John [,] the poor boy, "John, mutil koittadua". Aposizio multzoa barnean ageri denean, bere osagai bat parentesiaren kidekoa da: John [,] the poor boy [,] ran away [,] "John, mutil koittaduak ihes egin zuen". Ingelesez, aposizio hertsia ere badugu, etenaldi doinurik gabekoa, hala nola King John, John Brown, John the Baptist, Mr. Brown, Mount Everest adibideetakoa.

Sarri asko, hizkuntzaz kanpoko baldintzek badute eraginik eraikuntzan; hiztunak esandakoa esanahitsu da dena den, forma askea ahoskatu badu bederen. Aposiopesian, hiztunak eten egiten du bere mintzoa, nahita, edo beste zerbaitek eraginik: I thought he - "uste nuen berak --". Anakolutoa gertatzen denean, berriz ere hasten da hurrengo: It's high time we -oh, well, I guess it won't matter "Bada garaia guk- ene, tira, ez du axolarik". Hiztuna zalantzan dagoenean, ingelesak eta beste zenbait hizkuntzek, zalantza formak eskaintzen dituzte, hala nola hurrengo [r] edo [ʔ]: Mr. -ah- Sniffen "zera... Sniffen jauna" edo Mr. -what you call him- Sniffen "zera... nola deitzen da bada... Sniffen jauna" edo that -thingamajig- transmitter "delako zera hori... zera... igorgailua".

10.4. Modulaketa ezaugarriak eta modifikapen fonetikoak zeregin handia dute hainbat eraikuntza sintaktikotan; sandhi ⁹ izena dute. Hitz edo esaldi bat bakaturik ahoskatzen denean duen formari absolutua deritzaio; barne lekuetan gertatzen direnak, sandhi-formak deitzen dira. Honela, bada, ingelesez, artikulua mugagabearen forma absolutua a ['ej] dugu. Forma hau, barne lekuetan, artikulua osagai hanpatua denean eta hurrengo hitza kontsonantez hasten denean agertzen zaigu bakarrik, esaterako, not a house, but the house "ez etxe bat, etxea baino" esaldian. Hurrengo hitza bokalez hasten bada, ordea, an [ʔ n] sandhi-forma agertzen zaigu, adibidez, not an uncle, but her uncle "ez osaba bat, bere osaba baino".

Modulaketa ezaugarria agertzen zaigu, a, an artikulua enfatikoa ez denean, silaba indargabe gisa ahoskatzen denean, adibidez a house "etxe bat" [e 'haws], an arm [en 'arm]. Ingelesez, forma absolutuan dagoen hitzak indar goren bat dauka; beraz, indar gorenik gabeko sandhi-forma batean hitza beste hitz baten parte balitz legez ahoskatzen dela esan genezake. Hizkuntza askok darabiltzate gisa honetako sandhi-formak; forma atonoak deritze. Deitura hau ez da guztiz egokia, ezaugarria ez baita beti indarririk eza. Frantsesezko l'homme [l cm] "gizona" esaldian, le [le] artikulua indargabea da, bere [l] sandhi forma ez bailiteke bakaturik ahoskatu duen eite fonetikoagatik (bokalik gabekoa). Polonierazko [do nuk] "oinetara" esaldian, do "-ra" preposizioa atonoa da indarra duelako hain zuzen ere, hizkuntza honetan hitzaren azkenaurreko silabari ezartzen baitzaio indarra, eta do hitzari ezartzen zaio, hitz hau hurrengo hitzaren atala balitz legez hartzen delako.

Hurrengo hitzaren ataltzat hartzen den forma atonua -gure honainoko adibideak izan ere- proklitiko bat da. Aurreko hitzaren ataltzat hartzen den forma atonua enklitiko bat da; honela, bada, I saw him [aj 'sc im] "bera ikusi nuen" esaldian, [aj] proklitikoa da, baina [im] enklitikoa.

Bestetik, a artikularen ordeztan behartzen duen sandhia, eta sandhi hau eta beste hitz batzuk esaldi konbinaketetan indargabetzen dituenak, beharrezko sandhiaren adibide ditugu. Bestelako ingelesezko sandhi ohiturak aukerazkoak ditugu, aldaketarik gabeko kideak baitituzte, begirune edo goi-maila adierazten dutenak; esaterako, him "bera" izenordainaren [h] soinua ezabatzea ez da goi-mailakoa den I saw him [aj 'sc him] aldaeran. Era berean, did you? ['dɪjuw?], won't you ['wɒnwɪcuw] eta at all [e 'tɔl] (Ameriketako ingelesez [t] hotsaren mihi-zaplada ahostunaz gauzatzen dena) sandhien ondoan, ['dɪd juw? 'wɒnt juw? et 'ɔl] aldaki dotoreagoak dauzkagu.

Sandhi formak ahoskaezinak izan daitezke bakarturik hartzen direnean; honela gertatzen da ingelesezko hainbat adibidetan:

Forma absolutua Sandhi-forma

is ['ɪz] [z] John's ready. "John prest dago"
 [s] Dick's ready. "Dick prest dago"
 has ['h? z] [z] John's got it. "Johnek dauka"
 am ['? m] [m] I'm ready. "Prest nago"
 are ['ar] [r] We're waiting. "Zain gaude"
 have ['h? v] [v] I've got it. "Neuk daukat"
 had ['h? d] [d] He'd seen it. "Berak ikusi zuen"
 would ['wud] [d] He'd see it. "Berak ikusiko luke"
 will ['will] [l] I'll go. "Ni joango naiz"
 [l] That'll do. "Horrek egingo du"
 them ['dem] [m] Watch'em. "Begira eizaiezu"
 not ['n? t] [n,t] It isn't. "Ez da"
 [nt] I won't. "Ez dut (egingo)"
 [t] I can't. "Ezin dut"
 and ['? nd] [n] bread and butter "ogia eta gurina"

Frantsesak badu sandhi ugari. Hala, bada, la [la] artikulua femeninoak bokala galtzen du diptongo edo bokal baten aurretik: la femme [la fam] "emakumea", baina l'encre [l? ɛkr] "tinta", l'oie [l wa] "antzarra". Eta ce [se] "hau" adjektibo maskulinoak, [t] hotsa gehitzen du hots beren aurretik: ce couteau [se kuto] "aizto hau", baina cet homme [set cm] "gizon hau". Izenordain anizkoitzak, aditzaren lehen bokalaren aurretik [z] hotsa gehitzen du: vous faites [vu f? t] "zuk egiten duzu", baina vous êtes [vuz ? :t] "zu zara". Izen laguntzaile anizkoitzak era berean jotzen du: les femmes [le fam] "emakumeak", baina les hommes [lez cm] "gizonak". Lehen edo bigarren pertsonako aditzak [z] gehitzen du, eta hirugarren pertsonakoak [t], zenbait bokalen aurretik: va [va] "joan hadi", baina vas-y [vaz i] "joan hadi horra"; elle est [? l ?] "bera da (femeninoa)", baina est-elle? [? t ? l?] "bera da (femeninoa)?" . Zenbait izenlagun maskulinok sandhi kontsonanteak gehitzen dituzte bokal aurretik: un grand garçon [œⁿ graⁿ garsoⁿ] "mutil handia", baina un grand homme [œⁿ graⁿt m] "gizon handia".

Hitzean doinu bereizketak egiten dituzten hizkuntzetan, doinu aldaketek eragina izan dezakete sandhian. Honela, txineraz, [i¹] "bat" forma absolutuaz gaindi, badira [i⁴ phi² 'ma³] "zaldi bat" eta [i² ko 'ŋen²] "gizon bat".

Hasierako fonemen sandhi aldaketa ez da hitz bukaerakoa bezain arrunta; zeltar hizkuntzetan gertatu ohi da, egungo irlandera legez:

Forma absolutua Sandhi forma

[bo:] "behi" [an 'vo:] "behia"

[ar 'mo:] "gure behia"

[uv] "arrautza" [an 'tuv] "arrautza"

[na 'nuv] "arrautzetakoa"

[a 'huv] "bere arrautza (fem.)"

[ba:n] "zuri" [bo: 'va:n] "behi zuri"

[bog] "bigun" [ro: 'vug] "oso bigun"

[briß] "apurtu" [do 'vriß] "apurtu zen"

10.5. Orainarteko gure adibideek sandhi gertaera berezi edo irregularrak erakusten dituzte, delako eraikuntza eta forma jakin batzuei dagozkienak. Sandhi orokor edo legezkoa, (estu josiriko) esaldi labur bateko zeinahi hitzi ezartzen zaio. Ingelesaren zenbait aldaeretan, hala nola Ingalaterra Berrian eta Ingalaterrako hegoaldean, leku absolutuan bukaerako bokala duten hitzek, [r] gehitzen dute beste bokal baten aurretik: water ['wcte] "ur" baina the water is [de 'wcter iz] "ura da.."; idea [aj'dije] "ideia", baina the idea is [dij aj'dijer iz] "ideia da...". Hiru kontsonante elkartzen direnean frantsesez, hitz bukaerak [e] gehitzen du; honela, porte [pcrt] "darama" eta bien [bj? n] "ongi", [pcrte bj? n] bezala agertzen zaizkigu porte bien "ongi darama" esaldian. Leku absolutuan bere lehen silabak [e] duen hitzak, bai hitzak beste silabagilerik ez daukalako edota bestela zilegi ez den multzo batez hasi beharko lukeelako (#6.6), [e] hori galtzen du esaldi barnean, zilegi ez den multzorik sortzen ez den guztietan: le [le] "-a" baina l'homme [l cm] "gizona"; cheval [Beval] "zaldia", baina un cheval [œn ßval] "zaldi bat"; je [Xe] "ni", ne [ne] "ez", le [le] "hura", demande [dem? nd] "eskatu", baina je ne le demande pa [Xe n le dm? nd p?] si je ne le demande pas [si Xe ne l dem? nd p?] "nik ez badut eskatzen".

Sanskritoz, sandhi orokor ugari dago; adibidez, forma absolutuko bukaerako [ah], ondoko sandhi aldaeretan ageri da: absolutua [de:'vah] "jainkoa", sandhi formak: [de:'vas 'tatra] "horra jainkoa", [de:'vaç 'parati] "jainkoa dabil" [de:'va e:ti] "jainkoa doa" [de:'vo: dada:ti] "jainkoak ematen du", eta, hurrengoaren hasiera aldatuz ere, ['atra] "hemen" aurretik, [de:'vo: tra] "hona jainkoa". Zenbait hitzek, alabaina, bestelako jokaera dute; honela ['punah] "berriro" hitzak, ['punar dada:ti] "berriro ematen du" eta ['punar 'atra] "berriro hemen" sortzen ditu. Aldaturiko hitzak egiturazko ezaugarriren batek bereiz ditzake. Honela, holanderazko zenbait ahoskaketatan, heb ['hep] "eduki" eta stop [stop] "geldi" forma absolutuek jokaera ezberdinak dituzte sandhian: heb ik? ['heb ek?] "badaukat?" baina stop ik? ['stop ek?] "gelditzen naiz?". Sandhian kontsonante ahostuna duten formek hitz bukaera ez gainerako leketan ere ageri dute, adibidez hebben ['hebe] "edukitzea", besteek stoppen ['stope] "gelditzea" ahoskabeaz jarraitzen dutelarik. Honen antzeko morfologian oinarrituriko sandhi bereizkuntzei sandhi oroigarria dei geniezaieke.

Hizkuntza batzutan, sandhiak esaldi erdian ohikoak diren baldintzak baino murrituagoak direnak ezar diezaizkioke hitz-bukaerari. Adibidez, [ta] hots hurrenkera zilegi da erdialdean sanskritoz, adibidez ['patati] "erortzen da", baina hitz bukaerako [t] hotsaren ordeztu [d] agertzen da bokala badarraikio, esaldi lotu- lotuetan ere: absolutua ['tat] "hura", baina ['tad asti] "hura da".

Aukeraketa taxemek eragin sakona dute hizkuntza gehienetako sintaxian; sintaxia, neurri handi batean, eurak zehaztean datza - forma klase jakin batzuk (adibidez, aditz indikatibo edo subjunktiboak, edo izen datiboak eta akusatiboak, eta abar), zein baldintzaren arabera (hots, zein formak lagundurik, edo, laguntzaileak berdintsuak

direlarik, zer esanahi aldetiko ezberdintasunaz) agertzen diren sintaxi eraikuntzetan. Ikusi dugunez, aukeraketa taxemak forma klaseak bereizten ditu. Klaseok ugarien dira aukeraketa taxema ugarien darabiltzaten hizkuntzetan. Hizkuntza bateko eraikuntza sintaktikoek forma aske klase handiak bereizten dituzte, esaterako ingelesezko esapide nominatiboak edo aditz jokatu esapideak. Hizkuntzek eraikuntza ezberdinak dituztenez, beren forma klaseak ere ezberdinak izan ohi dira. Ikusiko dugunez, hizkuntz baten forma-klase nagusiak hitz klaseen bitartez sailkatzen dira egokien (ohitura zaharreko "hizkera- atalak", alegia), esaldi bateko forma klasea, bertan agertzen den hitz batek (edo gehiagok) erabakitzen baitu.

Aukeraketa taxemak ugari erabiltzen dituzten hizkuntzetan, forma klase nagusiak klase txikiagotan banatzen dira. Adibidez, ingelesezko egile eta ekintza eraikuntzak, ohiko aukeraketa taxemaz gain, era bereko taxema berezi bat erakusten du. John edo that horse "zaldi hura" esapide nominatiboekin, runs fast "laster doa" bezalako aditz jokatu esapideak lotzen ditugu, baina ez run fast aditz jokatu esapidea; John and Bill "Jon eta Bill" edo horses "zaldiak" esapideekin, alderantzizko aukeraketa egin ohi da. Honela, bada, forma klase bi hauek, beste azpiklase bi onartzen ditugu, singular eta plural deitzen ditugunak, esapide nominatibo singularra, aditz jokatu esapide singular batekin lotu daitekeelarik bakarrik, eta esapide nominatibo plurala, aditz jokatu esapide pluralarekin bakarrik. Ezingo genituzke azpiklaseok esanahiaren aldetik zehaztu -ohar gaiten wheat grows "garia hazten da" eta oats grow "oloa hazten da" [hitzez hitz "oloak hazten dira" dena ingelesez] bezalako bikoteez. Azterketa sakonago batek aukeraketa mota asko agertzen dizkigu: (1) aditz jokatu askok, hala nola can "ahal izan", had "zuen (pertsona guztietarako), went "joan zen (pertsona guztietarako)", edozein egilarekin agertzen dira; (2) aditz jokatu askok, hala nola run "laster egin (pertsona guztiak hirugarrena izan ezik)": runs "laster egin (hirugarren pertsona)", azaldu berri dugun aukeraketa bikoitza darakuste; (3) batek, was "nintzen, zen": were "hintzen, zinen, zineten, ziren", aurrekoarekin bat ez datorren aukeraketa bikoitza agertzen du; (4) azkenik, batek, am "naiz": is "da": are "dira", aukeraketa hirukoitza agertzen du, "ni" egilea laguntzen duen forma berezi batez, izan ere, (2) eta (3) bereizten dituen egile forma:

(1) (2) (3) (4)

A I can I run I was I am

"dezaket" "laster egiten dut" "nintzen" "naiz"

B the boy can the boy runs the boy was the boy is

"mutilak dezake" "mutilak laster egiten du" "mutila zen" "mutila da"

C the boys can the boys run the boys were the boys are

"mutilek dezakete" "mutilek laster egin dute" "mutilak ziren" "mutilak dira"

A = B = C A = C A = B

Honela, esapide nominatiboen artean eta aditz jokatu esapideen artean, zatiketa hirukoitza aurkitzen dugu, aukeraketa taxemen arabera; esapide nominatiboen artean, A azpiklaseak I "ni" forma biltzen du bakarrik; B azpiklaseak, runs, was, is bezalako esapide jokatuarekin loturik daudenak biltzen ditu, eta C azpiklaseak run, were, are bezalako esapide jokatuarekin loturik daudenak biltzen ditu. Izan ere, am "naiz": is "da": are "dira, zara" hiru aditz jokatuaren aukeraketan oinarri genezake hiru azpiklaseon zehazpena. Alderantziz, aditz jokatu esapideen azpiklaseak itxuratzeko, zein esapide nominatiborekin agertzen diren esaten dugu (esaterako, I "ni": the boy "mutila": the boys "mutilak").

Honelako kasuek erakusten duten aukeraketa estu mota ez da, oinarrian, ingelesak esapide nominatiboak eta aditz jokatu esapideen forma klase nagusiak bereizteko darabilen bide biltzaileagoaz oso bestelakoa, baina bada ezberdintasunik

zehaztasunetan. Aukeraketa estuago honi, forma klase nagusiak mota aukeratzailleetan banatzen dituen, komunztadura deritzaio. Gutxi gora-behera, muga zehatzik gabe bada ere, hiru komunztadura mota bereiz ditzakegu.

10.7. Gure adibideko komunztadura motarik soilenetakoa da, akordioa edo adostasuna deitu ohi den motakoa izan ere: egilea A azpiklaseko forma bada, ekintzak A azpiklasekoa behar du, eta abar. Batzuetan, azpizatiketarikoa bat beste nolabait ere nabarmen daiteke hizkuntzaren egiturari; honela, gure adibidean, B eta C esapide nominatiboen klaseak beste bide batetik ere zehatz daitezke gure hizkuntzan; hots, this "hau" that "hura" laguntzaileen erabileraren bitartez, B klasekoekin bakarrik agertzen dira eta, edo these "hauek" those "haiek" C klasekoekin soilik: this boy "mutil hau" this wheat "gari hau" esaten dugu, baina these boys "mutil hauek", these oats "olo-ale hauek" [ingelesez oat "olo" zenbakarria da]. Era berean, esapide nominatiboen singular eta pluralen arteko banaketa aditz jotatuena baino oinarritzkoagoa dela uste dugu, eta bigarren hauek lehenengoekin komunztaduran edo adostasunean daudela diogu. Arrazoi beragatik, this "hau", that "hura", these "hauek", those "haiek" laguntzen duten izen formarekin komunztaduran daudela diogu. Adostasunak eragin handia du hizkuntza askotan; har, adibidez, hizkuntza indoeuropear gehienetako adjektiboen jokabidea, izenaren hainbat azpiklaserekin adostasunean (zenbakia, generoa, kasua). Har alemanierazko der Knabe [der 'kna:be] "mutila (nom.)", ich sehe den Knaben [ix 'ze:e den 'kna:ben] "mutila (aku.) ikusten dut", die Knaben [di: 'kna:ben] "mutilak, zeinetan der, den, die formen aukeraketa izenaren azpiklasearekin komunztatzen baita (singularra eta plurala, nominatiboa eta akusatiboa); das Haus [das 'haws] "etxea" adibidean, des izan beharrean, das forma da aukeratzeko dena, alemanierazko izenak sailkatzen dituen genero klasearekin komunztaduran. Genero hauek klase arbitrarioak dira, eta klase bakoitzak halako adostasun formak agintzen ditu zenbait hitz laguntzaileetatik. Alemanierak hiru genero klase dauzka; horietariko bakoitzerako, artikulua mugatua eta kalt "hotz" adjektiboaren adostasun formak erakusten dituzten esaldiak eskainiko ditut:

"genero maskulinoa": der Hut [der 'hu:t] "txapela", kalter Wein ['kalter 'vajn] "ardo hotza"

"genero femeninoa": die Uhr [di: 'u:r] "erlojua", kalte Milch ['kalter 'milx] "esne hotza"

"genero neutroa": das Haus [das 'haws] "etxea", kaltes Wasser ['kaltes 'vaser] "ur hotza"

Frantseserak genero bi ditu, "maskulinoa" le couteau [le kuto] "aiztoa", eta "femeninoa", la fourchette [la furʃ? t] "sardexka". Bantu sendiko hizkuntza batzuek hogeitaz izen genero klase bereizten dituzte.

10.8. Beste kasu batzuetan, azpimailako aukeraketa taxemak formaren kokagune sintaktikoarekin zerikusia du. Adibidez, I know "nik dakit" baina watch me "begira iezadazu", beside me "nire ondoan" esaten dugu. I (he, she, they, we izenordain nominatibo) eta me (him, her, them, us izenordain akusatibo) formen arteko aukera formaren kokagunearen araberrakoa da: I klasea egilearen lekuan ageri ohi da, eta me klasea, helburuaren lekuan ekintza eta helburu eraikuntzan (watch me "begira iezadazu") eta ardatzaren lekuan harreman ardatz eraikuntzan (beside me "nire ondoan"). Aukeraketa mota honi, gobernu deritzaio; forma laguntzaileak (know "jakin", watch "begira", beside "ondoan") forma aukeratua (I edo me) gobernatzen (edo agintzen edo hartzen) duela esan ohi da. Gobernuak, komunztadurak bezala, berebiziko eragina du hainbat hizkuntzatan, indoeuropear sendiko asko barne direla. Honela, latinez, halako aditzek halako kasu formak gobernatzen dituzte izen helburuari dagokionez: videt bovem "idia ikusten du", nocet bovi- "idia mintzen du", u-titur bove "idia erabiltzen du", meminit bovis "idiaz gogoratzen da". Era berean, halako perpaus

nagusiek halako aditz menperatuak goberna ditzakete, frantseserazko je pense qu'il vient "badatorrela uste dut", baina je ne pense pas qu'il vienne "ez dut uste datorrenik". Gauzakien arteko kidetasuna eta kidetasunik eza, gobernua bezalakoak diren aukeraketa ezaugarri bereizten dira hainbat hizkuntzatan. Ingelesezt, he washed him "hark hura garbitu zuen" esan ohi dugu egilea eta helburua izaki bera ez direnean, baina he washed himself "hark bere burua garbitu zuen" (forma bihurkaria), pertsona bera direnean. Suedierak honela bereizten ditu egile eta jabe bera direnak eta ez direnak: han tog sin hatt "bere (berea zen) txapela hartu zuen" eta han tog hans hatt "haren txapela hartu zuen". Algonkin hizkuntzek forma ezberdinak erabiltzen dituzte izaki bera ez diren hirugarren pertsona bizidunetarako zenbait inguramendutan. Kree hizkuntzan, gizon batez mintzatzen bagara eta hurrengo, beste batez, lehena ['na:pe:w] "gizon" formaz aipatzen dugu eta bigarrena, forma saiheskaria deitu ohi dena erabiliaz, kasu honetan ['na:pe:wa]. Honela, hizkuntzak honako kasu hauek bereizten ditu (pertsona nagusia A eta bestea, saiheskaria, B izendatu ditugu):

['utinam u'tastutin] "hark(A) bere(Aren) txapela hartu zuen"

['utinam utastu'tinijiw] "hark(A) haren(Bren) txapela hartu zuen"

[utina'mijiwa u'tastutin] "hark(B) haren(Aren) txapela hartu zuen"

[utina'mijiwa utastu'tinijiw] "hark(B) bere(Bren) txapela hartu zuen"

10.9. Hirugarren komunztadura motan, erreferentzia gurutzatua deritzon, azpiklaseek loturik dauden formen aipamenak biltzen dituzte. Aipamen hau ingelesko izenordainen itxura duten forma ordezkatzailen bidez egiten da. Ingeles azpiestandarrez, gertakari hau honako formetan azaltzen da: John his knife "Jon bere labana", hots, "Jonen aiztoa" edo John he ran away, "Jonek ihes egin zuen"; hemen, his knife "bere labana" esaldiak jabe arra aipatzen du agerian, zeina are ageriago aipatzen baita John forma ia-absolutu laguntzailean -Mary her knife "Mari bere labana" eta Mary she ran away "Marik ihes egin zuen" adibideekin kontrajar bitez. Frantsesezt, erreferentzia gurutzatua hizkuntza estandarrean azaltzen da, batez ere galdera mota batean, hala nola Jean où est- il? "Jon non da bera?", hots, "Jon non da?" (#10.3). Latinezko aditz jokatu batek, cantat "kantatzen du", egilearen aipamen ordezkatzaila darama barnean. Egilea agerian izendatzen duen izen esapide batekin erreferentzia gurutzatua du, puella cantat "neskak kantatzen du" adibidean legez. Hizkuntza askotan, aditz formek bai egilea eta bai jasalearen aipamen ordezkatzailak (izenordainak bezalakoak) biltzen dituzte, adibidez Kree hizkuntzan ['wa:pame:w] "ikusi zuen"; beraz, egile eta jasalearen aipamen ageriagokorik bada, aditzarekin erreferentzia gurutzatua izango dute ['wa:pame:w 'atimwa a'wa na:pe:w] "ikusi zuen (saiheskaria) txakurra (saiheskaria) gizon hark", hots, "gizon hark txakurra ikusi zuen". Antzeko erara, hizkuntza askotan, izen jabledunak jabearen izenordainezko aipamena darama, Kree hizkuntzan esaterako, ['astutin] "txapela" baina [ni'tastutin] "nire txapela" [ki'tastutin] "zure txapela" [u'tastutin] "haren txapela"; beraz, beste hitz edo esaldi batean jabea aipatzen bada, erreferentzia gurutzatua ageri zaigu, hala nola ['ca:n u'tastutin] "Jon bere txapela", hots, "Jonen txapela".

10.10. Sintaxi eraiketa orok forma aske bi (edo batzuetan gehiago), ondorengo dei genezakeen esaldi batean konbinaturik, agertzen ditu. Ondorengo esaldia, osagaiez besteko klasekoa izan daiteke. Esaterako, John ran "Jonek laster egin zuen" ez da esapide nominatiboa (John bezalako), ez eta aditz jokatua (ran bezalako). Beraz, ingelesezko egile eta ekintza eraikuntza exozentrikoa dela diogu: ondorengo esaldia ez dagokio ezein lehen osagairen klaseari. Bestetik, ondorengo esaldia osagai baten (edo gehiagoren) klase berekoa izan daiteke. Adibidez, poor John "Jon gaixoa" izen berezi esapidea dugu, bere osagaia den John bezala; John eta poor John formek badute, oro

har, jokabide bera. Honela, bada, ingelesezko tasun izen eraikuntza (poor John, "Jon gaixoa" eta fresh milk "esne berria" adibideetako) endozentrikoa dela diogu.

Edozein hizkuntzatan, eraikuntza exozentrikoak gutxi dira. Ingelesez, egile eta ekintza eraikuntzaz gairi, badugu harreman-ardatz eraikuntza, beside John "Jonen ondoan", with me "nirekin", in the house "etxean", by running away "ihes eginaz"; osagaiak, preposizio esapidea eta esapide akusatiboa ditugu, baina ondorengo esaldiak osagaienaz bestelakoa den jokabidea azaltzen du, guztiz bestelako kokapen sintaktikoetan agertzen delarik (esaterako, adizlagun bezala: sit beside John "jezar zaitez Jonen ondoan", edo izenlagun bezala: the boy beside John "Jonen ondoko mutila"). Ingelesezko beste eraikuntza exozentrikoa menpekotasuna dugu. Mota batean (perpaus menpekotasuna), osagaiak esapide menperatzailea eta egile eta ekintza esaldia ditugu, adibidez if John ran away "Jonek ihes egiten badu"; ondorengo esaldiak ez du ezein osagaien jokabidea, baina laguntzaile jokabidea du (menpeko perpausa). Beste motan (esaldi menpekotasuna), osagaiak esapide menperatzailea eta beste edozein forma ditugu, bereziki izena: as I "ni bezain", than John "Jon baino", eta ondorengo esaldiak laguntzaile jokabidea du (as big as I "ni bezain handia", bigger than John "Jon baino handiagoa"). Eraikuntza exozentrikoetako ondorengo esaldiak bere osagaienaz bestelako jokabidea duen arren, osagai horietako bat, hala ere, beharrezkoa izan ohi da eraikuntzan, eta ondorengo esaldiaren ezaugarriak itxuratzen ditu; honela, ingelesez, aditz jokatuak, preposizioak, eta lokarri menperatzaileak beti agertu ohi dira eraikuntza exozentrikoetan, eta beren ezaugarriak erabakitzeke nahikoa dira.

Eraikuntza endozentrikoak bitarikoak ditugu, koordinatzaileak (edo segidakariak) eta menperatzaileak (edo atributiboak). Lehen multzoan, ondorengo esaldia, osagai bi edo gehiagoren klasekoa da. Honela, boys and girls "mutilak eta neskak" esaldia, boys "mutilak" eta girls "neskak" osagaien forma klase berekoa da; osagaiok, koordinaketaren atalak dira, eta beste osagaia koordinatzailea dugu. Batzuetan, ez dago koordinatzailearik: books, papers, pens, pencils, blotters (were all lying...) "liburuak, paperak, lumak, lapitzak, xukapaperak (denak lurrian...)"; bestetan, atal bakoitzak koordinatzaile bana dauka, hala nola both Bill and John "bai Bill eta bai Jon", either Bill or John "(edo) Bill edo Jon". Forma-klase alde txikiak egon daitezke ondorengo esaldia eta bere atalen artean: honela, Bill and John "Bill eta Jon" plurala da, bere atalak singularrak direlarik biak.

Eraikuntza endozentriko menperatzaileetan, ondorengo esaldia buru izena emango diogun osagaiaren klase berekoa da: honela, poor John "Jon gaixoa", John formaren klase berekoa da, eta beraz buru izendatuko dugu; beste osagaia, adibide honetan poor "gaixoa", atributoa da. Atributoa menpeko esaldia izan daiteke baita: very fresh milk "esne berri-berria" adibidean, lehen osagaiak milk "esne" burua eta very fresh "berri-berri" ditugu, eta esaldi hau, bere aldetik, fresh "berri" buruak eta very "oso" atributoak osatzen dute. Era honetan, menpekotasun maila ezberdinetako kokagunean egon daitezke; very fresh milk "esne berri-berria" esaldian hiru maila daude: (1) milk (2) fresh (3) very. Era berean, buruak eraikuntza atributiboa erakus dezake: this fresh milk "esne berri hau" eraikuntza, this "hau" forma atributiboaz eta fresh milk "esne berri" buruaz osaturik dago, eta azken hau, bere aldetik, fresh "berri" forma atributiboaz eta milk "esne" buruaz.

10.11. Esaldia osatzen duten sintaxi eraikuntza guztiak endozentrikoak badira, orduan esaldiak, bere oinarri osagaien artean, esaldiaren forma klasekoa den hitza (edo hitz mordoa, koordinaketa atal sorta) bildu behar du. Hitz hau esaldiaren gunea da. All this fresh milk "esne berri hau guztia" esaldian, milk "esne" hitza da gunea, eta all this bread and sweet butter "ogi eta gurin ezti hau guztia", bread "ogi" eta butter "gurin" ditugu guneak. Edozein hizkuntzatako eraikuntza gehienak endozentrikoak direnez,

esaldi gehienek gune bat daukate: esaldiaren forma klasea, esaldian bildurik dagoen hitzen bateko forma klase bera izan ohi da.

Salbuespenak, eraikuntza exozentrikoko esaldiak dira, eta hauexek ere, ikusi dugunez, hitz klase bidez zehatz daitezke. Esaldien sintaxi forma-klaseak, bada, hitzen sintaxi forma klaseetatik erator daitezke: sintaxiaren forma klaseak hitz klase bidez deskribatzen dira egokien. Honela, ingelesez, izen esapidea, klase honetakoa den hitza (John bezalako izena), edo gunetzat izena duen esaldia izan daiteke (poor John "Jon gaixoa" bezalako); eta ingelesezko aditz jokatu esapidea, forma klase honetakoa den hitza (run adibidez, aditz-jokatua alegia), edo gunetzat aditz jokatu duen esaldia (ran away bezalako). Ingelesezko egile eta ekintza esaldia (John ran "Jonek laster egin zuen" edo poor John ran away "Jon gaixoak ihes egin zuen") ez da ezein hitzaren forma klasekoa, bere egitura exozentrikoa baita, baina egile eta ekintza forma klasea, eraikuntzak berak zehazten du: (era jakin batean atondutako) esapide nominatibo eta aditz jokatu esapide batez osatzen da, eta honek, atzera, hitz klase arazoetara mugatzen du gaia.

Hizkera atal deitura, hizkuntza bateko hitz klase nagusi eta oinarrizkoenei ezarri ohi zaie, eta honen ondoren, gorago azaldu oinarriaren bitartez, sintaxi forma klaseak bertan ageri diren hizkera atalen bidez deskribatu ohi dira. Aitzitik, ezinezkoa da hizkera atalen eskema guztiz sendoa itxuratzea, hitz klaseak elkargainkatu eta elkargurutzatzen direlako.

Forma klaseez mintzatzean, esapide deitura darabilgu bai hitzak eta bai esaldiak biltzeko; honela, John izena da, poor John izen esaldia, eta forma biak izen esapideak ditugu.

Bai hitzak eta, eraikuntza endozentrikoek esker, bai esaldi konbinaketa kopuru itzelak biltzen dituzten forma klase nagusietan, esaldi-eraikuntza ezberdintasun txikiei zor zaien azpiklaseak sor daitezke. Adibidez, fresh "berri", good "on" edo sweet "ezti" bezalako atributuetariko bat milk "esne" buruari lotzen zaionean, ondorengo esaldia beste atributuei lotzeko gauza da, "good, sweet, fresh milk "esne berri, gozo, ona" adibidean legez: esaldiak bere (buru eta) gunearen, hots milk "esne" izenaren jokabide berbera du. Aitzitik, milk edo fresh milk bezalako forma this "hau" atributuarekin lotuz gero, ondorengo esaldiak, this milk "esne hau" edo this fresh milk "esne berri hau", ez dauka bere buru edo gunearen jokabide berbera, ondorengo esaldia ezin baitaiteke good "on" eta sweet "gozo" atributuekin lotu: this milk "esne hau" eta this fresh milk "esne berri hau" adibideetako eraikuntza erdi-itxirik dagoela diogu. Bide honetatik ageri diren aukerak, izan ere, all "guzti" atributua gehitzera murrizturik daude, all this milk "esne hau guztia" edo all this fresh milk "esne berri hau guztia" esaldietan legez. All "guzti" atributua gehitu denean, eraikuntza itxirik dago: ezin zaizkio mota honetako atributu (adjektibo) gehiago erantsi.

10.12. Hurrenkera taxema baten adibidea eskaintzeko, ingelesezko egile eta ekintza eraikuntzan egileak ekintzaren aurretik agertzera behartzen duen atonketa erabil genezake: John ran "Jonek laster egin zuen". Aukeraketa taxema guztiz konplexuak darabiltzaten hizkuntzetan, hurrenkera ez ohi da bereizgarri, baizik eta konotatzailea; hala nola latinezko pater amat filium "aitak semea maite du" esaldian, sintaxi harremanak aukeraketazkoak dira denak (erreferentzia gurutzatua eta gobernua), eta hitzak zeinahi hurrenkeratan ager daitezke (pater fī-lium amat, fī-lium pater amat, eta abar), hanpaketa eta adierazgarritasunaren araberrako ñabardurez. Ingelesez, hurrenkera taxemak egile eta ekintza eta ekintza helburu eraikuntzetan ageri dira, John ran "Jonek laster egin zuen" eta catch John "Jon harrapatu" adibideetan legez; izan ere, John hit Bill "Jonek Bill jo zuen" eta Bill hit John "Billek Jon jo zuen" perpausen arteko ezberdintasuna hurrenkerazkoa da guztiz. Oro har, baina, ingelesez, hurrenkera taxemak

aukeraketa taxemekin batera agertu ohi dira. Honi dagokionez, eta, itxura orokorrean, ingelesaren antza duten hizkuntzek hurrenkera taxemen aldetik alde handiak erakuts ditzakete ingelesarekin. Honela, alemaniera estandarra ingelesetik aldentzen da, atributo bakar bat (hitza edo esaldia) onartzen baitu aditz jokatuaren aurretik: heute spielen wir "gaur jokatuko dugu pilotan". Areago, hainbat ale kokatzen ditu perpaus bukaeran: zenbait adizlagun, adibidez ich stehe um sieben Uhr auf "ni altxatzen naiz zazpietan doi-doi"; partizipioak, adibidez ich habe ihn heute gesehen "nik dut bera gaur ikusi", aditz jokatuabeak, hala nola ich werde ihn heute sehen "nik izango dut gaur ikusi", hots, "nik gaur ikusiko dut"; menpeko perpaus baten aditza: wenn ich heute sehe "gaur ikusten badut".

Frantsesak aditzei laguntzen dieten zenbait forma ordezkatzailen hurrenkera atontzeko era tinko eta konplexua du. Perpaus mota arruntan, hots, galderazkoa ez denean, aditz jokatuaren aurretiko zazpi kokagune bereizten ditu ale hauentzat:

(1) egileak, adibidez, je "ni", il "hura", ils "haiek", on "bat", ce "hura (bizigabea)"

(2) ezezko adizlaguna, ne "ez"

(3) lehen eta bigarren pertsonari dagozkion helburu urrunak, hala nola me "niri" vous "zuri", eta se "bere buru/ari/ei"

(4) helburu hurbilagoak, hala nola me "ni" vous "zu", eta se "bere buru/a/ak", le "hura", les "haiek"

(5) hirugarren pertsonako helburu urrunak: lui "hari", leur "haiei"

(6) y [i] adizlaguna, "hor, horri, horiei, ba"

(7) en adizlaguna "bertatik, haietarik"

Adibidez: (1-2-3-4) il ne me le donne pas "ez dit ematen"

(1-3-6-7) il m'y en donne "zenbait ematen dizkit bertan"

(1-4-5) on le lui donne "ematen zaio"

(1-2-6-7) il n'y en a pas "ez dago bat ere"

Lantzean behin, hurrenkerak bereizkuntza zorrotzagoetarako ere balio du. Frantsesez, adjektibo gehienek izenari jarraitzen diote: une maison blanche "etxe zuri bat"; gutxi batzuk aurretik doaz: une belle maison "etxe ederra"; beste batzuk, esanahi lekutua dutenean, edo enfatikoak badira, edo konotazio gogorrik bada bakarrik ager daitezke izenaren aurretik: une barbe noire "bizar beltza": une noire trahison "saldukeria beltza"; un livre excellent "liburu bikaina": un excellent livre "liburu zoragarria!". Gutxi batzuek alde handiak erakusten dituzte esanahiari dagokionez: un livre cher "liburu garestia": un cher ami "adiskide mina", sa propre main "bere eskua": une main propre "esku garbia".

Ekonomiaren aldetik begiratura, hurrenkera taxemak etekinak ditugu, formak hurrenkeraren batean ahoskatu behar baitira; alabaina, hizkuntza gutxik uzten diete hurrenkera ezaugarriei bakarrik jokatzeko: ia gehienetan, aukeraketa taxemen lagungarri izan ohi dira.

10.13. Indoeuropear sendiko hizkuntzak hizkera atal asko dituzten aldetik bitxiak dira; zeinahi eraikuntza oinarri harturik ere, ingelesa bezalako hizkuntza batek dozena-erdi hizkera atal erakutsiko ditu gutxienez, hala nola izena, aditza, adjektiboa, adizlaguna, preposizioa, lokarri koordinatzailea, eta lokarri menperatzailea, tartekaldiez gain. Hizkuntza gehienek hizkera atal kopuru urriagoa darakuste. Banaketa hirukoitza arras hedaturik dago (seimitikoa, algonkiera); normalean, atal batek gure izenen itxura du eta besteak gure aditzena. Gure hizkera-atalen banaketak giza adierazpidearen ezaugarri unibertsalak itxuratzen dituelako ustea, uste erratua da. Gauzaki, ekintza, eta tasun klaseak, fisika edota giza psikologiako errealitateak badira, eta gure hizkuntzaz gaindikoak badira, orduan mundu guztian existitu behar dute, eta hala izanik ere, hizkuntza askok klase horiei dagozkien hizkera-atalik ez dutela egia litzateke.

Hizkera atal gutxi dituzten hizkuntzetan, sintaxi forma klaseak, esaldietan agertu ohi dira. Sarri asko, esaldiaren klasea hitz berezi batek adierazten du, markatzaileak; zehazki mintzatuz, markatzailea eta laguntzen dion esaldia eraikuntza exozentrikoan loturik daude, eraikuntzak erabakitzen duelarik esaldiaren klasea. Aukeraketa ezaugarri honezaz gaindi, eraikuntzak hurrenkeraz bereizi ohi dira maiz.

Adibide klasikoa txinera dugu. Hizkera atalak, hitz beteak eta partikulak (markatzaileak alegia) ditugu. Eraikuntza nagusiak hiru dira.

(1) Perpaus eraikuntza gogokoena, subjektua eta predikatua biltzen dituen da, ingelesezko egile eta ekintza eraikuntzaren antzekoa nolabait; subjektua predikatuaren aurretik doa: [tha¹ 'xaw³] "hura ona da", [tha¹ 'laj²] "hura etorri zen". Zenbait kasutan, forma klase gora-beheren arabera, predikatua [ʃe⁴] partikulak markatzen du hasieran: [tha¹ ʃe⁴ 'xaw³ 'ʃen²] "hura (prt.) gizon ona", hots, "hura gizon ona da".

(2) Bada eraikuntza endozentriko bat, atributo buruaren aurretik agertzen dena; esanahiaren aldetik, bere ingelesezko kideen antza du: ['xaw³ 'ʃen²] "gizon ona", ['man⁴ 'tʃhy⁴] "astiro joan". Atributua, zenbaitetan, [ti¹] partikulak markatzen du bukaeran: ['tin³ 'xaw³ ti² 'ʃen²] "gizon oso ona"; ['wo³ ti² 'fu⁴ |tʃhin¹] "Ni (prt.) aita", hots, "nire aita"; ['tso⁴ |tʃo² ti¹ 'ʃen²] "jezar (prt.) pertsona", hots, "jezarritako pertsona"; ['wo³ 'tʃe³ 'tse⁴ ti² 'pi³] "idazten dut (prt.) pintzela", hots, "idazten dudana pintzela" -adibide honetan, atributua subjektu-predikatu eraikuntzako esaldia da; ['maj³ ti 'ʃu¹] "erosi (prt.) liburu", hots, "erositako liburua".

(3) Atributua buruaren atzetik doan bigarren eraikuntza endozentrikoak ingelesko ekintza helburu eta harreman ardatz eraikuntzen antza du: ['kwan¹ 'man²] "atea itxi", ['tsaj⁴ |tʃun¹ kwo] "Txinan". Deitura zehatzegia ez bada ere, ekintza-helburu eraikuntzak direla esan genezake, (2) multzokoetatik bereiztearren.

Aukeraketa taxemak, neurri handi batean, (1) sailean subjektua, (2) sailean buru eta (3) sailean helburu lana egiten duen forma klasea, ingelesezko izen esapidearen antza duena, nolabait bereiztea dute zeregin nagusi. Forma-klase honetan (objektu esapidea dei genezakeena), hitz soil gutxi aurki daitezke berez; forma ordezkatzailerak ditugu, izan ere, hala nola [tha¹] "hura", edo [wo³] "ni". Gainerako objektu esapideak hainbat markatzailez osatutako esaldiak dira. Markatzaile hauetarik arruntenak, (2) motako atributuen aurretik ageri diren partikulak dira, hala nola [tʃe⁴] "hau", [na⁴] "hori", [na³] "zein?". Honela, [tʃe⁴ ko⁴] "zati hau", hots, "(zer) hau". Gehienetan, markatzaile hauek ez dira zuzenean hitz beteekin lotzen; zenbaitekin bakarrik, esaterako, aurreko adibideko [ko⁴] "zati", zeinak, banatzaileen klasea eratzen baitu; markatzailea eta banatzaileaz osatutako esaldia, hitz beteari lot dakioke (2) eraikuntzan, adibidez: [tʃe⁴ ko⁴ 'ʃen²] "gizon (banako) hau"; [wu³ 'tʃan⁴ |tʃe¹] "bost (banako) karta", hots, "bost karta". Beste objektu adierazpide mota bat, [ti¹] partikulak eratutakoa dugu: ['maj⁴ 'ʃu¹ ti] "liburu saldu (prt.)", hots, "liburu-saltzaile".

Era honetan, esaldi konplexuak eraikitzen dira: [tha¹ 'taw⁴ 'thjen² li³ |tʃhy⁴] "hura sar landa barne joan", hots, "landara doa"; hemen lehenengo hitza subjektua da, gainerako esaldia predikatua; predikatu honetan azken hitza burua da, eta gainerako hirurak atributua; atributu hau ekintzak [taw⁴] "sar", eta helburuak ['thjen² li³] "landa barne" osatzen dute; helburuan, lehenengo hitza bigarrenaren atributua da. [ni³ 'mej² pa³ 'maj³ 'mej² ti |tʃhjen³ 'kej³ wo³] "zu ez har eros ikatz (prt.) diru eman ni" esaldian, lehenengo hitza subjektua da, eta gainerako esaldia predikatua; predikatu honek atributu bat [mej²] eta burua du; buruaren barnean, lehenengo bost hitzak atributua dira berriz

ere, eta azken biak ['kej³ wo³] "eman ni" burua, ekintza-helburu eraikuntzan atondurik. Bost hitz dituen atributuan [pa³ 'maj³ 'mej² ti 'chjen³] "har eros ikatz (prt.) diru", lehenengo hitza ekintza da eta gainerakoa helburua; helburu honek [[chjen³] "diru" burua eta ['maj³ 'mej² ti] atributua biltzen ditu; atributua, gainerako esaldiari, hots ['maj³ 'mej²] "eros ikatz" lotzen zaion [ti¹] partikulak markatzen du atribututzat; partikulaz gaindikoa, ekintza-helburu eraikuntza dugu. Honela, bada, perpausaren esanahia "ez didazu ikatza erosteko dirurik eman".

Tagalogeraz, hizkera atalak, berriz ere, hitz betea eta partikula dira, baina hizkuntza honetan, hitz beteak klase bitan banatzen dira, egonkorrak eta igarokorrak deituko ditugunak. Azkenok gure aditzen itxura dute, predikatu mota berezi bat osatzen dutelako (mota narratzailea, lau azpimota dituen #9.2), eta aldi eta ahalkerazko morfologia bereizkuntzak agertzen dituztelako, baina gure aditzetatik aldentzen dira, batetik, beren jokabidea predikatugintzara murrizten ez delako, eta, bestetik, narratzaileak ez diren predikatuak ere badirelako. Eraikuntza nagusiak subjektua eta predikatua dira, bai hurrenkeraz (predikatua subjektuaren aurretik), bai [aj] partikula eta hurrenkeraz (subjektua, [aj] partikulaz markaturiko predikatuaren aurretik), #9.2 atalean erakutsi dugun legez. Subjektua eta predikatu berdintzailea era berezian markatzen dira: leku hauek betetzen dituzten forma klaseek ingelesezko izen esapideen antza dute, eta, areago, txinerazko objektu esapidearena. Badira berez klase honetako kide diren forma ordezkatzaille gutxi batzuk, [a'ku] "ni eta [si'ja] "hura" bezalakoak; gainerako objektu esapide guztiek, markatzaile jakin batzuen laguntza behar dute, bai zenbait atributorena, hala nola [isa n 'ba:ta?] "ume bat", bai zenbait partikularena, batik bat, izenaren aurretik doan [si], [si 'hwan] "Jon", eta gainerako formen aurretik doan [an], [an 'ba:ta?] "umea", [an pu'la] "gorria", hots "gorritasuna", [an 'pu:tu] "ebakia", edo, forma igarokorrak erakusteko, [an pu'mu:tu] "ebaki zuena", [an pi'nu:tu] "ebakia izan zena", [an ipi'nu:tu] "hura, zeinarekin ebaki baitzen", [an pinu'tu:lan] "hura, nondik ebaki baitzen". Badira lau eraikuntza atributibo. Batean, [na] partikula, bokal ostean [n] dena, buru eta atributuaren artean tartekatzen da, edozein hurrenkeratan, [an 'ba:ta n sumu:'su:lat] edo [an sumu:'su:lat na 'ba:ta?] "ume idazlea"; [an pu'la n pan'ju] "zapi gorria", [an pan'ju n i'tu] "zapi hau". Beste eraikuntza atributibo murriztuago batek ez du partikularik ageri, adibidez [hin'di:a'ku] "ni ez", [hin'di: maba'it] 'ona ez". Hirugarren eraikuntza atributiboan, atributua forma berezian agertzen den objektu esapidea da: honela, [a'ku] "ni" formaren ordezkari, [ku] agertzen da, [si'ja] "hura" formaren ordezkari [ni'ja], eta [si] partikularenekin [ni], [a] partikularenekin [nan]: [an pu'la nan pan'ju aj matin'kad] "zapiaren gorritasuna bizia da"; [an 'ba:ta j ku'ma:in nan 'ka:nin] "umeak arroza jan zuen" (egile-ekintza); [ki'na:in' nan ba:ta? an 'ka:nin] "arroza umeak jana izan zen" (helburu- ekintza); ikus bitez baita, #9.2 ataleko adibideak. Laugarren eraikuntza atributiboan, atributua objektu esapidea da orobat: [si] partikularenekin [kaj] jartzen da, eta [a] partikularenekin [sa]; atributuak lekua adierazten du: [an 'ba:ta j na'na:ug sa 'ba:haj] "umea etxetik atera zen".

10.14. Sintaxiaren zehaztasunak korapilatsuak eta azaltzeko zailak dira sarri. Honi dagokionez, ingelesa, alemaniera, latina edo frantsesaren zeinahi gramatika osok, eztabaida abstraktu batek baino argibide gehiago eskaintzen dizkigu. Idatzi gehienetan, baina, eraikuntza eta forma klaseen itxuraketan, zehazpen formalen ordezkari, iritzi filosofikoak erabilirik areago iluntzen da sintaxia. Ohitura sintaktiko konplexuagoen adibide gisa besterik ez, egungo ingelesaren (mintzatu estandarraren) eraikuntza baten ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu -tasun izen dei genezakeen eraikuntza, fresh milk "esne berria" adibidean ageri dena.

Eraikuntza hau atributiboa da, eta burua izen esapidea da beti -hots, izena edo izena gunetzat duen esaldi endozentrikoa. Izena hitz-klasea da; hitz klase guztiak bezala, gramatika ezaugarrien bidez zehaztu behar da; horietariko zenbait, hurrengo azterketan agertuko zaizkigu. Zehaztu denean, gutxi gora-behera "delako motako izakia" hitzez itxura daitekeen klase esanahia erakusten du; zenbait adibide boy "mutil", stone "harri", water "ur", kindness "ontasun". Gure eraikuntzako atributiboa, adjektibo esapidea da beti -hots, adjektiboa, edo adjektiboa gunen duen esaldi endozentrikoa. Adjektiboa ingelesez, hitz klasea dugu (hizkera-atala), hain zuzen ere eskuartean darabilgun tasun izen eraikuntzan duen jokabidearen bitartez zehatz daitekeena; bere klase esanahia, gure azterketan, "izaki mota bateko banakoen tasunak" bezala azalduko zaigu, gutxi gora-behera; adibideak, big "handi", red "gorri", this "hau", some "zenbait". Aukeraketa ezaugarri honez gain, tasun izen eraikuntzak badu hurrenkerazko ezaugarriak: adjektibo esapideak izen esapidearen aurretik behar du: poor John, "Jon gaixoa", fresh milk "esne berria".

Adjektiboak bitan banatzen dira, deskribatzaileak eta mugatzaileak, zeren, klase bietako adjektiboak esaldi berean agertzen direnean, adjektibo mugatzaileak adjektibo deskribatzaileak eta izenak osatzen duten multzoaren aurretik behar baitu, multzo hori mugatzen duelarik. Beraz, this fresh milk "esne berri hau" bezalako forma batean, lehen osagaiak this "hau" adjektibo mugatzailea eta fresh milk "esne berri" izen esaldia ditugu, zeina, bere aldetik, fresh "berri" adjektibo deskribatzaileaz eta milk izenaz osatzen baita. Ezberdintasun honek azpiklase bitan banatzen du gure tasun izen eraikuntza, bereizgarri-izen eraikuntza batetik, zeinetan atributua adjektibo deskribatzaile esapidea baita, eta mugatzaile-izen eraikuntza, bestetik, zeinetan atributua adjektibo mugatzailea baita.

Bereizgarri-izen eraikuntza eta adjektibo deskribatzaileen klasea, hainbat motatan banatzen dira, hurrenkera ezaugarrien bitartez. Adibidez, big black sheep "ardi beltz handi" esaten dugu, baina sekula ez *black big sheep, kind old man "gizon zahar zintzoa" baina ez *old kind man eta abar. Ez gara azpimota hauek aztertzen geldituko. Adjektibo deskribatzaileen forma klasearen esanahia, gutxi gora-behera, "izaki banakoen izaera bereizgarriak" dugu.

Adjektibo mugatzaileen forma klasea, deskribatzaileena baino askoz urriagoa da, eta, izan ere, geroago forma-klase irregularra deituko dugunaren adibide dugu -hau da, formen zerrenda eginaz deskribatu behar den klasea; alabaina, adjektibo deskribatzaile eta mugatzaileen arteko muga ez da guztiz zehazgarria. Adjektibo mugatzaileen klase-esanahia, "izaki banakoen izaera aldakorra" da, gutxi gora-behera.

Gure adjektibo mugatzaileak azpiklase bitan banatzen dira, determinatzaileak eta zenbatzaileak. Klase bi hauek badituzte hainbat azpizatiketa, eta are gehiago, beste sailkapen irizpide batzuek ere zeharkatzen dituzte.

Determinatzaileak, izen esapide batzuk (hala nola house "etxe" edo big house "etxe handi") beti determinatzaile batek lagundurik agertu beharrak zehazten ditu (hala nola, this house "etxe hau" edo a big house "etxe handia"). Klasearen esanahia, gutxi gora-behera, "izaki banakoen zeinketa tasuna" litzateke. Zenbait izen esapide beti determinatzaileekin erabiltzeko ohitura hau, hizkuntza batzuen berezitasuna da, hala nola egungo germaniera eta latin hizkuntzena. Hizkuntza askok ez dute ohitura hau: latinez, adibidez, domus "etxe" izenak ez du atributurik behar, eta "etxea" zein "etxe bat" esateko erabil daiteke.

Ezaugarri sorta batek klase bitan banatzen ditu determinatzaileak, mugatuak eta mugagabeak. Ezaugarri hauetarik, bat bakarrik aipatuko dugu: determinatzaile mugatua, all "guzti" zenbatzailearen atzetik ager daiteke (all the water "ur guztia" adibidean

legez), baina determinatzaile mugagabea ez (some "zenbait" some water "zenbait ur" esaldian legez).

Determinatzaile mugatuak hauek ditugu: jabetzazko adjektibo guztiak (John's book "Jonen liburua", my house "nire etxea"), eta this "hau", (these "hauek"), that "hori, hura" (those "horiek, haiek"), the "-a". Jabetzazko adjektiboen klasea, morfologiaren bitartez zehatz daiteke. Ohar bedi italierak, gurealakoa den tasun izen eraikuntza izanik, ez dituela jabetzazko adjektiboak determinatzaile gisa erabiltzen: il mio amico "nire laguna", un mio amico "nire lagun bat". Determinatzaileen klase esanahia "izaki banako zeindua" lirarteke. Izaki banakoak nola zeintzen diren zehazki azaltzea, hizkuntzalariaren landaz kanpoko arazo praktikoa dugu; zeintze hau, norbaiten jabegoaren arabera (John's book "Jonen liburua"), hiztunarekiko lekuzko harremanaren arabera (this house "etxe hau"), hizkuntz forma laguntzaile batek egiten duen deskribapenaren arabera (the house I saw "nik ikusi nuen etxea"), edota, aurretiaz esandakoa ("gizon bat ikusi nuen, baina gizonak ez ninduen ikusi") artean duten kokapenezko ezaugarrien arabera (the sky "zerua", the chairman "sailburua") izan daiteke. Determinatzaile mugatuen artean, this "hau": these "hauek" eta that "hori": those "horiek", bereziak ditugu, izenaren zenbaki klasearekin adostasuna erakusten dutelarik (this house "etxe hau": these houses "etxe hauek").

Determinatzaile mugagabeak a (an bokal aurretik) "bat", any "-rik", each "bakoitz", either "edo(zein)" every "oro", neither "ezein", no, one "bat", some "zenbait", what "zer", whatever "zeinahi" which "zein", whichever "zeinahi", eta baita ere many a "asko", such a "halakoa", what a "a zer (esklamazioetan)". Klase esanahia, "izaki banako zeindugabeak" dugu.

Bokal aurretik agertzen duen an sandhi formagatik, a hitza bitxia da. One "bat" hitza, ez da determinatzaile mugagabe gisa agertzen bakarrik (one man "gizon bat"), eta baditu guztiz bestelakoak diren zereginak (a big one "handi bat", edota if one only knew "batek baleki..." esaldietakoak, adibidez); gertakari honi klase-arrakala dei geniezaioke. Determinatzaile mugagabeen esanahiak, darabilgun gaiaz gairikoa besarkadura duten gramatika ezaugarrien bidez zehatz daitezke, neurri batean, eta hizkuntzari dagokionez. Adibidez, what "zer" eta which "zein" galdetzaileak dira, eta entzuleari hizkera forma bat eskainarazten dioten osagai galderak aurkezten dituzte (what man? "zer gizon?" which man? "zein gizon?"). Whatever "zeinahi" eta whichever "zeinahi", erlatibogileak ditugu, beren izena menpeko perpaus baten osagai gisa markatzen dutenak (whatever book you take... "hartzen duzun zeinahi liburu..."). No eta neither "ezein", ezezkoak ditugu, izaki banako guztiak ezabatzen dituztenak. Each "bakoitz", which "zein" eta whichever "zeinahi" formek aukera eremu mugatua adierazten dute: hau da, axolazko izakiak zeindutako sailaren atal bati (edo osotasunari) dagozkio (which book? "zein liburu?" which parent? "zein guraso?"); either "edo(zein)", neither "ez(ein)", areago doaz, eremua izaki bitara murriztuz.

Determinatzaile batzuk indargabeak dira (hanpaketa alde batera utzita, noski): my "nire", our "gure", your "zure" zuen", his "bere (arra)", her "bere (emea)", its "bere" (bizigabea)", their "haien", the "-a", a "bat"; besteak, indargabeak dira batzuetan, edo bigarren mailako indarraz ahoskatzen dira.

Beti determinatzailea duten izen esapide motak, bestelako determinatzailearik agertzen ez denean, artikulua daramate aurretik, bai the mugatua edo a mugagabea, beren esanahia, dagozkien forma klasearen klase esanahia baino ez delarik. Mugatu eta mugagabe bezalako gramatika banaketa, beti gramatika ezaugarriren batekin ageri dena (hona determinatzailea agintzen duten izen esapideak), kategorikoa dela esan ohi da. Mugatu eta mugagabe kategoriek, izan ere, ingelesko izen esapide klase osoa besarkatzen duela esan daiteke, zeren eta, beti determinatzailea ez daramaten izen

esapide motak ere, mugatu edo mugagabe gisa sailka baitaitezke: John, esaterako, mugatutzat, eta kindness "zintzotasuna", mugagabetzat.

Determinatzaileak erabili ala ez irizpidearen arabera, ingelesko izen esapideak zenbait azpiklase interesgarritan banatzen zaizkigu:

I. Izenak (izen bereziak) singularrean ageri dira bakarrik, ez dute determinatzailearik hartzen, eta mugatuak dira beti: John, Chicago. Klase esanahia "banako bakarra biltzen duen izaki saila" da. Hemen, eta aurrerantzean ere, leku mugek beharturik, ezin gaitzke zehaztasunetan sartu, homonimia gertatzen denean (two Johns "Jon bi" this John "Jon hau") izena izen arrunt gisa ager daitekeen klase arrakalan esaterako; eta ezin gaitzke azpiklaseetan zehar abiatu ere, hala nola beti the hitzari jarraitzen zaizkion ibai izenenean.

II. Izen arruntak kategoria bietan agertzen zaizkigu, mugatuak eta mugagabeak. Klase esanahia da "banako bat baino gehiago biltzen duen izaki saila". Zenbaki pluralean determinatzailea behar dute mugatu kategoriakoek (the houses "etxeak"), baina ez mugagabeak (houses "etxeak", a house "etxe bat" singularraren kidea).

A. Izen zenbakariek singularrean determinatzailea behar dute (the house "etxea" a house "etxe bat"). Klase esanahia "banako batean baino gehiago ematen den izaki saila, banakoak zatitu edo elkartu ezinak direlarik" da.

B. Izen zenbakaitzek determinatzailea behar dute mugatuak direnean bakarrik (the milk : milk "esnea"). Klase esanahia da "banako batean baino gehiago ematen den izaki saila, izakiak zati eta elkar daitezkeelarik".

1. Izen neurgarriek ez dute sekula a "bat" hartzen, eta ez dute pluralik (the milk : milk "esnea"). Klase esanahia Bko bera dugu, izaki banakoek "berezko izaera dutela" gehigarriaz.

2. Izen neurgaitzek, determinatzailearik gabe eta mugagabe singularrak direnean, banako guztiak biltzen dituzte (life is short "bizitza laburra da"; determinatzailearekin eta pluralean, banakoak bereziak dira (a useful life "bizitza baliagarria"; nine lives "bederatzi bizitza"). Klase esanahia Bko bera da, izaki banakoak "beste izakien jokabide (tasun, ekintza, harreman) gisa existitzen direla bakarrik" gehigarriaz.

II saileko azpibanaketez gaindi, klase arrakalak sarri eta era interesgarritan gertatzen dira, adibidez an egg, "arrautza bat", eggs "arrautzak" (A), baina "he got egg on his necktie "arrautza dauka gorbatan" (B1); coffee "kafea" (B1) baina an expensive coffee "kafe garesti bat" (A).

Beste klaseko adjektibo mugatzaileak, zenbatzaileak alegia, hainbat azpiklasetan banatzen dira, zeinetarik gutxi batzuk aipatuko baititugu. Horietariko bi, all "guzti" eta both "bi(ak)", determinatzailearen aurretik agertzen dira (all the apples "sagar guztiak"); gainerakoak atzetik doaz (the other apples "beste sagarrak"). Alabaina, badira bi aurretik doazenak determinatzaile diren esaldietan: many a "asko", such a "halakoa". Izen pluralekin zenbatzaileak diren esaldietan, few "gutxi", hundred "ehun", thousand "mila", hala nola -ion atzizkiaz eratutako (million "milioi" eta abar) zenbatzaileak, a atzetik agertzen dira (a hundred years "ehun urte"). Same "bera", very "bera, oso", one "bat" zenbatzaileak -azkena klase-arrakala bidez bereizten delarik one "bat" determinatzailetik- izen mugatuekin erabiltzen dira soilik (this same book "liburu (hau) bera(u)", the very day "egun (hartan) bertan", my one hope "nire itxaropen bakarra"; much "asko", more "(gehi)ago", less "gutxiago" zenbatzaileak, izen mugagabeekin erabiltzen dira bakarrik (much water "ur asko"); all "guzti, oro" era bietako izenekin erabiltzen da, baina determinatzaile mugatuekin bakarrik (all the milk : all milk "esne guztia"). Zenbait, hala nola both, few, many, zenbaki gorenak, izen pluralekin erabiltzen dira bakarrik; beste batzuk, hala nola one, much, little, izen singularrekin soilik. Zenbatzaile batzuk beste sintaxi kokagunetan erabili ohi dira baita

ere, adibidez many "asko" eta few "gutxi", adjektibo predikatzailerik gisa (they were many "asko ziren"), eta all "oro, guzti", both "bi(ak)" atributo erdi-predikatzailerik gisa (the boys were both there "mutiak hortxe zeuden biak"). 13. kapituluko izen esapideen ordezkaketari ekiten diogunean, ingeleseko zenbatzaileak sailkatzeko beste hainbat irizpide interesgarri ikusiko ditugu.

Oharrak

Sintaxiari buruz: Morris; Wackernagel, Vorlesungen; Blümel; Jespersen, Philosophy. Ingeleserako, 8. kapituluan aipatutako liburuez gaindi, ikus Curme-Kurath; alemaniararako, Paul, Grammatik.

10.1. Sintaxiaren zehazpena: Ries, Syntax.

10.4. Doinua eta indarra txinerazko sandhian: Karlgren, Reader 23; adibideak, Arendt-en Einführung liburutik, 14.

10.10. Ranks: Jespersen, Philosophy 96.

10.12. Hitz hurrenkerari buruzko idatzien bibliografia: E. Schwendtner in Wörter und Sachen 8.179 (1923); 9.194 (1926).

MORFOLOGIA

11.1. Hizkuntza bateko morfologiak osagaien artean forma lotuak ageri dituzten eraikuntzak biltzen ditu. Definizioz, morfologiaren ondorengo formak, hitzak edo forma lotuak dira, inoiz ez esaldiak. Beraz, morfologiak hitzen eta hitz atalen eraikuntzak biltzen dituela esan genezake, eta sintaxiak, ordea, esaldien eraikuntzak. Muga-mugan, esaldi hitzak (jack-in-the-pulpit bezalakoak), eta zenbait hitz elkartu (blackbird "zozo") dauzkagu, hauek ez baitute forma loturik biltzen beren lehen osagaien artean, eta hainbat eratan sintaktikoak baino morfologiakoagoak diren eraikuntza motak ageri dituzte.

Oro har, morfologia eraikuntzak sintaktikoak baino landuagoak dira. Doinualdi eta aldaketa ezaugarriak ugariago eta eredugabeagoak dira -hau da, osagai edo konbinaketa jakin batzuetara mugatuak. Osagaien hurrenkera, ia beti, guztiz tinkoa da, eta ez daukate John ran away: Away ran John "Jonek urrunera laster egin zuen": "Urrunera laster egin zuen Jonek" bezalako aldaera konotatzailerik. Aukeraketa ezaugarriek zehatz-mehazki eta, maiz, gogoak emanda bezala mugatzen dituzte forma konplexu batean lot daitezkeen osagaiak.

Ondorioz, bada, hizkuntzen arteko aldeak handiagoak dira morfologian sintaxian baino. Aldaketa eremua hain da zabala, non ezein eredu soilek ez baititu hizkuntzak beren morfologiari dagokienez sailkatuko. Horrelako eredu batek hizkuntza analitikoak, hots, forma lotu gutxi darabiltzatenak, eta hizkuntza sintetikoak, asko darabiltzatenak, bereizten ditu. Mutur batean, egungo txinera bezalako hizkuntza guztiz analitikoa dugu, zeinean hitz bakoitza silaba bakarreko morfema baita, edo hitz elkartua, edo esaldi hitza; beste muturrean, eskimoera bezalako hizkuntza guztiz sintetikoa, forma lotu multzo luzeak hitz bakar batean biltzen dituenak, hala nola [a:wli-sa-ut-iss?ar-si-niarpu-na] "arrantza- harirako egokia den zerbaiten bila nabil". Bereizkuntza hau, dena den, muturreko kasuetarako izan ezik, erlatiboa da guztiz; zeinahi hizkuntza beste hizkuntza bat baino analitikoagoa izan daiteke zenbait aldetatik, baina beste alde batzuetatik sintetikoagoa. Era honetako beste eredu batek, lau mota morfologikotan banatu zituen hizkuntzak, bakartzaileak, aglutinatzaileak, polisintetikoak eta inflexiozaleak. Hizkuntza bakartzaileak, txinerak bezala forma loturik ez darabiltzatenak dira; hizkuntz aglutinatzaileetan, forma lotuak besterik gabe bata bestearen atzetik agertzen zirela hartzen zen ontzat, turkiera adibide nagusia zelarik; hizkuntza polisintetikoek esanahiaren aldetik garrantzitsu ziren aleak, hala nola aditz helburuak, forma lotuen bidez agertzen zituzten, eskimoerak legez; hizkuntza inflexiozaleek semantikoki bereziak ziren ezaugarriak bai forma lotu bakar batean edo estu loturiko forma lotuetan biltzen zituzten, adibidez latinezko o- atzizkiak, amo- "maite dut" bezalako forma batean "hiztuna egile", "egilea bakarrik", "ekintza orainaldian" "benetako (ez ahalezko edo baldintzazko) ekintza" esanahiak biltzen dituen eran. Bereizkuntza hauek ez daude koordinaturik, eta azken hiru motak ez dira inoiz garbiro zehaztu izan.

11.2. Hiztunak ezin ditzakeenez forma lotuak bakarka ahoskatuz bereizi, ez ohi da hitzen egitura deskribatzeko gauza izan. Morfologiaren itxuraketak azterketa sistematikoa eskatzen du. Antzinako grekoek norabide honetan aurrerabidea egin zuten, baina, orokorrean, gure teknika gramatikalari indiarrek garatu zuten. Gure metodoa nahi adina landua izanik ere, esanahien izaera irristakorrek zailtasunak sortuko dizkigu beti, batez ere esanahi aldetiko harreman ilunak forma aldetiko irregulartasunekin loturik datorkigunean. Esaterako, goose "antzara", gosling "antzarkume", gooseberry "astamahats", gander "antzara arra" sailean, lehenengo forma biek morfologiazko harremanik badutela onartuko genuke, gosling hitzeko hasiera goose formaren aldaketa den neurrian, baina gooseberry formako [guwz-] atalak ez du esanahiarekin loturarik,

eta, bestetik, goose eta gander hitzen arteko antzekotasuna hain da txikia [g-], batek galdetu behar duela ea esanahi aldetiko loturak benetako hizkuntz-formazko harremanik ote duen. Azken zailtasun hau, duck "ahate": drake "ahate" bikotean agertzen zaigu ere, [d...k] hots komunak ditugulako. Laster asmatzen dugu ezin genezakeela hiztunengana erantzun bila jo, ez baitira azterketa morfologikotan aritzen; galderak egiten bazaizkie, sendotasunik gabeko edo lelokeriaz betetako erantzunak ematen dituzte. Hizkuntzaren historia ezagutzen bada, aurreko garaien batean bikoiztasunik ez zela ikas lezake batek -dirudienez, adibidez, zenbait mende lehenago "gooseberry" hitza *grose-berry zela, eta ez zeukala goose "antzara" batekin zerikusirik- baina honelako gertakariak ez digute esaten egungo hizkuntzan kontuak nola diren.

Sintaxian gertatzen diren doinualdi eta aldaketak deskribatzean, hitz edo esaldiaren forma absolutua hartzen dugu abiapuntu, baina eite askotan agertzen den forma batek deskribapen bide ezberdin askotatik eraman gaitzake, oinarrizko aldaeratzat egiten dugun aukeraren arabera. Adibidez, ingelesezko izenen pluraleko atzizkia hiru eitetan agertu ohi da: [-ez], glasses "betaurrekoak", [-z] cards "txartelak", [-s] books "liburuak"; hiru hauetariko bakoitza, txandaka, abiapuntutzat hartuz gero, gertakarien itxuraketa guztiz ezberdinetara hel gaitzake.

Sarri asko, areagoko zailtasunik ere bada. Batzuetan, aldaketa fonetikoa bezalako gramatika ezaugarri batek, normalean hizkuntz-forma batek, adierazi ohi duen esanahia adierazten duela dirudi, adibidez man "gizona": men "gizonak" bikotean, non bokalaren aldaketak pluralezko atzizkiaren lekua hartzen baitu. Beste kasu batzuetan, ez dago gramatika ezaugarriarik ere: forma fonetiko bakar batek, homonimiaren erara, normalean hizkuntz formen bidez bereizten diren esanahi bi adierazten ditu, hala nola, the sheep (grazes) "ardia alaitzen da": the sheep (graze) "ardiak alaitzen dira". Hemen, indiarrek itxuraz artifiziala baina praktikan guztiz baliagarria den zero alea lanabesa asmatu zuten: hala, sheep "ardia": sheep "ardiak" bikotean, pluralezko atzizkiaren lekua zerok hartzen du -hots, ezerk ere ez.

11.3. Zailtasun hauek guztiak direla eta, nahasmendua sortzen da morfologiazko itxuraketa deskribatzailean, edonolako irizpide etenik gertatuz gero. Batik bat, lehen osagaien oinarria bete behar da (#8.2). Oinarri honek, hasieratik, hitzak beren lehen osagaien arabera banatzera garamatza:

A. Bigarren mailako hitzak, forma askez osatuak:

1. Hitz elkartuak, forma aske bat baino gehiago biltzen dituztenak: door-knob "ate-eskutoki", wild-animal-tamer "basa-animalia-hezle". Forma askeok hitz elkartuaren atalak dira: gure adibideetan, atalak door "ate", knob "eskutoki", tamer "hezle" hitzak eta wild animal "animalia basatia" esaldiak dira.

2. Eratorririko bigarren mailako hitzak, forma aske bakarra biltzen dutenak: boyish "mutil-itxurakoa", old-maidish "neskazahar itxurakoa". Forma askea, azpiko forma deitzen da; gure adibideetan, azpiko formak boy "mutil" hitza eta old maid "neskazahar" esaldiak dira.

B. Lehen mailako hitzak, forma askerik ez dutenak:

1. Eratorririko lehen mailako hitzak, forma lotu bat baino gehiago dutenak: re-ceive "jaso", de-ceive "engainatu", con-ceive "asmatu", re-tain "gorde", de-tain "geldiarazi", con-tain "bildu".

2. Morfema hitzak, morfema bakar bat dutenak: man "gizon", boy "mutil", cut "ebaki", red "gorri", big "handi".

Lehen osagaien oinarriak, adibidez, gentlemanly "zaldunki" bezalako forma, hitz elkartu gisa ezik, eratorririko bigarren mailako hitz gisa sailkatzera eramango gaitu, lehen osagaiak -ly "-ki" forma lotua eta gentleman "zaldun" azpiko forma baitira; gentlemanly hitza bigarren mailako eratorkia dugu (des-elkartua deitu ohi dena), azpiko

forma hitz elkartua duena. Era berean, door-knobs "ate-eskutokiak" ez da hitz elkartua, des-elkartua baino, [-z] forma lotuaz eta door-knob azpiko hitzaz osatua.

Lehen osagaien oinarriak osagaien egiturazko hurrenkera kontuan hartuz garamatza, zeina ageriko hurrenkeraz bestelako izan baitaiteke; honela, ungentlemanly "zalduntasunezaz", un- "des-, -ez" formaz eta gentlemanly hitzaz osaturik dago, forma lotua aurrealdetik itsasten delarik, baina getlemanly, gentleman eta -ly formez osaturik dago, forma lotua atzealdetik itsasten delarik.

11.4. Morfologia atonketa soilen adibide bezala, har ditzagun ingelesezko pluralezko izenetan (glass-es "bataurrekoak") eta lehenaldiko aditzetan (land-ed "lehorreratu") azaltzen diren bigarren mailako eratorretak.

Aukeraketari dagokionez, forma lotuak bakanak ditugu klase bietan, baina azpiko formak klase nagusi bietakoak ditugu: pluralezko izenak singularreko izenetatik eratorriak dira (hala nola glasses hitza glass "beira" singularretik), eta lehenaldiko aditzak, aditz jokatugabeetatik (esaterako, land-ed, land "lehorreratu" formatik). Beste azpimailako aukeraketa taxema batzuez geroago arduratuko gara.

Hurrenkerari dagokionez, forma lotua, gertakari bietan, azpiko formaren ondotik ahoskatzen da.

Ingeles morfologiako ia eraikuntza gehienek batera duten doinualdi ezaugarri baten bitartez, azpiko formak bere indarra gordetzen du, eta forma lotua indargabea da.

Aldaketa fonetikoazko taxemak landuagoak dira, eta hizkuntza askotako morfologian ageri diren berezitasunak erakusten dituzte.

Hasteko, forma lotua hainbat aldaeratan agertzen da, hots, aldaketa fonetikoa ageri duten eite ezberdinetan:

glass: glasses [-ez]

pen: pens [-z]

book: books [-s]

Adibideak bilduz gero, laster ikusiko dugu forma lotuaren eitea, laguntzen dion formaren azken fonemak erabakitzen duela: [- ez] txistukari eta afrikatuen atzetik agertzen da (glasses "bataurrekoak", roses "larrosak", dishes "platerak", garages "garageak", churches "elizak", bridges "zubiak"); [-z] beste fonema ahostun guztien atzetik agertzen da (saws "zerrak", boys "mutilak", ribs "saihetsak", sleeves "maukak", pens "idazlumak", hills "mendixkak", cars "autoak"); eta [-s] beste fonema ahoskabe guztien atzetik (books "liburuak", cliffs "amildegiak"). Hiru aldaeren arteko ezberdintasunak [-ez, -z, -s], aldaketa fonetikoazko ezaugarrien bidez adieraz daitezkeenez, aldaera fonetikoak direla diogu. Aldaeren banaketa, laguntzen dieten formen hizkuntzazko ezaugarri nabarmenen arabera denez, ereduazko aldaketa dela diogu. Azkenik, aldaketa erabakitzen duen forma laguntzaileen ezaugarria fonetikoa denez geroz, (hots, azken fonemaren izaera), aldaketa automatikoa dela diogu.

Ereduazko aldaketek eragin handia dute hizkuntza gehienek morfologian. Ereduazko aldaketa guztiak ez dira automatikoak edo fonetikoak. Alemanieraz, esaterako, forma singularrak, zenbait sintaxi ezaugarriren arabera, hiru forma klasetan banaturik daude, generoak deritzen klaseetan (#10.7); alemanierazko pluralezko izenak singularretatik eratorriak dira, azpiko singularraren generoaren arabera bereizten diren forma lotuen bidez:

izen maskulinoek [-e] gehitzen dute, zenbait bokal aldaketekin: der Hut [hu:t] "txapela": Hüte [hy:te] "hats"; der Sohn [zo:n] "seme": Söhne [zø:ne] "semeak"; der Baum [bawm] "zuhaitz": Bäume [bojme] "zuhaitzak";

izen neutroek [-e] gehitzen dute, bokal aldaketarik gabe: das Jahr [ja:r] "urte": Jahre [ja:re] "urteak", das Boot [bo:t] "untzi": Boote [bo:te] "untziak"; das Tier [ti:r] "animalia": Tiere [ti:re] "animaliak";

izen femeninoek [-en] gehitzen dute: die Uhr [u:r] "erloju": Uhren ['u:ren] "erlojuak"; die Last [last] "zama": Lasten ['lasten] "zamak"; die Frau [fraw] "emakume": Frauen ['frawen] "emakumeak".

Aldaketa hau (axola ez zaizkigun zenbait ezaugarri alde batera utzita) ereduakoa da, ez fonetikoak ordea, hiru aldaeretatik, hots, [-e] bokal aldatetaz, [-e], eta [-en], azkena ez baita, hizkuntzaren sisteman, lehenengo biak bezalakoa; eta aldateta ez da automatikoa, baizik eta gramatikala, ez baita azpiko formen ezaugarri fonetikoaren arabera, baizik eta ezaugarri gramatikalen (kasu honetan, sintaktikoen) arabera.

11.5. Ingelesezko pluralezko izenetan ageri den forma lotuaren hiru aldaeren [-ez, -z, -s] kidetasuna ez dugu oraindik aldateta fonetikoaren bitartez azaldu. Begi bistakoa da hiru itxuraketa ezberdin egin daitezkeena, hiruetarik abiapuntutzat hartzen duguna zein den arabera. Luzarora, gure helburua, hizkuntza ingelesaren gertakariak erarik soilenean azalduko dituen itxuraketa lortzea da. Helburu hau kontuan izanik, aukera guztietan saiatzea lan astuna izan ohi da. Oraingo honetan, gure arazoak ez dira larriak, darabilgun aldatetak bai baitu kiderik ingelesezko sintaxian: forma absolutuan is ['iz] den enklitikoak, atzizki pluralaren era bere-beretsuan aldatzen da:

Bess's ready [iz, ez]¹⁰ "Bess prest dago"

John's ready [z] "Jon prest dago"

Dick's ready [s] "Dick prest dago"

Kasu honetan, is forma absolutua denez nahitaezko abiapuntua, formularik soilena lortzeko, [-ez] hartzen dugu forma lotuaren oinarritzko aldaera gisa. Ingelesez, bada, [iz, ez] bezalako indargabeko formak bokala galtzen duela fonema guztien atzetik, txistukari eta afrikatuak atzetik salbu, eta ondoren, [z] hotsaren ordez [s] itxura hartzen duela hots ahoskabeen ondotik. Itxuraketa honek orainaldiko hirugarren pertsona aditzek darakusten aldateta ere besarkatzen du, misses: runs: breaks eta baita jabetzazko adjektiboaren atzizkiarena, Bess's, John's, Dick's. Areago, aditzen lehenaldiko atzizkiari dagokionez, formula paraleloa itxuratzen garamatza. Atzizki honek antzeko hiru aldaera dauzka:

land: landed [-ed] "lehorreratu"

live: lived [-d] "bizi"

dance: danced [-t] "dantzatu"

eta ez dugu zalantzarik izan behar, gure deskribapenaren oinarritzko formatzat [-ed] hartzean, eta forma honek fonema guztien atzetik bere bokala galtzen duela esatean, leherkari horzkarien aurretik izan ezik, eta gero [d] ordez [t] bilakatzen dela hots ahoskabeen ondoren.

11.6. Aurkeztu berri dugun itxurapena forma kopuru mugagabeki handi baterako egokia dela ikusten dugu ingelesezko plural formei begiratzean; baina badira eredu honetan bildu ezinezkoak diren zeinbait salbuespen.

Zenbait adibidetan, pluraleko osagai formak eta azpiko izen singular formak ez dira fonetikoki berdinak:

knife [naijɸ]: knives [najv-z] "aizto(ak)"

mouth [maw?]: mouths [mawd-z] "aho(ak)"

house [haws]: houses ['hawz-ez] "etxe(ak)"

Plural hauen berezitasuna azaltzeko, forma lotua itsasi baino lehen azpiko singularren bukaerako [f, ʔ, s] ordez [v, d, z] agertzen dela diogu. Delako "baino lehen" honek, forma lotuaren aldaera, ordezkatzeko hotsarentzat egokia dena dela esan nahi du; honela, knife "aizto" hitzaren pluralak ez du [-s] gehitzen, [-z] baizik: "lehenengo", [-f] hotsaren ordez [-v] agertzen da, eta "gero", dagokion [-z] aldaera gehitzen zaio. "Lehenago, geroago, lehenengo, orduan" eta antzeko hitzek, honelako deskribapenetan, deskribapenari dagokion hurrenkera azaltzen dute. Osagaien benetako segida, eta

egiturazko hurrenkera (#11.3), hizkuntzaren parte dira, baina gramatika ezaugarrien deskribapenezko hurrenkera fikzioa da, eta formok deskribatzeko dugun eredutik sortzen dira; esan gabe doa, adibidez, knives "aiztoak" dioten hiztunak ez duela "lehenengo" [f] ordez [v] jartzen eta "gero" [-z] gehitzen, baizik eta besterik gabe delako forma ahoskatzen duela (knives), eta forma honek beste forma batekin (hots, knife "aizto") antzekotasunak dauzkala zeinbat ezaugarriren aldetik, eta ezberdintasunak beste batzuenetarik.

Ingeleseaz azpiko forman bukaerako txistukariaren ahostunketa ageri duten pluraleko izenek beste izenetatik bereizten dituzten gramatika eta hots ezaugarri komunak erakutsiko balituzkete, berezitasun hau ereduazko aldaketa gisa deskriba genezake. Hau ez dirudi egia, alabaina; baditugu cliffs "amildegiak", myths "mitoak", creases "tontorrek" bezalako pluralak, zeinetan azpiko formaren [f, ʔ, s] hotsak aldatu gabe agertzen baitira. Gure itxuraketa orokorrak multzo bat biltzen du, baina itxuraketa orokorraren mende gelditzen ez diren kasuen zerrenda egin beharko dugu. Itxuraketa orokor batek biltzen ez dituen forma multzoa, zerrenda bidez aurkeztu behar dena, ereduaz kanpokoa dela esan ohi da. Gure itxuraketak ahalik eta forma gehien biltzeko moduan antolatzen saiatzen gara, noski. Sarritan, aukerak aldeztu aurretik erabakitzen dituen zertzeladarik bada: forma multzo batek kopuru mugagabea du eta beraz itxuraketa orokor baten bidez bil daiteke, baina ez zerrenda bat eginik. [-s] bukaera duten ingelesezko izenen kasuan, begi bistan denez, aukera hori aurkezten zaigu, zeren house "etxe": houses "etxeak" bikotean bakarrik ordezkatzeko baita [-s] [z] hotsaz pluralean, pluraleko izen kopuru mugagabe batek azpiko formaren [-s] gordetzen duelarik (glasses "betaurrekoak", creases "tontorrek", curses "biraoak", dances "dantzak", eta abar). Gure zerrendak, kasu honetan, forma bakar bat biltzen du, houses "etxeak", ereduaz kanpoko ale bakana. Azpiko formaren [ʔ] hotsaren ordez [d] ageri duten pluralen zerrenda ez da luzea, baths "bainuak", paths "bidezidorrek", cloths "ehunak", mouths "ahoak" (eta zenbait hiztunentzat baita laths "oholak", oaths "zin egiteak", truths "egiak", youths "gazteak") aleak biltzen baititu bakarrik; beste multzoan, hainbat egungo forma aurkitzen ditugu, hala nola months "hilak", widths "zabalerak", drouths "lehortek", myths "mitoak", hearths "beheko suak", eta, are erabakigarriagoa dena, ohikoak ez diren, edo hiztunak berak sekula entzun ez dituen plural forma sortu berrietan [-ʔ] gordetzeko ohitura dugu: the McGraths "McGrath-tarrak", monoliths "monolitoak. [-f] bukaeraren kasuan, zerrenda luzeagoa dugu: knives "aiztoak", wives "emazteak", lives "bizitzak", calves "txahalak", halves "erdiak", thieves "lapurrak", leaves "hostoak", sheaves "txirritak", beebes "idiak, abereak", loaves "ogiak", elves "eltxoak", shelves "apalak" (eta zenbait hiztunentzat baita hooves "apatxak", rooves "teilatuak", scarves "zapiak", dwarves "epotxak", wharves "nasak"); hauek guztiak ereduaz kanpokotzat hartzen ditugu, ez bakarrik cliffs "amildegiak", toughs "gogorrek", reefs "ugarriak", oafs "motelak" bezalako kontra-adibideengatik, baizik baita ere, hain ugariak ez diren lantzean behineko formengatik, hala nola (some good) laughs "(zenbait) barre (on)", monographs "monografiak".

Jokabide biak bata bestearen alboan gertatzen direnean, hala nola laths [lʔʔs] edo [lʔdz], "oholak" roofs edo rooves "teilatuak", bada normalean konotaziozko alderik forma biren artean. Beef "idiki" izenak, izen neurgarri gisa (#10.14), ez du plural arruntik alboan; beebes pluraleko forma, eratorri berezia da, esanahi aldetik, "idi, abere" bereizten baita, konotazio zaharkitu eta poetikoz.

Ohar bedi, bidenabar, eztabaidatu ditugun gramatika ezaugarriek eredu fonetikoko ezaugarriak erabakitzen dituztela (#6.5.), txistukari afrikatu, leherkari-horzkari, ahostun, ahoskabe bezalako multzoak zehaztean, eta [f, ʔ, s] eta [v, B z] arteko harremana, edo [t] eta [d] artekoa itxuratzean.

"Bukaerako txistukari ahostuntzea gehi [-ez, -z, (-s)] atzizkia", pluraleko ereduazko [-ez, -z, -s] atzizkiaren ereduaz kanpoko aldaeratzat har genezake; eredurik eza, azpiko formaren aldaketa fonetikoan datza. Aldaketa bera, silabagilearen aldaketaz agertzen zaigu bakanki ereduaz kanpoko den staff: staves "makil(ak)". Cloth [klɔ?]: clothes [klowz] bikotean, bakanki ereduaz kanpoko den plurala dugu, esanahi bereziduna ("janzkiak, erropak"), ereduaz kanpoko esanahi arrunta duen pluralaren ondoan, cloths "ehunak".

Aditzen orainaldiko hirugarren pertsonaren atzizki homonimoa, azpiko formaren aldaketaz agertzen da do [duw]: does [doz] "egin", say [sej]: says [sez] "esan", have [h? v]: has [h? z] "eduki" adibideetan.

Iraganaldiko [-ed, -d, -t] atzizkia, azpiko formaren aldaketaz agertzen da say: said "esan", flee: fled "ihes egin" hear [hijr]: heard [hr,d] "entzun", keep: kept "gorde" (eta, era berean crept "tarrastaka ibili", slept "lo egin", swept "eskobatu", wept "negar egin"; leaped eta leapt "jauzi egin" aldaerak dira), do: did "egin", sell: sold "saldu" (eta, era berean, told "esan"), make: made "egin", have: had "eduki".

11.7. Kasu batzuetan, forma lotua eite bitxi batean ageri da. Adibidez, die: dice "dadoak, seikoak" forman, [-s] aldaera agertzen da ohitura orokorraren kontra; penny: pence "penike(ak)", ezaugarri bera, azpiko formaren aldaketaz agertzen da ([-ij] atalaren ezabatzea), eta esanahi aldetiko bereizketaz, pennies aldaera arruntetik aldenduz. Iraganaldian, [-t] aurkitzen dugu, [- d] beharrean, doinu zaharkitua duten burnt "erre", learnt "ikasi" aldaeretan. Bukaera lekuan zilegi ez den [-dt] multzoaren ordezkari [- t] agertzen dela esan badezakegu, multzo honetan sar ditzakegu, [- ed] ordezkari [- t] ageri dutelarik, bent "makurtu", lent "utzi", sent "bidali", spent "igaro", built "eraiki" formak.

Feel: felt "sentitu" adibidean, osagai biek agertzen dute aldaketa fonetikoa, hala nola dealt "tratatu", knelt "belaunikotu", dreamt "amets egin", meant "esan nahi (izan)". Bukaeran zilegi ez diren [-vt, zt] multzoen ordezkari [-ft, -st] agertzen direla esan bagezake, multzo berean sar genitzake leave: left "utzi", eta lose: lost "galdu". Forma lotua [-t] aldaeraz agertzen da, [-d] beharrean, eta azpiko formak silabagilea eta darraikion guztiaren ordezkari [c] jartzen du seek [sijk]: sought [sct] "bilatu" adibidean, eta, era berean bought "erosi", brought "ekarri", caught "harrapatu", taught "irakatsi", thought "pentsatu".

Muturreko kasu batean, aldaera batek ez du besteen antzik batere. Ox: oxen "idi(ak)" bikotean, pluralean gehitutako forma lotua [-n] da, [-ez, -z, -s] izan beharrean. Hizkuntzak ez badu aldentzen den forma hori aldaketa fonetikoaren bidez azaltzea bidezko egingo lukeen antzeko kasurik erakusten, mota honetako aldaerari ordezkari esan ohi zaio; honela oxen adibideko [-n] ordezkari aldaera da, ingelesak ez baitu [-ez] hotsetik [-n] hotserako aldaketa fonetikorik erakusten. Beste adibide batzuetan, azpiko formak jasaten du ordezkaketa. Kind "zintzo": kinder "zintzoago", eta warm "epel": warmer "epelago" eratorrita arruntaz gaindi, badugu good "on": better "hobea" bikotea, non azpiko good "on" forma, guztiz ezberdina den better formak ordezkatzeko baitu; forma honi, beraz, good hitzaren aldaera ordezkari deritzogu. Era berean, be "izan" aditz jokatu gabeak [i-] atalak eginiko ordezkaketa jasaten du, orainaldiko hirugarren pertsona forman, is [iz]. Child "ume": children "umeak" bikotean, forma lotuaren ordezkari aldaerarekin batera, azpiko hitzaren aldaketa fonetikoa dugu orobat.

Muturreko beste gertakari bat, zero aldaerena dugu (11.2); horietan, osagai oso bat ez da agertzen, sheep "ardiak", deer "oreinak", moose "alzeak, orein handiak", fish "arrainak" eta abar. Plural hauek ereduaz kanpokoak dira, zeren, eurentariko zenbait esanahi ezaugarri praktikoen arabera bil badaitezke ere (adibidez, perch, bass, pickerel bezalako arrain motak, banaka janak izateko adina handi), ez dute orokorki zehatz

ditzakeen tasun komunik. Aditzen iraganaldiko atzizkiak zero aldaera erakusten du bet "apostu egin", let "utzi", set "prestatu", wet "busti", hit "jo", split "banatu", cut "ebaki", shut "itxi", put "ipini", beat "jo", cast "bota", cost "balio izan", burst "eztanda egin", shed "isuri", spread "hedatu", wed "ezkondu" adibideetan.

Orainaldiko hirugarren pertsona atzizkiak zero aldaera ageri du can "ahal", shall eta will etorkizuneko formetan, must "behar" eta may "ahal" adibideetan, eta, zenbait erikuntzatan (adibidez, not "ez" laguntzailearekin), baita need "behar" eta dare "ausartu" aditzetan ere; gramatikazko ereduazko aldaketa dugu hau, aditz hauek guztiak aditz jokaturagabea to preposiziorik gabe hartzean azaltzen duten batasunaren arabera multzotzat zehaztu baitaitezke. Gure jabetzazko adjektibo atzizkiak [-ez, -z, -s] badu zero aldaerarik kasu batean, hots, [-ez, -z, -s] pluraleko atzizkiaz bukatzen den azpiko forma bati lotzean, hala nola the boys "mutilenak".

Zero aldaera forma laguntzailearen aldaketa fonetikoarekin batera gerta daiteke. Honela, geese "antzarak", teeth "hortzak", feet "oinak", mice "saguak", lice "zorriak", men "gizonak", women "emakumeak" izenek ez diete forma loturik gehitzen singularrari, baina silabagile ezberdina ageri dute. Plural hauetan, bada, gramatika ezaugarri batek, fonetika aldaketak, esanahi bat adierazten du (hots, "izaki bat baino gehiago" semema), zeina normalean hizkuntz forma baten bidez adierazten baita (hots, [-ez, -z, -s] morfema). "[i] ordezkatzea" (azpiko formaren silabagile indardunaren lekuan) geese, teeth, feet adibideetan, edo "[a] ordezkatzea" mice, lice adibideetan, edota "[e] ordezkatzea" men "gizonak" adibidean, eta "[i] ordezkatzea" women "emakumeak" adibidean, pluralezko atzizki arruntaren aldaerak direla esan genezake -ordezkaketa aldaerak edo ordezkoko formak. Gure lehenaldiko aditzetan, [-ed, -d, -t] atzizkia ordezkatzen duten hainbat silabagileren ordezkaketa aurkitzen dugu:

[?] got "lortu", shot "tiroa jo", trod "ibili"

[?] drank "edan", sank "suntsitu", shrank "laburtu", rang "tinbrea jo", sang "kantatu", sprang "jauzi egin", began "hasi", ran "laster egin", swam "igeri egin", sat "jezarri", spat "txistua bota"

[e] bled "odol egin", fed "jaten eman", led "gidatu", read "irakurri", met "ezagutu", held "heldu", fell "erori"

[i] bit "aginka egin", lit "piztu", hid "ezkutatu", slid "laban egin"

[c] saw "ikusi", fought "burruka egin"

[o] clung "zintzilikatu", flung "bota", hung "zintzilikatu", slung "habaila bota", swung "kulunkatu", spun "biraka ibili", won "irabazi", dug "aitzurtu", stuck "itsasi", struck "jo"

[u] shook "astindu", took "hartu, eraman"

[ej] ate "jan", gave "eman", came "etorri", lay "etzan"

[aw] bound "lotu", found "aurkitu", ground "lurreratu", wound "zauritu"

[ow] clove "ebaki", drove "gidatu", wove "ehun", bore "aspertu", swore "zin egin", tore "apurtu", wore "jantzi", broke "hautsi", spoke "hitz egin", woke "esnatu", chose "hautatu", froze "izoztu", rose "altxatu", stole "lapurtu", shone "distira egin"; eta ereduazko dived ondoan dove "urperatu" aldaera.

[(j)uw] knew "jakin", blew "puztu", flew "hegaz egin", slew "hil", drew "marraztu", grew "hasi", threw "jaurtiki".

Stand: stood "zutik egon" bikotean konplexuagoa den gertakaria ageri zaigu, zeina "[u] ordezkaketa eta [n] hotsaren ezabaketa" bezala deskriba baikenezake.

Ondoko adibideetan, zero aldaerak ordezkatzen du forma lotua, eta ordezkoko aldaera batek azpiko forma: be:was "izan", go:went "joan", I:my "ni(re)" we:our "gu(re)", she:her "bera (fem.) nom/akus", bad:worse "txar(rago)".

Have [h? v]: had[h? -d] "eduki" edo make [mej-k]: made [mej-d] "egin" adibideetan, osagarrietako bat fonema ezabaketak aldatua da. Ezabaketa hau kenketa ezaugarri bezala deskriba genezake; zero ezaugarriak edo ordezeko ezaugarriak bezala, kenketa ezaugarriak bakarrik gerta daitezke. Adibidez, frantseseko adjektibo batean, ereduze motak forma bakar bat dauka, adjektiboak izen maskulino edo femenino bati lagundu gora-behera, adibidez rouge [ru:ʒ] "gorri": un livre rouge [œⁿ li:vre ru:ʒ] "liburu gorria", maskulinoa, eta une plume rouge [yn plym ru:ʒ] "idazluma gorria", femeninoa. Arras hedaturik dagoen eredu kanpoko mota batean, halere, forma maskulino eta femeninoak ezberdinak dira: un livre vert [v? :r] "liburu berdea", bina une plume verte [v? rt] "idazluma berdea". Honela, bada:

Maskulinoa Femeninoa

plat [pla] platte [plat] "zapal"

laid [l?] laide [l? d] "zatar"

distinct [dist? ⁿ] distincte [dist? ⁿkt] "berezi"

long[loⁿ] longue [loⁿg] "luze"

bas [b?] basse [b? :s] "behe"

gris [gri] grise [gri:z] "gris, urdin"

frais [fr?] fraîche [fr? ? β] "fresko, berri"

gentil [ʒ? ⁿti] gentille [ʒ? ⁿti:j] "zintzo"

léger [leʒe] légère [leʒ? :r] "laster"

soul [su] soule [sul] "mozkor"

plein [pl? ⁿ] pleine [pl? :n] "bete, oso"

Begi bistakoa da deskribapen bide bi badirela oraingo honetan. Batetik, forma maskulinoak oinarri hartu eta, kasu bakoitzean, forma femeninoan zein bokal gehitzen den esan. Hau, noski, itxuraketa guztiz konplexua litzateke. Bestalde, forma femeninoak hartzen baditugu oinarritzat, guztiz era soil batean deskriba genezake eredu kanpoko multzo hau, forma maskulinoa kenketa ezaugarri baten bidez forma femininotik eratortzen dela esanik, hots, bukaerako kontsonantearen eta [kt] multzoaren kenketa. Azken bide hau hartuz gero, forma bien arteko gainerako ezberdintasun guztiak, bokal neurriak eta sudurkaritasuna esaterako (azken adibiden bezala), frantsesaren morfologiaren beste atal batzuetan berragertzen zaizkigula, eta neurri handi batean eredu fonetikoaren araberakoak direla ikusten dugu.

Gure eztabaidaren azken zatiak, hitz batek bigarren mailako eratorri baten izaera izanik ere morfema bakarduna izan daitekeela erakutsi digu, zero ezaugarri batek (sheep "ardiak"; cut "ebaki (lehenaldian)"), ordezeko ezaugarri batek (men "gizonak", sang "kantatu"), ordezkaketak (went "joan", worse "txarrago"), edota kenketa ezaugarri batek lagundua (frantseseko vert "berde (maskulinoa)") bada. Hitz hauek guztiak bigarren mailako eratorri gisa sailkatzen ditugu eta beren berezitasuna jasotzen dugu bigarren mailako morfema hitzak deitura erabiliaz.

11.8. Bigarren mailako eratorretan azpiko formari gehitzen zaizkion forma lotuei hizki deritzaie. Azpiko formaren aurretik agertzen diren hizkiak aurrizkiak dira, hala nola behizkia be-head "lepoa moztu" forman; azpiko formaren atzetik ageri direnak atzizkiak deitzen dira, adibidez [-ez] glasses "betaurrekoak" adibidean, edo -ish atzizkia boyish "mutil itxurako" adibidean. Azpiko formaren barnean tartekatzen diren hizkiei artizkiak deritze; honela, tagalog hizkuntzak hainbat artizki erabiltzen ditu, azpiko formaren lehen bokalaren aurretik tartekatzen direnak: suulat "idatzi" formatik, sumuulat "idatzi zuena" eratortzen da, [- um-] artizkiaren bidez, eta sinuulat "idatzi zena", [-in-] artizkiaren bitartez. Bikoizketa, azpiko formaren atal bat errepikatzean datzan hizkia da, adibidez tagalog suusuulat "idatziko duena", gaamit "gauza erabilgarria": gaagaamit

"erabiliko duena". Bikoizketa neurri askotakoa izan daiteke: Fox hizkuntzan waapameewa "begiratzen dio": waawaapameewa "arrez begiratzen dio", waapawaapameewa "behin eta berriz begiratzen dio". Azpiko formatik alden daiteke ohikoa den era batean: grekera zaharraz phainei "distira egiten du, agertzen da": pamphainei "indarrez distiraten du"; sanskritoz bharti "darama": bibharti gorantz darama, bharibharti "gainetik kentzen du bortxaz".

11.9. Formek atalkako antzekotasuna dutenean azpiko forma zein den erabakitzea zaila izan daitekeela ikusi dugu, eta hizkuntzaren egiturak erabaki dezakeela arazo hau, zeren, bide batetik jota, guztiz korapilatsua den deskribapena lortu baikenezake, eta, bestetik ordea, arras soila dena. Irizpide honek beronek azpiko forma artifiziala sortzera garamatza batzuetan. Adibidez, alemanieraz, ahoskabe gorrak ez dira bukaeran zilegi, eta leku horretan dagozkien fonema ahoskabeek ordezkatzan dituzte. Beraz, ondoko multzoak gertatzen zaizkigu:

Azpiko forma Forma eratorria

Gras "belar" grasen "aletzea"

Haus "etxe" hausen "jarraitzea"

Spasz "keinu" spaszen "keinu egitea"

aus "kanpo" auszen "kanpoan"

Begi bistakoa denez, azpiko formak agertzen zaizkigun eran hartuko bagenu, zerrenda luze bat egin beharko genuke, [s] agertu beharrean [z] duten eratorrietan zeintzuk agertzen diren adierazteko. Bestalde, [-z] duen azpiko forma artifizialetatik abiatuz gero, adibidez [graaz-, hawz-], [spaas, aws] formei kontrajartzen zaizkienak, ez dugu zerrenda beharrik, eta bukaerako [-s] hotsa azal genezake, forma berezietan ageri dena, bukaerako hots zilegien arauaren eredura. Era berean, beste ahostun gorretarako, rund [runt] "borobil" runde ['runde] "borobilak"

bunt [bunt] "koloretsu" bunte ['bunt-e] "koloretsuak"

non [rund-] eta [bunt] kontrajartzeko oinarri teorikoa eratzen baitugu. Ikusi dugunez, forma teoriko hauek esaldian ager daitezke zenbait hizkuntzatan, sandhi oroigarriaren bidez (#10.5).

Era berean, hizkuntza batzuek ez dute bukaerako multzorik onartzen eta hala ere multzoak dituzten forma askeak ageri dituzte. Erka bitez menominierazko izen forma hauek:

Singularra (zero atzizkia) Plurala ([-an] antzizkia)

[nen? :h] "nire eskua" [nen? :hkan] "nire eskuak"

[met? :h] "bihotza" [met? :hjan] "bihotzak"

[wi:ki:h] "urki azala" [wi:ki:hsan] "urki azal zatiak"

[nek? :?|cen? h] "nire erpuru" [nek? :?|cen? :h|cjan] "nire erpuruak"

[pe:h|cekuna:h] "osagai mordo" [pe:h|cekuna:htjan] "osagai mordoak"

Begi bistakoa denez, forma singularrak oinarritzat hartzen dituen deskribapenak zerrenda guztiz landuen bitartez erakutsi beharko luke zein hots [k, i, s, tsi, ti] gehitzen diren atzizkiaren aurretik; abiapuntutzat forma askeak oso-osoan hartu beharrean, atzizkiaren aurretik agertzen den atala azpiko formatzat hartzea da deskribapenik soilena eta bidezkoena, hau da, [wi:ki:hs-] eta abar.

Beste adibide bat aurkitzen dugu samoeraz, hizkuntza honek ez baitu bukaerako kontsonanterik bat ere onartzen, eta beraz honako multzoak agertzen ditu:

Atzizkirik gabe [-ia] Atzizkiak

orainaldia lehenaldia

[tani] [tanisia] "negar egin"

[inu] [inumia] "edan"

[ulu] [ulufia] "sartu"

Garbi dago deskribapenik baliagarrienak oinarrizko formak eite teorikoan hartuko dituenak, [tanis-, inum-, uluf-] bezala alegia.

11.10. Bigarren mailako fonemen doinualdiak eragina izan ohi du eraikuntza morfologikoetan. Ingelesez, atzizkiak indargabeak izaten dira, adibidez be-wail-ing "aihen", friend-li-ness "adiskidetasun" eta antzekoetan. Gure mailegu hiztegian, indarra hizki batera mugitzea, taxema bat da bigarren mailako eratorri askotan. Honela, atzizki batzuek atzizki aurreko indarra dute: indarra, atzizkiaren aurreko silaban doa, silabaren izaera gora-behera; honela, -iti "-tasun" atzizkia able "gai": ability "gaitasuna, formal "formal": formality "formaltasuna", major "nagusi": majority "nagusitasuna"; -ian [-jn] "-(k)ari, -keta" atzizkia, music "musika": musician "musikari", audit "aztertu": audition "azterketa", educate "hezi": education "heziketa"; -ic atzizkia, demon "deabru": demonic "deabruzko", anarchist "anarkista": anarchistic "anarkistiko", angel "aingeru": angelic "aingeruzkoa". Mailegu aditzetatik adjektiboak eta izenak eratortzean, indarra aurrizkian kokatzen da: insert [in'sr̥t] "tartekatu" aditzetik, insert [in'sr̥t] izena eratortzen dugu; era berean, contract "kontratatu", convict "atxilotu", convert "bihurtu", converse "elkarriketatu", discourse "mintzatu", protest "protesta(tu)", project "asmatu", rebel "errebelatu", transfer "igaro". Beste kasu batzuetan, doinualdi hau atzizkiarekin batera agertzen da: conceive "asmatu": concept "asmo, kontzeptu", perceive "aditu, antzeman": percept "aditua, antzemana", portend "igarri": portent "mirari"; zenbaitetan, azpiko aditzak teorikoki sortua izan behar du, precept "arau" izenaren kasuan legez.

Hizkuntza batzuetan, doinualdiak eragin sakonagoa du. Sanskritoz, atzizki batzuetan, forma eratorriak azpiko formaren indarra gordetzen du:

[ke:ça-] "ile": [ke:ça-vant-] "ile luzeduna"

[pu'tra-] "seme": [pu'tra-vant-] "semeduna"

Beste batzuk indarraren lehenengo silabarainoko mugimenduarekin batera agertzen dira:

[puruʃa-] "gizon": [pa:wruʃ-e:ja-] "gizonagandikoa"

[va'sti-] "puxika": [va:st-e:ja-] "puxikatikoa"

Beste batzuek atzizki aurreko indarra daramate:

[puruʃa-] "gizon": [puruʃa-ta:-] "gizatasuna"

[de:'va-] "jainko": [de:'va-ta:-] "jainkotasuna"

Beste atzizki batzuk indardunak dira:

[r̥ʃi-] "jakitun": [a:r̥ʃ-e:'ja-] "jakitunaren ondorengoa"

[sa'rama:-] (izen propioa): [sa:ram-e:'ja] "Saramaren ondorengoa"

Beste batzuek azpiko formaren kontrako indar erdua agintzen dute:

[atithi-] "gonbidatua": [a:ti'th-ja-] "abegi ona"

[pa'lita-] "urdin": [pa:lit-ja-] "urdintasuna"

Tagalog hizkuntzak indarra eta bokal luzera darabiltza fonema lagungarri gisa; [-an] itxurako hiru atzizki, doinualdi hauen jokabidearen arabera bereizten dira.

[an-]¹ atzizkia, atzizki aurreko indarragatik eta azpiko formaren lehenengo silaban bokal luzea agertzen delako bereizten da:

[i:big] "maitasuna" : [i:ibi:gan] "maitale harremana"

[i'num] "edan" : i:nu:man] "edateko jaia"

Esanahia "egile bat baino gehiagoko ekintza (maiz bata-besteaganakoa edo multzokakoa)" da.

[an-]² atzizkia, azpiko formak indarra lehenengo silaban daramanean, indarduna da; bestela, [an-]¹ bezala jokutzen du:

[tu:lug] "lo egin" : [tulu'gan] "lo egiteko lekua"

[ku'lun] "bildu" : [ku:'lu:nan] "atxiloketa lekua"

Esanahia "ekintza lekua, egile batek baino gehiagok egina, edo behin eta berriz egiten dena" da.

[an-]³ atzizkiak atzizki aurreko indarra darama azpiko hitzak lehenengo silaban indarra duenean; ez dago bokal luzapenik, eredu fonetikoak eskatzen duenaz gaindi:

(a) ['sa:gin] "banana" : [sa'gi:nan] "banana landa"

[ku'lun] "bildu" : [kulu'nan] "kutxa, kaiola"

(b) ['pu:tul] "ebaki" : [pu'tu:lan] "ebaki daitekeen lekua"

[la'kas] "indar" : [laka'san] "indarra egin daitekeen lekua"

Esanahiak, (a) "azpiko izaki edo ekintzarako kokapena den izakia", eta (b) "haren gainean ekin daitekeen izakia" ditugu.

Doinu fonema lagungarriak dituzten hizkuntzetan, hauek eragina dute morfologian. Honela, suedieraz, egile izenen -er "-(tza)le" atzizkiak, polisilabadunen jokaera agertzen du ondorio forman (#5.7.): aditz erroak, [le:s-] "irakur", läser [l le:ser] "irakurle" sortzen du; baina orainaldiko -er atzizkiak, hitz-soilaren doinua agintzen du ondorio forman: (han) läser [l le:ser] "(hark) irakurtzen du".

11.11. Hitz egiturari buruzko iruzkin guztietan, erabateko garrantzia du lehen osagaien oinarria betetzea. Tagalogez, [ta:wa] "barrea" azpiko forma, bikoizturik agertzen da [ta:ta:wa] "barre egingo duena" eratorrian; forma hau, era berean, [-um-] artizkiak eratortzen den formaren azpiko forma da, hots [tuma:ta:wa] "barre egiten ari dena". Bestalde, [pi:lit] "ahalegin" formak lehenengo [- um-] artizkia hartzen du, [pu'mi:lit] "eragile zena" sortuaz, eta gero bikoizten da, [-pu:pu'mi:lit] emanaz, zeina azpiko forma baita [nag-pu:pu'mi:lit] "ahalegin itzela egiten duena" eratorrian. Oinarri orokor hau gogoan izatea are beharrezkoa dugu, lantzean behinka lehen osagaiaren oinarria betetzeko bidezidorrak hartzen dituzten formak aurkitzen baititugu. Tagalogek badu [pan-] aurrizkia, adibidez [a'tip] "teilatugintza", [pan-a'tip] "teilatugintzan erabiltzen dena, ohola". Aurrizki honen [n] hotsak eta laguntzen dion formaren zenbait hasierako kontsonantek aldaketa fonetikoa jasaten dute - morfologiazko sandhia dei genezakeena. Honen arabera, adibidez, aurrizkia ['pu:tul] "ebakia" hitzarekin lotzean, [pa-'mu:tul] "ebakitzeko erabiltzen dena" forma sortzen da, [n] eta [p-] ordeztu [m] agertzen delarik. Forma batzuetan, halere, egiturazko hurrenkerari dagokion hutsunea ageri da; honela, [pa-mu-'mu:tul] "neurri handiko ebakia" forman, atalen hurrenkerari begiraturik, bikoizketa aurrizkia gehitu "aurretik" egiten dela ikus daiteke, baina aldi berean, [p-] ordeztu [m-] agertzen da bai forma nagusian eta bai ale bikoiztuan, aurrizkia bikoiztearen "aurretik" gehitu dela adierazten diguna. Arretarik gabe antolaturiko deskribapen batek ezingo luke honelako forma baten bitxitasuna azaldu.

11.12. Morfologia konplexua daukaten hizkuntzetan, bada, eraikuntzen mailaketa ikuska genezake: hitz konplexu bat, azpiko forma soilari elkarketak, aurrizkiak, aldaketak eta abar hurrenkerak jakin batean gehitu izan balitzaio legez deskriba daiteke bakarrik. Honela, bada, ingelesez, actresses "aktoreak (emea)" hitza, actress "aktore (eme)" eta [-ez] osagaiez eraturik dago lehenik, hala nola lasses "neskatoak" lass "neskato" eta [-ez] osagaiez osaturik orobat; actress "aktore(eme)", hurrengo, actor "aktore" eta -ess osagaiek eratzen dute, hala nola countess "kondesa", count "konde" eta -ess osagaiek eratzen baitute. Azkenik, actor alea, act "jokatu" eta [-r-] "-tzaile" osagaiek eratzen dute. Ez legoke inolako antzekotasun eredurik actresses hitza actor eta -esses formetan banatzeko. Honelako hizkuntzetan, beraz, morfologia egitura maila ugari bereiz ditzakegu.

Hizkuntza askotan, mailok klaseetan banatzen dira: hitz konplexu baten egiturak, lehenik eta behineko osagai gisa, inflexio eraikuntzez osatutako kanpo azal bat agertzen du, eta gero, hitz sorketa eraikuntzez osatutako barne azala. Gure azken adibidean, kanpoko, inflexio azala, actress eta [-ez] eraikuntzak erakusten digu, eta barneko, hitz

sorketa azala, gainerako eraikuntzek, actor gehi -ess eta act "jokatu" gehi -or "-(tzai)le".

Bereizketa hau ezin daiteke beti egin. Hainbat ezaugarritan oinarritzen da. Inflexio eraikuntzek hersketa edo erdi-hersketa sortu ohi dute (#10.12), beraz inflexiozko eraikuntza duen hitza (hitz jokatua) ezin daiteke inongo morfologia eraikuntzaren osagai izan, edo zenbait inflexio eraikuntzarena bakarrik. Adibidez, ingelesezko actresses forma, morfologia eraikuntza bakar batean sar daiteke, hots, jabetzazko adjektiboaren eratorketan actresses" ([-ez, -z, s] atzizkiaren zero-aldaeraz #11.7). Azken forma hau ezin daiteke inongo morfologia eraikuntzatan sartu; hersketa osoa du.

Inflexioaren beste berezitasun bat, hitz sorketatik bereizten duena, azpi eta ondorio formen kidetasun sendoa da. Hala, bada, ingelesezko ia izen guztiek erator dezakete pluraleko izena, eta, alderantziz, ingelesezko pluraleko ia izen guztiak eratortzen dira singularreko izenetatik. Honela, ingelesezko izenak, gehien bat, binakako multzoetan agertzen dira: singularreko izena (hat "txapela") eta hartatik eratorritako pluraleko izena (hats "txapelak"). Hauetariko edozein harturik, hitzuna bestea ahoskatzeko gauza izan ohi da. Multzo horietariko bakoitzari multzo paradigmatikoa edo paradigma deritzaio, eta multzoko forma bakoitzari forma jokatua edo inflexioa deritzaio. Hizkuntza batzuek paradigma handiak dauzkate, inflexio asko biltzen dituztenak. Latinez, adibidez, aditza 125 bat forma jokaturik agertzen da, hala nola ama-re "maite izan", amo-, "maite dut", ama-s "maite duzu", amat "maite du", ama-mus "maite dugu", amem "maita dezaket", amor "maitatua naiz", eta abar; forma baten agerpenak gainerako guztien agerpena ekarri ohi du. Inflexioen kidetasun honek garamatza sheep bezalako forma fonetiko bakarra homonimo multzotzat hartzera, sheep "ardi" izen singularra (lamb "arkume" formari legokiokeena), eta sheep "ardiak" pluraleko izena (lamb "arkumeak" formari legokiokeena). Kidetasun honek garamatza guztiz ezberdinak diren forma fonetikoek, hala nola go: went "joan (orain eta lehenaldia) (ordezkaketaz), morfologiazko harremana dutela esatera: go aditz jokaturik (show "erakutsi" formaren antzera), eta went lehenaldiko forma (beraz, showed "erakutsi lehenaldia" formaren kidea).

Kidetasuna, noski, ez da hutsik gabekoa. Paradigma akastunak zenbait inflexio ez dituztenak dira; honela, can "ahal izan", may "ahal izan", shall, will etorkizunezko laguntzaileak, must "behar" formek ez dute forma jokaturik, must laguntzaileak ez du lehenaldirik, scissors "artaziak" ez du singularrik. Kasu hauetan legez, azaltzen ez den forma existitzen diren azpikoa dela dirudienean, egokiena azpiko forma teorikoa eratzea da, hala, bada, existitzen ez den *can jokaturik, edo singularreko *scissor-. Bestalde, eredu kanpoko zenbait paradigma bereziegiak dira. Honela, eredu paradigma bakar baten ondoan, esaterako play "jokatu" (to play "jokatzeko", I play "jokatzen dut", we play "jokatzen dugu"), be aditzaren paradigmak hiru forma dauzka (to be "izatea", I am "ni naiz", we are "gu gara"), eta, played forma bakarraren ondoan, (I) was "(ni) nintzen", we were "gu ginen", been "izana" formak ditu. Paradigma bereziegi bakar bat existitzeak eredu paradigma homonimia dela adierazten du.

Forma jokatuaren kidetasuna beste ezaugarri bati loturik doa: inflexio ezberdinak sintaxi jokabidean ere aldentzen dira. The boys chauffe esaten badugu, gure adostasunezko sintaxi ohiturak (#10.7), the boy egile denean, chauffes forma ahoskatzera garamatza. Ingelesezko aditzen orain eta lehenaldiko inflexioetan ez da horrelakorik: plays: played bikotearen arteko paralelotasunik ez du ingelesaren sintaxiko ezein ohiturak agintzen, baina dena den, sendotasun berberaz betetzen da.

Inflexio maila ezberdinak badaude, elkarketa paradigmak lortzen ditugu; ingelesez, izenaren inflexioak, adibidez, kanpo eraikuntza bat badu, jabetzazko adjektiboaren eratorketa, eta barne eraikuntza bat ere bai, pluralaren eratorketa.

Singularra Plural

nominatibo-akusatibo man men

"gizon" "gizonak"

jabetzazko adjektiboa man's men's

"gizonaren" "gizonen"

Latinezko aditzean elkarketa paradigma guztiz konplexua aurkitzen dugu: zenbait egile eta jasaleentzako kanpo azal bat, pertsona (hiztuna, entzulea, hirugarren pertsona), zenbaki (singularra, plurala) eta ahots aldetik (egile, jasale) ezberdinetarako, barne-azal bat aldi (oraina, lehena, etorkizuna) ezberdintasunetarako, eta ahalerarako (egiazkoa, balizkoa), eta barne-barneko beste azala, ekintzaren bukatutasunari dagokiona (burutugabea, burutua).

11.13. Azkenik, bada, gorago aipaturiko mailako inflexioaren ezaugarri nagusi batera heltzen gara, hots, paradigmaren eratorketazko batasunera. Paradigma bateko inflexio formak ez dira guztiak elkarketa eta eratorketan erabiltzen, baina paradigma bera, bere osotasunean itxuraturik agertzen da nolabait. Ingelesezt, izen paradigmako formak singularraren bidez itxuratzen dira, hala nola maslaughter "hilketa", hots, "giza hilketa", mannish "giza itxurakoa" elkartuetan, eta aditz paradigmakoak, aditz jokatu gabearen bitartez, adibidez playground "jolasleku", player "jokalari". Ingelesezko paradigma bat, azpiko forma batez (hau paradigmaren parte delarik), eta azpiko hitz hau biltzen duten bigarren mailako eratorri batzuk; areagoko elkarketa eta eratorketan osagai gisa agertzen bada, paradigma osoa itxuraturik agertzen da azpiko formaren bidez; ingeles hizkuntzak, beraz, hitz inflexioa, hitz eratorketa eta hitz elkarketa badituela esan daiteke.

Hizkuntza askotan, batik bat morfologia landuagoa dutenetan, ez da paradigma bateko formarik, gainerakoen azpikotzat jo daitekeenik. Honela, alemanierazko aditzen ereduazko paradigmek ezein forma jokaturen antza ez duen ale komun bat biltzen dute. Adibidez, lachen "barre egin", (ich) lache "(nik) barre egiten dut", (er) lacht "(hark) barre egiten du", (er) lachte "(hark) barre egin zuen", gelacht "barre egina" (partizipio forma), eta gainerako adibideek lach- ale komuna darakuste inflexio forma guztietan, baina ez da inflexio formarik, lach- delako honetaz bakarrik osatua denik. Bigarren mailako eratorketan eta elkarketan, paradigma forma honek berak itxuratzen du, hala nola Lachter "barre egile", eta Lachkrampf "barreak eragindako tripakomina". Delako lach- forma hau, zehazki mintzatuz, forma lotua da; paradigmaren gunea edo erroa da. Alemanierazko aditza, erro-inflexio, erro-elkarketa eta erro eratorketaren adibide dugu. Gure deskribapenean, forma askea balitz bezala adierazi ohi dugu erroa.

Mota honetako zenbait hizkuntzatan, paradigmako ale komuna, elkarketa eta eratorketan paradigma itxuratzen duen formatik aldentzen da. Honela, bada, grekera zakarreko izen paradigmak erro inflexioa darakus. Ale komun bat badu, gunea, alemanierazko aditz erroa bezalakoa, [hipp-] "zaldi" forman ikus genezakeenez:

Singularra Plurala

nominatiboa ['hipp-os] ['hipp-oj]

deigilea ['hipp-e] ['hipp-oj]

akusatiboa ['hipp-on] ['hippows]

datiboa ['hippo:j] ['hipp-ojs]

genitiboa ['hipp-ow] ['hipp-o:n]

Bigarren mailako eratorketan, dena den, paradigma hau ez du [hipp-] forma komunean itxuratzen, baizik eta eratorketa forma berezi batek [hipp-o], hala nola [hip'po-te:s]

"zalduna", edota, aldaketa fonetikoaren bidez [o] galdurik, [hipp-i'kos] "zaldiei dagokiena". Era berean, elkarketa-osagai legez, paradigma elkarketa forma berezi batek itxuratzen du, aurrekoarekin homonimoa dena: [hippo-'kantharos] "eulimando". Honela, batetik gunea [hipp-] fonetika aldaketa arabera forma guztietan agertzen dena, eta bestetik, areagoko eratorketetako azpiforma den erroa [hipp-o] bereizten ditugu.

Paradigma batasunaren oinarriaren salbuespen batzuk itxurazkoak dira bakarrik. Bull's-eye "lehiatila" elkartuaren jabetzazko adjektibo forma, edo longlegs "zangoluze" elkartuaren pluraleko forma, elkarketa hauen esaldi izaerari zor zaie, ikusiko dugunez. Badira, halere, benetako salbuespenak. Alemanierak badu atzizki bat, -chen [-xen] "-txo", izenetatik bigarren mailako eratorriak sortzen dituena: Tisch [tis] "mahai": Tischchen [tis- xen] "mahaitxo". Alemanierazko morfologia sisteman, hitz sorketazko eraikuntza da hau, baina zenbait adibidetan [-xen] atzizkia, jadanik pluraleko inflexioa duten izen gutxi batzuei gehitzen zaie: Kind [kint] "ume": Kindechen ['kint-xen] "umetxo" adibidearen alboan, pluraleko Kinder ['kinder] "umeak" dugu azpiko forma Kinderchen ['kinder-xen] "umetxoak" eratorrian. Hizkuntza batek honelako gertakari asko izango balitu, inflexio eta hitz sorketa deiturek bereizten dituzten azal morfologikoen arteko bereizketarik egiten ez duela esan beharko genuke.

Oharrak

Morfologia sistema konplexu baten deskribapena (grekera zaharra): Debrunner.

11.1. Morfologiaren araberrako hizkuntz sailkapena: Steinthal, Charakteristik; Finck, Klassifikation; Haupttypen; Sapir.

MOTA MORFOLOGIKOAK

12.1. Osagaien izaeraren arabera bereiz daitezkeen morfologia eraikuntzen artean, -hots, elkarketa, bigarren mailako eratorjeta eta oinarritzko eratorjeta (#11.3)- hitz konposatuak eraikuntza da sintaxi eraikuntzekin antzarik handiena duena.

Hitz elkartuek forma aske bi (edo gehiago) dauzkate beren lehen osagaien artean (door-knob "ate eskutoki"). Lehen osagaien arauaren arabera, hizkuntzek hitz elkartuak esaldi-hitzetatik (old-maidish, "neskazahar itxurakoa" bezalako bigarren mailako eratorria, old-maid "neskazahar" esaldia azpiko forma duena, adibidez) bereizi ohi dituzte, hala nola deselkartuetatik (adibidez, gentlemanly "zaldunki" bigarren mailako eratorria, azpiko forma gentleman elkartua duena). Hitz elkartuen eremuan, arau honek berak egiturazko hurrenkera zehatza agintzen du; honela, wild-animal-house "basa animalia etxe" elkartua ez da, esaterako, hiru osagaiez osatzen, wild "basati", animal "animalia", house "etxe", ez eta wild eta animal-house osagaiez ere, baizik eta wild-animal "basa-animalia" esaldiaz eta house "etxe" hitzaz; eta, era berean, door-knob-wiper "ate eskutoki garbitzaile" elkartua, zalantzarik gabe, door-knob "ate eskutoki" eta wiper "garbitzaile" osagaiez osatzen da, eta ez, adibidez, door "ate" eta knob-wiper "eskutoki garbitzaile" atalez.

Hitz elkartuak ezagutzera garamatzaten gramatika ezaugarriak hizkuntzaz hizkuntza aldatuegiten dira eta, zenbait hizkuntzek, zalantzarik gabe, ez dute horrelako forma klaserik. Hitzaren eta esaldiaren arteko mailakaketa askotarikoa izan daiteke; sarri asko ezinezkoa da bereizketa zehatzik egitea. Hitz elkartu gisa sailkatzen ditugun formek, delako hizkuntzan, hitzak esaldietatik bereizten dituen ezaugarriren bat erakusten dute.

Esanahiaren aldetik, hitz konposatuak esaldiak baino murriztuagoak izan ohi dira; blackbird "zozo", esaterako, sail jakin bateko txoria izendatzeko erabiltzen da, eta kolore beltza duen zeinahi txori izendatzeko balio duen black bird "txori beltz" esaldia baino murriztuagoa da. Nolanahi ere, ezberdintasun hau irizpide gisa erabiltzea, maiz egiten den errua dugu. Ezin ditzakegu esanahiak behar bezain ongi neurtu; areago, badira edozein elkartu bezain esanahi murriztua duten hainbat esaldi: a queer bird "gizon bitxi" eta meat and drink "jana eta edana" esaldietan, adibidez, bird "txori" eta meat "okela" hitzak, jailbird "kartzelarako dena (hitzez hitz "kartzela txori)" eta sweetmeats "gozokiak (hitzez hitz "okela gozo)" elkartuetan bezain murriztuak dira.

14.2. Hitz bakoitzean indar goren bakarria erabiltzen duten hizkuntzetan, ezaugarri honek bereizten ditu elkarketak esaldietatik. Ingelesezt, indar gorena lehen osagaien joan ohi da; beste osagaiari indar ahulagoa ezartzen zaio, adibidez door-knob ['dɔwɹ-n? b] "ate-eskutoki", edo upkeep ['ɒp-'kɪp] "zaindu". Zenbait elkartuk, eredu honi jarraitzeke, indarrak gabe uzten dute bigarren osagaia, adibidez gentleman ['jɛntlmn] "zaldun", Frenchman ['fren|cmn]; kontrajar bitez milkman ['mɪlk-'m? n] "esne-gizona, esneduna" adibidearekin. Elkarketa mota batzuek, batik bat osagaitzat adizlagunak eta preposizioak dituzten zenbaitek, bigarren osagaiari ezartzen diote indarra: without "gabe", upon "gainean". Ondorioz, bada, esaldian indar gorena eramango lukeen hitza indar ahulaz edo guztiz ahulaz entzuten dugun guztietan, elkarketa-osagai gisa deskribatzen dugu: ice-cream ['aɪs-'kriɪm] "izozki" elkartua da, baina ice cream ['aɪs 'kriɪm] esaldia, nahiz esanahi aldetiko ezberdintasunik egon ez. Hala eta guztiz ere, elkarketa bateko lehen osagaia den esaldiak bere indar goren guztiak gordetzen ditu: beraz, wild-animal-house ['waɪld-'nɪml-'haws] adibidean, indar ereduak, house "etxe" hitza elkarketa osagaia dela ziurtatzen digu bakarrik; gainerako egitura beste irizpideen arabera baieztatzen da.

Eredu fonetikoari dagokionez, hitz elkartuek esaldiek bezala jokatu ohi dute: ingelesez, [vt] bezalako multzoak, shrovetide "inauteri" adibidean, edo [nn] pen-knife "labana"

adibidean, ez dira hitz soiletan ageri. Sandhia bezalako aldaketa fonetikoek hizkuntza bereko sintaxi sandhitik bereizten direnean bakarrik marka dezakete hitz elkartua hitz bakar bezala. Honela, gooseberry ['guwzbr̩ij] "astamahats" forma, hitz elkartu gisa markaturik dago, [s] ordeztu [z] jartzea ez baita ingelesaren sintaxian egiten, baizik eta morfologian bakarrik, esaterako gosling ['g? zlin] "antzarkume". Era berean, frantsesez, hitz elkartu gisa markaturik ditugu pied-à-terre [pjɛt-a-tʔ :r] "behin-behineko egoitza" (hitzez hitz "oina lurrean"), pied [pje] "oin" formaren alboan, edo pot-au-feu [pɔt-o-fø] "salda" (hitzez hitz "lapiko-sutan"), pot [po] "lapiko" formaren alboan, edota vinaigre [vin-? gr] "ozpin" (hitzez hitz "ardo garratz"), vin [v? ʱ] "ardo" formaren alboan, hizkuntza honetan ez baita honelako sandhirik gertatzen esaldietan, hitz eraikuntzetan bakarrik baizik, hala nola pieter [pjɛtɛ] "marra zapaldu", potage [pɔtɑ:ʒ] "lapikoko", vinaire [vin? :r] "ardoari dagokiona"; erka bitez, adibidez, vin aigre [v? ʱ? gr] "ardo garratz" esaldiarekin.

Aldaketa fonetiko harrigarriagoek marka ditzakete hitz elkartua; honela, bada, ondoko adibideotan lehenengo osagaiak hizkuntza honetako esaldiek jasaten dutena baino aldaketa gehiago agertzen ditu: holy ['howli] "sakaratu": holiday ['h? lidej] "jaiegun", moon "ilargi": Monday "astelehen", two [tuw] "bi": twopence ['topns] "penike biko (txanpon)"; ingeles zaharrean, [fe:ower] "lau": ['fider-'fe:te] "lau oineko"; sanskritoz, bigarren osagaiak jasaten ditu aldaketak, [na:wh] "ontzi": [ati-'nuh] "ontzitik joana"; grekera zaharrean [pa'te:r] "aita": [ew-'pato:r] "aita onekoa"; Gotikoz daga "egun": fidur-do-gs "lau egunekoa"; osagai biek aldaketak jasaten dituzte ingelesezko breakfast ['brekfɛst] "gosari", blackguard ['bl? gr̩d] "pijua", boatswain ['bowsn] "kontramaisu", forecastle ['fowksl̩] "branka-zubi"; zenbait kasutan, aldaketarik gabeko aldaera ere bada, esaterako forehead ['f? red] "bekoki", waistcoat "maripulis" ['wesket]. Muturreko kasuetan, noski, delako forma hitz asketik hainbeste alden daiteke non zalantzak izan baititzaiegu elkartua dela esateko, atzizkiaren ordeztu: fortnight ['fort-'najt, 'fortnet] "hamabostaldia" bezalako forma, hitz elkartua eta hitz soilaren arteko mugan bertan datza.

Hitz elkartuaren osagaien hurrenkera tinkoa izan daiteke, esaldiarena askea delarik, adibidez bread-and-butter "gurinaz igurtzitako ogi zatiak", esalditik bereizten dena: she bought bread and butter, butter and bread "ogia eta gurina, gurina eta ogia erosi zituen"; irizpide honek huts egin dezake, baina, esaldiaren hurrenkera ere tinkoa izan daitekeelako: bada elkartuaren esanahi eta hurrenkera bera duen bread and butter esaldia ere. Kontrako hurrenkera, marka garbia izan ohi da: Frantsesezko blanc-bec "gazte aritugabea" (hitzez hitz "moko zuri"), elkartu gisa sailkatu ohi da, esaldietan, blanc "zuri" bezalako adjektiboak beti izenaren ondotik agertzen baitira: bec blanc "moko zuri". Ingelesezt, to housekeep "etxeke lanetan aritu", to backslide "atzera erori", to undergo "jasan" dauzkagu, esaldiak balira house bezalako helburu izena eta back "atzera", under "azpitik" adizlagunak, aditzari jarraiki agertuko bailirateke (keep house "etxea zaindu", slide back "atzerantz zirriztatu").

12.3. Hitz elkartua esaldietatik bereizteko ezaugarriarik arruntenak, baina baita aldakorrenak eta ikuskagaitzenak ere, gramatika aukeraketazkoak ditugu.

Ezberdintasunik soilena erro elkarketa duten hizkuntzetan ageri zaigu (#11.13.). Alemanierazko lach- bezalako erro bat aditz paradigma osoaren ordezkaria da Lachkrampf ['lax-'krampf] "barre-ito" bezalako elkartu batean, baina ez da hitz berezi gisa agertzen; honek hitz elkartua edozein esalditik bereizten du argi eta garbi. Are argiago, grekera zaharreko [hippo-] "zaldi" bezalako elkarketa erroa bere paradigmako inflexio guztietatik ezberdina izan daiteke, eta, edozein kasutan, bere aldagaiztasunak markatzen du forma elkartua; honela, [hippo-] beste erroren bati lotzen zaio, adibidez [kantharo-] "karrakaldo", erro elkartua sortzeko [hippo-'kantharo-] (hitzez hitz "zaldi-

karrakaldo") "eulimando", baina aldatu gabe irauten du elkartu honen forma jokatu guztietan: nominatiboa [hippo'kantharo-s], akusatiboa [hippo'kantaro-n] eta abar.

Elkarketaren osagaia itxuraz beste hitz bat bezalakoa denean ere, elkartu bezala bereiz daiteke. Grekera zaharrean, izen erroa atzizkien bidez jokatzen da. Beraz, izen erro elkartu baten lehen osagaiak aldatzeke irauten du paradigmaren forma guztietan. Honela, "hiri berri" esaldiak bi paradigmetakoko joko formak erakusten ditu:

nominatiboa [ne'a: 'polis]

akusatiboa [ne'a:n 'polin]

genitiboa [ne'a:s 'poleo:s]

eta abar; baina erro elkartuak [ne'a:-poli-] "Napoles", lehen osagaia nominatibo singularrean ageri baitu, aldaerarik gabeko lehen osagaia erakusten du joko guztietan:

nominatiboa [ne'a:'polis]

akusatiboa [ne'a:'polin]

genitiboa [ne'a:'poleo:s]

Alemanieraz, adjektiboak hitz inflexioa du; azpiko forma aditz osagai bezala erabiltzen da: Das is rot "hori gorria da", eta eratorritako inflexioak izenlagun gisa ageri dira: roter Wein "ardo beltz". Inflexio atzizkirik ezak, beraz, elkarketa osagaia bereizten du Rotwein "ardo-beltz" forman.

Atzizki eta aurrizkien erabilerak berez erabaki dezake hitz edo erro baten hasiera edo bukaera zein den. Alemanieraz, aditzen iraganeko partizipioa erroari [ge-] aurrizkia eta [-t] atzizkia gehituz sortzen da, adibidez gelacht "barre egina". Hizki hauen kokapenak, beraz, geliebekost "laztandu" bezalako forma, erro elkartu batetik eratorritako hitz bakarra dela, baina liebgehabt "gustatu" forma hitz biko esaldia dela adierazten digu. Honek beste forma jokatuena sailkapenerako irizpidea eskaintzen digu, adibidez liebkosen "laztandu", edo liebhaben "gustatu" infinitiboenerakoa.

Batzuetan, elkarketa osagaiak ale inflexiodunaren antza du, baina esaldian ezinezkoa litzatekeen batena. Hala, bondsman "mailegatzaille", kinsman "senide (arra)", landsman "baserritar", marksman "tiratzaile" formen [-z, -s] atalak badu jabetzazko adjektiboaren atzizkiarekin antzik, baina bond's "ordain agiriaren", land's "lurraren" eta gainerako jabetzazko adjektiboak ez lirateke horrela erabiliko esaldian.

Frantsesez, grande [gr? ɛ̃d] "handi" adjektiboak, adibidez une grande maison [yn gr? ɛ̃d mezoɛ̃] "etxe handia", bukaerako kontsonantea ezabatzen du (#11.7), izen maskulinoekin erabiltzen den inflexio forma sortzeko: un grand garçon [oeɛ̃ gr? ɛ̃ garsoɛ̃] "mutiko handia", baina, elkarketa osagai gisa zenbait izen femeninoekin ere ager daiteke: grand'mère [gr? ɛ̃-m? :r] "amama", grand'porte [gr? ɛ̃-pɔrt] "sarrera nagusi". Honelako elkarketa osagaiak arruntak dira batik bat alemanieraz: Sonnenschein "eguzki distira" formak Sonne lehen osagaia du, esaldian agertuz gero plurala beharko lukeen itxuran; Geburtstag "urtebetetze" adibidean, [-s] kasu genitiboaren bukaera da, baina ez litzaioke die Geburt "jaiotza" bezalako izen femenino bati gehituko esaldi batean.

Elkarketa osagaia, hitz aske batean agertuko litzatekeenaz bestelakoa den hitz sorketa ezaugarri batek bereiz lezake. Grekera zaharrean, bazen arras eredu kanpoko aditz paradigma bat, [da'ma:o] "hezi dut" eta [e'dme:the] "hezia izan zen" bezalako formak eta gehiago biltzen zituen, eta gramatikalariek [dame:-] erro-forman oinarriturik deskribatzen dutena. Paradigma honetatik eratortzen da, batetik, [dme:'te:r] "hezle" egile-izen berezia, eta bestetik, beste atzizki batez, [-damo-] egile izena, hitz elkartuen bigarren osagai bezala erabiltzen dena bakarrik, adibidez [hip'po-damo-s] "zaldi-hezle". Hitz-sorketa ezaugarri bereziak dituzten elkarketei elkartu sintetikoak deritzaie. Elkartu sintetikoak hizkuntza indo-europarren garai zaharragoetan agertzen dira, baina ohitura

hau ez da inolaz ere desagertu. Ingelesezt, to black "beltzu" aditza, blacker "beltzaile (zerbait beltzitzen duena)" egile izenaren azpiko forma dugu (a blacker of boots "zapata garbitzaile"), baina zero-aleaz, -black egile izena ere sortzen du, boot-black "zapata-garbitzaile" elkartuan agertzen dena; era berean, to sweep "eskobatu" aditzak sweeper "kale garbitzaile, eskobari" sortzen du, eta chimney-sweep "kedar garbitzailea". Long-tailed "buztan luze" eta red-bearded "bizar gorri" bezalako formak ere ez dira ongi deskribatzen tailed "buztandun" eta bearded "bizardun" hitzak biltzen dituztela esanik (esaterako tailed monkeys "tximino buztandunak" edo bearded lady "andere bizarduna"); bidezko abiapuntua, -ed atzizkiaren arabera bakarrik aldentzen zaizkion long tail "buztan luze" edo red beard "bizar gorri" esaldietan dute aitzitik. Ondorio honek, azken batean, tailed "buztandun" eta bearded "bizardun" hitzak hor direlarik ere, long-tailed "buztan luze" eta redbearded "bizar gorri" bezalako elkartuak sortzen ditugula esan nahi du: horra bada, blue-eyed "begiurdin", four-footed "lauhankadun", snubnosed "sudur-motz" bezalako formak. Beste egungo ingelesezko adibide sintetikoak, three-master "hiru mastako ontzi", thousand-legger "ehunzango" hitzetan ditugu.

Ingelesezt, meat-eater "okela jale" eta meat-eating "okela jaten" bezalako nahi adina elkartu sor ditzakegu, baina ez *to meat-eat "okela jan" bezalako aditz elkartuak; azken hauek, eredu kanpoko adibide gutxi batzuetan ageri dira, hala nola housekeep "etxe lanak egin" edo to bootlick "balakatzea". Baina, zalantzarik gabe, eater "jale" eta eating "jaten" bezalako hitzak elkartu horiez kanpo ere existitzen dira; ezaugarri sintetikoa, ordea, eat meat "okela jan" bezalako esaldia, elkarketan, -er "- (tzai)le" edo -ing "-t(z)en" gehitzen zaionean bakarrik ager daitekeela dugu. Meat-eating "okela jaten" eta meat-eater "okela jale" elkartuei erdi-sintetikoak dei geniezaieke.

12.4. Hitz elkartu gisa sailkatzen ditugun formen hitzalako ezaugarrien artean, ikusgaiztasuna azaltzen da maiz (#11.6): black -I should say bluish-black- birds "txori beltz, ez ez, beltz- urdinskak esan beharko nuke" esan genezake, baina ezin genezake blackbird "zozo" elkartua horrelako etenik eginaz erabili. Adibide batzuetan, ordea, beste ezaugarri batzuek forma jakin bat elkartutzat sailkatzera eraman gaitzake, horrelako etenez ahoska badaiteke ere. fox hizkuntzan, ne-pieetsi-waapam-aa-pena bezalako alea, "hona gu hura ikustera etorriak", hitz elkartu gisa sailkatu beharra dago, ne- "ni(hi ez)" inflexio aurrizkia, -aa- "hura" eta -pena "lehengo pertsonaren plural marka" atzizkiek zalantzarik gabe hitzaren hasiera eta bukaera markatzen dutelako (#12.3). Elkartuaren osagaiak, pieetsi "hona" eta waapam- "(izaki biziduna) ikus" aditz-erroa dira. Hala eta guztiz ere, fox hizkuntzak, lantzean behin, hitzak edo esaldi laburrak ere tarteka ditzake elkartu horien osagaien artean, adibidez ne-pieetsi-ketaanesa- waapam-aa-pena "hona gu, hire alaba, hura ikustera etorriak". Alemanieraz, elkarketa osagaiak bata bestearen atzetik lotu daitezke; Singvögel "kantatxoriak", Raubvögel "harrapatxori", Sing- oder Raubvögel "kanta edo harrapatxoriak".

Normalean, elkarketa osagaia ezin daiteke sintaxi eraikuntza bateko osagaia izan, hitza esaldikoa den bezala. Black birds "txori beltzak" esaldiko black hitza, very "oso" aleak lagundurik ager daiteke (very black birds "txori oso beltzak"), ez ordea blackbirds "zozoak" elkartuko black osagaia. Ezaugarri hau baliagarria da frantsezko hainbat ale elkartu gisa sailkatzeko: honela, sage-femme "emagin" hitza elkartua da, bere homonimoa den "emakume-jakintsua" esanahia duen esaldia ez bezala, azken honetan bakarrik ager daitekeelako sage "jakintsu" osagaia laguntzaile batekin: très sage femme "emakume oso jakintsua". Murritzapen hau, aurrekoa legez, ez da beti betetzen, beste ezaugarri batzuen arabera ere elkartu diren zenbait aletan. Sanskritoz, elkarketaren lehen osagaia erro elkarketak argi eta garbi markatzen badu ere, noiz edo noiz hitz laguntzaile batekin ager daiteke, adibidez [citta-prama'thini:de:'va:na:m 'api] "gogo-nahaslea

jainkoena ere", hots, "jainkoen gogoak eurak ere nahasten dituen", non ("jainkoen") pluralitzeko genitibo izena [citta-] "gogo" elkarketa osagaiaren laguntzailea baita.

12.5. Hizkuntzaren egiturak elkartu bezala deskribatzera garamatzen hitzen deskribapenak eta sailkapenak, hizkuntzaren ezaugarri nagusien arabera izan behar du. Hizkuntzalariek, sarri, beren hizkuntzetan arrunt diren hitz elkarketa motak unibertsalak direla uste izaten dute. Egia bada ere hainbat hizkuntzako hitz elkartu mota nagusiak arras antzekoak direla, antzekotasun honi arretaz begiratu behar zaio: areago dena, zehaztasunak, eta bereziki murriztapenak, aldatu egiten dira hizkuntzarik hizkuntza. Ezberdintasunok hizkuntza ororako balioko duen eredu bakarra antolatzen gordetzen gaituzte, baina badira baliagarri izan ohi diren sailkapen ildo bi.

Sailkapen ildo horietako bat osagaien arteko harremana dugu. Batetik, sintaxi elkarketak ditugu, non osagaiek duten harremana hitzek esaldietan duten bera baita; honela, ingelesez, blackbird "zozo" eta whitecap "txapelzuri (Ku-Klux-Klaneko kidea)" formek black bird "txori beltz" eta white cap "txapel zuri" esaldiek eratzen duten adjektibo-gehi-izen eraikuntza bera ageri dute. Bestetik, elkarketa sintaxigabeak dauzkagu, adibidez door-knob "ate eskutoki", non osagaiek hizkuntza hortako sintaxi egituren kiderik ez duen eraikuntza bat eratzen baitute -ingelesak ez du *door knob bezalako esaldi motarik.

Sintaxi elkarketa, (delako hizkuntzan) hitz elkartuak esaldietatik bereizten dituzten ezaugarrien aldetik bakarrik aldentzen da esaldi batetik -ingelesez, bada, indar goren bakar baten erabileraren aldetik batik bat. Dagokion esalditik alden daiteke lexikoki, dreadnaught "ausarta" adibidea legez; dagokion esaldiak dread naught "ezerri beldurrik ez" konotazio zaharkituak dauzka, eta egungo esaldi arrunta fear nothing litzateke. Osagaiek itxuratzen dituzten eraikuntzen arabera sintaxi elkarketa azpiklaseak era ditzakegu, hala nola, ingelesez, adjektibo-gehi- izen (blackbird, whitecap, bull's eye), aditza osagarri-izenarekin (lickspitte "lausengari", dreadnaught "ausarta"), aditza adizlagunarekin (gadabout "ibildaun"), partizipio iragana aditz laguntzailearekin (castaway "botea, kanporatua"), eta abar.

Elkartze asko, sintaxi eta sintaxigabeko muturren artekoak ditugu: osagaien harremanak sintaxi eraikuntza baten antza badu, baina elkarketa ahalik gutxiena baino gehiago bereizten da esalditik. Adibidez, to housekeep "etxe zaintze" elkartua, hitz hurrenkera ezaugarri soilaz bereizten da keep house "etxea zaindu" esalditik. Honelako kasuetan, elkarketa erdi-sintaktikoez mintzatzen gara. Hurrenkerazko aldea upkeep eta keep up "zaindu, mantendu" bikotean ere agertzen da, hala nola frantsesezko blanc-bec eta bec blanc (#12.2.). Turnkey "giltzari" (hitzez-hitzez "bira- giltz") eta turn the key "giltza eman" edo turn keys "giltzak eman" esaldien artean, artikulua edo zenbaki kategoriaren erabilpenean datza aldea. Sintaxi elkartutzat hartu ohi diren blue-eyed, three master, mead-eater formak ere, blue eyes "begi urdinak", three master "hiru masta" eat meat "okela jan" esaldien kideak direla esan daiteke, ezaugarri formalen arabera aldentzen direlarik soilik, bigarren osagaiari gehitzen zaion -ed, -er atzizkia barne. Frantsesez, boîte-à-lettres, eta boîte-aux-lettres, hitzez hitz "gutunentzako kutxa", "posta-kutxa" esan nahi duena, preposizio aukeran eta artikularen erabileran bereizten dira esaldi mota arruntetik, zeina boîte pour des lettres bailitzateke; à eta beste zenbait preposizioen erabilera, aukera zehatzagoen ordeztu erabiltzea eta artikularen arabera ezberdintasunak (batik bat zero agertzea des formak adierazten duen artikularen ordeztu), ongi- markaturiko ezaugarriak ditugu frantsesez, elkarketa erdi-sintaktikoen klasea eratzen.

Elkarketa erdi-sintaktikoak zehatz daitezkenean, sintaxi elkarketak legez sailka daitezke: honela, bada, blue-eyed erdi-sintaktikoan, osagaiek blackbird sintaktikoak duen eraikuntza bera ageri dute, three-master adibideak three-day "hiru eguneko",

housekeep "etxe-zaintze" bezalakoa, turnkey adibideak lickspittle bezalakoa, eta upkeep adibideak gadabout bezalakoa.

Konposaketa sintaxigabeek hizkuntzako sintaxi eraikuntzetan elkartzen ez diren osagaiak dauzkate. Honela, door-knob "ate eskutoki", horsefly "eulimando (zaldi-euli)", bedroom "gela (ohe gela)", salt-cellar "gatzontzi", tomcat "katu arra (Tom-en katua)" adibideetan, ingelesaren sintaxian gertatzen ez den eraikuntzan ikusten ditugu izen bi. Ingeleseko adibide sintaxigabeak ditugu hauek ere: fly-blown "ustel (euliz puztua)", frost-bitten "izoztua (izotz(ak) aginka egina)", crestfallen "kokor eroria", footsore "oin zauri", fireproof "erre ezina (sutarako-frogatua)", foolhardy "mutiri (lelo-sendo)", by-law "agindu (lege-zehar)", by-path "bidezidor (bide zehar)", everglade "padura (beti ireki)", dinning room "jantoki (bazkaltze-gela)", swimming-hole "igerileku (igeri zulo)", bindweed "odolbelar (lotu belar)", cry-baby "negartia, keixatia (negarume)", driveway "autobide, aparkalekurako sarrera (gida bide)", playground "jolasleku", blowpipe "tximistutu", broadcast "irradi-telebistatik zabaldu (zabal-bota)" dry-clean "garbiketa lehorra", foretell "igerri (aurre-esan)", somewhere "nonbait", everywhere "leku guztietan, edonon", nowhere "inon ez". Osagai ilunak dituzten elkartuak, hala nola smokestack "tximinia", mushroom "perretxiko", edota osagai bakarra dutenak, adibidez cranberry, huckleberry (Ameriketako masusta motak), zigzag, choo-choo "txuku-txuku", sintaxigabeak ditugu noski.

Elkarketa sintaxigabeko osagaien harremana iluna den arren, batzuetan elkarketa sintaktiko eta erdi-sintaktikoetan egiten ditugun banaketa nagusiak sintaxigabeko klasera heda genitzake baita ere. Ingelesez, adibidez, bittersweet "gazi-gozo" bezalako adibide erdi-sintaktikoetan (erka bedi bitter and sweet "gazi eta gozo" esaldiarekin) ikusten dugun koordinaketa, zigzag, fuzzy-wuzzy "pelutxe goxoalakoa", choo-choo elkartu sintaxi gabeetan aurki genezake ere. Elkarketa sintaxigabe gehienek halako atributu-buru eraikuntza dutela dirudi: door-knob, bulldog (idi txakur), cranberry (masusta mota). Erkaketa honekin jarrai genezakeen neurrian, elkarketa kopulagileak (sanskritoz dvandva) eta elkarketa mugagileak (atributodunak eta menperatzaileak) (sanskritoz tatpuruha) bereiz genitzake; banaketa hauek sintaxi, sintaxi-erdiko eta sintaxigabeko elkarketak gurutzatzen dituzte. Bereizkuntza xeheagoak ere egin ditzake batek. Indiar gramatikalariek, elkarketa kopulagilearen multzoan, elkartu errepikarien (amredita) azpimultzoa bereizten zuten, choo-choo "txuku-txuku", bye-bye "agur-agur" eta goody-goody "ongi-ongi" bezalako osagai berbera birritan duten formek osatzen dutena [euskaraz, mar-mar, poliki-poliki eta abar ditugu adibide]. Ingelesez, osagaien ezberdintasuna oinarritzko fonema batean datzan elkartu klasea ere bereiz genezake: zigzag, flimflam (mesprezu hitza), pell-mell "azal-siku", fuzzy-wuzzy "biguntxo" [euskaraz, zehatz-mehatz, txipli-txapla eta abar dauzkagu honakoetan]. Indiarrek baliagarri aurkitu zuten, mugagileen artean, sintaxi atributu eta burua duten elkartuen multzoa bereiztea (karmadharaya), adibidez blackbird.

12.6. Sarri baliagarri gertatzen den beste sailkapen irizpidea, elkarketak bere osotasunean osagaiekiko duen harremanari begiratzea da. Maiz, sintaxian ematen den eraikuntza endozentriko eta exozentrikoen arteko bereizketa, elkarketari ezar dakioke (10.10). Blackbird txori (bird) mota bat denez geroz, eta door-knob "ate eskutoki" eskutoki mota denez ere, elkartu hauek beren buru osagaien funtzio bera dutela esan genezake; endozentrikoak dira. Bestalde, gadabout "ibildaun" eta turnkey "giltzari" adibideetan, buru osagaia aditz jokatugabea da, baina elkartua izena; elkarketa hauek exozentrikoak dira (sanskritoz bahuvrihi). Adibide kopulagile bat hartzearen, bittersweet "gazi-gozo" adjektiboa endozentrikoa da, elkartua, bere osagai koordinatuak bitter "garratz" eta sweet "gozo" bezala, adjektiboaren jokabidea

duelako, baina bittersweet "eztainu belar" landarearen izena exozentrikoa da, zeren eta, izen bezala, bere adjektibo osagai bietatik bereizten baita gramatika jokabidean.

Ingeleseko beste elkarketa exozentriko multzoa, adjektiboa eta izena burua duten formez osatzen da: two-pound "libera biko", five-cent "bost zentabo", half-mile "mila erdi".

Forma-klase ezberdintasuna gutxiagokoa izan daiteke, baina hala ere nabarmengarria hizkuntzaren sisteman. Ingelesezt, longlegs "zangoluze", bright-eyes "begi argi", butterfingers "gurin hatz (gauzak eskuetatik sarri erortzen zaizkiona)" exozentrikoak dira, bai singular gisa eta, zero-aleaz, plural gisa ere ager daitezkeelako (that longlegs "zangoluze hura", those longlegs "zangoluze haiek"). Frantsesezt, rouge-gorge "txantxangorri" exozentrikoa da, genero-klase maskulinokoa baita (le rouge-gorge "txantxangorria"), osagai burua klase-femeninokoa delarik (la gorge "bularra"). Ingelesezt sure-footed "ziurra (pertsona)", blue-eyed "begi-urdin", straight-backed "bizkar-sendo" adibideetan, [-ed, -d, -t] atzizkia balio exozentrikoaren eskutik dator (adjektibo eta izen buru); aldiz, sailkapen honetan zalantzak izan genitzake, -footed "oindun", -eyed "begidun" eta -backed "bizkardun" adjektibotzat har baitaitezke (erka bitez horned "adardun" eta bearded "bizardun"). Clambake "txirla zopa" eta upkeep "zaindu" bezalakoak endozentrikotzat hartu behar dira, ingelesaren gramatikan, -bake "egosi, labean egin" eta -keep "gorde" aditzetatik zero-ale batez eratorritako ekintza izentzat har daitezkeelako; ingelesak ez balu eratorketan zero-alerik erabiliko eta ekintza izen mota asko sortuko ez balitu, exozentriko gisa sailkatu beharko genituzke elkarketa hauek. Era berean, gure sailkapenaren onerako, bootblack "zapata-garbitzaile", chimney-sweep "kedar garbitzaile" endozentrikotzat joko ditugu, -black "belztu" eta -sweep "eskobatu" ekintza izentzat hartuaz.

Bestalde, whitecap "txapel-zuri", swallow-tail "miru-buztan", blue-coat "erropa-urdin (goardia)", blue-socking "galtzerdi-urdin", red-head "ile-gorri", short-horn "adar-labur" adibideek erakusten duten elkarketa klaseak izen jokabidea du eta izena ageri du osagai buru legez, eta hala ere, exozentrikotzat sailkatu behar dugu, izan ere, elkartuaren esanahia, izendatzen duen izakia osagai buruaren sail berekoa ez dela adieraztea baita: elkartu hauek "delako izaki hau (bigarren osagaia)", delako izaera honetakoa (lehen osagaia) daukaten izakiak" esanahia dute. Argi ageri da hau, zenbaki kategorian (longlegs) eta pertsonal inpertsonal kategorietan (nose "sudur" eta it "hura (ez gizakia), baina longnose "zudurluze" eta he, she "hura gizaki ar" hura gizaki eme"), ez baitatoz beti bat. Three-master "hiru-mastako" eta thousand-legger "ehunzango" adibideetan, atzizki sintetikoak, harreman exozentrikoaren eskutik dator. Alabaina, badira muga-mugako adibideak, sailkapen zorrotza oztopa dezaketeenak. Blue-bottle "eulitzar (hitzez hitz botila urdin)" adibidea endozentrikoa liteke, zomorroa "botilalakoa" dela baderitzogu, baina exozentrikoa, "botila" zomorroaren gorputz-atala dela uste badugu (sabela, alegia). Indiarrek azpimultzo berezi bi banatzen zituzten elkartu exozentrikoen artean, hots zenbatzaileak (dvigu), lehen osagai gisa zenbakia duten izenak, hala nola ingelesezko sixpence "sei penikeko", twelvemonth "hamabi hilabetealdia (urte)", fortnight "hamabostaldia", eta adizlagunak (avyayibhava), adizlaguntzaileak izen buruarekin, hala nola bareback "bizkar biluzi", barefoot "ortozik", hootfoot "oinbero", edo menpeko izenarekin uphill "mendian gora (gora mendi)", downstream "errekan behera", indoors "barruan (ate barru)", overseas "itsasoz bestalde".

12.7. Bigarren mailako hitz eratorrietan, forma aske bat aurkitzen dugu lehen osagai gisa, esaldia (old-maidish "neskazahar itxurakoa") edo hitza (mannish "gizon itxurakoa") alegia; azken kasuan, azpiko hitza elkartua izan daiteke (gentlemanly "zaldun itxurakoa") edo eratorria (actresses esaterako, non actress azpiko forma bera

actor hitzetiko bigarren mailako eratorria baita). Ikusi dugunez, baina, zenbait hizkuntzaren deskribapenerako, hoberena azpiko forma teorikoak eratzea da, erroak alegia, hauek ageriko forma askerik ez duten zenbait forma, bigarren mailako eratorri bezala sailkatzen uzten baitigute (#11.13). Ingeleseko scissors "artaziak", oats "olo" formen deskribapenerako horrelako lanabesa behar dugu, eta scissor- eta oat- teorikoak eratzen ditugu azpiko forma gisa, cranberry "basa masusta mota", oatmeal "olo-morokil", scissor-bill "motzaile (txori mota)" formak elkartu gisa sailkatzen ditugun era berean.

Azpiko forma askea, benetakoa zein teorikoa, hizki batek edo 11. kapituluan ikusi legez gramatika ezaugarri batek lagundurik agertzen da.

Hizkuntza askotan, bigarren mailako eratorriak, inflexio forma edo hitz sorketa forma multzo nagusietan banatzen dira lehen lehenik (#11.12), baina gogora bedi honelako hizkuntzek ere muga-mugako kasuak badituztela, hala nola ingelesezko beeves "idi, abere (zaharkitua)" edo clothes "ehunak", gehien bat inflexio multzokoak diruditenak, baina formazko eta semantikazko aldenketa agertzen duenak. Era berean, learned [lɹned] "jakitun", drunken "mozkor", sodden "blai", molten "urtu", eta kaleko broke "dirugabe", guztiz inflexiozkoak diren partizipio iraganetatik aldentzen dira, learned [lɹnd] "ikasia", drunk "edana", loaded "zamatua", seethed "blai egina", melted "urtua", broken "apurtua".

Inflexio formak nahikoa errezak dira deskribatzeko orduan, multzo paradigmatico paraleloetan azaltzen baitira; ezagunak ditugun hizkuntzen ohiko gramatikek beren inflexio sistemen itxuraketa eskaintzen digute. Ohar bedi halere, ohiko gramatikek ez dutela zientziazko konpaktutasunaren eskakizuna betetzen, paradigmaz paradigma agertzen den ezaugarri bera behin eta berriz deskribatzen dutenean. Honela, latinezko gramatikan, -s nominatibo singular atzizkia, amicus "adiskidea", lapis "harri", dux "aitzindari", tussis "eztul", manus "esku" eta facies "arpegi" mota bakoitzean bereizirik aipatzen zaigu, non erabiltzen den eta non ez osoro adierazirik, behin bakarrik aipatzearekin nahikoa litzatekeenean, noski.

Hitz sorketak zailtasun handiagoak eskaintzen ditu, eta neurri handi batean aipatu gabe doa ohiko gramatiketan. Zailtasun nagusia, existitzen diren konbinaketak erabakitzean datza. Kasu asko eta askotan, delako eraikuntza bat eredugabea dela esan eta zerrendak egitera jo behar dugu nahitaez. Zerrenda batek bakarrik esan liezaiguke, adibidez, zein ingelesezko ar izenek erator dezaketen eme izena -ess atzizkia gehituz, esaterako countess "kondesa", edo lioness "lehoi eme", eta ziurrenik adabaki zerrenda beharko genuke horietako zein eratorritan [ɹ,] silabagilearen ordezkari [r] agertzen den adierazteko, adibidez waiter "zerbitzari": waitress "zerbitzari (eme)", tiger "tigre": tigress "tigre (eme)", zeren eta aldaketa hau jasaten ez duen multzoa, ziurrenik, ereduakoa baita, author "egile": authoress "egile (eme)". Kasu bereziek, hala nola duke "duke": duchess "dukesa", edo master "ugazaba": mistress "ugazabandre", thief "lapur": thieves "lapur (eme)" bestelako deskribapena eskatzen dute.

Honelako eraikuntza oinarritu ondoren, esanahi ohia zein den erabaki genezake eta, orduan, inflexioaren kasuan egin bezala, antzekotasunen bila abiatu. Gure -ess atzizkiak, adibidez, badu zehatz daitekeen hizkuntzazko esanahia, ez bakarrik bikote guztien antzekotasunagatik, baita ingelesaren gramatikagatik ere, bertan he "hura (ar)": she "hura (eme)" bereizketa egiten baita, -ess atzizkiaz eratorritako formen esanahia nabarmentzen duena. Beraz, inflexioan egiten genuen erara, delako forma bikote batek, man "gizon": woman "emakume" kasu, harreman bera agertzen duen ala ez erabaki genezake. Honek, paradigmak deskribapenen itxura duten adabaki adierazpenak eratzei aukera ematen digu, bertan gramatikak baldintzatuz ale semantiko baten ezaugarri formalak agertzen direlarik. Honela, "delako saileko arraren emea" semema, -

ess atzizkiaz bestela ere adieraz daitekeela aurkitzen dugu: elephant-cow "elefante-behi (eme)", she-elephant "elefante (eme)", nanny-goat "ahuntz esneduna", eta ordezkaketaz ere, hala nola ram "ahari": ewe "ardi", boar "urde": sow "urdanga", honelako zenbait bikotek alderantzizko eratorrita darakuste, arra emetik eratortzen dela, esaterako goose "antzar": gander "antzar(ar)", duck "ahate": drake "ahate (ar)".

Era berean, zerrenda osoa beharko genuke, -er atzizkiaz eratutako erkapen formen azpiko formetan zein adjektibo ager daitezkeen adierazteko, kinder "zintzoago", shorter "laburrago", longer "luzeago", eta zerrenda hau burutuz gero, semantikoki antzekoak diren bikoteak antzemango genituzke, hala nola good "on": better "hobe", much "asko": more "gehiago", little "gutxi": less "gutxiago", bad "txar": worse "txarrago".

Beste multzo batzuetan, harreman semantikoak ezin daitezke gramatika aldetik zehaztu. Honela, aditz asko eta asko eratortzen ditugu aditzetatik, hainbat aldaketaren bidez, zero alea barne delarik, baina eratorritako forma horien esanahiak azpiko formarenarekin duen harremana askotarikoa izan daiteke: to man "ontzia tripulazioz hornitu (hitzez hitz "gizon-du")", to dog "hausnartuz jarraitu (txakur-tu)", to beard "bizarrari tiratu (bizar-tu)", to nose "muturrak sartu (sudur-tu)", to milk "titia eman (esne-tu)", to tree "zuhaitzaren kontra jo (zuhaiz-tu)", to table "mahaia zerbitzatu (mahai-tu)", to skin "zuritu (azal-du)", to bottle "botilatu", to father "aita gisa sortu (aita-tu)", to fish "arrantzan egin (arrain-du)", to clown "pailazoarena egin (pailazo-tu)", eta abar. Edo bestela ere, aditzak eratortzen ditugu adjektiboetatik, "delako hau bilakatu" edo "delako hau honelako egin" esanahiaz, hainbat lanabes formal erabilirik:

zero: to smoothe "landu, bigundu"

zero, erkapenetik: to lower "beheragotu"

zero, neurri izenetik: old "zahar": to age "zahartu"

bokal aldaketa: full "bete": to fill "bete"

ordezkaketa: dead "hil(dako)": to kill "hil (iragankorra)"

aurrizkiak: enable "zerbaitetarako gauza egin", embitter "ernegatu", refresh "errefreskatu", assure "ziurtatu", insure "segurua egin", belittle "murritzitu"

-en atzizkia: brighten "argitu"

-en atzizkia, izaera izenetik: long "luze": lengthen "luzatu"

Lista honi, mailegu mordoa gehitu behar diogu, hala nola equal "berdin": equalize "berdindu", archaic: archaize "zaharkitu", English "ingeles": anglicize "ingelestu", simple "soil": simplify "soildu", vile "zital": vilify "zitalizat jo", liquid "isurkari": liquefy "urtu", valid "egoki": validate "egokitu, ontzat jo", long "luze": elongate "luzatu", different "ezberdin": differentiate "ezberdindu", debile "ahul": debilitate "ahuldu", public "publiko": publish "argitaratu".

Eratorketa gramatika ezaugarrien bidez egiten denean, hala nola aldaketa fonetiko (man:men "gizon(ak)", mouth "aho": to mouthe "ahoskatu"), indarraren bidez (convict [kon'vikt] aditza, convict ['konvikt] izena) edo ordezkaketaz (go:went "joan [orain eta lehenaldia]"), edota zero aleez (cut jokatugabea: cut lehenaldia "ebaki"; sheep "ardi": sheep "ardiak"; man izena: to man aditza), zaila egin dakiguke multzoko azpiko forma zein den erabakitzea. Ingelesezt, deskribapen soilagoa lortzen dugu eredugabeko paradigmak (hots, man:men edo run:ran) azpikotzat jotzen baditugu, eta ereduazkoak eratorri gisa (hots, to man edo a run "lasterraldia"). Gertaera gehienetan, ez dago irizpide hau erabiltzerik; honela, zail egingo zaigu play "jolastu", push "bultzatu", jump "jauzi egin", dance "dantzatu" bezalakoetan, izena ala aditza azpiko formatzat hartu behar dugun erabakitzea. Zeinahi erabaki hartzen dugula ere, hitz eratorriak (adibidez to man aditza man izenetik eratorririk, edo a run izena to run aditzetik eratorririk bada) ez du atzizkirik erakutsiko sarri, eta (aurki garbi ageriko zaizkigun arrazoiengatik) hitzerro laguntzaile gisa deskribatuko dugu.

Bide beretik, esaldi eratorriek, hala nola old-maidish "neskazahar itxurakoa", old maid "neskazahar" bezalako esaldietik eratortzen direnek, ez dute zailtasun handirik eskaintzen, -ish "itxurako" bezalako eratorketa hizkirik agertzen duten bitartean, baina esaldiak zero ezaugarria agertzen duenean, esaldi-hitz mota zailarekin egiten dugu topo, adibidez jack-in-the-pulpit landare izena edo devil-may-care "ausarta". Benetako esaldietatik bereizten dira ez dutelako etenik onartzen, eta ezin daitezkeelako sintaktikoki luzatu, baita sarri izan ohi duten izaera exozentrikoagatik.

12.8. Oinarri hitzek ez dute forma askerik beren lehen osagaien artean. Konplexuak izan daitezke, forma lotu bi edo gehiago dituztenak, adibidez per-ceive "antzean", per-tain "-rena izan", de-ceive "engainatu", de-tain "gelditu", edo soilak, adibidez boy "mutil", run "laster egin", red "gorri", and "eta", in "leku preposizioa", ouch "ai, min-adierazlea".

Oinarrizko forma konplexuak osatzen dituzten forma lotuak atalkako antzekotasun ezaugarrien bidez erabakitzen dira, noski, ikusi berri ditugun adibideetan legez. Hizkuntza askotan, oinarri hitzek egiturazko antza dute bigarren mailako hitzekin. Honela, ingelesez, hammer "mailu", rudder "lema", spider "armiarma" bezalako oinarri hitzek badute antzik bigarren mailako dance-r "dantzari", lead-er "aitzindari", ride-r "gidari" hitzekin. Bigarren mailako hitzaren eratorketa hizkiaren antza duen oinarri hitzaren atala (darabilgun kasuan -er), oinarri hizki bezala deskriba dezakegu. Honela, bada, hammer "mailu" rudder "lema", spider "armiarma" oinarri hitzek -er oinarri hizkia dutela esan ohi da. Oinarri hitzaren gainerakoa -gure adibideetan [h? m-] silaba hammer hitzean, [rod-] rudder hitzean eta [spajd-] spider hitzean- erroa deitzen da. Erroak bigarren mailako hitzetan (dancer, leader, rider) azpiko formak (dance, lead, ride) duen jokabide bera du.

Oinarri hizkiak gutxi eta esanahi aldetik oso kamutsak dira, erroak asko eta beraz denotazio aldetik arraz zorrotzak direlarik; horra oinarrizko hizki eta erroen arteko banaketa honen zergatia¹¹.

Gure terminologiari jarraiki, hizkilako osagairik biltzen ez duten oinarri hitzei (hots, boy, run, red) oinarrizko erro hitzak deritze. Oinarrizko erro hitzetan ageri diren erroak erro askeak dira, oinarrizko hizki batekin bakarrik ageri diren erro lotuak ez bezala, adibidez [spajd-] erroa spider "armiarma" forman.

Oinarrizko hizkiak oso kamutsak izan daitezke esanahiaren aldetik, eta erroaren nahitaezko lagungarri gisa (determinatzaile gisa) agertzen dira. Ingelesezt, oinarrizko hizkirik arruntenek ez dute hizkera atalik ere bereizten; honela, baditugu -er atzizkiarekin, spider "armiarma", bitter "mingots", linger "iraun, berandutu", ever "inoiz", under "azpi(an)"; -le atzizkiarekin, bottle "botila", little "txiki", hustle "nahastu, irauli"; -ow atzizkiarekin furrow "ildo", yellow "ori", borrow "hartu". Beste kasu batzuetan, esanahia argiagoa da; honela, -ock, atzizkiak, hummock "muino", mattock "aitzur", hassock "bedar muino", eta abar, neurri handiegikoa ez den izaki mokorra adierazten duten izenak sortzen ditu, eta honen baieztapena, bigarren mailako atzizki gisa duen erabileran aurkitzen dugu (klase arrakala), hillock "mendixka", bullock "idi" adibideetan esaterako. Gure mailegu aurrizkiek kamutsa baina nabarmengarria den esanahia dute, ondoko bikoteetan ikus daitekeenez: con-tain "bildu", de-tain "gelditu", per-tain "-rena izan", re-tain "gorde". Zenbait hizkuntzatan, halere, oinarrizko hizkiek esanahi nahikoa zehatzak dakartzate. Algonkiar hizkuntzek materiaren egoerak (zur itxurako solidoa, harri itxurako solidoa, isurkaria, soka itxurako gauza, gauza borobila), lanabesak, gorputz atalak, animaliak, emakumea, umea (baina, ez, antza denez, ar helduak) adierazten dituzten oinarri atzizkiak darabiltzate. Honela, bada, menominiz, [kepa:hkwaham] "hark hura estaltzen du" aditz formak badu [kepa:hkwah-] gunea, kep- "zabalera-oztopatzaile" esan nahi duen erroak eta [-a:hkw-]

"egurralakoa", [-ah-] "izaki bizigabeari lanabesaz eragin" oinarritzko atzizkiek osatzen dutena. Era berean, menominiz, [akuapi:nam] "uretatik hartzen du" forman, aditz guneak akua- "nonbaitetik kendu" eta -epii "ura bezalakoa" -en- "gauzakiari eskuz eragin" atzizkiak biltzen ditu; [ni:sunak] "kanoa bi", niisu- "bi" erroaz eta -unak "kanoa" oinarri atzizkiek osatzen dute. Hizki hauek bigarren mailako eratorketan erabiltzen dira baita ere. Batzuk hitz edo erro berezietatik eratorriak dira; hala, foxeraz, [pj? :tehw? :w? :wa] "emakumea(k) ekartzen d(it)u" aditza iragangaitza da (hots, ezin daiteke osagarri zuzen batekin erabili -nonbait *emakumekartzen aditza legezkoa genuke), eta [-ehkw? :w? :-] "emakume" oinarritzko atzizkiaz osatzen da, zeina [ihkw? :wa] "emakume" izenetik eratorria baita. Menominiz, foxerazko formaren kideak, [-ehkiw? :-], adibidez [pi:tehiw? :w] aditzean (goikoaren esanahi bera), ez du horrelako harremanik ezerein izen askerekin, "emakume"-rako izen zahar hau desagertu baita, egungo hitza [met? :muh] delarik. Zenbait hizkuntzatan, izenetatik eratorritako oinarritzko atzizkien erabilerak gure aditza eta osagarri zuzena sintaxi eraikuntzaren eremu semantiko bera besarkatzen du. Ohitura honi izen-eransketa deritzaio; adibide klasikoa nahuatl, aztekarren hizkuntza, dugu, non [naka-tl] "okela" bezalakoa izena aurritzki baten bidez adierazten baita [ni-naka-kwa] "okela jaten dut" aditz forman, hots, "nik okela jaten dut".

Delako erro bat oinarritzko hitz bakar batean ager daiteke, ingelesezko erro arrunt gehienei gertatzen zaien bezala, edo oinarri hitz segida oso batean ager daiteke, gure mailegu hitz askotan gertatu ohi den bezala, hala nola [-sijv], deceive "engainatu", conceive "sortu", perceive "antzman", receive "hartu". Nolanahi ere, oinarri hitza bigarren mailako eratorri multzo oso bateko azpiforma izan daiteke; honela, man "gizon" dugu azpiforma men "gizonak", man's "gizonaren", men's "gizonen", mannish "gizon itxurako", manly "gizonki", (to) man (mans, manned, manning) "gizonez hornitu (jokatua)" adibideetan; deceive "engainatu" dugu azpiko forma, deceiver "engainatzaile", deceit "engainu", deception "engainatze", deceptive "engainagarri" hitzetan; conceive "sortu" da conceivable "litekeena", conceit "handinahi", concept "kontzeptu", conception "sorkuntza", conceptual "kontzeptuzko" hitzen azpiforma; perceive "antzman" azpi-forma perceiver "antzemaile", percept "antzman(a)", perceptive "adi dagoen(a)", perception "pertzepzioa", perceptible "antzemangai", perceptual "pertzepziozko" hitzetan; eta receive "hartu, jaso" dugu receiver "hartzaille", receipt "errezibo", reception "harrera, sarrera", receptive "entzule, hartzaille, jasale on(a)", receptacle "ontzi". Areago, honelako bigarren mailako eratorriak oinarri hitzik ez denean ere gerta daitezke; hala, ez daukagu *preceive bezalakoa oinarri hitzik, baina baditugu precept "arau", preceptor "araugile" hitzak, bigarren mailako eratorri gisa deskribatzen direnak hoberen, *pre-ceive bezelako azpiko forma teoriko batetik eratorriak.

Hizkuntzaren erroek bere morfologia forma klase nagusia osatzen dute, eta beraz, esanahi ugari eta zehatzenak daramatzate. Erroak forma aske diren hizkuntzetan ikusenezake hau garbien, adibidez ingelesez, boy "mutil", man "gizon", cut "ebaki", run "laster egin", red "gorri", blue "urdin", green "berde", brown "marroi", white "zuri", black "beltz". Esanahi zorrotzak aurki genitzake baita erro lotuetan, hala nola yellow "hori" hitzeko yell-, edo purple "more" hitzeko purp-, nasty "gaizto" hitzeko nas- eta abar. Hizkuntza gehienetan, baina, badira guztiz esanahi iluneko erroak, adibidez, ingelesez, -ceive, -tain, -fer (conceive, contain, confer eta abar) mailegu erroak. Hau egia da batik bat, oinarri hizkiak ugari eta esanahi aldetik zehatzak dituzten hizkuntzetan.

Erroa eratu dugunean, aldaketan jasan ditzakeelako aukera bada. Aukera hau begi bistakoa da, erroa bigarren mailako eratorri baten lehen osagai bezala agertzen denean:

honela, duchess bigarren mailako eratorrian, duke azpiko formaren aldaketa, duke erroaren aldaketa da aldi berean, eta sang, sung, song "kanta(tu)" bigarren mailako eratorrietan, azpiko sing formaren aldaketak sing erroaren aldaketak dira baita, nahitaez. Erroen aldaerak hain dira ugariak zenbait hizkuntzatan, deskribatzaileak zalantza handiak izan ditzakeela oinarri forma aukeratzean. Grekera zaharrean, [dame:-, dme:-, dmo:-, dama-, dam-] aldaerak aurkitzen ditugu [e-'dame:] "hezi zuen", [e-'dme:-the:] "hezia izan zen", [dmo:-s] "esklabo", [da'ma-o:] "hezten dut", [hip'po-dam-o-s] "zaldi-hezle". Gure grekeraren morfologiaren deskribapen osoa, baita eratorriak oinarri eta bigarren mailako banaketa ere, honelako erroen oinarri formaren aukeraren araberrakoa da. Hizkuntza germanikoetan, erroaren aldaketa, hizkilako laguntzaileekin edo gabe, konotazio sinbolikoa duten hitzetan ageri da, esaterako flap, flip, flop [onomatopeiazko izenak, mugimenduaren hotsa itxuratuz, mugimendua bera adierazten dutenak, gutxi gora-behera flap "gauza zapal meheak beste zerbait jotzea, edo gauza zapal mehea iraultzea", flip "izaki arina lekuz aldatu", flop "biguna edota lodia den izakia irauli edo erori, porrot egin"]. Erro honen oinarri formatzat flap hartuz geroz, flip eta flop eratorritzat joko ditugu, [i] "txikiago, txukunago", eta [ʔ] "gaitzago, lodiago, motelago" hizkien ordezkaketaren bidez. Badira antzeko hainbat gertakari: [i] ordezkaketaz, snap: snip "eten, hautsi: ziztatu, akuilatu", snatch: snitch "kendu, harrapatu", snuff: sniff "usain(ka)tu", bang: bing "jo", yap: yip "berbete hotsa egin"; [ij] ordezkaketaz, squall: squeal "aihen, zotin", squawk: squeak "txilio, garrasi mehe ozen", crack: creak "krak egin", gloom: gleam "dirdira ahul, tximista itxurako distira", tiny: teeny "txiki, nimiño"; [o] ordezkaketa: mash: mush "orre, biguintasun higuigarri", flash: flush "tximistak bezala argitu, harritu edo gogoratu, lotsatu, uretan ondoratu", crash: crush "zerbaiten kontra jo, apurtu, birrindu". Lehen begirada batean, forma hauek bigarren mailako eratorritzat jo beharko genituzke, flap hitza flip eta flop formen azpian dagoela esan baitaiteke, baina baliteke ingelesaren morfologiaren deskribapen arretatsu zehatz batentzat egokiago izatea, "flap- erroaren" oinarri aldaketatzat hartuko bagenitu flip edo flop bezalako hitzak, flap benetako hitzetik bertatik eratorri beharrean.

Hizkuntzaren erroak arras berdintsuak izan ohi dira egitura aldetik. Ingelesezt, silaba bakarreko aleak izan ohi dira, hala nola man, cut, red; eurretariako asko erro hitz bezala ager daitezkeen forma askeak dira, baina beste asko, adibidez spider "armiarma" formako [spajd-], edo hammer "mailu" formako [hʔ m-], eta, batik bat conceive, perceive maileguetako [-sijv] erroak, forma lotuak ditugu. Erro lotu hauetariko zenbait, hitz bukaeran gertatzen ez diren multzoetan amaitzen dira, adibidez [lomb-] erroa lumber "ohola mordoak, altzari zahar piloa" hitzean, edo [ling-] erroa linger "iraun" hitzean. Errusieraz, erroak silababakarrak dira, [e, o] multzoko bokalen, artean, [l] edo [r] agertzen dutenak salbu, hala nola [golod-] "gose", [gorod-] "hiri". Grekera zaharreko erroen aldagarritasunaren adibide bat ikusi dugu; hizkuntza honetarako, hala nola indo-europar zaharrerako ere, hainbat eite ezberdinetako erroak eratu behar ditugu: silababakarrak, [do:-] "eman", eta silababikoak, [dame:-] "hezi". Iparraldeko txineraz, erro guztiak forma aske silababakarrak dira, fonetikoki, hasierako kontsonante edo kontsonante multzo batez (ager daitekeena edo ez), bukaerako silabagileaz (silabagabe diren [j, w, n, n,] dauzkaten diptongo motak barne), eta tonu ereduaz osatzen direnak. Malaysiako hizkuntzek silababiko erroak dauzkate, indarra bietako edozein silaban doala, adibidez tagalogezko [ba:haj] "etxe" eta [ka'maj] "esku" erroetan legez. Hizkuntza semitikoetan, erroak, ahoskaezinak diren hiru kontsonantezko ereduak dira; gero, oinarri hitz bakoitzak bokal ereduak diren morfologia aleak gehitzen dizkio. Honela, egungo Egiptoko arabieraz, [k-t-b] "idatz" erroa, [katab] "idatzi zuen", [ka:tib] "idazkari", [kita:b] "liburu" hitzetan ageri zaigu, eta, aurrizkiekin, [ma-ka:tib]

"idazlekuak", [ma-ktab] "idazleku", [je-ktub] "idazten ari da"; era berean, [g-s-l] "jezar" erroa, [galas] "jezarri zen", [ga:lis] "pertsona jezarri(a)", [ma-ga:lis] "kontseiluak", [ma-glas] "kontseilu".

Hizkuntza gutxi batzuetan, adibidez txineraz, erroen egitura guztiz berdintsua da; bestetan, eredu arrunta baino laburragoak diren erro batzuk aurkitzen ditugu. Azpimarragarria da erro labur horiek ingelesaren gramatikaren ikuspuntutik izenordain, lokarri eta preposizioen ingurukoak liratekeen aleak direla ia beti. Alemanieraz, ingelesak duen erro egituraren antzekoa izanik, artikulua mugatuak [d-] erroa dauka der, dem, den eta abarretarako; gainerako hitza (er, em, -en eta abar) inflexio-bukaera arrunta dugu, "gorri" bezalako adjektiboaren jokabidean agertzen direnak baita: rot-er, rot-em, -rot-en. Gauza bera gertatzen da "nor?" izenordain galdetzailearekin, wer, wem, wen formak dituelarik. Malaisieraz eta semitikoz, inguru semantiko honetako hainbat hitzek silaba bakarra daukate, adibidez, tagalogez, [at] "eta", edo [a n,] partikula "osagarri zuzen adierazpena", [aj] "predikapen adierazpena", [na] "atributu adierazpena". Semantika inguru hau, ingelesak indargabeko formak darabilenaren antzekoa dugu.

12.9. Agian hizkuntza gehienetan, erro gehienak morfemak dira. Ingeleseztako sing: sang: sung: song edo flap: flip: flop kasuetan ere, deskribapen egoki batek forma bat oinarritzat eta besteak, erroaren aldaketa fonetikoa darakusten oinarritzat edo bigarren mailako eratorritzat jo behar ditu. Beste kasu batzuetan, baina, erro ezberdintzat jo daitezkeen aleen arteko fonetika semantikazko antzekotasun argi-garbiak aurkitzen ditugu. Ingeleseztako izenordain hitzak, adibidez, lehen kontsonanteari dagokionez batez ere elkarren antzekoak diren erro silababakarrak biltzen dituztela esanik deskribatzen dira hobekien, ziurrenik.

[d]: the "-a", this "hau", that, "hori", there "hor", then "orduan", thith-er "horraino", thus "honela"

[hw-]: what "zer", when "noiz", where "non", whith-er "noraino", which "zein", why "zergatik"; [h] aldaketarekin, who "nor", how "nola"

[s-]: so "honela", such "hain"

[n-]: no, not "ez", none "bat ere ez", nor "ezta ere", nev-er "inoiz ere ez", neither "(eta) ere ez".

Erroaren morfologia egitura konplexua askoz soilagoa da ingelesezko hitz sinbolikoetan; hauetan, garbitasun gehiago edo gutxiagorekin, eta muga-mugan zalantzazko gertakariak badiren arren, aurrealdeko eta atzealdeko morfema errogile sistema bat nabarmentzen da, hauen esanahia batere garbia ez bada ere. Garbi da konotapen sinboliko sakona dagoela egitura honi loturik. Honela, hurrengo hasierak aurkitzen ditugu behin eta berriz:

[fl-] "argi mugikorra": flash flare flame flick-er flimm-er.

[fl-] "higidura aidean": fly, flap, flit, (flutt-er).

[gl-] "argi mugigaitza": gloow, glare, gloat, gloom (gleam, gloam-ing, glimm-er), glint.

[sl-] "zapal eta bustia": slime, slush, slop, slobb-er, slip, slide.

[kr-] "kolpe zaratatsua": crash, crack (creack), crunch.

[skr-] "igurtzi higidura edo hotsa": scratch, scrape, scream.

[sn-] "arnas hotsa": sniff (snuff), snore, snort, snot.

[sn-] "aldentze edo mugimendu bizkorra": snap (snip), snatch (snitch).

[sn-] "narraska, tarrastakako higidura": snake, snail, sneak, snoop.

[lj-] "gora-beheranzko higidura": jump, jounce, jig (jog, jugg- le), jangle (jingle).

Gutxi gora-beherako era honetan, bukaerak nabari ditzakegu baita:

[-? ß] "higidura sendoa": bashm clash, crash, dash, flash, gash, mash, gnash, slash, splash.

[-ejr] "argi edo zarata ozena": blare, flare, glare, stare.

[-awns] "higidura bizkorra": bounce, jounce, pounce, trounce.

[-im] batik bat [r,] determinatzailearekin, "hots edo argi ahula": dim, flimmer, glimmer, simmer, shimmer.

[-omp] "motela, traketsa": bump, clump, chump, dump, frump, hump, lump, rump, stump, slump, thump.

[-? t] [-r.] determinatzailearekin, "apur higidura": batter, clatter, chatter, spatter, shatter, scatter, rattle, prattle.

Azken adibide honetan, gure sailkapena egiaztatzen duen bitxitasun formala ikusten dugu. Ingeleseko morfologian ez dago [-r.] edo [-l.] atzizki gisa agertzeko baldintza orokorrik, eta, bereziki, hitzaren gorputzean [r, l] agertzeak ez ditu atzizkiak gaitzesten: brother "anai, neba", rather "areago", river "ibai", reader "irakurle", reaper "segalari" edo little "txiki", ladle "burduntzali", label "etiketa" bezalako hitzak guztiz arruntak ditugu. Bestalde, [r] daukaten erro sinbolikoek ez dute sekula [-r.] atzizki determinatzailea hartzen, eta horren ordez [-l.] hartzen dute, eta alderantziz, [l] duen erro sinbolikoak ez du sekula [-l.] jarraieran, baizik eta [-r.] bakarrik: brabble "iskanbila" eta blabber "berriketaldia" zilegi dira ingelesez erro sinboliko gisa, baina *brabber edo *blabble ez.

Morfema errogileak bezalako ezaugarri nimiño hauen azterketak zalantzazkoa eta burutugabea izan behar du nahitaez, zeren eta, fonetikazko antzekotasuna, adibidez box "kutxa", beat "kolpe", bang "danbada" hitzen arteko [b-], semantikazko antzekotasunari lotua datorrenean bakarrik eratzen du hizkuntz forma, eta, benetako munduari dagokion bigarren honetarako ez daukagu neurririk.

Oharrak

12.1. Elkartuak: Künzel; Darmesteter, Traité.

12.4. Elkartuen atalen barnean hitzak tartekatzeaz: T. Michelson in IJAL 1.50 (1917).

12.6. Elkarte exozentrikoez: Uhrström; Last, Fabian.

12.7. Aditz izendatzaileez: Bladin. Drunken: drunk eta antzeko bikoteez: M. Deutschbein in Streitberg Festgabe 36. Ar eta eme ingelesez: Knutson.

12.8. Algonkierazko benetako atzizkiak: Festschrift Meinhof 393. Izen eransketaz: Steinthal, Charakteristik 113. Ingeleseko flip; flap: flop eta antzekoez: Warnke.*

ORDEZKAKETA

13.1. Perpaus motak (9. kapituluak) eta eraikuntzak (10, 11, 12. kapituluak) aztertu ditugularik, hirugarren gramatika atonketa esanahitsuari ekingo diogu, ordezkaketari alegia (#8.7).

Ordaina, halako baldintza jakin batzuetan, hizkuntz forma klase bateko aleak ordezkatzeko dituen hizkuntz forma edo gramatika ezaugarria da. Honela, ingelesez, I "ni" ordainak zeinahi singularreko izen esapide ordezkatzeko dezake, delako izen esapide honek ordaina ageri duen esaldiaren hiztuna adierazten badu.

Ordezkaketaren gramatikazko berezitasuna aukeraketa ezaugarrietan datza: ordainak klase jakin bateko formak ordezkatzeko ditu bakarrik, eta honi ordainaren eremua dei geniezaioke; honela, I "ni" ordainaren eremua, ingelesez, izen esapideen klasea du. Ordaina, thing "gauza", person "pertsona" edo object "gauzaki" bezalako hizkuntz forma arruntetatik bereizten da, bere eremua gramatikaren arabera zehatz daitekeelako. Thing "gauza", esanahi aldetik guztiz zabala den forma arrunta, honelako edo halako egoera praktikoa batean erabil daitekeen ala ez, esanahiaren araberrako kontua du; ordainaren kidetasuna, ordea, gramatikak erabakitzen du. Adibidez, edozeri eta edonori zuzentzen gatzazkiolarik ere, benetako edo balizko entzule hau izen esapide baten bidez aipa genetzake you "zu" ordainaren bitartez -eta honetarako ez du entzule hartu dugun pertsona, animalia, gauza edo asmoari buruzko inolako ezaugarri behar.

Ordainek bestelako berezitasunak azaltzen dituzte ere: hitz laburrak izan ohi dira, hizkuntza askotan indargabeak; sarritan, eredu gabeko inflexiobide eta eratoraketa darakuste (I: me:my), hala nola sintaxi eraikuntza bereziak. Hizkuntza askotan, forma lotu gisa ageri dira eta morfologia ezaugarrien bidez itxura daitezke, adibidez egitura-hurrenkeran duten lekuagatik.

13.2. Ordain ororen esanahiaren parte bat, ordezkaketan duen eremua den forma klasearen klase esanahia da. Adibidez, you "zu" ordainaren klase esanahia ingelesezko izen esapideen klase esanahia da; I "ni" ordainaren klase esanahia izen esapide singularrena da, eta they "haiak", we "gu" ordainen klase esanahia izen esapide pluralena da.

Ordain batzuek forma klasean agertzen ez den esanahi zehatzagoa gehitzen dute, baina kasu hauetan ere, ordain talde batek eremu osoa ordezkatzeko du sistematikoki. Honela, who "nor" eta what "zer" elkaturik, ingelesezko izen esapideen klasea besarkatzen du. Era berean, he, she eta it "hura (bizidun ar, bizidun eme, bizigabe)" elkarrekin, izen esapide singularren klase esanahia besarkatzen dute; talde horren barnean, he eta she ordainek who formaren azpierreku bera besarkatzen dute, eta it ordainak what formaren azpierreku, baina he eta she arteko banaketak areagoko zatiketa dakar. Gure ordainen aukeraketak, bada, pertsonazko (who eta he, she) eta pertsonaz besteko (what eta it) azpiklaseetan banatzen ditu ingelesezko izen esapideak, pertsonazko singularrak, ar (he ordaina) eta eme (she ordaina) azpiklaseetan banatzen dituelarik.

Klase esanahiaz gandi, ordain orok badu beste esanahi ale bat, ordezkatzeko mota, ordezkaketa gertatzeko bete behar diren baldintzak biltzen dituena. Honela, Ni ordainak, edozein izen esapide ordezkatzeko (eremu honek Ni formaren klase esanahia ematen digu), izen esapide hori Ni ahoskatzen den ahoskaldi guztietako hiztuna baldin bada; hauxe du Ni ordainaren ordezkatzeko mota. Ordezkaketa gertarazten duten baldintzak, praktikoa izan ohi dira, hots, hizkuntzalariak zehazki itxura ezin ditzakeenak. Zehazketetan sartzean, alde handiak azaltzen dira hizkuntzaz hizkuntza; hizkuntza arrotzaz mintzatzean, zailtasun handiak aurkitzen ditugu ordain egokiak erabiltzeko.

13.3. Hala eta guztiz ere, hizkuntzalaritzaren eremuaz at jo eta marezi du, une batez bada ere, soziologia edo psikologia ikerlariak gai honetan aurkitzen dituzten arazoei

begiratzeak. Berehala ikusten dugu ordezkatzeko mota ezberdinek hizkeragintzaren oinarritzeko egoerak itxuratzen dituztela. Ni, gu, eta zu-zuek ordezkatzeko motak hiztun-entzule harremanean oinarritzen dira. Hau, hemen, orain, eta hura, han, orduan motek hiztunagandik edota hiztuna eta entzuleagandiko urrunkera harremanak adierazten dituzte. Nor, zer, non, noiz galdetzaile motek entzuleari eragiten diote, hizkera forma bat eskaini dezan. Ezezeko motak (nobody, nothing, nowhere, never "inor/ezer/inon/inoiz ere ez") hizkera forma baten aukera ezeztatzen du. Mota hauek aipagarriki antzekoak eta hedatuak dira munduko hizkuntzetan (zehaztasunak salbu); euren artean, gizakiok beste edozeini baino berdintsuago erantzuten diegun egoera praktikokoak aurki genitzake - harreman zenbatzaile eta zeintzaileak, hala nola baiezeko-ezezekoak (all "guztia", some "batzuk", any "ezein", same "bera", other "beste"), eta, batik bat, zenbakiak, bat, bi, hiru, eta abar. Hona hemen zientziaren hizkuntzak oinarri hartzen dituen harremanak; adierazten dituzten hizkera formek osatzen dute matematikaren hizkuntza. Ordezkatzeko mota hauetariko askok sailekin eta banakoekin dute zerikusia: sail bateko izaki banakoak hautatu edo zeintzen dituzte (all "guztia", some "batzuk", any "ezein", each "bakoitz", every "oro", none "ezein ez", eta abar). Agian hizkuntza orok badu izaki adierazpidez osatutako forma klasea, klase esanahia nolabait "izaki banakoak dituen saila" duena. Ondoren, bada, izaki esapideen ordainek, izenordainek, ordezkatzeko mota ugariak erakutsi ohi dituzte. Ingelesezt, izaki esapideak hizkera atal berezia direlarik, izena alegia, izenaren ordainek hizkera atala osatzen dute, izenordainak alegia; elkaturik, klase bi hauek hizkera atal nagusiagoa osatzen dute, substantiboa alegia. Izenordainak izenetatik bereizten dira, adjektibo laguntzailerik onartzen ez dutelako (#10.4).

Zenbait ordezkatzeko-mota areago bereizten dira, ordezkatzeko duten forma hizketaldian aipatu berria izan behar duelako. Honela, Ask that policeman, and he will tell you "Polizia hari galdetu eta, berak esango dizu" esaten dugunean, he "bera" ordainak, beste gauza batzuen artean, ordezkatzeko duen singularreko ar izen esapidea lehenago ahozkatu dela esan nahi du. Esanahi hau duen ordaina anaforikoa edo mendekoa da, eta aipatu berria den forma ordezkaturik aitzindaria. Bereizketa hau, halere, ez dirudi inon guztiz betetzen denik: mendekoak izan ohi diren ordainen erabilera aitzindarigabeak aurkitu ohi ditugu, adibidez, it's raining "euria ari du" esaldiko it ordainaren erabilera aitzindarigabea. Ordain aitzindarigabeek ez dute aitzindaririk beraz: forma klasea aipatzen dute, eta zenbakizko edo zeinketazko ordezkatzeko mota landua darakuste - esaterako, somebody "norbait", nobody "inor ere ez"-, baina ez dute adierazten klaseko zein forma (zein izen zehazki) ordezkatu duten.

Oro har, beraz, ordezkatzeko motek hizkera esaten deneko egoeraren ezaugarri nagusiak biltzen dituzte. Ezaugarriak hain dira soilak non, gehien bat, keinuz adieraz baitaitezke: I, you, this, that, non, one, two, all "ni, zu, hau, hori, bat (ez), bi, dena", eta abar. "Hau" eta "hori" motako ordainak, batik bat, hizkuntzazkoak ez diren erantzunekin duten antzagatik, tartekaldiak dirudite; tartekaldiak bezala, beren hizkuntzako eredu fonetikotik aldentzen dira batzuetan (7.7). Klase esanahiaz kanpo, ordezkatzeko motak ordainaren esanahi osoa adierazten duenez, beldurrik gabe esan genezake ordainen esanahiak hizkuntz forma arrunten esanahiak baino biltzaileagoak eta abstraktuagoak direla batetik, eta bestetik soilagoak eta iraunkoragoak. Beren klase esanahian, ordainak forma arruntak baino urrats bat urrunago daude errealitate praktikotik, ez baitituzte benetako izakiak izendatzen, forma klaseak baino; ordainak, nolabait esateko, bigarren mailako hizkuntz formak ditugu. Beren ordezkatzeko motan, bestalde, ordainak hizkuntz forma arruntak baino oinarritzekoagoak dira, hizkera esaten deneko egoeraren ezaugarri soilak zeintzen dituztelako.

Ordezkatetaren baliagarritasun praktikoa errezki ikus daiteke. Ordaina, bere eremuko edozein forma baino sarriago erabiltzen da eta, ondorioz, ezagutzeko eta ahoskatzeko errazago da. Areago dena, ordainak forma laburrak izan ohi dira eta, maiz, ingelesez bezala, indargabeak, edo, frantsesez bezala, bestela moldatuak ahoskera arin eta errazetako. Ekonomia hau oztopo ez delarik, ordainek, sarri, forma zehatzagoek baino egokiago eta zuzenkiago jokatzen dute. Would you like some fine, fresh cantaloupes? "Nahi al zenituzke meloi on, fresko batzuk?" galderari, How much are cantaloupes? "Zenbatean dira meloiak?" erantzunak joera handiagoa izango du erantzunaren berandutze edo aberrazioaz ("gaizki ulertua") jarraitua izateko, How much are they? "Zenbatean dira?" erantzuna baino. Hau egia da, bereziki, Ni bezalako ordainetan, beren esanahia nahastezina baita, hiztunaren benetako izenaren aipamenak entzule askorentzat ezer esan nahiko ez lukeen bitartean.

13.4. Hizkuntzalaritzaren alorrera itzulirik, zertxobait ausartagoak izan gaitezke, gure ibilalditxoan ikusi dugunaz geroztik, ordainen esanahiak itxuratzean. Hizkuntza askotan, ordainen esanahiak beste forma batzuetan berragertzen direla ikusten dugu baita ere, esaterako ingelesezko adjektibo mugatzaileetan (#10.14).

You "zu" ordainaren esanahia honela itxura genezake:

A. Klase esanahia: "izaki edo izakiak", hots, substantibo esapideen forma klasearena bera.

B. Ordezkatze mota: "entzulea".

He "hura" ordainaren esanahia honela itxura daiteke:

A. Klase esanahiak:

1. Forma klaseen arabera zehaz daitezkeenak:

(a) singularreko substantibo esapideen forma klaseko bera, demagun "izaki bat";

(b) who, someone ordainek zehazten duten forma klaseko bera, demagun "pertsonazkoa";

2. Bestela itxuratu gabe dagoen forma klasea sortzea: he, singularreko pertsona izaki jakin batzuetarako erabiltzen da bakarrik (gainerakoak she formak ordezkatzen ditu), eta hauek, bada, "ar" klase esanahia duten azpiklasea osatzen dute;

B. Ordezkaketa motak:

1. Anafora: he ordainak, bere erabilera gehienetan, pertsona ar izaki banakoa izendatzen duen substantiboa aipatu berria izan dela adierazten du; he formak sail horretako banakoa ordezkatzen du: "aipatu berria";

2. Mugaketa: he ordainak, delako banakoa, aipaturiko saileko banakoen artetik bereiz daitekeela esan nahi du; esanahi atal hau, izen mugatuen sintaxi kategoriako bera dugu (#10.14), demagun "zeindua" esanaz itxura daitekeela.

13.5. Beren ordezkatze motan anafora baizik biltzen ez duten ordainak, ordain anaforikoak (soilak) dira: beren klase esanahiez gaindi (hizkuntza ezberdinetako gramatika forma klaseen arabera bereizten direnak, noski), ordezkatzen den forma (aitzindaria) lehenago aipatu dela adierazten dute bakarrik. Ingelesez, aditz jokatu esapideak, do, does, did formek ordezkatu ohi dituzte, adibidez Bill will misbehave just as John did "Bill gaizki portatuko da, Jon bezala". Hemen, aitzindaria misbehave da; beraz, ordezkatutako forma misbehaved da. Ingelesezko aditz paradigma gutxi batzuk, hala nola be, have, will, shall, can, may, must, ordezkaketa honen eremutik kanpo daude: Bill will be bad just as John was "Bill gaiztoa izango da, Jon zen bezala" (ez did). Izenak, ingelesez, atributu adjektibo batek laguntzen baditu, one formak ordezkatzen ditu, eta pluralean ones formak: I prefer a hard pencil to a soft one "nahiago dut lapitz gogorra, biguna baino", hard pencils to soft ones "lapitz gogorrak, bigunak baino". One izenordain anaforiko gisa erabiltze hau, klase arrakalaz bereizten da, one

hitzaren erabilera atributibo ugarietatik (#10.14), bereziki plurala ones sortzean. Ordezkaketa anaforiko honen zehaztasunez geroago arduratuko gara (#13.8-10).

As "bezala" eta than "baino" formek sarrera ematen dieten menpeko esaldietan, aditz jokatuarentzako bigarren anafora mota ageri zaigu ingelesez: ez dugu bakarrik Mary dances better than Jane does esaten, baizik baita ere Mary dances better than Jane "Marik Janek baino hobeto dantzatzen du". (As eta than formen ondotik) Egile batek (Jane) egile-ekintza esapidea (Jane dances) ordezkatzan duela esanaz deskriba genezake azken esaldia, edo bestela, zero ezaugarri bat, egile esapideari laguntzen dion aditz jokatuaren ordain anaforiko bezala agertzen dela. Beste zero ezaugarri anaforikoaren adibidea, ingelesez, to preposizioaren ondoko aditz jokatugabeen ordezkaketa dugu (adibidez, I haven't seen it, but I hope to "ez dut ikusi, baina [ikustea] espero dut"), eta baita to gabeko aditz jokatugabezko atributua hartzen duten aditz jokatuak (adibidez I'll come if I can "ahal badut etorriko naiz"). Era berean, be "izan" eta have "ukan" formen ondoko partizipioetarako zero-anafora dugu, adibidez You were running faster than I was "Zuk nik baino arinago lasterka egin duzu"; I haven't seen him, but Bill has "nik ez dut ikusi, baina Billek bai". Adjektiboaz lagundurik dauden izenen zero anafora izen neurgarrietan bakarrik gerta daiteke era askean ingelesez, adibidez I like sour milk better than fresh "esne mindua berria baino gehiago gustatzen zait". Beste izenetarako, one, ones anaforikoak darabiltzagu, zenbait adjektibo mugatzaileraren ondoren izan ezik. Ordezkaketa anaforiko mota batzuk hizkuntza guztietan gertatzen direla dirudien arren, bada zehaztasunetan alde handirik. Adibidez, one, ones formen erabilera ingelesaren berezitasuna da; antzeko egitura duten hizkuntza senideek zero anafora erabili ohi dute sarri adjektiboen ondotik, adibidez alemanierazko grosse Hunde und kleine "txakur handiak eta txikiak"; frantsesak des grandes pommes et des petites "sagar handi eta txikiak". Hizkuntza batzuetan, perpaus bete-motako subjektuak zero anaforaz ordezkatu daitezke; honela, txineraz, [wo³ 'jun⁴ i² khawj 'pu⁴] "ehun zati bat behar dut" bezalako baieztapen bati, ['jun⁴ i⁴ 'phi¹ mo?] "ehun bilgo bat behar al?" erantzun dakioke. Tagalogeraz, menpeko esaldietan gertatzen da hau, adibidez [an 'pu:nu? aj tu'mu:bu? han'gan sa mag'bu:na] "zuhaitza, fruitua eman arte hasi zen".

13.6. Agian hizkuntza guztiek erabiltzen dituzte anafora eta zeinketa mugatua konbinatzen dituzten izenordainak: ordezkaturako forma, aitzindariak aipaturako saileko banako zeindua da. Hauxe da, ikusi dugunez, ingelesezko he izenordainaren balioa, adibidez Ask a policeman, and he will tell you "Polizia bati galdetu eta, berak esango dizu". Honelako ordainak, sarri asko, desegokia den arren, "anaforiko" deitu ohi dira; mugatuak egokiago litzateke. Hizkuntza gehienetan, ingelesa barne, ordain mugatuak ez dira aitzindaria hitzuna edo entzulea direnean erabiltzen, ez eta bietako edozein biltzen dituenean ere; honengatik, ordain mugatuak hirugarren-pertsonako ordainak direla esan ohi da. Hitzunari eta entzuleari dagozkion ordainekin ezaugarri komunak dituzte.

Ingeleseko hirugarren pertsonako izenordain mugatuak, he, she, it, they, ordezkaturako singularreko eta pluraleko formetarako bereizten dira, eta singularrean, pertsonako eta pertsonaz besteko aitzindarietarako: pertsonako he, she, pertsonaz besteko it. Singularra eta pluralaren arteko bereizketa hau hizkuntzak bestela ere ager dezakeela ikusi dugu (adibidez, izenen jokabidean: boy, boys), eta ikusiko dugunez, gauza bera gertatzen da pertsona eta pertsonaz besteko bereizketarekin. Pertsona klasearen barnean, ordea, aitzindari arrentzat he eta aitzindari emeentzat she formen erabilera ez da bete-betean bereizten ingelesez (adibidez, -ess atzizkiaren erabileran #12.7). He eta she izenordainen arteko bereizketak, bada, ar (ordain mugatutzat he duten horiek) eta eme (ordain mugatutzat she dutenak) arteko sailkapena sortzen du gure pertsona izenen artean. Semantikoki, sailkapen honek badu neurri baterainoko adostasuna sexuen arteko banaketa zoologikoarekin.

Izen generoak dituzten hizkuntzetan (#12.7), hirugarren pertsonako izenordainak aitzindariaren generoaren arabera ezberdintzen dira. Honela, alemanieraz, der Mann "gizona" der Hut "kapela" bezalako izen maskulinoek, er hirugarren pertsonako ordaina dute, esaterako er ist grosz "hura handia da", gizon edo txapel bati buruz esan daiteke, edota adostasun klase "maskulinokoa" den beste edozein aitzindariri buruz.

"Emakumea", die Uhr "erlojua" bezalako izen femeninoek hirugarren pertsonako sie ordaina dute, Die Frau adibidez sie ist grosz "hura handia da".

Das Haus "the house", das Weib "emakumea" bezalako izen neutroek es dute hirugarren pertsonako ordaintzat, adibidez es ist grosz "hura handia da".

Bereizkuntza hau, ingelesezko she, he ez bezala, izen laguntzaileen bereizkuntzarekin batera dator (hala nola der: die: das).

Zeinketa mugatuaren esanahia -hots, izaki banakoa aitzindariak izendatzen duen sailekoen artetik nola ezagutzen den-, aldatu egiten da hizkuntzaz hizkuntza, eta ziurrenik, oso zaila litzateke zer den zehaztea. Ohar bedi baina, garrantzitsua baita, izen laguntzaile "mugatuak" kategoria duten hizkuntzetan (adibidez ingelesezko the, this, that, my, John's, eta abar) izenordain mugatuak, laguntzaile mugatuak bere izen burua zeintzen duen era berean zeintzen duela izaki banakoa; honela, bada, policeman ondoko he izenordainak, the policeman esaldiaren denotazio bera du, ordainaren erabilerak dakarren balio berezia salbu. Berezitasun gutxi batzuk aipatu beharko genituzke bakarrik; adibidez, ingelesez sarriegi gertatzen ez den izenordain mugatua aitzindariaren aurretik esateko ohitura: He is foolish who says so "hori dioena leloa da". Aitzindaria predikatuzko osagarria bada, to be "izan" aditzaren ondotik datorrena, izenordain mugatua it izan ohi da, zenbaki, pertsona edo generoa gora-behera: it was a two-storey house "bi pisuko etxea zen"; it's he "hura da", it's me "neu naiz"; it's the boys "mutilak dira". Esaldi jokatugabea subjektu gisa erabili beharrean (to scold the boys was foolish "mutilei errietan egitea tontakeria zen"), sarriago it jartzen dugu, esaldi jokatugabeak parataxi estuan jarrai diezaioke (#10.2): it was foolish to scold the boys. Egile eta ekintza esaldi batek, adibidez you can't come "ezin zaitezke etorri", ezin dezake egile lana egin; baina it egileztat jarritz gero, parataxi hestuan jarrai dezake: it's too bad you can't come home "pena da ezin zaitezkeela etxera etorri". Izenordainaren aurretiazko erabilera hau alemanierara zabaltzen da, ia egile guztietara, izenordainak lehenengo lekuan agertu behar duelako baldintzagatik; honela, bada, ein Mann kam in den Garten "gizon bat baratzerara etorri zen" esaldiaren ondoan, bada es kam ein Mann in den Garten "etorri zen gizon bat baratzerara", zeinean es izenordainaren erabilerak ingelesezko there aditz laguntzailearen antza baitu. Parataxian jarraitzen zaion izena plurala bada, alemanierazko es forma pluralezko aditzarekin agertzen da: zwei Männer kamen in den Garten "gizon bi etorri ziren baratzerara", eta bada es kamen zwei Männer in den Garten forma ere.

Frantsesez, izenordain mugatuak adjektiboa ordezkatzeko du: êtes-vous heureux? -je le suis "zoriontsua zara? -Bai (naiz)". Honetatik urrats bat areago, aitzindarigabeko izenordain mugatuak aurki genitzake bazterreko erabileretan, hala nola kale-ingelesezko beat it "hanka hemendik; cheese it "begira, kontuz", he hoot-footed home "etxera laster egin zuen". They forma jendea orokorrean ordezkatzeko erabili ohi dugu: they say Smith is doing very well "Smith ongi dabilela esaten dute". Hauetarik guztietatik arruntena, izenordain mugatua egile formal hutsezko erabilera sasi-inpertsonala dugu, egile eta ekintza eraikuntza gogokotzat duten hizkuntzetan: it's raining "euria ari du"; it's a shame "lotsagarria da". Benetako eraikuntza pertsonalen ondoan ager daitezke hauek (#9.2). Honela, alemanieraz, mir war kalt "hotz zitzaidan, hotz nintzen", hier wird getanzt "hemen dantzatzeko da, bada dantzarik hemen" egiazko inpertsonalen ondoan, es izenordain mugatua ager daiteke egileztat, esaldiaren lehenengo lekuan

agertzen bada: er war mir kalt; es wird hier getanzt. Finlanderaz, inbertsonala eta sasi-inbertsonala esanahi ezberdinetarako erabiltzen dira: puhutaan "hitz egiten da" benetako inbertsonala da, baina sadaa "euria ari du" esaldiak egile ordain mugatua dauka, "hura", puhuu "hitz egiten du" esaldiak bezala.

13.7. Hizkuntza gehienetan, ordain mugatuak ez dira erabiltzen hiztuna edo entzulea, edota hauek biltzen dituzten pertsona taldea ordezkatzeko; kasu honetan, beste mota bat, pertsonako ordaina erabiltzen da. Lehenengo pertsonako ordainak, I "ni", hiztuna ordezkatzeko du, eta bigarren pertsonako ordainak, thou "hi", entzulea. Hauek ordain bereziak ditugu, ordezkatzeko formaren aurretiazko ahoskaketarik behar ez dutenak.

I "ni" eta thou "hi" ordainen ondoan, hizkuntza gehienek hiztuna edo entzulea edo biak biltzen dituzten pertsona-taldeentzako ordain formak dituzte. Honela, ingelesez, hiztuna biltzen duen pertsona talderako, ordaina we "gu" dugu; hiztuna izan ezik entzulea biltzen badu, ordaina ye "zuek" da. Hizkuntza askok hauetariko hiru aukerak bereizten dituzte; adibidez, tagalogerak [a'ku] "ni", [i'kaw] "hi" izernordainez gain, baditu ondoko plural formak:

hiztuna bakarrik biltzen duena (pluraleko lehenengo pertsona kanporatzailea): [ka'mi] "gu",

hiztuna eta entzulea bildurik (pluraleko lehenengo pertsona biltzailea): ['ta:ju] "gu", entzulea bakarrik bildurik (pluraleko bigarren pertsona): [ka'ju] "zuek".

Era berean, zenbaki duala bereizten duten hizkuntzek bost aukera onartzen dituzte, samoeraz bezala: "ni-eta-hura", "ni-eta- hi", "zuok-biok", "ni-eta-haiek", "ni-eta-hi-eta-hura (-edo- haiek)", "hi-eta-haiek". Hizkuntza gutxi batzuek zenbaki trialak bereizten dute ere ("hiru pertsona"), pertsona izenordainetan.

Ingeleseko thou "hi", ye "zuek", zaharkituak dira, noski; egungo ingelesa, you forma bai entzulearentzat "zu" eta baita entzulea biltzen duen pertsona talderako "zuek" erabiltzean bereizten da.

Hizkuntza asko, hiztun eta entzulearen arteko gizarte harreman ezberdinen arabera bigarren pertsonako ordain ezberdinak darabiltzate. Honela, frantsesak vous "zu" erabiltzen du ingeleseko you bezala, singular eta pluralerako, baina entzulea senitarte hurbila, adiskide mina, ume gaztea edo gizakia ez den izakia (jainkoa adibidez) bada, hurbileko forma singular berezi bat darabil, toi "hi" alegia. Alemanierak "haiek" pluraleko hirugarren pertsonako izenordaina darabil, singular eta pluraleko bigarren pertsonarako: Sie spaszen, "keinuka ari dira" edo "keinuka ari zara/zarete" izan daiteke, baina hurbileko formak, frantseseakoarena bezala erabiltzen denak, singularra eta plurala bereizten ditu: du spasdest "hi keinuka ari haiz", ihr spazst "zuek keinuka ari zarete".

Bigarren pertsonako ordainaren esanahia, begirunezko hizkeran ezin erabiliak mugatzen du hizkuntza batzuetan; horren ordezkari, entzulea begirunezko aipamen batez izentzen da (your Honor, your Excellency, your Majesty [euskaraz berori erabiltzen den erara]). Suedieraz edo polonieraz, honela esaten da adibidez: "Nola dabil ama?" edo "etorriko al da berori bihar?", non azpimarraturiko hitzek entzulea izendatzen baitute. Japoniera eta malaiera bezalako hizkuntza batzuek lehenengo eta bigarren pertsonerako hainbat ordain bereizten dituzte, hiztuna eta entzulearen arteko begirunezko harremanen arabera.

Pertsonako ordainak eta ordain mugatuak ("hirugarren pertsonakoak"), hizkuntza askotan, ordain pertsonal mugatu sistema hertsiki batean taldekatzen dira, ezaugarri komun bidez. Ingeleseko, he, she, it, they eta I, we, you, (thou, ye) talde biak, indargabeak dira esaldian; gehienek akusatiboaren forma berezia dute (me, us, him, her, them, thee); gehienek ere duz kanpo eratorritzen dituzte beren jabetzako adjektiboak (my, our, your, his, her, their, thy), eta adjektibo hauetarik zenbaitzuek forma berezia

agertzen dute zero anaforan (mine eta abar (#13.5). Frantsesez, pertsona izenordain mugatuek forma bereziak (konjuntuak) dituzte aditzen egile edo osagarri direnean (#10.12); leku ezberdinetarako kasu-inflexioa daramate, hau arrotz zaielarik gainerako frantsesezko izenei; areago, jabetzazko adjektiboen oinarri dira, adibidez moi "ni", mon chapeau "nire txapela", gainerako substantiboek horrelakorik egiten ez dutelarik: le chapeau de Jean "Jonen txapela". Sarri asko, pertsonako ordain mugatuek sintaxi eraikuntza bereziak ageri dituzte. Honela, ingelesez, alemanieraz eta frantsesez, aditz jokatuak adostasun forma ezberdinak ditu egile pertsona ezberdinetarako: I am "ni naiz": thou art "hi haiz": he is "hura da"; frantsesez nous savons; "guk dakigu", vous savez "zuek dakizue", elles savent "haiek (femeninoa) dakite", ils savent "haiek (maskulinoa) dakite".

Izenordain pertsonal mugatuek egitura arras sistematikoa izan dezakete. Honela, algonkiar hizkuntzetan, hasierako ke- alea agertzen da entzulea biltzen duten formetan; entzulea biltzen ez dutenetan, ne- aleak hiztuna adierazten du; bietariko ezein agertzen ez bada, hasiera we- da, adibidez menominieraz:

[kenah] "hi" [kena?] "gu (biltzailea)" [kenua?] "zuek"

[nenah] "ni" [nena?] "gu (kanporatzailea)"

[wenah] "hura" [wenua?] "haiek"

Samoerak, zenbaki duala eta plurala bereizten dituelarik, ondokoak ditu:

[a?u] "ni" [ima:ua] "gu biok" (kanpor.) [ima:tou] "gu (kanpor.)"

[ita:ua] "gu biok" (biltz.) [ita:tou] "gu (biltz.)"

[?oe] "hi" [?oulua] "zuok biok" [?outou] "zuok"

[ia] "hura" [ila:ua] "haiek biak" [ila:tou] "haiek"

Anatom irlako (melanesiar) hizkuntzan, dual-trial-plural bereizketa egiten da:

[ainjak] "ni" [aijumrau] "gu biok (kanpor.)", [aijumtai] "gu hirurok (kanpor.)", aijama "gu (kanpor.)",

[akaijau] "gu biok (biltz.)", [akataij] "gu hirurok (biltz.)", [akaija] "gu (biltz.)",

[aiek] "hi", [aijaurau] "zuek biok", [aijautaij] "zuek hirurok", [aijaua] "zuek",

[aien] "hura", [arau] "haiek biak", [ahtaij] "haiek hirurak", [ara] "haiek".

Hizkuntza askotan, ordain pertsonal-mugatuak forma lotu bezala agertzen dira. Honela, latinak mugatu pertsonal egileak edo osagarriak ageri ditu aditz jokatuan:

amo— "maite dut", ama—s "maite duk/n", amat "maite du", ama— mus "maite dugu", ama—tis "maite duzue", amant "maite dute",

amor "maitatua naiz", ama—ris "maitatua haiz", ama—tur "maitatua da", ama—mur "maitatuak gara", ama—mini— "maitatuak zarete", amantur "maitatuak dira".

Hizkuntza batzuek, era berean, egilea eta osagarria biltzen dituzte, adibidez Kree:

[nisa:kihaw] "maite dut", [nisa:kiha:wak] "maite ditut", [kisa:kiha:w] "maite duk/n",

[nisa:kihik] "maite nau", [nisa:kihikuna:n] "maite gaitu (kanpor.)", [kisa:kihitina:n]

"maite haugu", [kisa:kihitin] "maite hau", eta abar, paradigma luze batean zehar.

Era berean, Kreez, gauzaki baten jabea forma lotuan agertzen da: [nitastutin] "nire txapela", [kitastutin] "hire txapela", [utastutin] "bere txapela", eta abar. Kasu hauetan, guztietan hirugarren pertsonako forma lotuak beste aitzindari batetiko erreferentzia gurutzatua izan dezake: latinezko pater amat, "aitak maite du" (#10.9).

Sistema pertsonal mugatua are landuagoa izan daiteke, identitate eta identitate eza bereiztasunak gehituz, hala nola me "ni" eta myself "neure burua" formen artekoa, bigarrenak egilearekiko identitatea adierazten duelarik (I washed myself "neure burua garbitu dut; garbitu naiz" #10.8), edo eskandinabierazko hans "beraren", eta sin "bere". Ezberdintasun hauek forma lotuetan ager daitezke baita ere, algokierazko forma saiheskarietan adibidez (#10.8); era berean, grekera zaharrak, [elowse] "garbitu zuen"

bezalako egile forma lotu arruntaz gaindi, bazituen erdiko-ahotseko formak, non egilea, ekintza jasaten duena baita: [e'lowsato] "garbitu zen".

Bestelako bereizketak ez dira hain arruntak; honela bada, Kree hizkuntzak, [ninituma:w] "deitzen diot" bezalako egile eta osagarri aditz formez gaindi, eta [ninitutamawa:w] "eskatzen diot" bezalako egile eta osagarri bidun formez gaindi, badu egile, osagarri eta ekintzan interesa duen pertsona biltzen dituen formarik, adibidez [ninitutamwa:n] "berari dagokionez eskatu dut", hots, "berak erabil dezan" edo "bere eskariz".

13.8. Ordezkatze mota deiktiko edo erakusleak hiztuna edo entzulearekiko hurbiltasun neurrian oinarritzen dira. Ingelesezt, horrelako mota bi ditugu, hurbilagorako eta urrunagorako; this "hau" eta that "hori" adjektibo mugatzaileen balioaren hedadura bera dute (#10.4). Ordain erakusleak aitzindariaren arabekoak (hots, saila izendatzen duen hizkera atal atzindari bat aipa dezakete anaforikoki) edo bereziak izan daitezke. Kasu bietan, halere, (aipatu edo aipatugabeko) saileko izaki banakoa zeintzen dute. Izenordain erakusleen ordezkaketa, ingelesez, this (these), that, (those) "hau(ek), hori(ek)" izenordainen bidez egiten da. Izenordainok klase arrakalagatik bereizten dira adjektibo mugatzaileetatik, edota adjektibo mugatzaile hauek gehi one anaforikoaz osatutako esaldiengatik (#13.5). Forma hauek ez dira pertsona izenak ordezkatzeko erabili ohi -zeren aurretiazko erabilera, This is my brother "hau nire anaia da", these are my brothers "hauek nire anaiak dira" alegia, ezin baitaiteke pertsonaltzat hartu. Singularrean, aitzindari arabeko ordainak this one "hau", that one "hori" ditugu, eta bereziak this "hau", that "hori"; beraz, badugu hurrengo bereizkuntza: of these books, I like this one better than that one "liburuotatik, hau beste hori baino gehiago gustatzen zait", baina aipatugabeko izakiez I like this better than that "hau beste hori baino gehiago gustatzen zait". Pluralean, aldiz, these "hauek" eta those "horiek", ones anaforikoa gabe erabiltzen dira.

Frantsesez, banaketa gehiago nabarmen ditzakegu. Hiru mugaketa eta ordezkaketa erakusle mota ditugu: mota nagusia, bere baitan mota berezi bi banatzen direlarik, hurbilerako ci eta urrunerako là adizlagunak gehituaz. Adjektibo mugatzaileak, aitzindari arabeko izenordainak eta izenordain bereziak forma ezberdinak agertzen dituzte:

Adektiboa Aitzindari raberako Izenordain

izenordaina berezia

singularra ce

maskulinoa ce celui

femeninoa cette celle

plurala

maskulinoa ces ceux

femeninoa ces celles

Beraz: cette plume-ci "idazluma hau", des ces deux plumes je préfère celle-ci á celle-là "idazluma bi hauetatik, nahiago dut hau beste hori baino"; baina, aipatugabeko izakiez, je préfère ceci à cela "nahiago dut hau hori baino". Ci eta là gabeko izenordainak eraikuntza jakin batzuetara mugaturik daude: de ceus plumes, je préfère celle que vous avez "idazluma bi hauetatik, zuk duzun hori nahiago dut"; izenordain berezietan: c'est assez "nahikoa da".

Ordezkaketa erakusle motak ez dira beti mugatuetatik guztiz ezberdinak eta, era berean, laguntzaile mugatzaile erakusleak "-a" motako markatzaile mugatuekin bil daitezke. Alemanieraz, dialekto batek baino gehiagok, paradigma bakarra du, eta bertako formak artikulua mugatuak dira aurrizki gisa erabiltzen direnean, der Mann [der 'man] "gizona", eta indarra dutenean, adjektibo mugatzaile erakusleak, der Mann ['de:r 'man] "gizon hura", edota izenordainak der ['de:r] "hura". Azken erabilera hau, alemanieraz, er

izenordain mugatuarenaren guztiz antzekoa da; alde nagusiena, agian, perpaus parataktiko bete biko bigarrenen der (eta ez er) erabiltzean datza: es war einmal ein Mann, der hatte drei Söhne "bazeen gizon bat, harek hiru seme zituen".

Hizkuntza askok ordezkaketa erakusle motak bereizten dituzte; honela, ingelesezko hainbat dialektok yon gehitzen diote this eta that banaketari, urrunago dauden izakietarako. Latinak hic zeukan hiztunagandik hurbilen zeuden gauzetarako, iste entzuleagandik hurbilen zeudenetarako; eta ille urrun zeudenetarako. Kwakiutl hizkuntzak banaketa bera egiten du, baina kopurua bikoizturik, "begi bistan dagoena" eta "begi bistan ez dagoena" bereiziz baita ere. Kreerak, awa "hau", ana "hori" eta ooja "lehenago begibistan zegoena baina orain ikusten ez dena" dauzka. Eskimoerak serie osoa du: manna "hau", anna "iparlean den hori", qanna "hegoan den hori", panna, "ekialdean den hori", kanna "hor behean den hori", sanna "itsasaldean den hori", inna "hura", eta abar.

Izendordainetatik kanpo, adizlagun formak ere baditugu, here "hemen", there "hor", hither "honaino": thither "horraino", hence "hemendik": thence "hortik", now "orain": then "orduan", th-forma hauek, alabaina, batu egiten dira erabilera anaforikoan, esaterako Going to the circus? I'm going there too, "Zirkora al zoaz? Ni ere hara noa". Era berean, so "honela" (eta zaharkituriko thus "honela" baita ere) erakuslea eta are maizago anaforikoa dugu (I hope to do so "honela egingo dudala espero dut"). Hizkuntz forma arrunt eta ordainen muga, (do it) this way "modu honetara (egin)", this sort (of thing) "honetako (gauza)", this kind (of thing) "(gauza) mota hau" esapideak dauzkagu.

13.9. Ordain galdetzaileek izaki banakoaren zeinketa edo sailaz erantzun dezan eragiten diote entzuleari; ingelesez, bada, ordain galdetzaileak osagai galderetan agertzen dira bakarrik. Izenordainetan, who? "nor" berezia dugu (akusatiboan whom?) pertsona kasuetarako, eta what? "zer" pertsonaz bestelakoetarako; saila eta izaki banakoari buruz galdetzen dute hauek. Pertsonaz bestelakoetarako bakarrik, which? "zein" berezia ere badugu, eremu murriztu batetik izaki banakoa zeintzea eskatzen duena, saila eskatu gabe. Aitzindariaren araberrakoak diren ordainak, eremu mugatu batetik izaki banakoa zeintzea eskatzen dutenak, which one? eta which ones? "zein, zeintzu" ditugu.

Izenordainetatik at, baditugu where? "non", whither? "noraino", whence? "noiztik", when? "noiz", how? "nola", why? "zergatik". Zenbait hizkuntzatan, aditzordain galdetzaileak azaltzen dira, adibidez menominieraz, weseekew "zein motatakoa da bera?".

Forma galdetzaileak sintaxi leku jakin batzuetara mugaturik egotea guztiz arrunta da. Sarri asko, perpaus bikunetako predikatu lekuetara murrizturik aurkitzen ditugu. Honetakoak ditugu who are they? "nortzuk dira haiek?" eta what are those things? zer dira gauza horiek?" adibideetako pluraleko aditza eta hitz hurrenkera ezaugarriak. Egungo frantsesez, pertsonaz bestelakoa den quoi? "zer" ez da ia inoiz egile edo osagarri gisa erabiltzen, eta horren ordeztu, predikatu osagarri gisa agertu ohi da, que forma konjuntuan, adibidez qu'est-ce que c'est? "zer da (hau den) hau?" eta qu'est-ce qu'il a vu? "zer da hark ikusi duena?", "zer ikusi du?". Zenbait hizkuntzatan, ordain galdetzaileak perpaus berdintzaileetako predikatuak dira beti, adibidez tagalogeraz, ['si:nu an nagbi'gaj sa i'juç] "nor da zuri eman dizuna?", hots, "nork eman dizu?", edo menominieraz [awe: p? :muhn? tç] "nor da hemendik dabilena?" "nor dabil hemendik?".

13.10. Sail batetik izaki banakoak hautatzeko aukera anitzak denetariko ordain formetan gauzatzen dira, batez ere izenordainen eremuan. Ingelesezt, era honetako forma gehientsuak adjektibo mugatzailea eta one, ones "bat(zuk)" formen erabilera anaforikoaz osatzen dira (13.5), edota hitzon erabilera sustantiboaz ere, klase arrakalaz.

Badira hainbat bereizketa, ez beti erarik zehatzenean antolaturik, aitzindari-araberako ordezkaketa eta ordezkaketa bereziaren artean, eta azken honen baitan, pertsonako eta pertsonaz bestelako formen artean. Adjektibo mugatzaileak ezberdindu egiten dira jokabidearen aldetik; alde hauek beren arteko sailkapen irizpide berria zabaltzen dute (10.14).

(1) Adjektibo mugatzaile batzuek, adjektibo arruntak legez, one edo ones "bat(zu)k" formak ageri dituzte jarraian, ordain anaforikoak eratzean. Ikusi dugunez, honela gertatzen da this eta that singularretan eta, zenbait baldintzapetan, which? "zein" eta what? "zer" galdetzaileetan ere. Honela gertatzen da ere, each, every, whatever, whichever formetan, eta many a "asko", such a "holako (a)", what a "zelako (a)". Beraz, he was pleased with the children and he gave each one a penny "pozik zegoen umeeekin eta bakoitzari penike bat eman zion" esan ohi dugu. Ordain berezi gisa, this, that, which, what, whichever, whatever darabiltzagu pertsonaz bestelako izakietarako; every "guztia" formaren ondoan, everybody, everyone "(jende) guztia" pertsonakoak dauzkagu eta, pertsonaz bestelakoetarako everything "gauza guztiak"; each "bakoitz" ordainak ez du forma berezirik.

(2) either "zeinahi, edo(zein)", former "lehen", latter, last "azken", neither "ezein ez", other "beste", such "(ha)lako" formetan eta first "lehenengo", second "bigarren" eta gainerako zenbakarrietan ere, izenordain erabilera soila edota one, ones anaforikoekiko konbinaketa dauzkagu aukeran. Aldaerak zertxobait bereizten dira konotazioaren aldetik. Honela, Here are the books; take either (one) "hona liburuak; har edozein" esan ohi dugu. Other "beste" formak azpiklase berezia osatzen du, others plurala duen aldetik: You keep this book and I'll take the others (the other ones) "zuk gorde liburu hau eta nik besteak hartuko ditut". Erabilera bereziak, forma hauek pertsonaz bestelako izakietarako izan ohi dira batik bat.

(3) Gainerako adjektibo mugatzaileak one, ones anaforikorik hartzen ez dutelako bereizten dira. Honela, bada, here are the books; take one (two, three, any, both, all, a few, some "hona liburuak, har bat (bi, hiru, zeinahi, biak, guztiak, gutxi batzuk, batzuk", eta abar esan ohi dugu. Ordain bereziek aniztasun handia darakuste. Honela, all "oro, dena" pertsonaz bestelakoetarako erabil daiteke: All is not lost "oro ez da galdu"; That's all "hori da dena". Bestalde, one, indargabea denean, pertsonakoa da: one hardly knows what to say "batek ez daki zer esan ere". Askok, erabilera berezira elkartuak sortzen dituzte, hala nola somebody, someone "norbait, nor edo nor", anybody, anyone "inor, edonor" pertsonakoak, edo something "zerbait, zer edo zer", anything "ezer, edozer" pertsonaz bestelakoak.

(4) Adjektibo mugatzaile askok, jokabide guztiz bitxia darakuste. The artikuluak, one, ones anaforikoarekin batera, aitzindari araberako ordaina eratzen du, bestelako laguntzailerik jarraikitzen baldin bazaio: the one(s) on the table "mahai gaineakoa(k)"; bestela, ez da ordain erabileran agertzen, eta izenordain mugatua erabiltzen da haren ordeiz. Adjektibo batekin konbinaturiko a artikuluak ez dio haren jokabideari eraginik egiten: many a one "asko", another one "beste bat". Bestela, a artikulua not a one "bat ere ez" forma enfatikoan bakarrik agertzen zaigu one anaforikoari loturik. Gainerakoetan, hauexek ditugu one formak a ordezkatzeko dituen kasuak: to take an apple "sagar bat hartzea" esapidetari, take one "hartu bat" izenordainkia dagokio. No "ez" determinatzailea, aitzindariaren araberakoa den none "ezein ez" ordainean aurkitzen dugu, baina normalean, not eta any konbinaketa erabili ohi dugu (I didn't see any "ez nuen bat ere ikusi"); ordain bereziak, nobody, noone "inor ere ez", nothing (forma zaharkitua naught) "ezer ere ez" elkartuak ditugu.

Ordezkatze mota hauen ondoan, ezeztapena hizkuntza guztietan gauzatzen da, noski, eta sarritan berezitasun bitxiak erakutsi ohi ditu; talde honi dagozkio baita, nowhere "inon

ez", never "inoiz ez" izenordainkiak ez direnak, hala nola kale hizkerako nohow "inola ez". Hizkuntza askotan, eta ingelesezko estandar azpiko forma gehienetan, ordain hauek ezezko adizlagun orokorrekin batera agertzen dira: I can't see nothing "ezin dezaket ezer ikusi". Zenbakariak ere (guzti, bat, bi, hiru eta abar), unibertsalak dirudite. Aukeratzaileri dagokienez, baina, bada aldaketarik nahikoa; badira ingelesez itxura ezinezkoak diren banaketak erakusten dituzten hizkuntzak. Honela, errusierazko [ne-xto] "bat edo bat" formak hiztuna izaki banakoa zeintzeko gauza dela (baina zeintzen ez duela) adierazten du ("bat edo batek esan zidan lehengo egunean..."), baina [xto-ni-but] formak ez du honelako gaitasunik adierazten ("norbait dago atean"). Bada beste mota bat ere, [koj- xto], zeinak txanda ezberdinetan izaki banako ezberdina aukeratzen dela adierazten baitu ("lantzean behin bat edo beste saiatzen da").

13.11. Ordainak, maiz, sintaxi eraikuntza bereziei loturik agertzen dira; honela, ordain galdetzaileak, ingelesez eta beste hizkuntza askotan ere, perpausoko leku jakin batzuetara murrizturik daudela ikusi dugu. Hizkuntza batzuek izenordain bereziak dituzte erabilera predikatzaileetarako. Honela, menominiz, nenah "ni", enuh "hura (biziduna)", eneh "hura (bizigabea)" ordainen ondoan, badira predikapenetan bakarrik ager daitezkeen formak; ordain arrunta agertzen zaigu kehkeenam "badaki hori" esaldian, baina forma predikatzailea ene keehkenah "dakien hori" dugu. Forma predikatzaile hauek aditzak jasaten dituen aldaketa berak erakusten dituzte, hala nola galdetzailea enetkeehkenah? "hori da dakiena?", edo agerikoari buruzko harridura enesa keehkenah! "beraz hori da dakiena!", eta abar.

Gure erlatibozko ordainak, unibertsalak ez izan arren oso zabaldurik dagoen motakoak dira: ordainak, agertzen den esaldia forma bildua (edo osagarria) dela adierazten du. Ingelesezt, esaldiak perpaus bete egitura gogokoena agertzen du (egile eta ekintza eraikuntza alegia), eta erlatibozko ordainak perpaus osoa ez dela adierazten digu. Gure erlatiboak who (whom), which, where, when, that, beste ordainetatik bereizten dira klase arrakalaz. Eurak, edo beren esaldia, perpausaren hasieran agertzen dira. Badugu, lehenik, mota anaforikoa, that, eta pertsonako who, pertsonaz bestelakoetarako which: the boy who (that) run away "ihes egin zuen mutila", the book which (that) he read "berak irakurri zuen liburua"; the house in which he lived "bera bizi zen etxea". Erlatibozko ordainak aditzaren, preposizioaren edo predikatuaren osagarri lekua hartzen badu esaldian, badugu zero ordainik ere: the man I saw "ikusi nuen gizona", the house I lived in "bizi nintzen etxea", the hero he was "hura zen heroia". Hizkera arruntan, ingelesezko erlatibozko perpausok aitzindari banakoa zeintzen dute; maila dotoreagoetan, baditugu zeintzaileak ez diren erlatibozko perpausak ere, perpaus doinualdi parataktikoa ageri dutenak: the man, who was carrying a big bag, came up to the gate "gizona, (zeinak) pardel handi bat garraiatzen baitzuen, atera etorri zen".

Kasu formak dituzten hizkuntzetan, erlatibozko izenordainaren kasua, bera dagoen esaldiko formek erabaki ohi dute: I saw the boy who run away "ihes egin zuen mutila ikusi nuen"; the boy whom I saw run away "ikusi nuen mutilak ihes egin zuen". Latinez, forma arrunta in ha-c vi-ta- quam nunc ego de-go- "orain bizi dudana bizitza honetan" litzateke, non aitzindaria, vi-ta-, kasu ablatiboan agertzen baita (in preposizioaren ardatza izanik), eta erlatibozko izenordaina, quam "zeina", kasu akusatiboan, de-go- aditzaren osagarria delako. Alabaina, inflexio landuak dituzten hizkuntzetan, lantzean behin, berez aitzindariari dagokion inflexio formaranzko erakarpena darakuste erlatibozko izenordainek: latinezko vi-ta- in ha-c qua- nunc ego de-go-, goiko forma arruntaren denotazio bera duenak, qua- erlatibozko izenordaina ablatiboan agertzen du, aitzindariarekiko komunztaduraz, berari esaldian dagokion akusatiboaren ordezt.

Erlatibozko ordain bereziek, aitzindaririk ez dutenez, perpausari saila zeintzen uzten diote: take what(ever) you want "har ezazu nahi duzuna"; ask whom(ever) you like "galde ezaiozu nahi duzunari"; whoever says so is mistaken "hori dioena oker dabil". Ingelesez, perpaus hauek perpaus bete baten laguntzaile parataktiko gisa erabili ohi dira orobat: whatever he says, I don't believe him "esaten duena esaten duela, nik ez diot sinesten". Aitzindariaren araberrako bereizkuntza bera ageri zaigu adizlagunezko ordainetan: aitzindariaren araberrakoa, the time (when) he did it "hark hura egin zuen garaia"; the house where we lived "gu bizi ginen etxea; berezia", we'll see him when he gets here "hona datorrenean ikusiko dugu"; we visit them whenever we can "ahal dugun guztietan bisitatzen ditugu"; we take them where(ver) we find them "aurkitzen ditugun (leku) guztietan hartzen ditugu".

Oharrak

13.6. Pertsonaz besteko motetarako, eta sasi-inpertsoneletarako bibliografia: Ljunggren.

13.7. Annatom irla: F. Müller 2.2.73.

FORMA MOTAK

ETA LEXIKOIA

14.1. Hizkuntz zeinugintzaren ezaugarri esanahitsuak bitarikoak ditugu: lexiko formak, fonemez osaturik daudenak, eta gramatika formak, tagmemez (antolaketa ezaugarriak (#10.5) osaturik daudenak. Lexikozko deitura, fonemen arabera adieraz daitezkeen forma guztiak aipatzeko hedatzen badugu, bertan zenbait gramatika ezaugarri dituzten formak ere bildurik (adibidez poor John edo duchess edo ran), orduan lexiko eta gramatika ezaugarrien arteko paralelotasuna ondokoak bezalako deitura multzo baten bidez erakus daiteke:

1. Hizkuntzazko zeinugintzaren ale txikiena eta esanahigabea: fonema;
 - a) lexikozkoa: fonema
 - b) gramatikazkoa: taxema
2. Hizkuntzazko zeinugintzaren ale esanahitsu txikiena: glosema; glosemaren esanahiari noema deritzaio;
 - a) lexikozkoa: morfema; morfemaren esanahia semema da;
 - b) gramatikazkoa: tagmema; tagmemaren esanahia episemema da;
3. Hizkuntzazko zeinugintza alea, soila edo konplexua: hizkuntz forma; hizkuntz formaren esanahiari hizkuntzazko esanahia deritzaio.
 - a) lexikozkoa: lexiko forma; lexiko formaren esanahiari lexiko esanahia deritzaio;
 - b) gramatikazkoa: gramatika forma; gramatika formaren esanahiari gramatika esanahia deritzaio.

Hizkuntz forma oro gramatika formei loturik dago bi aldetatik. Batetik, lexiko formak, berez, abstraktuki harturik ere, gramatika egitura esanahitsua erakusten du. Forma konplexua bada, nolabaiteko sintaxi edo morfologia eraikuntza ageri du (duchess, poor John), eta morfema bada, nolabaiteko morfologia ezaugarriak ager ditzake (aldaturiko morfema, adibidez men edo ran #11.7); aldatugabeko morfeman (man, run), gramatika eraikuntzarik eza tasun ageri legez har genezake. Bestetik, lexiko formak, benetako edozein ahoskalditan, hizkuntz forma jakin bat delarik, gramatika formaren batek edo bestek lagundurik agertu behar du: funtzioaren batean ageri da, eta agerpenari loturiko tasun hauek, osotasunean, lexiko formaren gramatika funtzioa eratzen dute. Lexiko forma perpaus mota jakin batzuetan ageri da, edo, forma lotua bada, batean ere ez; eraikuntzaren leku jakin batzuetan ageri ohi da, edo, tartekaldia bada, gutxitan edo batean ere ez; halako ordezkaketetan ordezkaturako forma izan daiteke, edo, ordezkua bada, halako ordezkaketetako ordezkua dugu. Lexiko formen funtzioak, gramatika formak eratzen laguntzen diguten aukeraketa taxemek eratuak dira. Edonolako funtzio komuna duten lexiko formek forma klase bera osatzen dute.

Lexiko formen funtzioek oso sistema konplexua azaltzen dute. Zenbait funtziori forma kopuru handia dagozkie eta, forma klase nagusiak osatzen dituzte; esaterako, ingelesezko substantibo forma klasea eratzen duten funtzioek (perpaus deigileetan agertzea, egilearen lekua hartzea aditzaren ondoan, aditz osagarri lekua hartzea, preposizioaren ardatz gisa agertzea, jabetzazko adjektiboaren azpiko forma izatea, eta abar) hitz eta esaldi kopuru multzo mugagabea eratzen dute. Funtzio ezberdinek elkargainkako multzoak osa ditzakete; honela, egile lekua betetzea substantiboek eta jokaturagabeko aditz esaldi markatuek komunki duten funtzioa dugu (to scold the boys would be foolish "mutilei errietan egitea lelokeria litzateke"). Bestelako funtzioak, lexiko forma gutxi batzuetara edo bakar batera heda daitezke; honela, way "bide" izena gunetzat duten esaldiak moduzko adizlagun gisa joka dezaketen esapide substantibo bakarrak dirudite, how ordezkua galdetzailearekin (this way "honela (bide honetatik)", the way I do "nik egiten dudan modura (nik egiten dudan bidetik)" eta abar.

Zenbait lexiko formek, klase arrakalaz (#10.14), funtzio konbinaketa ezohiak erakuts ditzakete. Honela, egg "arrautza", ingelesez izen zenbakarria da (the egg "arrautza", ann egg "arrautza bat"), baina izen neurgarri gisa ere ager daiteke (he spilled egg on his necktie "gorbatan arrautza erori zitzaion"). Salt "gatz" izen neurgarria da eta beraz "motak" esanahia duenean bakarrik ager dezake plural forma, baina, klase arrakalaz, bada salts "gatzak" plurala ere (adibidez Epsom salts "Epsom gatzak"), "delako izenaren apurkak dituela" esanahiarekin, oats "olo", grits "areak" eta antzekoekin klase batean. Man ar izena (zenbakarria, pertsonazkoa) da (a man, the man,...he), baina klase-arrakalaz, izen berezi gisa erabil daiteke, God "jainko" izena legez, adibidez man wants but little "gizonak gutxi nahi du", man is a mammal "gizona ugaztuna da". One hitza, klase-arrakala korapilatsu baten ondorioz, bost forma klasetako da: mugatzaile gisa (10.14), singularreko izen zenbakarriak klase honetako laguntzaile baten atzetik agertu behar direlako baldintza bete dezake (one house "etxe bat", one mile "mila bat"); zenbakari arrunt gisa, determinatzaile mugatuekin agertzen da (the one man "gizon bakarra", this one book "liburu bakar hau", my one friend "nire lagun bakarra"); beste laguntzailerik ez denean, anaforaz ordezkutzen du a mugatzailea (Here are some apples; take one "hona zenbait sagar: hartu bat"); "edozein pertsona" balioko izenordain gisa agertzen da, erabilera honetan beti azentugabea delarik, eta one's eta oneself eratorrien azpiko forma dugu hau (one can't help oneself "batek ezin dezake norberaren kontra egin"); azkenik, adjektibo ondoko izenen ordezeko anaforikoa da, eta erabilera honetan plurala sor dezake, ones "batzuk" (the big box and the small one "kutxa handia eta txikia", these boxes and the ones in the kitchen "kutxa hauek eta sukaldean daudenak" #13.5).

14.2. Hizkuntzaren gramatikak, beraz, ohitura (aukeraketa taxema) konplexua biltzen du bere baitan, eta horien bitartez, lexiko forma bakoitza halako zeregin jakin batzuetarako erabil daiteke bakarrik; lexiko forma oro, ohikoa zaion forma klasekoa da. Hizkuntzaren gramatika deskribatzeko, lexiko forma bakoitzaren forma klasea erabaki behar dugu, eta hitzunik forma klase horri egoztera daramatzaten ezaugarriak zeintzuk diren zehazki asmatu.

Galdera honi eman ohi zaion erantzuna, gure eskoletako gramatiketan agertzen da; bertan, klase esanahiaren bitartez itxuratu nahi dira forma klaseak -hots, forma klase hortako lexiko forma guztiek duten esanahi ezaugarri komunaren bidez. Eskolako gramatikak, adibidez, izena "pertsona, leku edo gauza baten deitura" dela diosku. Zehazketa honek gizarteak lor dezakeena baino zientzia eta filosofia ezagutza handiagoa jakintzat hartzen du, eta gainetik, hizkuntzak egin sailkapena zientziari edo filosofiariarekin bat datorrela egiazat ematen du. Baina sua gauza al da? Mendea bada, fisikariek gauzakia ezik, ekintza edo prozesotzat jotzen dutela: ikuspuntu honetatik, erre aditza su izena baino egokiagoa litzateke. Gure hizkuntzak bero adjektiboa, bero izena eta berotu aditza ditu, fisikariek gorputz batean gertatzen den partikula (molekula) mugimendutzat daukaten zerbaitetarako. Era berean, eskolako gramatikak "(pertsona, leku edo gauza) bat baino gehiago" esanahiaren bidetik zehazten du pluraleko izenen klasea, baina nork igarri lezake hortik oats "olo(ak)" plurala dela wheat "gari" singularra delarik? Klase- esanahiek, beste esanahi guztiek legez, ihes egiten diote hizkuntzalariaren zehazte gaitasunari, eta orokorrean, ez datoz teknikoki zehaztutako deiturekin bat. Irizpide formalen araberrako itxuraketaren ordezkari hoberenean adabakika eratu diren esanahi zehaztapenak onartzea zientziaren moldeak ukatzea da.

Klase-esanahiak formekin datozen gramatika esanahien tasun komun nagusien biltzea edo elkarketa direla esan genezake. Klase esanahia itxuratzea, delako forma ageri den inguramenduetako gramatika esanahiak biltzen dituen formula antzeko zerbait aurkitzea

da. Ingelesezko aditz jokatu esapidea (runs "laster egiten du", ran away "ihes egin zuen", is very kind "oso atsegina da", scolded the boys "mutilei errietan egin die", eta abar) eraikuntza bateko leku bakar batean agertzen da, hots, egile ekintza eraikuntzan (John ran away "Jonek ihes egin zuen"). Bakarki erabiltzen denean ere, egilea jakintzat ematen duen perpaus osagarri gisa agertzen da. Bada, egile ekintza eraikuntzaren esanahia, gutxi gora-behera, "A-k B egiten du" legez itxura genezake, A nominatibozko esapidea delarik (John) eta B aditz jokatu esapidea (ran away). Itxuraketa honek leku bien esanahia eskaintzen digu; egile-lekuaren esanahia "B-ren egilea" dugu, eta ekintza lekuarena "A-k egin". Beraz, ingelesezko aditz jokatu esapideak leku honetan bakarrik agertzen direnez, beren klase esanahia lekuarena bera da, "gauzaki batek egin" alegia. Nagusiagoa den aditz klasearen esanahia "ekintza" bezala itxuratzen badugu, ingelesezko aditz jokatu esapideen esanahi-klasea "egileak egindako (ekintz)a" legez itxura genezake.

Forma klase batek betebeharrak bat baino gehiago duenean, bere klase esanahia eratzea zailago da, baina orduan ere, delako forma hori, agertzen den gramatika esanahietatik eratortzen da. Ingelesezko substantibo adierazpenak, adibidez, egile lekuan agertzen dira egile-ekintza eraikuntzan (John ran "Jonek laster egin zuen"), "ekintzaren egilea" esanahiaz. Ekintza-osagarri eraikuntzan osagarri lekuan agertzen dira (hit John "Jon jo"), nolabait "ekintzaren jasalea" esanahia duelarik leku horrek. Harreman-ardatz eraikuntzan, ardatz lekuan agertzen dira (beside John "Jonen ondoan"), demagun "delako harremana gertatzen den gunea" esanahiaz. Eraikuntza morfologikoan ere ager daitezke, jabetzako atzizkiaz (John's "Jonen"), "jabe" esanahia duela leku horretan. Ingelesezko substantibo adierazpenek bete ditzaketen gainerako leku guztiak aipatu gabe, esan genezake forma klase honetako lexiko forma guztiek duten esanahi komuna "ekintzaren egile, jasale, harremana ematen den gunea, gauzakien jabea izan daitekeena" dela. Guzti hau formula laburrago batean bil genezakeen ala ez, gure terminologia ahalmenen araberrako arazoa da; adibidez, eskaintako klase esanahi hau "gauzaki" deituraren bidez bil dezakegu.

Adibideok nahikoa dira, klase esanahiak gure lanaren oinarri bilaka daitezkeen ala zehazkor eta argiak ez direla erakusteko; aitzitik, gure zientziaren arabera zehaztezinezko egoera ezaugarri ilunak ditugu. Ingelesez mintzatzean beren substantiboak ohiko betebeharrarako darabiltzaten lagunek ez dute begiratzen aukeratutako lexiko forma bakoitzak gauzakia adierazten duen ala ez. Forma klaseak, gainerako hizkuntza gertakariak bezala, hizkuntza (hots, gramatika edo lexiko) ezaugarrien bidez zehatz daitezke bakarrik, ez esanahiaren arabera.

14.3. Lexiko forma baten forma klasea, formaren egitura eta osagaien bitartez, edo osagarri berezi baten (markatzailearen) bitartez, forma beraren izaeragatik erabakitzen dute hitzunei (eta ondorioz haxe dugu hizkuntzaren axolazko deskribapena).

(1) Forma konplexua, normalean, bere egitura eta osagaien arabera egokitzen zaio forma klaseari. Esaldi endozentrikoa, adibidez fresh milk "esne berri", bere gunea edo buruaren forma klase berekoa da (10.10). Esaldi exozentrikoak, adibidez in the house "etxean", osagai berezia dauka (gure adibidean in preposizioa), forma klasea erabakitzen duena. Honela, esaldiaren forma klasea oinarritik erabaki ohi da, biltzen dituen hitz bat edo gehiagoren forma klasearen arabera. Honengatik, hitzunei (eta gramatikagileak) ez du esaldi bakoitza bakanki hartu beharrik; hitzen forma klaseak eta sintaxi eraikuntzak ezagutuz gero, ezagunak dira esaldien forma klaseak. Beraz, hitzen forma klaseak guztiz oinarritzakoak dira syntaxirako. Gure eskola gramatikak badaki hori: erabat okerrekoa den bidetik bada ere, hitzen forma klaseak erabakitzen saiatzen da, bereziki horietariko forma klasea nagusiak (hizkera atalak), eta gero esaldiak nola eratzen diren erakusten digu.

(2) Zenbaitetan, esaldiaren betebeharra osagai berezi batek adierazten du, markatzaileak alegia. Adibidez, ingelesez, to preposizioa eta jokatugabeko esapidea biltzen dituen esaldia, markaturiko infinitibozko esaldien forma klase berezikoa dugu, eta beren funtzioa markatugabeko infinitibozko esaldienaz bestelakoa da, egile legez ager baitaitezke (to scold the boys was foolish "mutilei errietan egitea tontakeria zen"), edota izen, aditz eta adjektiboen atributu gisa ere (a chance to go "alde egiteko aukera"; he hopes to go "alde egitea espero du"; glad to go "alde egiteko pozik"). Adjektibo mugatzailek hersketaren bidez bereizten diren esaldiak osatzen dituzte: the fresh milk "esne berria" esaldiak ezin dezake bestelako adjektiborik hartu, fresh milk edo milk esaldien antzera (#10.10). Hedadura murritzua duen forma klase batek halako betebeharrak jakin bat erabakitzen duenean, formok markatzailetzat har ditzakegu. Honela, gure adjektibo mugatzaileak, gure preposizioak, gure lokarri koordinatzaileak, eta gure lokarri menperatzaileak, markatzaile gisa ikus daitezke; forma klase txikiak dira, eta esaldi batean agertzeak esaldi honen forma klaseari buruzko zerbait diosku. Txinera edo tagalogerazko partikulak ditugu bestelako markatzaileen adibide (#10.13).

(3) Azkenik, lexiko formak, ez beren egiturak ez inolako markatzailek adierazten ez duten forma klase batekoak izan daitezke, arbitrarioki edo ereduz kanpo. Adibidez, in case esaldiak, preposizioa gehi izena egitura duen arren, lokarri menperatzaile lana egiten du: In case he isn't there, don't wait for him "bera han ez baldin badago, ez egon bere zain". This way, that way, the other way, the same way esaldiek substantibo egitura daukate, baina how? "nola?" galderazko ordezkia duten aditz laguntzaile azpiklase berezikoak (moduzkoak) bezala erabiltzen dira. Halaber, ingelesezko izen eta izen esaldi asko when? "noiz?" klaseko aditz laguntzailetzat erabili ohi ditugu, bai bakarka eta baita esaldietan ere: Sunday "igande(an)", last winter "aurreko negu(an)", tomorrow morning "bihar goiz(ean)". Ingelesezko hitzen forma klaseak, neurri handi batean, arbitrarioak dira: ez digu ezerk esaten man, boy, lad, son, father arren izenak direnik, edota run, bother "amorratu" aditzak direnik, sad "triste", red "gorri" eta green "berde" adjektiboak direnik, eta abar. Berezik, noski, morfema bakoitzaren forma klasea arbitrarioki erabakitzen da. Hizkuntza baten deskribapen osoak bere funtzio egituraz edo markatzaile baten bidez erabakitzen ez den forma bakoitza zerrendatu behar du; bertan, bada, lexikoia edo morfema zerrenda bilduko da, morfema bakoitzaren forma klasea adieraziz, hala nola ereduz kanpoko jokabidea duten forma konplexuen zerrenda ere.

14.4. Forma klaseek ez dute bata bestea kanporatzen, aitzitik elkarren artean gurutzatzen dira, elkargainkatuz, batzuek besteak biltzen dituztelarik, eta abar. Hala, ingelesez, nominatibozko esapideek (egile lana egiten dutenek), substantiboak eta markaturiko infinitiboak biltzen dituzte (to scold the boys would be foolish). Bestalde, substantiboen artean badira super-bereizketagatik egile lana egin ez dezaketen izenordainak: me, us, him, her, them, whom [akusatibozko formak, osagarri gisa bakarrik erabil daitezkeenak]. Substantibo multzo bat, gerundioena alegia (scolding), infinitibo eta gainerako aditz formekin forma klase batean biltzen da, delako zenbait laguntzailearen buru izan daitekeelako, adibidez osagarria (scolding the boys "mutilei errieta egiten"). Arrazoi honengatik, ingelesa bezalako hizkuntza batean ezin daiteke hizkera-atal sistemarik era egoki batean eraiki: gure hizkera-atalen zerrenda, guri garrantzitsuen begitantzen zaizkigun funtzioen araberkia izango da.

Hala ere, batek sarri bereiz ditzake goikoak bezalako forma klase nagusiak, eta forma-klase txikiak, adibidez foot "oin", goose "antzar", tooth "hagin", edo ox "idi" (ereduz kanpoko plurala dutenak). Lexikoi osoa edo forma klase nagusi bat neurri antzeratsuko forma klaseetan banatzen dituzten forma klase handiak kategoriak deitu ohi dira. Honela, ingelesezko hizkera atalak (substantiboa, aditza, adjektiboa eta abar), geure

hizkuntzako kategoriak ditugu. Gauza bera singularreko eta pluraleko substantiboak, forma klase bi hauek, antzeko neurria izanik, substantiboen klase osoa zatitzen baitute. Orokorki, inflexio formek, paradigma guztietan duten behin eta berrizko agerpenaz, kategoriak osatzen dituzte -adibidez, aditz paradigmatiko formak, aditz jokatuena adostasun formak barne (am: is: are edo was: were), eta, hauek gurutzaturik, aditz jokatuena aldi eta ahalezko formak (he is: he was: he were).

Kategoria guztiak ez dira inflexiozkoak, baina. He ala she izenordainen aukeraketak ar eta eme kategorietan banatzen ditu gure pertsona izenak; hala ere, ez dago ereduazko inflexio edo eratorketarik hauek bereizteko, baizik eta lantzean behineko markatzaile erabilera (count: countess, Paul: Pauline, Albert: Alberta), edo guztiz ereduaketa den eratorketa (duck: drake, goose: gander), edota elkarketa (he-goat, billy-goat, bull-buffalo) eta ordezkaketa (son: daughter, ram: ewe), edo, azkenik, klase arrakala hutsa (a teacher...he; a teacher...she; Francis: Frances).

Berriz ere, kategoria batzuk sintaxizkoak dira, eta ez dira inflexioan agertzen, baizik eta esaldian. Honelakoak ditugu substantibo mugatu eta mugagabeak (a book: the book), edo, gure aditzetan, aspektuak (wrote: was written "idatzi: idazten"), burututasuna (wrote: had written "idatzi (izan) zuen") edo ahotsa (wrote: was written [aktiboa eta pasiboa]).

Hizkuntzaren kategoriak, bereziki morfologia ukitzen duten horiek (book: books, he: she), hain daude hedaturik, ezen bere hizkuntzari buruz pentsatzen jartzen den edozeinek nabarmenduko baititu. Kasu arruntetan, pertsona honek, bere jaiotzetikoa hizkuntza bakarrik dakielarik, edo agian guztiz antzekoa zaion beste bat ere, kategoriok hizkuntza forma unibertsaltzat, edo "giza pentsakeratzat" edo unibertso beratzat hartzeko arriskua dauka. Honexengatik, "logika" edo "metafisikatzat" aurkeztu den asko eta asko, filosofoaren hizkuntzako kategorien berrituratze traketsa baino ez da. Etorkizuneko hizkuntzalariaren lana, hizkuntza askoren kategoriak erkatu eta unibertsalak edo oso hedatuak diren ezaugarriak bereiztea izango da. Honela, badirudi gure substantibozko esapideen antza duen forma klasea, gutxi gora-behera "gauzaki" esanahia duena, ia edonon aurki daitekeela, nahiz eta hizkuntza askotan gure substantibo hizkera atala bezalako klase arbitrarioa ez den, markatzaileen arabera baizik, malaieraz edo txineraz adibidez (#10.13).

14.5. Gure inguruko munduaren ezagutzak hizkuntza kategoria batzuek benetako gauzen klaseekin bat datozela erakutsi lezake. Baliteke, adibidez, gure hizkuntzaz kanpoko mundua, gure hizkuntzako substantibo, aditz, adjektibo, adizlagun eta preposizioekin alden daitezkeen gauzaki, ekintza, ezaugarri, modu, eta harremanez osaturik egotea. Hau honela balitz ere, egia litzateke halere, hizkuntza askok ez dituztela klase horiek bereizten beren hizkera atal sistemetan. Areago dena, oraindik ere ingelesezko hizkera atalak ez genituzke benetako munduaren hainbat aldeetarako korrespondentziaren arabera erabaki beharko, baizik eta ingelesezko sintaxian duten jokabideari begiratuta bakarrik.

Garbi ageri zaigu hau, hizkera-atal sistema landua duten hizkuntzetan beti forma abstraktuak ageri direla dakusagunean; sintaxi leku ezberdinetan erabiltzen diren esanahi lexiko bereko forma paraleloak dauzkate. Honela, run bezalako aditza, edo smooth "leun" bezalako adjektiboa ezin daitezke egile legez erabili, baina baditugu betebeharrak honetarako run "lasterketa" (adibidez the run will warm you up "lasterketak berotuko zaitu") edo smoothness "leuntasun" izen abstraktu formak. Oker ibiliko ginateke, honelako forma abstraktuak idatzera duten gizakien hizkuntzetan bakarrik ematen direla ontzat hartuko bagenu; forma-klase ezberdinak sintaxi leku berezietara murrizten dituzten hizkuntza guztietan agertzen dira.

Hizkuntza kategoriak, bada, ezin daitezke filosofia irizpideen bitartez erabaki; irizpide formalen bidez zehaztu ditugun ondoren, guztiz zaila suerta dakiguke haien esanahia deskribatzea. Hau erakusteko, ezagunen zaizkigun kategorietara begiratzea baino ez daukagu.

Zenbakia, gure singular eta pluraletan ageri den bezala, giza- erantzunbidearen ezaugarri unibertsalen baten hurkoa dirudi; hala ere, oats eta wheat bezalako bikoteetan, edo Epson salts eta table salt bezalakoek ez darakuste, hizkuntzaz kanpo, oinarri handirik.

Ingeleseko genero kategoriak hizkuntzaz kanpo dugun izaera eta sexua nabaritzeko ahalmenetik hurbil daude, baina hemen ere, zenbait animaliak (the bull "zezena" ...he edo it) eta beste gauzakik ere (the good ship "itsasontzi ona" ...she edo it), tratamendu bitxiak jasaten dituzte. Indoeuropar hizkuntza gehienetako genero-kategoriak, hala nola frantsesezko biak edo alemanierazko hiruak (#10.7), ez datoz benetako munduko ezerekin bat, eta honela gertazen da beste klase askorekin ere. Algonkiar hizkuntzetan, pertsona eta animalia guztiak kategoria batean bildurik daude, genero "biziduna", baina kategoria honek beste gauzaki azko biltzen ditu ere, adibidez "masusta", "te-ontzi" eta "belaun"; beste gauzaki guztiak ("marrubi", "katilu", "okondo" barne), beste genero "bizigabea" biltzen dira. Hizkuntza bantuetako zenbaitek honelako hogeit bat klase bereizten dituzte; zenbaki bereizkuntzak, halere, genero sailkapenarekin bat eginik daude.

Kasu kategoriek, ingeleseko bietatik (he: him), finerazko hogeit ingurura ibil daitezkeelarik, benetako munduko egoerak islatzen dituzte nolabait, baina sekula ez era tinko batean. Honela, alemanieraz, aditzaren osagarriak akusatibo kasua darama, adibidez er bat mich "(zerbait) eskatu zidan", baina zenbait aditzek datiboa ageri dute esterako er danke mir "eskerrak eman zizkidan"; erka bedi #10.8 ataleko latinezko adibidearekin.

Aldi kategoriek badute arrazionalitate itxurarik, batez ere latina bezalako hizkuntza batean, non oraina (cantat "kantatzen du"), lehena (canta-vit "kantatzen zuen") eta etorkizuna (canta-bit "kantatuko du") bereizten baitira; baina hemen ere, kategoria hauek hizkuntzaz kanpoko azterketarekin bat ez datozela ikus genezake errazki: latinez, ingelesez bezala, "orainaldi historikoa" erabili ohi da iraganeko gertakarietzat, eta latinezko aldi-formen esanahiak denbora erlatiboaz gaineko irizpideekin nahasirik daude.

Ingeleseko aspektu kategoriek, batetik ekintza "puntuala" (gramatikalarik batzuek "perfektiboa" edo "burutua" deritzena), osotasunean ikuskatzen dena (he wrote the letter "gutuna idatzi zuen") eta bestetik ekintza "iraunkorra" (batzuek "inperfektibo" edo "burutugabe" deritzena), beste hainbat gauza gerta daitezkeen denboraldian zehar gertatzen dena (he was writting a letter "gutuna idazten ari zen"), bereizten dituzte. Bereizkuntza hau gutiz zaila da benetako munduan zehazterakoan, eta ingelesez lekutze nabarmenak jasaten ditu; aditz batzuek, adibidez, era puntuala hartzeko joera argia dute (I think he is here "hemen dagoela uste dut"; he is funny "barregarria da"), eta eraikuntza edo esanahi berezietan bakarrik izan daitezke iraunkor (I am thinking of him "berataz pentsatzen ari naiz"; he is being funny "barregarri jokatzeko ari da"). Errusieraz, ingelesezko aspektuen antzekoak dituelarik, zenbait aditz, adibidez "jan" eta "edan", aspektu iraunkorrean ageri ohi dira bereziki.

Ingelesez agertzen ez den aditz kategoria arrunt bat osterakaria da, zeinak behin jazotako gertakaria, osterakaria eta osterakaria jazotzen denetik bereizten baitu, adibidez errusieraz, [on be'fal do'moj] "etxera laster egin zuen" (behin batean), eta [on 'begal do'moj] "etxera laster egiten zuen" (behin eta berriz, egunero esaterako)¹².

Perfektutasunak, ondorio garaikideak dituen ekintza burutua eta ekintza burutugabe garaikidea aldentzen ditu: he writes "idazten du", eta he has written "idatzi du"; he is writing "idazten dihardu" eta he has been writing "idazten ihardun du"; he wrote "idatzi zuen" eta he had written "idatzi izan zuen"; he was writing "idazten ziharduen" eta he had been writing "idazten ihardun zuen". Ezberdintasuna ezin daiteke ia egoera praktikoen bitartez zehaztu, eta hainbat hizkuntzatan banaketa ezberdinak dauzkate.

Ingelesak ahalkera asko ditu, ekintza batekiko hurbilketa aukerak ekintzaren benetako gertaeratik bereziaz. Morfologikoki, ingelesak "benetakoa" (he is here "hemen dago") eta "balizkoa" (if he were here "hemen balego") bereizten ditu; sintaxi aldetik, ingelesak sail osoa bereizten du, to gabeko infinitiboez jarraitzen diren ereduz kanpoko aditz ("laguntzaile") bitxi batzuen bitartez: he will write, shall write "idatziko du", can write "idatz dezake", must write "idatzi behar du", may write "idatz lezake". Konbinaketa hauetan forma jokatugabeak puntuala izateko joera nabaria duela ikus dezakegu, lantzean behin bakarrik iraunkorra (I shall be writing "idazten egongo naiz"); errusieraz, etorkizunaldiak, gure shall eta will esaldien kideko egokia delarik, aspektuak bereizten ditu, orain eta lehen aldian bezalaxe. Ahalkera ezberdinen erabilera, hizkuntza askotan, sintaxi kokapen eta komunztadura bereizketei loturik dator. Ingelesezt, esaterako, balizkoa, if edo though hitzek aurkezturiko perpausetan edo esaldi ahalkera formekin konbinaketan ager daitezke bakarrik (he would help us "lagunduko liezaguke", he will help us "lagunduko digu" esaldiaren balizkoa). Antzeko korapiloak agertzen dira beste hizkuntzatan, ahalkeraren erabileran, esaterako frantsesezt, je pense qu'il vient "badatorrela uste dut", menpeko perpausoko aditza "indikativoko" (benetako) ahalkeran, baina je ne pense pas qu'il vienne "ez dut uste datorrenik", menpeko perpausoko aditza "subjuntiboko" (balizko) ahalkeran.

14.6. #14.3 atalean ikusi dugu, forma batzuen betebeharra beren osagaiek edo beren eraikuntzak erabakia dela. Honela erabakitako funtzioari ereduazkoa deritzaio, eta honela erabakitzen ez den funtzioari eredugabea deritzaio. Honela, fox "azeri" eta ox "idi" hitzak singularreko izen arruntak direla badakigu, pertsonaz bestelako eta ar generoen artean kulunkari, orduan fox hitzak foxes forma sortzeko, pluralezko [-ez] atzizkiarekin konbinatzeko ereduazko funtzioa duela esan genezake (betebehar hau berau singularreko izen kopuru mugagabe batekin batera duenez gerozt); baina ox hitzak [-n] pluraleko atzizkiarekin konbinatzeko eredugabeko funtzioa dauka. Hizkuntzalariek ereduazko eta eredugabeko deiturak formei beraiei ezarri ohi dizkiete, adibidez fox izena ereduazkoa eta ox izena eredugabea direla esanik; noski, deitura horiek egoki egiten dituen funtzioa zehaztu behar dugu, bestelakoetan fox eta ox izenak arras antzeko baitira. Deitura hauen beste adiera batean, hizkuntzalariek funtziook ageri diren ondorio formetarako ere erabiltzen dituzte, foxes pluraleko forma ereduazkoa eta oxen eredugabea direla esanaz.

Hiztunak delako forma bat ereduazko funtzioan erabil dezake, ondoriozko forma sekula entzun ez badu ere: foxes bezalako forma ahoska dezake, adibidez, delako plural jakin hau sekula ez entzun arren. Eredugabeko funtzioko forma, funtzio horretan entzun badu erabil dezake bakarrik: oxen forma, inguruko hiztunengandik entzun duten hiztunek esan dezakete bakarrik. Hizkuntzaren deskribapenean, bada, ereduazko funtzioak forma klase osoetarako itxuratzen dira, osotasunean: ingelesezko pluraleko izenen eraketa adieraz genezake hizkuntzako plural guztiak zerrendan jartzeko ahaleginik egin gabe. Eredugabeko funtzioek, aldiz, klaseko forma guztiak zerrendan jartzera behartzen gaitu: ox izenak pluralean -en hartzen duela aipatu behar dugu, eta foot "oin", tooth "hagin", goose "antzar" hitzek pluralean [ij] ordezkaketa jasaten dutela, eta abar.

Bereizkuntza honi ekiten badiogu, hiztunak aurretik entzun gabe ahoska dezakeen forma bere zuzeneko eraketan ereduazkoa dela esan genezake, eta bere osagaien ereduazko funtzioez osatzen dela, eta hiztunak besteengandik entzun ondoren bakarrik

ahoska dezakeen forma eredugabea dela. Zehazki hitz eginik, bada, hizkuntzako morfema oro eredugabea da, beste norbaitek erabiltzean entzun ondoren bakarrik ahoska baitezake hiztunak, eta hizkuntza deskribapen baten irakurleak zerrendan aurkeztu bazaio bakarrik jakin dezake existitzen dela. Lexikoia, izan ere, gramatikaren adabakia da, oinarritzko eredugabetasunen zerrenda. Begi bistako egiten zaigu hau esanahiak kontuan hartzean, morfema bakoitzaren esanahia, ohitura arbitrario baten bitartez baitagokio morfemari. Ingelesa bezalako hizkuntzan, non morfema bakoitzari gramatika klase bat arbitrarioki baitagokio, ezaugarri hau bera ere eredugabetasuna da: pin "orratz" izena dela, spin "irauli" aditza, thin "argal" adjektiboa, in preposizioa, eta abar, hiztunak esperientziaren bidez ikasi eta deskribatzaileak banan banan adierazi behar ditu. Zeregin hau lexikoari ezarri ohi zaio; gramatikak hizkuntzaren morfema guztietan azaltzen ez diren eredugabetasunak aurkeztu ditu bakarrik, eta ereduzko edo eredugabeko deiturak gramatikan ageri diren ezaugarrietarako bakarrik erabili ohi dira. Murritzapen hau egiten badugu, begi bistakoa da hizkera forma gehienak eredugabeak direla, osagaiak eta gramatika ereduaz azaltzen duen hiztunak lehenago inoiz entzun gabe ere ahoska ditzakeen aldetik; areago, ikuskatzaileak ezin dezake horiek zerrendatzeko itxaropenik izan, konbinaketa aukerak ia amaigabeak baitira. Adibidez, ingelesezko nominatibozko esapide eta aditz jokatu esapideen klaseak hain dira zabal, non egile-ekintza konbinaketa asko -adibidez a red headed plumber bought five oranges "iturgin ilegorri batek bost laranja erosi zituen"- lehenago inoiz ahoskatuak ez izana baliteke; era berean, aldiz, ezin gaitezke ziur egon hau egia dela entzun genezakeen edozein ahoskaldirako. Gramatika eredu batek (perpaus mota, eraikuntza, edo ordezkaketa) analogia deitu ohi da. Ereduzko analogiak lehenago entzun ez dituen formak ahoskatzen uzten dio hiztunari; entzun dituen formen analogian ahoskatzen dituela esan ohi dugu.

Eredugabeko analogia, bestalde, hainbat formeara heda daiteke, baina hiztun batek ez du forma berri bat ahoskatuko, entzun dituenen analogian. Adibidez, at least "gutxienez", at most "gehienena", at best "kasurik hoberenean", at worst "kasurik txarrenean", at first "lehenengo batez", at last "azkenik" esaldiak eredu berean eraikitzen dira (at eta -st atzizkidun adjektiboa), baina analogia forma gutxi batzuetara hedatzen da. At all "inola/ezer ere ez" esaldian (non adjektiboak ez baitu -st bukaera eta sandhia eredugabea baita), edo don't forman, analogia bakana aurkitzen dugu. Atomobila erabiltzen hasi zenean, zeinahi hiztunek sor lezakeen automobile-driver "automobil-gidari" elkartua, cab-driver "taxi gidari" eta truck-driver "kamioi gidari" eta abarren analogian; cranberry bezalako elkartua, ordea, bere lehen osagai bitxiarekin, entzun duten hiztunek ahoskatzen dute bakarrik. Esanahiak kontuan hartzen baditugu, gauza bera esan genezake blackbird hitza ohituraz dagokion txoria adierazteko darabilen hiztunaz, elkartuak ohitura arbitrario baten bitartez baitarama bere esanahia, "bele". Charlestonek, hots, "charleston izeneko dantza dantzatzeko duena" bezalako forma bat, dancer "dantzari", waltzer "vals dantzari", two-stepper "two-step dantzari" eta abarren analogian eraikia da; duchess bezalako forma (#8.6) bakarra da. Muga ertzean, -ess atzizkiaren bitartez sortutako femeninoak dauzkagu, orotara ohiko formetara murrizten direnak: poetess, sculptress diogu, baina ez *paintress; lantzean behin, halere, hiztunak analogia heda dezake, profiteeress "merkezale", swindleress "gezurti, tranpazale" formak ahoskatuz. Gure formema errogileek ere (#12.9), badute flexibilitaterik; squunch bezalako forma "behe bustian eginiko txapla hotsa duen urratsa" esanahiaz entzuten badugu, ezin genezake esan hiztunak lehenagotik entzuna zuen ala [skw-] eta [-on|c] errogileen analogia erabiliaz sortu duen, squirt "ebaki", squash "zapaldu" eta crunch "puskatu" adibideetan legez.

Hizkuntzaren ereduak analogiak ordezkaketa ohiturak dira. Demagun, adibidez, hitzun batek ez duela sekula give Annie the orange "eman laranja Aneri" forma entzun, baina ondokoak bezalako forma multzoa entzun edo ahoskatu dituela:

Baby is hungry Poor baby! Baby's orange

"umea gose da" "ume gixajoa!" "umearen laranja"

Papa is hungry Poor Papa! Papa's orange

Bill is hungry Poor Bill! Bill's orange

Annie is hungry Poor Annie Annie's orange

Give baby the orange

"eman laranja umeari"

Give Papa de orange

Give Bill the orange

.....

Orain, Annie izena, baby, Papa eta Bill izenen ordeztaraz erabiltzeko ohitura dauka, eta beraz, egokia den egoeran, Give Annie the orange! "eman Aneri laranja" forma berria ahoskatuko du. Hiztunak forma konplexua ahoskatzen duenean, ezin genezake jakin lehenago entzun duen ala antzeko formen analogian sortu duen. Inguruko formen analogian forma berria ahoskatzea, ezker aldean arrazoi multzo mugagabeki zabala duen proportziozko ekuazioa asmatzea bezalakoa da:

edo

14.7. Hizkuntzaren aberastasuna edo indarra, morfemek eta tagmemek (perpaus motak, eraikuntzak eta ordezkaketak) osatzen dute. Edozein hizkuntzatan, morfema eta tagmemen kopurua milakakoa da. Areago, hizkuntza guztietan, forma konplexu askok, hizkuntzazkoa soilik den deskribapenean lekuri ez izan arren, praktikoki garrantzi handia duten esanahi bereziak dituzte. Hizkuntzalariak, adibidez, ingelesezko blackbird, bluebird, whitefish bezalako elkartuak edo give out "suntsitu", fall out "erori", throw up "bota(ka ibili)" esaldiek esanahi bereziak dituztela dio, baina ezin ditzake esanahiok neurtu, eguneroko bizitzan edozein semema bezain baliagarri diren arren.

Jendartean, hizkuntzaren aberastasuna erabiltzen den hitzen kopuruan datzala uste izaten da, baina zenbaki hau aldakorra da, sarri asko hitzak morfologiako analogiaz sortzen baitira. Adibidez, play "joko", player "jokalari" eta dance zenbatu ditugunez, dancer laugarren hitz bezala zenbatu behar dugu, gainerako glosemarik ez duen arren?. Honela izanez gero, hizkuntza bateko hitz kopurua infinitua dela esan genezake. Shakespearek bere idatzietan 20.000 hitz ezberdin erabili zituela esaten zaigunean, eta Miltonek bere olerkietan 8.000 inguru, etorri gutxiagoko hitz gutxiago erabiltzen dituztela egiaztat hartzen dugu, okerreko bidetik. Zer esanik ez, Shakespeareren genioaren erakusgarri dugu bere lanek biltzen duten hizkuntza zati txiki horretan hainbeste hitz erabili izana; baina pertsonarik isilenak ere urte batean ahoskatzen duenarekin erkaturik, zati hori oso txikia da. Izan ere, ehundaka hitz gutxi batzuk baino besterik erabiltzen ez dituzten laborari, langile eta basatiei buruzko mitoez ez dute inolako oinarririk; batek hitzak neur ditzakeen heinean behintzat (gure hizkuntzakoak bezalako inflexio formak alde batera utzita), hitzun hazi orok, 20.000 eta 30.000 arteko hitz darabiltza gutxi gora-behera; hezia bada -hots, hitz ikasi eta teknikoak baldin badakizki- askoz gehiago darabiltza. Eta guztiok ulertzen ditugu erabiltzen ditugun baino hitz gehiago.

Lexiko eta gramatika formek (morfemek eta tagmemek) hizkuntza batean duten maiztasuna, ahoskaldi arrunten bilketa handiak ditugunean azter daiteke. Horrelako bilketarik ezak, hizkuntzaren azterketa historikoaren oztipoetako bat dugu -hizkuntza

guztietan gertatzen diren aldaketetan eragin handia baitute glosemen maiztasunak ezagutzen dituzten aldaketek.

Lexiko forma gehien maiztasunak aldaketa ugari ezagutzen ditu gaingiroki, egoera jakinen arabera. Litekeena da, adibidez, "ditare" edo "sukalde" bezalako hitz bat hitz jarioaren atal luzeetan behin ere ez agertzea; hala ere, guztiok darabiltzagu forma horiek aukera agertzen denean. Maizen azaltzen diren formak, bestalde, bai lexikozkoak, eta bereziki gramatikazkoak, hizkuntzaren egiturak berak eskatzen ditu behin eta berriz. Egin diren zenbaketak hitzei buruzkoak izan dira. Hitzik arruntenek (the, to, is eta abar) esaten denaren zatirik handiena osatzen dute.

14.8. Hizkuntzetan esan daitezkeen gauzei buruzko galdera praktikoa, kategoria eta hitzen esanahiei buruzko galderekin nahasi ohi da. Hizkuntza batek esaldia erabil lezake besteak hitza erabiltzen duenerako, eta beste batek forma lotua agian. Hizkuntza batek kategoriakoa den esanahia (esaterako, gauzakien pluraltasuna ingelesez), alboko hizkuntzan eragin praktikoa berezietan ager daiteke bakarrik. Denotazioari dagokionez, hizkuntza batean esan daitezkeen edozer, beste batean ere esan daiteke, zalantzarik gabe: ezberdintasuna, formen egitura eta konotazioaren arabera izango da. Hizkuntza batek morfema bakar baten bidez adierazten duenak beste batean beharbada esaldi luzea eskatzen du; hizkuntza batean hitz bakarraz esaten dena, bestean esaldi edo aurrizki gisa ager daiteke. Kategoria bati dagozkionak, hizkuntza batean esanahi atal gisa agertzen dena, egoera jakin batean alferrikakoak izan arren ere, beste hizkuntza batean ez agertzea baliteke. Ingelesez, Pike's Peak is high "Pike's Peak altua da" esan ohi dugu orainaldiko aditz jokatuaz; txineraz edo errusieraz, ez legoke orainaldiko formarik mezu berean.

Harrigarria da nola, esapide forma txikienak, glosemak alegia, hizkuntzarik hizkuntza aldatzen diren. Hau egia da harreman estuak dituzten hizkuntzetan ere. Guk ride esaten dugunerako, alemanierak reiten dio animalien gainean bada, baina fahren beste gidatze motetarako, adibidez automobilena. Guk on esaten dugunerako, alemanierak auf dio, grabitate indarrak laguntzen badu, adibidez "mahai gainean", baina bestelakoetan an, adibidez "paretan". Gure morning hitza, frantsesezko matin bezalakoa da, goiza beste zerbaite gertatzen den epetzat hartzen denean ez bada, adibidez "goiz osoan lo egin nuen", edo "goizean"; honelakoetan, frantsesak matinée eratorria darabil. Errezki zehatz eta sailka daitezkeen gauzek ere, era askotariko tratamenduak jasotzen dituzte hizkuntzetan barrena. Pertsonen arteko harreman biologikoak baino zer zehatzagorik ez da. Hala eta guztiz ere, gure brother eta sister hitzen kideez gaindi, alemanierak badu plural bat Geschwister, sexu biak biltzen dituen, adibidez Wie viele Geschwister haben Sie? "Zenbat neba-arreba dituzu?". Zenbait hizkuntzak generoaz gairik hitz bakarria daukate, tagalogerazko [kapa'tid] bezala; gure brother hitzari, tagalogerazko [kapa 'tid na la'la:ki] esaldia dagokio, non azken hitzak "ar" esan nahi baitu, eta gure sister hitzari, [kapa'tid na ba'ba:ji], "eme" atributuaz. Bestetik, hizkuntza batzuek adin-harremanei begiratzen die: txinerazko ['ko¹ ko¹] "anai zaharra", ['cjun¹ ti⁴] "anai gaztea", ['cje³ |cje³] "ahizpa zaharra", ['mej⁴ mej⁴]. Deitura sorta are landuagoa aurkitzen dugu menominieraz, zeina hobeto azalduko baitugu neba-arreba¹³ hitza aukeratuaz "anai, neba, arreba edo ahizpa" adierazteko. Menominieraz, neneh "anai edo neba zaharra (neska edo mutilarentzat)", nemeeh "ahizpa edo arreba zaharra (neska edo mutilarentzat)", nehseeh "nire neba-arreba gaztea", nekoosemaw "kontrako sexuak nire neba-arreba gaztea" (hots, emakumeak esaten duenean "nire neba", eta gizonezkoak esaten duenean "nire arreba"), neehkah "nire anaia", neetekeh "nire ahizpa". Bestetik, neba-arrebak sexu bitakoak badira, eta ez guztiak hiztuna baino gazteagoak, niitesjanak "neba-arrebak" deitura orokorra erabili ohi da.

Senidetasun deiturak ez dira goiko adibideen erara bakarrik aldentzen, eta batek ezin zehaztuzko egoeratan ere erabiltzen dira. Menominierazko "anai-neba" eta "ahizpa-arreba" deiturak, adibidez, lehengusuetarako ere erabiltzen dira, senide diren gurasoak sexu berekoak badira: gizona neehkah esaten dio bere aitaren anaiaren semeari, eta abar. Areago, deitura hauek, eta beste batzuk ere, heredentzian jasotakoak izan ohi dira: nire aitaren anaiaren semearen semea ere neehkah dut. Ondorioz, esanahia, harreman hauek gogoratuak eta onartuak diren arabera da.

Era berean, landare izenak, adibidez, ez dira erabili ohi botanikalari baten sailkapenarekin kidezeko moduan -tree "zuhaitz", shrub "ondoizko", bush "sasitarte", reed "ihi", grass "belar" eta antzeko hitz zehaztezinak alde batera utzirik ere.

Zenbakien eremuan ere, hizkuntzek aldentze handiak erakusten dituzte. Gure hamarkako zenbaki sistemak (twenty-two "hogeita bi", thirty-five "hogeita hamabost" eta abar) hamabikako sistemaren aztarrenak agertzen ditu (eleven, "hamaika", twelve "hamabi", eta ez *one-teen, *two-teen). Ereduz kanpoko beste adibide batzuk formazkoak dira, adibidez two "bi": twenty "hoge": second "bigarren": half "erdi", edo three "hiru": thirteen "hamahiru", thirty "hogeita hamar", third "hirugarren". Are gehiago, three "hiru", seven "zazpi" eta thirteen "hamahiru" bezalako zenbakien konotazioak, edota dozen "hamabiko", score "hogeiko", gross "hamabi-hamabiko" gehiketa deituren esanahia ezin daiteke matematikoki itxuratu. Danieraz, bada hogeikako nahasia duen sistema. Frantsesez, "hirurogeitik" "hirurogeita hemeretziraino", tarteko hamarkadarako izen berezirik erabili gabe zenbatzen da: seventy, soixante-dix da, "hirurogeita hamar" alegia; seventy-one soixante et onze da, "hirurogeita hamaika", eta abar; eighty quatre-vingt da, "laurogei (lauretan hoge)" alegia, eta gero hoge gehiago zenbatzen dira ehuneraino iritsi arte; honela, bada, ninety-two, quatre-vingt douze da, "laurogeita hamabi". Zenbaki gorenak gutxi erabiltzen dituzten lagunek oso gutxi erabil ditzakete: Kham boskimandarrek zenbaki soilen bitartez "hiruraino" bakarrik zenbatzen dutela esan ohi da, hortik gora "bi eta bi" zenbatuaz, "lau" esateko adibidez, eta abar.

Zientzia azterketapean dauden beste eremuetan ere, honek ez du nahitaez hizkuntzalaritzaren sailkapenerako lanabesik eskaintzen. Kolorea, adibidez, islatu edo zehartutako argi uhinen maiztasunaren arabera kontua da. Ikusten dugun espektroa, maiztasun maila etenik gabea dugu. Hizkuntzek kolore izen ezberdinak darabiltzate (gure red "gorri", orange "laranja", yellow "hori", green "berde", blue "urdin", violet "more" bezalakoak #7.1) maila horretako atal ezberdinetarako. Oso zaila litzaiguke ingelesezko kolore izenen eremuak maila horretako zein puntu zehatzetan hasi eta bukatzen diren erabakitzea. Jendeari, aldaketa xumeak dituzten mailetan erakutsiko bagenizkio koloreak, sendoki yellow edo green deitzen diren tarteen artean, deiturak koloka egiten duen tarterik badela ikusiko genuke. Europako kulturetatik landa joko bagenu, guztiz atonketa ezberdinak aurkituko genituzke.

Gure esanahi gehienetarako ez dugu kanpoko eredu batera jotzeko aukerarik. Giza jokabideari dagozkion hitzak, adibidez "maitasun", "adiskide", "zintzo", "gorroto", etnologia, folklorea eta soziologiaren arabera zehatz litezke, inoiz egun ametsetan ere ikuska ezin dezakegun egokitasun eta ziurtasunik lortuko balute eremu hauek. Hitzunak berak bakarrik nabari ditzakeen gorputz egoerak adierazten dituzten hitzak, hala nola "ondoezik", "larri", "triste", "pozik", "alai", "zoriontsu", pertsona bizidun baten gorputzaren barnean gerta daitekeen guztiaren ezagutza zehatz-mehatza bagenu zehazta litezke bakarrik. Eta hau guztia ez litzateke nahikoa izango, honen ondorio praktikoak ez dituzten hizkuntza esanahietarako, adibidez izenaren genero kategorietarako, edo aditz aspektuetarako. Ez dirudi funtsezko irizpiderik denik, delako izen baten generoa alemanieraz, frantsesez edo latinez aldeztu aurretik erabakitzeko: honelako hizkuntza

batean "maskulino" epistememaren esanahia zehaztea, izen maskulinoen markatzaileak zerrendatu, eta klase honetan arbitrarioki biltzen diren izenen zerrenda egitea, eta, benetako munduan izen guzti hauek batera biltzen dituen, dena dela, genero kategoria maskulinoaren "esanahia" dela esatea litzateke. Gauza bera, ingelesezko aspektu kategoriei dagokienez: wrote eta was writing arteko aldea guztiz irristakorra da, eta erabat aldatzen da aditzez aditz eta esaldiz esaldi; zehazte lanetan diharduenak, arau nagusiak itxuratu ondoren, adibideak darabilen erakusketari ekin behar dio nahitaez.

Oharrak

Zenbait hiztegi:

Ingelesa: NED; Bosworth-Toller; Stratmann; alemaniera: Grimm, Wörterbuch; Benecke-Müller-Zarncke; Lexer; Graff; holandera: Verwijs-Verdam; de Vries-te Winkel; daniera: Dahlerup; suediera: Ordbok; norvegiera zaharra: Cleasby-Vigfusson; Fritzner; errusiera: Blattner; latina: Thesaurus; frantsesa: Hatzfeld-Darmesteter-Thomas; sanskritoa: Böthlingk-Roth; txinera: Giles.

14.5. Ingeleseko aspektuak: Putzma, Characters, Jespersen, Grammar 4.164; Kruisinga, Handbook 2.1.340.

14.7. Erabiltzen diren hitzen kopurua: Jespersen, Language 126; Growth 215.

14.8. Kham boskimandarren zenbatzaileez: F. Müller, Grundriss 4.12; zenbatzailei buruzko bibliografia: A. R. Nykl in Lg 2.165 (1926).